



Bertsio elektroniko honen jatorria: Bizkaiko Foru Aldundia:  
*Idazlan guztiak*, Frai Bartolome Santa Teresa (Julen Urkizaren eta  
Luis Baraiazarraren edizioa), Euskaltzaindia / Bizkaiko Foru Aldundia, 2000.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/F/FraiLelengo.htm>

## **JAUNGOIKUAREN AMAR AGINDUBEETAKO LELENGO BOSTEEN IKASIKIZUNAK**

**Frai Bartolome de Santa Teresa**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,  
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak  
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## **EUSKEERA ERRIJEETAKO ELEISA-GIZONAI**

### **Jaunak**

Zeubeen zeregin altubak ta santubak berez eskatuten dau, nik, guztien artian otseginik txikarreenak, Jaungoikuaren Amar Agindubeetako leleengo zatijaren *Ikasikizunak* zeubeen esku jakituneetara ta bedeinkatu-beetara zuzendutia. Euskeera-Erri guzietan argi egin dau ta egiten dau zeubeen Ebanjelijoko zelo egijazkuak ta irakatsi garbijak. Erri zorijoneko oneek badira txito entzute andikuak, bai Europan ta bai ezaututen dan mu[n]du zabalian eureen jakiturijan, legegintzaan, asmo barrijeetan, alkar zaintzaan, gerragintzaan, sendotasunian, iraunzalian, odol noblian ta berbako izatian, oraindino argijako, ikusgarrijago ta entzunago dira zeruko sinistute zuzenian, ebanjelijo santuko esanian, kristindadeko erakutsi garbijan, Eleisa santiaren eginbiarreen osotasunian, arimeen onerako oitura jakinak ta zeruti jatsijak gordeetan ta izate bakarreko ta iru personagazko Jaungoiko egijazkua, Jesus, geure betiko ditxa ona gaiti gizon egina, onen Ama Birjina guztiz santia ta maitegarrija, aingerubak ta santubak, guztiai ta bakotxari jagokuen ta Eleisa Ama santiak beti erakutsi dabentzat nai presitagaz, zalagaz, humildiagaz, zintzuagaz ta esker onekuagaz ondreetan, serbiduten ta maitetutenean.

Santiago zorijonekuak ta aren ondorengo obispo santubak ordu onian geure leenagoko gurasuai ekarri eutseen zeruko sinistute egijazkua, gaurko egunian gordeetan da Espainako baztar entzun onetan, leleengo sartu zanian baixen sustraitsuba, argitsuba, zuzena, egilia ta bitzija. Euskal-erri jaso oneetan ez dau inos illunaren agintarijak, sinistute gaits-tuaren azija ereinda, pruturik artu. Ez dau geure erri idalgubeetan inos oinik geratu ez judeguk, ez morok, ez herejek, ez Jaungoiko-bagakok,



ezda, entzute oneko askoren eritxi jan, Jaungoiko askodunek bere. munduko baztar gitxik kontauko dabee ainbeste giza alditan illun une bagarik, lausotu bagarik, naastau bagarik, beti ziatz, beti zintzoro, beti pirme, beti bardin ta beti garbiro gorde dabeela Jaungoiko bakarraren sinistute ta ondra egijazkua. Nori zor deutsa, bada, euskaldunak, zerubaz ostian, bardin bagako ditxa Santa au kura jaunai ta eleisa-gizonai baino? Zeubek, Jaungoikuaren ureengo luurreko otseginak zaintu, gorde ta jasoten dozu kristandadeko eginbiar grazijazkua euskal-errijeetan. Zeubek Jaungoikuaren berbiagaz janarija emoten deutsazu Jesukristoren ardi aldra oni. Zeubek erakusten deutsazu Jaungoikuari, lagunari ta norberari zor deutsana. Zeubek alderatutenean dozu otso deungeetati. Zeubek osatutenean dozu gaixotutenean dana. Irakoiten dozu jausten dana. Billatutenean dozu galdueren dana. Sendotutenean dozu argaldutenean dana. Aurreratutenean dozu zutunik daguana. Ta karidadiaren orijuagaz igortzita, biztuta, poztuta, kansau bagarik lagunduta, presteetan dituzu guztiak arimaak, zeruko etxe santuban beti ditxoso izateko.

Nire pozik andijeena izango litzaateke, jaunak, zeubeen eginbiar altuan, jaungoikozkuantza pisutsuan zelanbit lagundutia. Ikasikizun oneetan ezagun da nire opa ona. Uste dot oni geijago begiratuko deutsazula eureen paltai baino. Onegaz artuko dau neurri bagako atsegina zeubeen kapillau humilde ta prestu Frai Bartolome Santa Teresa, Karmelita Ortotzak.

## IRAKURLIARI

Ikusirik, irakurlia, zariana zariala, ez daukazula zeure euskeeran pulpituan esateko zer irakurrik entero gitxi baino, gogoratu jatan, kristinaubaren ERAKUTSIKO lau zatijak pulpiti esateko edo predikeetako Ikasikizuneetan imini biar nitubala. Adiskide askok aurreratu nabee sail oni ekitera. Esaten ebeen, txito asmo ona zala. Ta onera jakinekua euskal errijetako kura jaun ta eleisa-gizonentzat. Neuk bere (sinistu daizezu, irakurlia, baderitzazu) ondo neritxon egitiari, al izan ezkero. Bainan zeimbata geijago asmaubago sail onetan, ainbat gatzago ta aldatsago begitanduten jatan. Kristandadeko erakutsijaren lau zatijak pulpiti esateko edo predikeetako duinaan, tertziyo baten, ikasikizuneetan edo platikeetan edo sermoetan imintia, egijja esateko, ene alizatia baino lan andijagua da. Eurak zerbait alkari iraatsi arren, argitara ateratiak zeregin dauka. Asko kastau biar da. Ta menturaz gitxi edo bat bere ez saldu. Ikasikizunak eurak alan alanguak. Ez, urrineti bere, biar leukeenak. Euskeeran liburu egitia, markeetia edo ondo letratutia, asko kostata bere, sarri uts egin. Salduteko merkatari gitxi. Euskal Errjak kanpo laburrak. Euskeria ez dakit zelakua. Ta liburu bakotxa popuertza goria. Aldats oneek guztiok era batera datozen neure burura, neure asmuaren sailari jarraituteko.

Alan bere, asi bagarik ezer egiten ez dala sinistuta, jarri nas Jaungoikuaren amar agindubeeen leleengo zatija edo partia ogeta sei ikasikizunetan argitara ateratera. Au aintzat artutenean badozu, irakurlaak, laster aterako da bigarren zatija. Baita aren ondorik *sakramentubak, kredua ta aita geuria* bere. Baita gero (zerubak lagundutenean badeust) Jesukristoren ta Ama Birjinaren grazijazko jazuen ondrarako, santubeen ondo esanerako ta ariameen oitura onerako *sermoiak* bere. Oneen guztiak biarrik gatxeara egingo dauerak neure moduban. Baneki zeubeen gogoko izango litzaatekezana, ez nintzateke luzaro geldi egongo. Zati onen azkenian imini dot sermoe bat, euki dagizun, irakurlaak, beste aterako nitukianen ezagun garritzat. Sermoe guztiz orraztu baten zatijak ta zatijen zatijak ez badaukaz bere, izate oin onekua, iturako sailaren zuzentasuna, errazoiaren indarra ta erakutsi elduba ez ditu palta. Zerbait luze badago, a laburrago ateraten errazago da.

Ikasikizunak berarijaz imini ditut laburtxubak. Domeeka guztietaen esan edo predikeetan diriala, luze baino laburtxubago oba. Gogo prestaguagaz esan, pozaagorik entzun ta erraztuago ikasi. Alan esaten deutsee



kura jaunai Balero, Toledo artzobispo jakitun, zelotsubak: Ez ditezala entero luziak izan eureen *platikaak* edo ikasikizunak. Oneek daukeen ornidurijan, esan eraan ta erakutsijan, oba balitz, erraz luzatuko nituke bestiak. Osterantzian, palta asko daukeena neuk dakust. Beste edozeinek geijago topauko deutseez. Ta errazoiagaz. Uste badozu, irakurlaak, berba gitxigaz ta eurak ondo tolutztua, Eskritura Sagraduko loraz apainduta, Eleisako Gurasuen ta batzaurren esanez edertuta, jazo jakineen grazijaz gozatuta, errazoe argijakin sendotuta, kanpo andiko erakutsijak ta erabagijak esan biar diriala ikasikizun labur bakotxian, nik ezin negi. Ordu lauren ta erdi edo ordu erdi buruti daukan ikasikizuna, atan asi ezkerro, guztia juat niri ezer erakutsi baga rik. Beste palta txikarraguak, nai esan moduban, nai eureen ornidurijan, edozeini entzungo neuskijoz esker onagaz. Baita eria datorrela, bestiak obatuteko arduria artu bere.

Berbeetia imini dot neure errukia; dakidana. Euskeerako guztietati apaindubeena, ederrenea ta eztitsubeena izan ez arren, izan leiteke, euskaldunen baztar batetik bestera etxe guztietan dei eginda, iragota, zer nai dabentzuen onduen zaarraia ta gaztai aituko deutseena ta adierazoko deutseena. Alan uste dot. Ta jazo jat Naparruan, Kiputzetan ta Bizkaijan, eldu nasan lekubeean.

Esan batzuk imini ditut gogo bagarik, geure euskerako berbeeta nausi, maite, zaar, gaztetu, gozo, prestu, ugarira geure erruz, erbesteti etorrijak. Euskeria berez aberatsa da, bagenki ondo. Geuk eleisa gizonok berba askotan naastau ta ezaindu dogu euskeria. Geuri entzunda dakijeez baseerrijetakuak *Jaungoiko omnipotentia, poderosua... Birjina klementisimia... miserikordiosia... mandamentubak... absolvizinoia... doloria... errestituzinoia...* ta beste onako berba euskalgaistoko asko. Erdeera ez dakijeen euskaldunak, eureen etxeetan ta artu emoneetan biar dabee guztia, esaten dabee euskeera garbijan. Kristinatzako ikasijan dira euskaldun gaistuak. Ez da au euskeeriaren erruba, ezbada geuria. Ta, ain daukeez ya artubak erdeera edo latin berba batzuk, eze eurakin ez bada, aituten ez dabee ondo dotirnia edo kristinatzako erakutsija. Onen bildurra arren, imini ditut erbeste berba batzuk ikasikizuneetan. Bada, kristinatzako erakutsijan zuzen aituten emotia leenago da berbeetan erakustia baino. Aleginaz ta deritxadanetz, gitxitu ditut asko. Ta geijago gitxitu gura mituke, asmau dodan saila amaitu orduko. Oituko bagina geu, eleisa-gizonok, Larramendi, Kardaberaz, Mendiburu, Mogel ta beste euskaldun garbijak irakurterea ta areen erara geure siniskizunak ta egikizunak berbeeta garbijan pulpituan ta ostian kristinaubai erakusteria, arin erbestetuko litzaatekez geure euskeera maitia ta aberatsa ezaindu ta lotsatuen dabee urrin errijetako

berba banakaak. Astarloa bat, Erbas bat, Erro bat ta beste jakitun asko jagi ez balira geure euskeera jausija irakoitera, uste dot, geuk galduko geuntsala laster bere ontasun ta edertasun guztia.

Egija da, Jesukristo, geure Jaunagan sinistutia ta ari darraikon guztia dan legez txito barrija euskeriagazko, geure kristinatzako gauza barri askoren izenak bere barrijak dira. Ta areetati ez gitxi kristandadiagaz beragaz urrin errijeetati etorrijak. Onetariko ya izen artubak, *bautismua... konfirmazioa... penitencia...* gere euskeera garbira aldatutia ondo litzaatekian edo ez, Jakitunak esango dabee. Ez da ain biar gatxa euskeera garbiko ize-neetan imintia. Ta onenbestegaz, irakurlia, aintzat artuten banozu, zeure adiskidetzat neure buruba ezaututa, eskintzen deutsut bijotz prestubagaz. Ta egiten deutsut: Agur.



## JAUNGOIKUAREN LEGEKO AMAR AGINDUBEEN ASIERAKO LELENGO IKASIKIZUNA

*zeinetan erakusten dan  
dotrinia ikasteko daguan preminia.*

Munduba galdua daguana ta ya inok iraun ezin dabena, Eskritura Sagradubak leku askotan esango ez baleutsku bere, geuk sarritan esaten dogun gauzia da, neure entzula onak. Geuk esaten dogu, kasik isildu bagarik: kristinaubeen artian daguala pede txaarra, konpifiantza gitxi, kodizja asko, malezija andija, munduko gauzeen amodijo itsuba, inoren ondasuneen enbidija, alkar ikusi ezina, arrotasunezko buru eritxija, banidadia, okasinoe prestubezak, entzute komunak, deungaro esate asko, neurri bagako desonestidadia, pekatubaren bildurrik eza ta konzienzia arinonak. Gatz oneek eta geijago kristinaubeen artian ugari dagozana, guztiok autor doguna da. Ya esan ginai Dabid erregiagaz, jente guztiak bide zuzenetati alde egin dabeela ta ondo egin gura dabeniak, inor ez daguala. Edo san Juan Ebanjelistagaz, mundu guztia malezijaren ta gatzaren artian imimita daguala.

Oh, zeinbat estimauko litzaatekian gatz oneek erremedijeetia! Ta menturaz ez da askok uste dabentzat zeregin gatxa, munduba erremedijeetia. Bakotxak beretzat ona dan moduban, edola bere erremedijau legi. Baña onetarako ezautu biar dau kristinaubak leleengo, zegaiti daukan edo zetati jatorkon mundubari ain etxura ezaiña ta errukarrija. Ta au da dotrina onetan lelengo erakutsiko dana. Ta bigarrenian, zelan erremedijau lejian bakotxak, berari jagokana.

### I.

Exodoko liburuban Espiritu Santubak erakusten dabela, esan legi, munduko gatzak luzaro irauteko asipen bat. Irugarren eta laugarraren belauneragino, dino Jaungoikuak, bisitauko ditubala edo kastigauko ditubala, gurasuak umeen kontra egiten ditubeen pekatubak. Gurasuak umeen kontra egiten ditubeen pekatubetati andijkeena dala deritxat, neure

entzula onak, guztiz engañetan ez banas, umiak deungaro aztia. Seme alabaak lotsa txaarragaz, libertade osuagaz, banidade andijagaz, doctrina on bagarik ta Jaungoikuaren bildur santuba bagarik mundubarentzat ta munduko aixe paltsuarentzat aztia da, guraso batek Jaungoikuaren aurrian eukiko dabentzat zetaraginaz. Ta guraso asko dirian legez gauza onetan txito ardura bagakuak, ara emen zelan daguan beti oinian, Jaungoikuak ainbeste gorroto deutsan pekatuba. Ta onetariko pekatubak beti dirau-been legez, Jaungoikuaren kastigubak bere badirau geure kontra. Izan leiteke, bada, gurasuak seme alabaak kristinau egijazko baten moduban ta Jaungoikuaren bildur santurban azten ez ditubeen artian, mundubak daukan baixen etxura ezaina ta galdua eukitia. Ara emen mundoko gatxeen asiera bat.

Oraindiño esan legi Jeremias propeta santubagaz, pensamentu on baten paltiak daukala munduba galdua. Bakotxak bere artian ondo pensauko balitu gauzaak, erremedijauta legokiala munduba. Egijja esateko, gizon eta emakume guztiak pensauko balebee ondo ta sarri zer dirian, zetati dirian, nor gaiti dirian zetaragino dirian ta zetan azkenian geratuko dirian, ez leukee egiten dabeen beste zaata munduban egingo. Ta ez leukee, emoten dabeen beste penagarri, zeregin ta zeresan emongo. Pensamentu on baten paltia gaiti uts egiten ditugu bide zuzenak, aaztutenean gara Jaungoikuagaz ta geroko egijeekin ta iminten dogu geure bijotzeko gogua, amodijua ta desia luurreko gauzeetan. Ta ara emen beste sustrai bat, munduko jentia beti naastauta, okertuta, sosigu bagarik ta alkarragaz bat egin bagarik (zer egiten dabeen ta nora duazan ez dakijeen inurri aldرا bat legez) bitzi izateko pratu ugarija emoten dabena. Bai, kristinaubak, seme alabeen aziera txaarra ta geu zer garian ondo ez penseetia dira asiera bi, zeintzubek eukiko dabeen munduba daguan baixen itxura galduka, erremedijeetan ez dirian artian.

Baña oraindiño beste gauza bat deritxat, neure entzula onak, dala munduko bake txaarrari, bitzi izateko nekiari, arimako larrijari, ilteko peniari, konzienzijako nasaitasunari, pekatuko ekandubari ta bijotzeko nai bagiari ta sosigurik ezari lekurik geijeen emoten deutsana. Au da kristinau izaten ez jakitia. Kristinau asko dagoz; baina ez dakijee geijeenak zer dan kristinau izatia. Ez dakijeez naturalezia, errazoiak eta Jaungoikuak imimi deutseezan eginbiarrak ta agindubak. Ez dakijeezan artian, ezin legijeez. Ta bakotxak bere eginbiarrari erantzuten ez deutsan artian, munduba leengo bestian egongo da, edo geruago baino geruago txaarrago izango da. Alperrik da uste ona, gogo ona ta desio ona eukitia. Ez dakijanak, deskuiduan baino azertau ezin legi. Ta gaurko egunian kasurik gitzien egiten



jakon gauzia da, kristinaubaren eginbiarrak ikastia. Mundubaren usadijo paltsuak eta lege zorigestokuak zortzi amar urteko umiak bere bakijeez. Baña kristinaubaren zereginak edo eginbiarrak, eskolau anditzat eureen burubak daukeezanak bere, askok ez. Ez dau inok kansau gura, Jaungoikuari, proximuarri ta bere burubari zer zor deutsan jakiten. Ez dau inok dendetako gura, Jaungoikuak geu gaiti zer egin dabentzat egiten dabentzat gauri zer agindutzen deustzun ikasten.

Berba baten, neure kristinaubak, ez dau inok ardurarik imintzen, dotrinia biar dan moduban ikasteko. Doktrinia biar dan moduban ez dakinjanak, Jaungoikuak serbidu ezin legi. Jaungoikuak serbiduten ez dan artian, munduba leen daguan baixen ezaina, okerra, naastauba ta deungia egongo da. Jaungoikuak serbiduten ez dogun artian, geure bizitzaak izango dira penazkuak, atsekabazkuak, estubak, gusto bagakuak, sosigu bagakuak, sugia legez, luurreko gauzeetan tatarraska ta arrastaka beti dabiltsanak. Jaungoikuak serbiduten ez dogun artian, geure arimaak egongo dira pekatuz naastauta, illunduta, loitura diabrubaren aginduban; geure erijotzia izango da estuba, larrija ta ikaragarrija; ta geure betiko azken azken bagakuak inpernuko suba. Au da dotriniaren paltiak kristinaubari ekartzen deutsan prutu mingotxa. Au guztia Espiritu Santubak sarritan predikeetan deutsku. Ta esaten azartutzen nas, dotrina onaren paltia dala geure arimaako ta gorputzeko gatzik andijeenak dakazana.

## II.

Erremedijau legiz bada, kristinaubak, gatz oneek, noberak nai izan ezkero. Baña zelan? Dotrinia ondo ikasijagaz. Onetarako Jaungoikuak beti erakutsi deusku, geure adilia edo entendimentuba berez laburra dana, zeruko misterijuak ezaututeko. Beraren anditasuna etorri da zeruti luurrera, geuri zeruko bidiak erakusteria. Adan leleengo geure gurasuari Jaungoikuak berak erakutsi eutsan beti ditxoso izateko asko eban dotrina. Naturaleziaren legian Jaungoikuak erakutsi eutseezan patriarka santubai, geuk orain entzuten ditugun ta sinistuten ditugun pedeko misterijuak, jazo baño askozaz leenago. Moisen legiak iraun eban artian, denporarik denporara bialdutzen eutseezan Jaungoikuak israeltarrai propeta santubak, bere legia ta dotrinia erakusteria. Jaungoikuaren Seme bizia mundura etorrera Ama Birjinaren sabel garbijan gizon egin zan, ogeta amairu urtian geure artian bitzi izan zan ta kurutze baten josita il zan. Ta zer egin eban munduban? Bere gauza guztiz andijen artian bat izan zan, gizon eta

emakume guztiai zer sinistu biar dabeen, zer eskatu biar dabeen, zer egin biar dabeen ta zer erreuibidu biar dabeen erakustia. Apostolubeen, obispo ta sazerdote jauneen zereginetati andijean bat edo bakarra da, kristinu piel guztiai dotrina egijazkua ta zerurako bide zuzena erakustia. Esan legi, Eskritura Sagradubari ta Eleiza Ama santiaren espiritubari begiratu ezkerro, eleisa-gizoneen zereginik andijearria dala, kristinaubai dotrinia era-kustia. Lekuban lekuban berba gogorrakin zamaitutzen gaitu Jaungoikuak ta pena andijakin Eleisiak, gauza onetan sazerdotiok daukagun ardura txikiak. Zegaitu au guztiau? Ez beste gauza gaiti, ezbada txito gauza agirija ta ezaguna dalako doktriniaren paltiak dakazan negargarrijak, bai arimarako ta bai gorputzerako. Orregaiti ene Erlujinoe sagraduba, Jaungoikuaren ta Eleisa Ama santiaren espiritubari jarraituta, ez da aspertutzen orazinoiagaz, penitenzijagaz ta beste piedade ta karidadezko obra onakin kristindadiari lagundubagaz. Ezaututzen dau, dotrina onaren paltia dala munduko gatz askoren sustrai indartsuera ta trabaju askogaz baino erremedijietan ez dana. Ta alegin guztiai lagunduteko kristinu pielai ta kura jau-nai premina andiko gauza onetan agindutzen dau, desiertubak itxita, beste geure erlijinoeko konbentu guztietan predikeetako pulpiti dotrinia domeeka arra[t]salde bakotxian ordu erdian.

Gauza jakina da, kristinaubak, dotrinia ondo dakijanak daukala Jaungoikuaren ezaubera geijago. Ta zeinbat Jaungoikuaren ezaubera geijago daukan kristinaubak, ainbat urrinago dago pekatubetati ta konde-neetako bideti. Bada, jakin ezkerro ondo Jaungoikuak geu gaiti egin ditu ban amodijozko gauzaak; Jaungoikuak geugaz daukan ontasuna, pinezia ta pazienzia neurri bagakua; geuri zeruko erreinuba emoteko daukan desio bitzija; Jesus geure Salbadore maitiak bere jaijotzaan, bitzi[t]zaan, pasinoian ta erijotzaan ta endamas altarako sakramentu santuban erakus-ten deustzun biguntasuna, humildadria ta karino laarregija; jakin ezkerro kristinaubak bere argaltasuna, miseria ta ezer eza; berba egingo badau, pausu egingo badau ta arnasa artuko badau, popuertza Jaungoikuaren grazija ta sokorruba biar dabena; erremedijo bagarik ill biarko dabena; eri-jotza estuban bere bitzi guzikoa pensamentu, berba ta egin guztien kontu zuzena ta gogorra artuko deutseena; oneentzat zeruba ta deungeentzat inpernuba daguana; dinot, neure entzula onak, kristinaubak jakin ezkerro ta pensau ezkerro ondo egijia oneek, nos azartuko litzateke pekkatu egiten, bertan illgo dan edo ez, ez dakijala?

Onezaz ostian dotrinia biar dan moduban ez dakijana, beti dago pekatu mortalian. Nai izan arren, ondo konpresa ezin leiteke, zelan ez dakijalako. Inok asolbidu bere ezin legi ta salbau bere ezin leiteke.



Dotrinia ondo ez dakianak pekatu egitia zer dan ez daki. Bera da leleengo pekatuban jausten dana ta nekezeen jagiten dana, edo sekula jagiten ez dana. Bada, ez daki pekatubaren ezaintasuna, pekatubaren kaltia, Jaungoikuari egin deutsan injurija ta pekatutti jagiteko biar daben prestaeria. Dotriñaren paltaz dira konpesinoe paltsuetati geijeenak. Dotriñaren paltaz dagoz kristinaubak engainauta, itsututa, zerura zuzen duazalakuan, inpernurako bideti pausu bat bere uts egiten ez dabeela.

Ta ez dauka inok zetan pensau, kristinaubak bakijela salbeetako duina dotrina. Geijeen dakijenari bapere sobreeta ez jako. Ta palta dabeenak gejago dira, ondo dakijenak baino. *Aita geuria, abemaria, credua, mandamentubak, ni pekatarria, salbia, neure Jesukristo Jauna, sakramentubak* eta beste onako umetan buruz ikasi zirian orazinoe batzuk aoz esatia, ez da biar dan moduban dotrinia jakitia. Umeentzako popuertzakua da, orazinoe oneek buruz ikastia; baina nausijeentzako ez da asko, oneek buruz esaten jakitia. Aitu biar dabee ta jakin biar dabee berba areek zer esan gura dabeen ta zetarako dirian, itandu ezkero edozeini kontu emoteko ter[t]zijuan. Ta zeinbat kristinau dira au egingo leukeenak? Azartuten nas esaten, ezda erdijkak bere. Imini daigun exenplu bat ta ez gitxitan jazoten dana. Kristinaurik geijeenak aoz esango ditubee ondo konpesetako bost gauzaak: *examinia, damuba, proposituba...* Ta aituten ditubee zer dirian? Bakijee zer dan doloria edo damuba? Bakijee zer biar dan damuba eukiteko? Bakijee, damubaren paltaz konpesinoia zetan geratutenean? Bakijee jadisteko, zelan prestau biar dan? Bakijee proposituba zer dan? Ze premina andikua dan? Eukiteko zer egin biar dan? Ta egijazkua danian, ariman zer egiten daben? Ah! *Bigarrena doloria, irugarrena proposituba.* Ahoz esaten guztiak edo geijeenak bakijee. Baña zer esaten dabeen, erdijkak bere menturaz ondo ez.

Emeti ezaututenean da, neure entzula onak, dotriñaren paltiak ze etxurra txaarra emoten deutsan mundubari ta dotrinia ikasijagaz zelan erremedijau leizan, bai munduko ta bai arimako edo eternidadeko gatzak. Dendatu gaitezan, bida, guztiok dotrina egijazkua ikastera. Ikasteko, juan biar dogu erakusten dan lekura, ezpabere sekula ikasiko ez dogu. Eskatu daijogun Jaungoikuari bere berba santuba entzuteko ta arimeetan gorde-tako grazia. Aitiaren, Semiaaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## JAUNGOIKUAREN LEGEKO AGINDUBEEN ASIERAKO BIGARREN IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*mundubaren asieria; gizonaren andi izatia;*  
*ta kristandadiaren balijuia.*

Jaungoikuak geu gaiti egin dituban gauzaak euki biar ditu kristinaubak beti goguan ta begijean aurrian, bere eginbiarrak ikasteko. Eurak dira, geure bijotzetan Jaungoikuaren bildur santuba ta amodijua onduen iminenten dabeenak. Andi andika edo salto baten legez esango deutsut bada, kristinaubak, dotrina onetan: 1. Mundubaren asieria. 2. Geure izatiaren anditasuna. 3. Kristandadiaren balijuia. Entzun egidazu gogo onagaz.

### I.

San Pablo apostolubak esan ezkero munduko gauzai begiratuta ezaututenean dala eureen Egilia, txito gauza biarrekua da kristinaubak jakitia mundubaren asierako lan arrigarrija. Onetarako sinistu biar dogu, neure kristinaubak, orain zazpi mila urte, Eleisiaren kontubari jarraituta, ez eguala kriaturaren errasturik Jaungoikuaren entendimentuti kanpora. Jaungoikua bera eguna bakarrik berez beragan ta beste gauzarik ezer bere ez eguna. Jaungoikuak ezer bere ezeti atera zituban bere birtute edo *nai* bategaz zerubak, luurrak, itxasuatik eta zeruban, luurrian eta itxasuetan agiri dirian ta ez dirian gauza guztiak.

Lelengo egunian edo instantian egin eban Jaungoikuak argija ta alderatu eban illunaganik. Imini eutsan *argijari* egunaren izena ta *illunari* gabarena. Bigarren egunian edo instantian egin zituban zerubak ta alderatu zituban zeruganeko urak zerupeko ureetati. Irugarren egunian edo instantian batu zituban Jaungoikuak zerupeko urak guztiak leku batera ta agertu eban *liorría*. Liorrari imini eutsan luurrearen izena ta urak egozanari *itzasarena*. Ta egun atan egin zituban luurreko arbola ta bedar jenero guztiak. Laugarren egunian edo instantian egin zituban Jaungoikuak eguzki, illargija ta izarrak; ta imini eutseezan eureen betiko ibilerarako legiak, egunak,



illak eta urtiak neurtureteko. Eguzkija egunari argi egiteko ta illargija gaberako. Bostgarren egunian edo instantian egin zituban Jaungoikuak uretan dabiltsan arrain jenero guztiak ta egaan dabiltsan txori jenero guztiak. Ta emon eutseen Jaungoikuak onei guztioi, baita arbola ta bedarrai bere, eureen erikuak sortuteko ta ondorengetara atzia iragoteko birtutia, beti munduban iraua dagijean bitzidun guztiak. Bedeinkatu zituban dirianak, esanagaz: *Azi zaitez ta geitu zaitez*.

Seigarren egunian edo instantian egin zituban Jaungoikuak luurreko alemanija ta gauza bitzi guztiak ta emon eutseen arei bere euretarikuak sortuteko alizatia edo birtutia. Aingerubak zein egunetan Jaungoikuak kriadu zituban, ez dabee bardin erakusten maisu guztiak. Baña pedeko egijja da, Jaungoikuak mundubaren asieran ezer bere ezeti egindako espirituzko kriaturaak diriana aingu[e]rubak. Areetati batzuk, san Migel aingeruba aurrerengo zala, obeidu eutseen Jaungoikuari, errazoa zan legez. Ta dira zeruban Jaungoikuua goze etan dagozan aingeru onak. Beste batzuk, Luziper aurrerengo zala, eureen edertasunak arrotuta, soberbijaz beteta, ez eutseen Jaungoikuari obeidu gura izan ta Jaungoikuak soberbijazko pekatu á gaiti bota zituban inpernubetara. Ta dira ango diabrubak ta demoninuak.

Luurreko kriatura guztiak zuzen eta artez gordetan ditubee Jaungoikuak imini eutseezan ordena, lege ta egitade edo izate modubak. Orregaiti esan eban Jaungoikuak, kriatura areek egin zitubanian, guztiak ziriala entero onak. *Et erant balde bona.* Alemaniaak, arrainak, txorijak, zerubak, luurrak eta beste kriatura guztiak dagoz beti pirme, Jaungoikuari obeiduten deutseela ta Jaungoikuaren anditasuna, jakiturja ta probidenzia ja beti predikeetan dabeela. Au da, neure entzula onak, beti kristinaubak goguan euki biar dabeena. Arri muturaginoko guztiak Jaungoikuari obeiduta, Jaungoikuaren esana eginda; gizonak Jaungoikuari ez obeidutia, Jaungoikuaren kontra pekatu egitia. Oh, zelan lotsatuko dan Jaungoikuaren aurrian pekatarija, beste kriaturaak euren moduban Jaungoikua ziur serbiduta, berak serbidu ez dabelako!

## II.

Seigarren egunian edo instantian bertan egin eban Jaungoikuak gizona. Pormau eban luur zati bategaz gorputz bat. Kriadu eban ezerbere ezeti espirituzko arima bat. Imini eban luurragaz egin eban gorputz atan espirituzko arimia. Ta geratu zan Jaungoikuaren etxurara ejindako gor-

putz eta arimazko gizona, zeñi deritxon *Adan*. Au da lelengo gizona, lelengo gurasua ta munduko gizon eta emakume guztiak moduren baten izatia zor deutseena. Jaungoikuak berak, leengo dotrinaam esan dan legez, Adani emon eutsan zeruko gauzeen ezauberia, entendimentuko argija, borondate lejala ta zuzena ta beti ditxoso izateko biar eban guzti ja. Itxi zituban Jaungoikuak Adanen eskubetan alemania, arrain, txori ta (arbola bateko prutuba eragotzita) beste gauza guztiak. Imini eban Jaungoikuak Adan paradisuban, munduban inok euki legizan gusto, atsegin, ondasun ta ditxa guztien artian.

Adan bakarrik egon ez zedin, bera lo eguala, atera eutsan Jaungoikuak saijetseko azur bat, minik emon bagarik. Ta Adanen saijets azurragaz pormau eban emakume baten gorputza. Kriadu eban arima bat ezer bere ezeti. Imini eban arimia gorputz atan. Ta egin eban lelengo emakumia, zeñi deritxon *Eba*. Au da lelengo emakumia ta beste guztien ama. Eba imini eban Jaungoikuak Adanegaz paradisuban gatx bageko edo inozenzijako estaudu ditxosuan. Modu onetan izan zan, kristinaubak, geure lelengo gurasuen asieria.

Gizona da (ta bardin da emakumia) espirituzko arimia ta luur[r]ezko gorputza bat egindako gauzia. Gizona da aparteko pensamentubagaz Jaungoikuak bere etxurara egina. Gizona da munduko kriatura guztieta nobleena. Gizona da Jaungoikuaren zurtasun nausija beragaz daroiana. Jaungoikuak beste kriatura guztiak egin zituban gizonarentzat ta itxi zituban gizonaren eskuban. Adanen pekatuba izan ez balitz, gaur bere geure eskuban eta aginduban egongo zirian luurreko kriatura guztiak.

Gizonaren izatiari imini deutsa Jaungoikuak bere naturaleziaren silluba. Gizonak bere adilliagaz edo entendimentubagaz igoten dau zeruragino, jasten da inpernuragino ta gorputza geldi daukala dabil pensamentubagaz mundu guztian, beste kriaturaak baño altubago, izatia daukeen gauza guztiak begiratuten dautsee gizonak. Guztiak examineetan ditu banan banaan. Ta ez da ezegaz bere naikotutenean, Jaungoikua topau artian. Borondatiagaz ameetan ditu urrineko gauza onak,urrekuak legez. Ta kriatura guztien ontasuna ezautu arren, gosez dago Jaungoikua bijotz guztiagaz ameetan ez dabentz artian. Gomutiagaz, iragotako giza aldiak ekartzen ditu bere aurrera. Ta juizijuagaz etorkizunai begiratutenean deutsee, jazotakuak balira legez.

Gizonak asieria bauka beste kriaturaak legez, baña amairik ez dauka. Beste kriatura guztiak amaituta, utsera biurtuta bere, gizonaren gorputza ta arimia bitzikoa dira beti guztian, irabazten dabeen lekuban. Gizon bakoxtxa, mundu guztiak baño geijago balijo dabena da. Jesukristo geure



Jaunaren odolagaz ta erijotziagaz erosita daguana da. Jaungoikua ezaututeko, ameetako ta zeruban beti gozeetako jaijo dana da. Gauza ona edo txaarra, berak nai dabena egiteko libertadiagaz Jaungoikuak egin dabena da. Zer geijago? Oraindino dauka gizonak gauza bat, beste kriaturak ez daukana. Au da gaiski eginagaz garbatuteko alizatia. Ura, suba, aixia, luurra, arbola ta arrijak Jaungoikuaren kriaturaak dira. Baña ez deutsee Jaungoikuak emon arei sentidurik edo sengarririk, izatia baño. Alemanijai, arrainai ta txorijai emon deutseez Jaungoikuak sengarrijak edo sentidubak eta izatia, (naturalista itsubak ukatu arren). Baña ez deutseez emon entendimentuba edo adizailia ta borondatia. Orregaiti alemanijak ez daukee ez ezauberarik ta ez amodijo egijazkorik. Aingerubai emon eutseen Jaungoikuak adizailia ta borondatia; baña ez deutsee emon aingerubai ondo edo gaiski eginagaz garbatuteko alizatia edo libertadia. Au gaiti dia-brubak, juizijoko egun artian kondenau bagarik egon balira bere, ez zirian garbatuko bein egin ebeen pekatubagaz. Ta zeruko aingerubak, juizijoko egun artian zeruban sartu ez balira bere, lelenguan amau ebeen Jaungoikua ameetiari ez eutseen itxiko. Bada, aingerubai ez jakue emon, bein ondo edo gaiski eginagaz garbatuteko ta erremedijetako libertadia. Gizonaren noblezia ta kondezinoia da onetan bere apartekua. Gizonak, dino san Gregoriok, dauka izatia arrijak eta luurrak legez; sengarrijak edo sentidugarrijak eta bizitzia, alemanijak legez; adizailia ta borondatia, aingerubak legez. Ta onezaz ostian dauka gaiski egina erremedijetako ta gatxeti onera biurtuteko alizatia, beste kriaturak ez daukana. Gizonaren libertade onetan asten da obra oneen ta deungeen merezimentuba, legiarren biarra edo nezesidadia, ta bakotxak zer egin biar daben jakiteko preminia. Ara emen, kristianaubak, zeinbat doe ta grazijagaz jantzita daguan geure izate noblia. Oni darraikona da, lege santu baten ta erlijinoe egijazzo baten preminia. Au ikusiko da, aituten emonagaz kristandadiaren bali-jua.

### III.

Jaungoikuak emon arren gizonari esan dan nobleza altuba, erakutsi ez baleutsa zer egin biar eban ta emon ez baleutsaz erregela edo neurgarri zuzenak eta segurubak, bere pensamentubak, berbaak eta obrak errazoezkuak eta onak izateko, ez eban ezer bere egindo. Jaungoikuaren lege edo erregela bagarik geratuko zan gizona, aixe guztietara jira egiten daben kañabera bat legez. Ez eban gizonak bere buruti bakarrik sekula gauza on

bat egingo, ta ez zan sekula zeruban sartuko. Baña Jaungoikuaren ontsuna ta miserikordija ez zan kontentau, gizonari alako doe ta mesede ugarijak naturalezaan emonagaz, ezbada onezaz gañera, emon eutsazan lege zuzenak eta erregela segurubak, arei begiratuta, bere egitiak eta naijak zuzendu dagizan.

Jaungoikuaren lege edo neurgarri guztia enzerretan da amar mandamentubetan. Eurak esaten deuskubee zer egin biar dogun; ta zer egin biar ez dogun; zer esan biar dogun; ta zer esan biar ez dogun; ta zer desiau edo gura biar dogun; ta zer gura edo desiau biar ez dogun. Ta Jaungoikuaren amar agindubak baño gauza zuzenagorik ta argijagorik ezer bere ez dago, gero esango dan legez. Berba bigaz amaitu eban Jaungoikuak bere lege guztia, esanagaz: *Jaungoikua amauko doz̄u beste gauza guztiak baño gejago; ta zure proximua, zeure buruba legez.* Jaungoikua ameetako, ezautu biar da lelengo. Bada, adizailiak edo entendimentubak ezaututen ez daben gauzariak, borondatiak amau ezin legi. Jaungoikuaren ezauberia inok bere gizonari emon ezin legijo, Jaungoikuak berak baño. Orregaiti Jaungoikuak berak artu dau karguba, geuri bera nor dan erakusteko.

Gizonaren zeregin nausija da, berba egiten deutsanian, Jaungoikuari entzutia ta sinistutia. Ta gizonaren uts egiterik andijeena da, Jaungoikuari ez entzutia ta ez sinistutia. Denpora guztietan Jaungoikuak berba egin deutsee gizonai. Ta denpora guztietan izan dira gizonak, Jaungoikuari entzun, sinistu ta obeidu deutseenak. Ta baita entzun ez deutseenak, sinistu ez deutseenak ta obeidu ez deutseenak bere. Orregaiti denpora guztietan izan dira onak eta gaistuak, justubak eta pekatarijak, santubak eta kondenaubak.

Natureziaren legian Adan, Eba, Noe, Abraan ta beste asko justubak eta santubak zirian. Eskribidutako legian Moises, Josue, Dabid... justubak eta santubak zirian, Jaungoikuari entzun, sinistu eta obeidu eutseen lako. Ta Kain zorigestokuaganik asita, denpora guztietan izan dira pekatarijak eta kondenaubak, Jaungoikuaren berbia sinistu ez dabeelako, edo sinistuta, gorde ez dabeelako.

Jesus geure Salbadore ta Erakusla maitiak erakutsi deutsku leenagoiko guztiak baño ezagunago, geu salbeetako entzun, jakin, sinistu ta egin biar dogun guztia. Ebanjelijoko berbia da Jesukristo geure Jaunaren berbia. Ta ebanjelijuak esaten dabena entzutia, sinistutia ta egitia da, Jesukristoren diszipulu edo kristinai izatia, *kreduaren azkeneko berbeetan* esango dan legez. Kristinai izateko biar da pede bat, bautismo bat ta Eleisa bat. Pede bagarik, bautismo bagarik ta Eleisa bagarik ez dago kris-tinairik, ez gizonarentzat salbazinoerik. Orregaiti jentilak, judegubak,



moruak eta erejiak, batzuk pederik eta bautismorik ez daukeelako; ta bestiak Eleisa egijazkorik ez daukeelako, guztiak kondenetan dira lastima gorrijan. Kristinau izatia da zerura juateko popuertzako bidia, baña segu-ruba, noberak nai izan ezkero. Ta ara emen, neure entzula onak, berba gitxitan aituten emonda mundubaren asieria, gizonaren anditasuna edo noblezia ta geure sinistutaren edo kristandadiaren balijua. Eskatu dai-jogun Jaungoiko andijari, bialdu daigula bere argi santubaren erraijo bat geure arimeetara, ebanjelijoko berba gozuak bijotz onagaz entzuteko, sinistuteko ta obra egijazkuekin gordeetako. Aitiaren, Semiaren ta Espíritu Santubaren izenian, Amen.

### [LELENGO AGINDUBA]



## JAUNGOIKUAREN LEGEKO AMAR AGINDUBEEN LELENGO IKASIKIZUNA

zeñetan erakusten dan:

1. *Mandamentubak zer dirian.*
2. *Zeinbat modutakuak dirian.*
3. *Jaungoikuaren legeko mandamentubak zeintzuk dirian.*
4. *Nos asi zirian.*

Karidadiaren ta salbazinoiaren senalle bakarra da, neure entzula onak, lege santuba gordeetia. Neure legia ikasten dabenak ta gordeetan dabenak, dino Jesukristo geure Jaunak, ameetan nau ni. Sinstu ezin legi, Jaungoikuari obeidu gura ez deutsanak ta Jaungoikuaren aginduba egin gura ez dabenak daukala Jaungoikuaren amodijua edo karidadia. Adiskidiaren esana, errazoezkua izan ezkerro, egin gura ez dabenak, galduen dau adiskidetasuna. Jaungoikuaren lege santuba guztiz da errazuazkua, zuzena, erraza ta geure onerakua. Ta orregaiti, Jaungoikuaren adiskide danak, Jaungoikuari ondo gura deutsanak ta ameetan dabenak, pozik eta gustoz egiten dau Jaungoikuaren naija. Ta egin gura ez badau, senalle agirija Jaungoikuaren adiskide ez dana ta karidaderik ez daukana. Karidadiaren jantzia ariman euki gura dabenak ta salbau gura dabenak, gorde biar ditu, bada, Jaungoikoaren agindubak. Pedeko artikulubetati bat da, etorriko dala Jesukristo geure Jauna juizijoko egunian, illak eta bizjak juzgeetara; onai emoteko zeruko gloria, bere mandamentubak gorde zitubeelako; ta deungai inpernuko penia, bere mandamentu santubak gorde ez zitubeelako.

Emeti ezaututen da zeinbat balijo deutsan kristinaubari, Jaungoikuak mandamentu guztietan eta bakotxian zer aginduten deutsan jakitiak, guztiak eta bakotxa ziatz gordeetako. Bada, bat austen dabenari, guztien erruba ezarriko jako, dino Santiago apostolubak. Onetarako esango da, Jaungoikuak mandamentu bakotxian zer aginduten deutskun ta zer era-gozen deutskun. Ta guztiai asieria emoteko, erakutsiko deutsut dotrina onetan: 1. *Mandamentubak zer dirian.* 2. *Zenbat modutakuak dirian.* 3. *Jaungoikuaren legeko mandamentubak zein[t]zuk dirian.* 4. *Nos asi zirian.* Prestau egizuz, kristinaubak, zeubeen bijotzak, ondo entzuteko.

### I.

Mandamentubak ez dira beste gauzarik, neure entzula onak, ezbada inori aginduteko eskubidia daukan eta bestiak gobernatu biar dituban nau-sijk iminitako agindubak. Mandamentubak, legiak, agindubak, ordenaak edo erregelaak, guztiak bat esan gura dabee, inori aginduteko eskubidia daukeenak iminijak izan ezkerro. Eurak erakusten deuskubee, zer egin biar dogun ta zer egin biar ez dogun. Aginduten dabee, gauza batzuk egiteko ta beste batzuk ez egiteko. Enpin, mandamentubak edo legiak dira, geure konzienziako gauzaak neurtuteko erregelak edo neurgarrijak.

### II.

Geuri aginduteko eskubidia daukeenak modu askotarakuak dirian legez, mandamentubak edo legiak bere modu askotarakuak dira. Eleisia da pedeko gauzeetan ta oitura oneetan kristinaubak zerura bidian imini ta zuzendu biar dituban agintari bat. Ta orregaiti dagoz Eleisiaren mandamentubak edo agindubak. Erregiak eta erreinuben burubak dira, eureen aginduban dagozanai, bata bestiaren arteko artu emonetan, kleituko, aziendako ta bake oneko gauzeetan zer egin biar dabeen ta zer egin biar ez dabeen agindu biar deutseenak. Ta orregaiti dagoz erregeen ta eureen lekuban dagozaneen agindubak eta legiak. Onezaz ostian Jaungoikua da kriatura guztien Egillia, guztien Agintarija ta Legegin nausija, guztiak obeidu biar deutseena eta guztiai zer egin biar dabeen ta ez dabeen, agindu biar deutseena. Au gaiti munduko erregiak, agintariak, jaunak, aberatsak eta pobriak, guztiak egin biar dabee Jaungoikuaren esana ta gorde biar dabee Jaungoikuaren legia. Ez deutsa Jaungoikuak begi bigunaguakin begiratuko munduko errege bat, agintari bat edo aberats bat, erregia, agintarija, jauna edo aberatsa dalako, osteranzian bere lege santuba gorde ez badau. Andijak eta txikijak, legia bardin austen dabeenak, bardin kastigauko ditu Jaungoikuak; ta bardin gordeetan dabeenai bardin emongo deutsee zeruko gloria. Jaungoikua bera da asserarik eta amairik ez daukana, naturaleziari izatia ta izate modubak emon deutsazana, ta gizon eta emakume guztiak ondo edo gaiski egiteko libertadiagaz ta errazoiagaz pormau ditubana. Orregaiti lege batzubai esaten jakue diriala *naturaleziarenak*; beste batzubai, *errazoiarenak*, (naturaleziagaz ta errazoiagaz bat



eginda dagozalako). Ta beste batzubei, *Jaungoikuarenak*. Baña guztiak dira moduren baten Jaungoikuarenak. Ta guri orain toketan jakunez, asko da esatia, iru modutarakuak diriala legiak edo mandamentubak: Jaungoikuarenak, Eleisa Ama santiarenak ta munduko agintarijeenak.

### III.

Jaungoikuaren legeko mandamentubak edo agindubak dira amar. Amarrak izenteetan ditu Eskritura Sagradubak. Lelengo dino: Neu nas zeure Jauna ta Jaungoikua, Ejitoko katiguti librau zindudazana. Ez dozu eukiko neu baño beste Jaungoikorik. Neu nas zeure Jaungoiko indartsuba ta zelotsuba. Bigarrenian: Ez dozu zeure Jaungoikuaren izen santuba premina bagarik auan artuko; *edo*, ez dozu juramentu bide bagakorik egingo. Irugarrenian: Akordauko zara zapatubagaz. Sei egunian biarra egingo dozu; zazpigarrena zeure Jaungoikuaren eguna da. Ez dozu zapatuko egunian (orain domeekan) biarrik egingo, ez zeuk, ez zeure semiak, ez alabiak, ez krijadubak ta ezda zeure alemanijak bere. Laugarrenian: Ondrau ezazuz zeure aita ta ama, izan dagizun bizitza luzia Jaungoikuak aginduta daguan lurrian. Bostgarrenian: Ez dozu inor ilgo. Seigarrenian: Ez dozu adulterijoko pekaturik egingo. Zazpigarrenian: Ez dozu ezer oostuko. Zortzigarrenian: Ez dozu proximuaren kontra guzurrik edo testigantza paltsorik esango. Bereratzigarrenian: Ez dozu proximuaren emazterik desiauko. Amargarrenian: Ez dozu inoren aziendarik desiauko.

Oneek dira, neure kristinaubak, Jaungoikuaren legeko amar mandamentubak. Lelengo irurak dira Jaungoikuaren ondrarako, ta beste zazpirak proximua ren ta geure probetxurako edo onerako. Orregaiti esaten da, Jaungoikuaren legeko mandamentubak barrututenean edo enzerretan diriala berba bitan. Lelengua: *Jaungoikua ameetia, beste gauza guztiak baño geijago*.

Ta bigarrena: *Geure proximuak ameetia, geure buruba legez*. Ez deutsku bere lege guztian Jaungoikuak beste gauzarik aginduten, dino san Agustinek, karidadia baño; Jaungoikua ameetia ta proximua ameetia. Jaungoikua beste gauza guztiak baino geiago; ta proximua geure buruba legez amau ezkerro, lege guztiekina eginda dago. Eskritura Sagraduban dagozan ordenaak, propeta santubeen esanak, Eleisa Ama santiaren ta errege jaunen agindubak ta liburu guztietan irakurten dana, ez da beste gauzatarako, ezbada Jaungoikua gauza guztiak baño geijago ta proximua geure buruba legez ameetako.

Alan esaten deutsku Jesukristo geure Jaunak, gauza oneek bijok egiten ditubanak, gordeetan ditubala lege guztiak. Ta san Pablo apostolubak dino, proximua biar dan moduban ameetan dabenak, gordetan dabela lege guztia. Bada, proximua amau bagarik Jaungoikua bere amau ezin legi. Ta Jaungoikua amau bagarik, proximua bere biar dan moduban amau ezin legi. Ta azkenerako, mandamentu guztiak kasik gauza batera joten dabee. Edo Jaungoikua ameetara, gauza guztiak baino geijago; edo Jaungoikua gaiti geure proximuak ameetara, geure burubak legez.

Egon leiteke, bada, gauza errezagorik eta errazuakorik Jaungoikuaren mandamentu santubak baño? Jaungoikua ta geure proximua ameetia baño? Amar mandamentubetati lelenguak, irugarrenak eta laugarrenak aginduten deutskubee, zerbait egiteko. Oneek aginduten deutskubeena, kasik geldi gagozala, egin ginai. Bada, Jaungoikua ameetako, jaijegunak gordeetako ta gurasuak ondreetako, izerdi andirik zetan bota ez daukagu. Beste zazpirak ez deutskubee aginduten ezer egiteko, ezbada ez egiteko. Juramentu gaistorik ez egiteko; iñor ez ilteko; lapurretarik ez egiteko; ta onan beste guztiak. Bago, bada, gauza errazagorik au baño?

Geure Jaungoiko onak beekijan, Adanen pekatubagaz guztioi etorri jakuna nagitasuna, alpererija ta sosiguz egoteko desua. Ta orregaiti errazuago ta pozagorik gorde ginaizan bere agindu santubak, geileenetan aginduten deutskuna da ezer ez egitia, geldi egotia, geuk naijen dogun gauzia. Ze atzekija emongo dau bida, kristinaubak, mandamentubak ez gordeetako? Oh, errazoiagaz esaten dau Jesukristo geure Jaunak, bere legia biguna dala ta bere legiaren kargia arina dala! Esango baleu legez: Mandamentu santubak aginduten dabeena egiten, erraz dala. Baña pekatari jaren temia da, Jaungoikuak egiteko esaten dabentz puskia ez egitia; ta Jaungoikuak ez egiteko esaten dabena egitia. Onerako alperra; gatxerako biargina. Oh pekatari tristia!

### IV.

Amar mandamentubak esaten dabeena, naturaleziak eta errazoiak mundubaren asierati amairagino erakutsi dabeen ta erakutsiko dabeen doktrinia da. Mandamentubak enzerreetan dabeen guztia da, Jaungoikuaren argiak geure arimeetan josita imini dabentz dotrinia ta legia. Egija da, Moisen denporara artian ez egozan eskribiduta amar mandamentubak paperian edo olian; baina bai gizonaren errazoiaren eta bijotzian.



Ta orduban ez ebeen gitxiago erakusten ta eskatuten orain baino. Gizoneen ta emakumeen nasaitasun laarregijak illundu eban errazoiaren argija; naastau eban utsegite askogaz naturaleziaren lege zuzena; loitu eban, esateko moduban, mundu guztia pekatuz. Ta au ikusita etorri zan Jaungoikua, leenago geure bijotzetan naturaleziagaz josi eban legia, ostera Moisi eskribidu eragitera. Baña eureenez mundubagaz beragaz asitakuak dira Jaungoikuaren legeko amar agindubak. Ta iraungo dabee mundubaren azkeneragino. Nok erakutsi deutsu, itanduten dau san Agustinek, inor ez illteko, ezer ez oostuteko, inori gatxik ez egiteko ta zeuretzako nai dozuna proximua egiteko? Naturaleziaren ta errazoiaren legiak erakutsi deutsu, erantzuten dau santubak berak. Jaungoikuak geure bijotzetan josita imini eban legia da agindutene deutskubeen guztia, dino san Pablo apostolubak. Orregaiti esaten da, bada, ez dala gauza barrija, ezbada mundubagaz beragaz asi zana dala, Jaungoikuaren legiak amar mandamentubetan agindutene deutskun guztia. Au berau gaiti inok bere kendu ezin legi, gitxitu ezin legi ta ausi ezin legi amar mandamentubetako legia, pekatu egin bagarik. Ez dago luurrazen ganian eskubiderik, naturaleziaren legia austeko ta inok austen badau, erremedijo bagarik pagau biarko dau, edo mundu onetan edo bestian. Egiña da, mundubaren beraren asierati euki ditubee ausilarijk Jaungoikuaren agindubak, ta daukeez gaur bere ta eukiko ditubee mundubaren azkeneragino. Adanek ausi eban inozenzijako edo gatx bageko estaduban Jaungoikuaren aginduba. Bainaz ezautu eban gaixki egin ebana, lotsatu zan, bildurtu zan ta ezkutau gura izan eban Jaungoikuaren begijeeetatik, pekatu egin ebalako. Kainek bere ausi eban Jaungoikuaren aginduba, Abel bere anaie inozentzia ill ebanian. Bainaz ezautu eban deungaro egina, erremedijau ez bazan bere. Zegaz, bada, ezautu ebeen mundubaren asierako gizon areek, Jaungoikuari obciudu biar jakona; inor ill biar ez dana; ezer oostu biar ez dana ta beste Jaungoikuaren aginduko eginbiarrak? Jaungoikuak berak gizonaren errazoiaren imini eban argijagaz ezaututene ebeen ta ezaututene dogu, errazoiaren usuba daukagun guztiok. Geurez ezaututene dogu, Jaungoikua amau ta ondratze biar dana, beste gauza guztiak baino geijago; gauza onak egin biar dituguna; ta geuri inok egitia gura ez doguna, inori egin biar ez deutsaguna.

Ta esaten bada jentilak austen ebeela naturaleziaren ta errazoiaren legia gauza askotan lotsa bagarik? Erantzuten da, pekatubagaz illundu ta lainotu ebeela jentil itsubak errazoiaren argija; galdu ebeela Jaungoiko egijazkuaren ezauberia; Eba engainau eban Satanasek engainau zitubala guztiz jentilak; ta naastau ziriala lotsarizko bizijo ta pekatu guztietan. Areen artian bere ez zirian guztiak bardinak. Platon, Aristoteles,

Seneka, Zizeron ta beste jentil askok erakutsi ebeen Jaungoikuak gizonaren errazoiaren imini eban argija, zeinegaz amar agindubeetako eginbiarrak ezaututene ditugun.

Emeti ezaututene dozu, neure kristinaubak, ze aintxinakuak, errazak ta argijak dirian, Jaungoikuak geuri agindutako eginbiarrak. Dendatu gaitean, bada, guztiok lege santia ikastera. Estimau ta amau daiguzan gogoz amar agindu santubak, zeintzuk izango dirian geure bitzi guztiko pensamentu, berba ta egitadeen neurgarrijak erijotzako ordu estuban. Gorde daiguzan guztiak osorik eta ziatz, zeinetan daukagun seguru geure arimako salbazinoia ta betiko zorijona. Alan gura izan daijala zerubak. Aitiaren, Semiaaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



## II. IKASIKIZUNA

Lelengo mandamentubak aginduten dabena zer dan.  
*Ta pediaren ta esperantziaren biarra, Jaungoikua ameetako.*

### I.

Jaungoikuaren legeko lelengo mandamentubak aginduten deutskuna da, neure kristinaubak, Jaungoikua bera ameetia, beste gauza guztiak baino geijago. Alan esaten deutsku Espiritu Santubak: Amauko dozu zeure Jauna ta Jaungoikua bijotz guztiagaz, arima guztiagaz ta gogo guztiagaz. Au da, dino Jaungoikuak, zeuri orain aginduten deutsudana. Au berau erakutsiko deutseczu zeure semmai ta semeen semmai bere bai. Ta berba oneek gordeko dituzu denpora guztietan ta leku guztietan. Jaungoikuaren amodijua eskatuten deutsku lelengo mandamentu santubak, bai aintzinako legian, bai ebanjelijo santuban ta bai beti. Judegubak itandu eutseen Jesukristo geure Jaunari, ia zein zan agindu guztietati nau-sijeena. Ta erantzun eutseen Jesus, geure zeruko erakusla onak: Lelengo aginduba ta nau-sijeena da, bijotz guztiagaz, arima guztiagaz ta gogo guztiagaz Jaungoikua ameetia.

Mandamentu santu onek dinuan legez, Jaungoikua ametako, geure bijotzeko gurari guztiak, intenziñoe guztiak, ezauberazko pensamentu guztiak ta egite guztiak popuertza zuzendu biar ditugu geure Jaungoikuagana ta Jaungoikua serbiduteko ta ondretako gauzeetara.

Kodizijotso edo laster aberastu gura dabentz batek, bere kontu, tratuta artu emon guztiak zuzenduten dituban legez irabazteko ustiagaz, alan lelengo mandamentu santuba ondo gordeetako, kristinaubak ezauberiazagaz ta adbertenzijagaz egiten dabentz zuzendu biar deutsa Jaungoikuaren ondriari bakarrik. Ez dau gura Jaungoikuak, kristinaubaren bijotza egotia zeruko gauzeen ta luurrekuen artian naastauta; ez Jaungoikuaren ta kriatureen artian zatituta edo zabalduta. Bijotz guzta dau beria ta bijotzeko amodijo guzta nai dau beretzat. Ez dau estimeetan geure amodijua, osua ez dian. Orregaiti esaten dau Jesukristo geure Jaunak, inok bere amau ezin legizala ugazaba bi. Esango baleu legez, inok bere amau ezin legizala Jaungoikua ta munduba.

Jaungoikua ameetan badau, ez dau munduba amauko. Ta munduko gauzaak ameetan baditu, bitziko da Jaungoikuaren gorrotuan. Munduko gauzeetan bere gogua ta amodijua daukanak, Jaungoikua amau ezin legi; Jaungoikuaren amodijorik ez dauka. Jaungoikua ameetako gauza guztiak baino geijago, prest egon biar dau kristinaubak, biar bida, bizitzia ta beste munduko gauza guztiak bere galdueteko, Jaungoikua opendidu baino leenago. Onako presteera santuba bere goguan daukanian ezaututen dau kristinaubak Jaungoikua bere egillazat, bere Jaun bakartzat ta gauza guztiak burutzat.

Ordubar adoretan dau ta alabeetan dau Jaungoiko guztiz ona. Ta autortuton dau, gauza on guztiak Jaungoikuak berak bakarrik mereziduten ditubana. Ordubar ustuten dau kristinaubak bere bijotza luurreko gauzeetati ta emoten deutsa leku osua Jaungoikuari bere ariman. Ordubar sinistuten dau ta ezaututen dau Jaungoiko bat baino ez daguana; zerubak eta munduba beriak ditubana ta bere eskubetan daukazana; asierarik, ez amairik ez daukana; guztiz ona, zuzena, jakituna. miserikordiosua ta guztiak maitegarri bakarra dana. Ordubar gordeetan ditu kristinaubak pozik eta gustoz Jaungoikuaren agindu guztiak. Ta gura leuke, gizon eta emakume guztiak Jaungoikua bera bakarrik estimeetia, serbidutia, ameetia ta alabeetia. Au da, kristinaubak, Jaungoikuak leleengo mandamentuban aginduten deutskun amodijua ta bijotzeko prestaeria. Onetarako popurtxa euki biar dau kristinaubak pedia ta esperantzia. Bada, pedia bagarik inok Jaungoikua amau ezin legi, dino Apostolubak. Ta Dabid erregiak esaten deutsku, Jaungoikuagan imini biar dogula geure esperantza guztia. Orregaiti dino san Agustinek, pediagaz, esperantziagaz ta karidadiagaz adoretan dala Jaungoikua ta egiten dala leleengo mandamentubak aginduten dabena.

### II.

Pedia da, neure entzula onak, Jaungoikuak duarik geure adizailian edo entendimentuban iminitako doe edo birtute bat, zeñegaz sinistuten dogun Jaungoikuagan ta Jaungoikuak Eleisa Ama santia erakutsi deutsan guztia, begijekin ikusiko bagendu baino ziurrago ta segurubago. Bautismo santubagaz emon eutskun Jaungoikuak pedia. Ta, bera dala medijo, daukagu zeruko esperantzia ta gara Jaungoikuaren semiak. Pedia da ikusi ez doguna sinistutia, Jaungoikuak esan dabelako. Ez mundubak edo mundukuak esan dabelako, ezbada Jaungoikuak berak esan dabelako.



Jaungoikuak berak berba egin deutsku. Ta Eleisa Ama santiak erakusten deutsku, Jaungoikuak esan dabena zer dan ta zelan dan. Bada, san Pablo apostolubak esaten dabent legez, Jaungoikuak guzurrik esan ezin legi. Ta au gaiti sinistuten dogu Jaungoikuaren esana. Ez litzateke Jaungoikua Jaungoiko izango, guzur txiki bat esan al balegi. Bada, Jaungoikuaren beraren esana da, Eleisa Ama santiari berak erakutsi deutsana; pedeko gauzeetan Eleisiak engainau ezin ginaizana; ta kristinaubeen Eleisia egü-jaren zimentu seguruba ta pillar sendua dana. Eleisiak, nai baleu bere, ezin guzur txiki bat erakutsi leijo kristindadiari pedeko gauzeetan, Espiritu Santubak goberneetan dabelako.

Promes andi au leleengo Jesukristok egin eutsan san Pedro apostolubari, leleengo Aita Santu Erromako eginda, Eleisa guztiaren arduria emon eutsanian. Imini eban luurraren gainian Jesusek san Pedro bere ordekotzat ta kristinau guztien burutzat. San Pedrori ta aren ondorengo Aita Santu Erromako guztiai esan eutseen Jesus geure Salbadore maitiak, eureen pediaren gainian jasoko ebala edo egingo ebala bere Eleisia; inper-nuko atiak edo persekuzinoiak ez ebeela inos bere galduko Eleisiaren pedia ta doktrinia; Eleisiari entzuten deutsanak, Jesukristori berari entzuten deutsala; Eleisiari obeiduten deutsanak, Jesukristori berari obeiduten deutsala; Eleisiari sinistuten ez deutsanak, Jesukristo berari ez deutsala sinistuten; Eleisiaren esana egin gura ez dabenak, Jesukristoren beraren esana ez dabela egin gura. Mundubak dirauber arte guztian, Espiritu Santuba egongo dala bere Eleisiagaz. Oneek ta beste onako promes andijk egiten deutsaz, neure entzula onak, Jesukristo geure jaunak Eleisa Ama santiari edo kristandade guztiari, geure pedia ta esperantzia sendotuteko.

Emeti agiri da, bada, kristinaubak Eleisiari sinistuteko ta obeiduteko daukeen obligazioia. Eleisa Ama Santiak erakusten deutskuzan pedeko misterijo guztiak dira Jaungoikuak esanak. Jaungoiko bakar bat baño ez daguana; naturaleziaren ta grazijaren Egillia bera dana; Trinidadeko misterijo santuba; Jesukristoren enkarnazioe edo gizon egitia, jaijotzia, bizi-tzia, kurutzeko erijotzia, illen arteti biztutia, zerubetara igotia; grazijaren biarra; sakramentuben izatia; egite oneen preminia ta balijuak; pekatubaren kaltia; geure onerako nai gatxerako al izatia; arimiaren amairik eza; aragi-jaren biztueria; erremedio bagako guztien illtia; popuertzako juizija; oneantzako betiko zeruba; deungeantzako betiko inpernuba; ta beste Eleisiak erakusten deutskuzan pedeko gauzaak, guztiak dira Jaungoikuak esanak.

Misterijo Santu oneek, Eleisiak erakusten dituban moduban sinistu bagarik, inok Jaungoikua amau ezin legi. Orregaiti Eleisati kanpora dago-

zan gizon eta emakumiak, zeintzuk dirian judegu, jentil, moro ta ereje guztiak, euren uts egiteetan ta engainuban dagozan artian, ezin Jaungoikua amau legijee ta ezin salbau leitekez. Zelan salbauko dira, sal-beetako pedia ta doktrinia sinistuten ez badabee? Zelan amauko dabee Jaungoikua, Jaungoikuaren esana sinistuten ez badabee? Zelan juango dira zerura, zeruko bidia ukatuten badabee? Oh, ze errukarrijak dirian Jaungoikuari ta Eleisa Ama santiari sinistu ta obeidu gura ez deutseenak! Desditxadubak eta zorigastokuak, guzurraren bideetati munduban dudaan ta kezkaan bitzita, gero inpernura zuzen duazan pede bagakuak! Itsu itsuban, kristinaubak, sinistu biar ditugu pedeko misterijo guztiak, andijk eta altubak izan arren. Zegaiti edo zelan ete diran jakiteko erra-zoiak topeetan ibili bagarik. Jaungoikuak esatia ta Eleisa Ama santiak era-kustia da asko, geuk ziur eta pirme guztiak sinistuteko. Bestelan ezin euki ginai geure Jaungoiko onagan, ez amodijorik, ez konpabajtarik. Dudiagaz, sospetxiagaz ta ezta baidaan begiratuten badeutsat Jaungoikuaren esanari, zelan eukiko dot konpabajtzia beragan? Ta, zelan bijotz guztiagaz amauko dot, guztiz seguru sinistuten ez deutsadan Jaungoikua? Sinistu biar dogu bai Jaungoikuaren esana. Baita esperantza oso bat euki bere, bere promes edo eskinsari andijeetan.

### III.

Esperantzia da Jaungoikuak geuri duarik emondako birtute bat, zei-negaz bitzi garian geure pekatubeen parkazinoia ta zeruko gloria zabala jadisteko uste osuan. Ez geure merezimentubak edo egite onak gaiti baka-rrik, ezbada Jaungoikuaren miserikordija gaiti, Jesusen pasinoeko ta erijo-tzako merezimentubak gaiti, Ama Birjina maitia bitaarteko dala ta geuk Jaungoikuaren grazijagaz egin edo egiteko ustia daukagun obra onak gaiti. Esperantza santa au eukiteko erakutsi deutsku Jaungoikuak bere ontasuna ta miserikordija. Jaungoikuaren Seme bitzia gizon egiteak, donzella baten sabelian enzerrauta bereratzit illian egotia, Jesusen Belengo jaiotza pobriak, penazko bitziziak, kurutzeko erijotziak, pekatubak parkatuteko itxi deutskuzan sakramentubak ta Ama Birjinaren erraija bigunak eta errukiorrak ekarten gaitubee, Jaungoikuagan esperantza oso bat eukitera.

Amodijuaren ta miserikordijaren señalle agiri oneek emon ezker, Jaungoikuak berak nai dau ta agindutene deutsku beragan konpabajntza pirme bat eukiteko, geure arimako salbazioia berari eskatuteko ta, geuk geure parteti mandamentubak gorde ezker, duda bagarik zeruko gloria-



ren esperantzia eukiteko. Alan animeetan ditu Espiritu Santubak kristinu guztiak zerubaren esperantzia eukitera, esaten dabenian, egon gaitezala guztiok duda bagarik Jaungoikuaren promes andijeetan; sinistu daigula duda bagarik Jaungoikua ona, miserikordiosua, zuzena ta altsuba dana, esan daben guztia egiteko. Eldu gariala, dino, zeruko ustia eukitera, zeinegaz balijeetan garian, itxasotarra ankora pirme bategaz legez. Ankora batek itxasoko onzijagaz egiten dabena, dino san Agustinek, egiten dabela zeruko esperantziak geugaz. Aixiak alde batera edo bestera ontzia itzuli gura dabenian, boteetan deutsa itxaso gizonak ontzijari ankoria, itzuli ez dedin ta pirme euki dagijan ontzia. Kristinauba bere alan eukiten dau seguru zerurako esperantziak munduko neke, trabaju, tentazinoe ta aixe txaar peliguruzko guztietan, jausi bagarik. Egija da, zerura juateko esperantzta pirmiak ez dau kenduten arimako bildur guztia. Bateti Jaungoikuaren miserikordijak ta Jesukristo geure Jaunaren merezimentubak emoten deutsee kristinaubari, salbauko dan uste osua. Ta besteti bere pekkatubak ta aurrera jausiko ete dan edo ez ete dan jakin ezak, bildurtutten dabee kristinaubaren arimia; salbauko ete dan edo kondenauko ete dan. Ez daki inok bere, zeruko aparteko abisuba bagarik, pekatuban ala grazian daguan, Jaungoikuaren adiskidia ala arerijuza dan, salbauko dan ala kondenauko dan. Orregaiti esaten dau san Pablo apostolubak, bildurragaz ta ikariagaz jadiitxi biar dogula geure arimako salbazinoia. Zerura juateko ustiagaz bildur bagarik bitzi dana, dino san Agustinek, ardura bagakua dala; ta ardura bagarik galduko dala. Ta bildurra gaiti zerurako ustiari isten deutsana, galdua daguala ta kondenauko dala. Bildur izan biar dogu, kristinaubak, pekatu egiten, kondenau ez gaitezan pekatubagaz. Baña pekatu egin arren, biurtu biar dogu Jaungoikuagana, pekatubaren parkazinoia jadisteko esperantza osuagaz. Sinistu biar dogu, Jaungoikuak parkatuko deutskuzala geure pekatu guztiak, damu egijazkuagaz ta esperantza osuagaz eskatuten badeutsagu. Au esperantza sendua, pirmia ta errazuazkua da. Baña pekatuban bitzi, pekkatu egin ardura bagarik, pekauti urteteko ezer egin ez, ta zerura juango nas pensau, alkarriz da dautsa, utsegitia da, engainuba da, Jaungoikua tenteetia da. Oh, zeinbat onetariko kristinu! Pekatu mortalian urte askotan pena bagarik bitzi dira, tratu gaisituai, ekandu inpamiai ta adiskide pekatuzkuai itxi gura ez deutsee ta esperantza paltso bategaz esaten dabee: *Jaungoikuak salbanko gaitu.* Jaungoikua ona da. Baña ona dalako, ez dau inok opendidiu biar. Eskatu daijogun, bada, Jaungoiko guztiz onari Jesusen merezimentubak gaiti, pede bitzija, esperantza oso bat ta karidade sutsu bat, bitzi garian arteko ta zeruko gloria betiko. Aitiaren, Semиaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

### III. IKASIKIZUNA

zeñetan erakusten dan,  
*zelan dan Jaungoikua guztiz maitegarrija. Ta zegaiti.*

Esanda geratu da, neure entzula onak, leengo dotrinan, lelengo mandamentubak zelan aginduten deutskun kristinu guztioi, Jaungoikua ameetako, beste gauza guztiak baino geijago. Ta baita pedia ta esperantzia biar diriana bere, mandamentu onen aginduba egiteko. Ta esango deutsut dotrina onetan, *zegaiti amau biar dogun Jaungoikua, gauza guztiak baino geijago.*

Kristinu guztiak daki jee lelengo mandamentubak aginduten dabenia, Jaungoikua ametako beste gauza guztiak baino geijago. Guztiak daki jee, Jaungoikua amau bagarik zerurik ez daguana. Baina ez ditubee guztiak eze, gitxiagok bere ezaututenean peseetan, Jaungoikua ameetako dâu kaguzan errazoe andijk eta argijk. Ta au gaiti dagoz kristinu gitxi, Jaungoikua bene benetan ameetan dabeenak. Gauza siku bat, otz bat, derrigorrezko bat edo nora ezko bat balitz legez begiratutenean deutsee askok Jaungoikua ameetiarri. Noberaren gogokua bada persona bat, a pozik eta gustoz ameetan da. Baina noberaren gogokua ez bada, ez jako kasu andirik egiten. Geijeenaz bere gatzik ez opa izatia da, noberaren gogoko ez dan personarentzat daguan amodijo guztia. Inori gatzik ez gura izatia ta ameetia, gauza bi dira. Ez da asko Jaungoikua ameetako Jaungoikuari gatzik ez opa izatia, ezbada, onezaz ostian ondo gura izan biar jako Jaungoikuari, amau biar da, alabau biar da ta maite izan biar da beste gauza guztiak baino gijago. Bada, kristinu guztiak pozik, gustoz ta errazto, berekautan legez, ezer bere kosta bagarik ta pena bagarik amau dagijeen geure Jaungoiko guztiz ona, iminiko ditut errazoe batzuk, edozeinek aitut legizanak ta Jaungoikua ameetara ekarten gaitubeenak. Alkarri oratuta legez, egongo dira mandamentu onetako dotrinaak ta ez aaztu bategaz bere, guztiak entzun artian.

Ez dago inor bere, neure kristinaubak, ain zororik, ain itsurik edo ain neziorik, zeinda gauza bat guztiz ona dana jakin ezkero, ameetan ez dabeni. Ta zeinbat dan onagua, gogokuagua ta palta gitxiago daukazana gauza a, ainbat izaten da gauza arentzat amodijua ta karinua andijagua. Ta bada eskina guztietati ona, txito guztizkua ta bat bere tatxa bagakua, orduban arentzako amodijua, karinua ta maitetasuna bere osua, guztizkua ta neurri bagakua da.



Pensau egizuz bada, kristinaubak, zeubei gurarija emoten deutsu-been gauza on guztijak, zeubek nai dituzun edo onak diriala deritxazun kondezinoe ta maitegarri guztiak. Pensau egizuz, ikusteko, esateko, entzu-teko, eukiteko edo gozeetako, goguan jausten jatzuzan ontasun guztiak. Ta dirianak topauko dituzu Jaungoikuagan. Dirianak daukaz Jaungoikuak berez. Ta daukaz bera ameetan dabeneentzat. Adiskide oso baten konde-zinoe guztiak daukaz Jaungoikuak. Bera da *jakituna*, bera da *zuzena*, bera da *aberatsa*, bera da *lauba*, bera da *andija*, bera da *sendua*, bera da *pirmia*, bera da *emonzilia*, bera da *parkazzallia*, bera da *graziosua*, bera da *karinosua*, bera da guztien *erakua*, ta bera da *betikua*. Deritzat, neure kristinaubak, on modu edo kondezinoe oneek guztiok daukazan persona bat topauko bazendu, naiko zendukiala aren adiskide izatia. Ta amauko zendukiala guztiok gustoz, pozik, karinoz ta borondate osuagaz persona a. Bada, artu egizu pazienzia Jaungoikuaren amodijua gaiti, ta ikutsiko dozu argiro, guztiak eta geijago daukazala Jaungoikuak zeubeentzat eta niretzat, geuk bera amau ezkero. Entzun egizu.

## I.

*Jakituna* da Jaungoikua, ta amau biar dogu jakituna dalako. Jakiturija da, neure entzula onak, munduban txito asko estimeetan dan gauzia. Zeinbatek eureen burubak kanseetan ditubee ta aziendak kasteetan ditubee, zerbait geijago jakitia gaiti? Zeinbatek egunazko ikasjari gitxi eritxita, gabak galduen ditubee liburubak irakurten, izarrak konteetan, bedarrak esamineetan, itxasuak neurturen, alemanijak zaintutzen, luurrak aztertutzen, zidarrak eta metalak topeetan ta piseetan? Zeinbatek osasuna ta jui-zizua galdu ditubee irago dan sei edo zazpi milla urtian bakian ta gerraan, osasunian ta gaixuan, zeruban ta inpernuban, itxasuan ta luurrian zer jazo dan ta jazoten dan jakiten? Guraso baten kontentu ta poz guzta da, seme edo alaba jakitun bat eukitia. Kastau daben guztiak ez deutsa bapere minik emoten, seme alabaik zerbait geijago ikasten dabeenian. Erri baten badago jakitun andi bat, guztiak estimeetan dabee, ta kanpuetan bere konteetan dabee ze jakitun andija daguan eureen errijken. Guztiak nai leukue aren adiskide izatia. Urrineti eskribidutako karta bat baño ez bada bere, aren gauzia eukitia nai leukue. Beragaz berba egitia edo zerbait bere aoti entzutia estimeetan dabee. Illda gero bere ez dira aaztutzen, ez senidiak, ez

adiskidiak, ezda ez ezagunak bere alako jakitunagaz. Ta esaten dabee: Ah, ze jakituna zan! Neure senidia zan, neure adiskidia zan! Zegaiti, bada, au guztiau, neure entzula onak? Jakiturija ta jakituna guztiak estimeetan dabeelako, ameetan dabeelako ta txito asko nai dabeelako.

Bada, kristinaubak, munduko jakiturija guztia Jaungoikuaren aurrera jaso ezkerro, zorakerija ta ezkakite utsa baiño ez da. Jaungoikua da jakituri-ja bakarra. Bera da jakitun guztien jakituna ta jakiturija guztiaren era-kusla bakarra. Ikasten ibili bagarik daki Jaungoikuak, zeruban, inpernu-ban, itxasuan ta luurrian jazoten dan guzta. Kansau bagarik konteetan ditu Jaungoikuak zeruban dagozan aingerubak eta santubak, inpernuban dagozan kondenaubak, linbuan dagozan arimaak, itxasuan dagozan arrai-nak eta ondarrak, lurrian dagozan bedarrak, munduban jaijo dirian ta jai-joko dirian persona guztiak. Mundubaren asierati ona gizon eta emakume guztiak zer esan dabeen, zer egin dabeen, zer pensau dabeen ta zer esan, egin ta pensauko dabeen, guzta daki Jaungoikuak. Urrinekua daki, ure-ku legez; aintxinakua, oraingua legez; ta etorkizuna, iragotakua legez. Ez destajuban, eritxian, dudaan edo guzurrez naastauta, munduko jakitunak legez; ezbada zuzen, artez, argiro ta ziatz, nos, nun, zelan, zeinbat, zegai-ti ta zetaragiño dirian, guzta daki Jaungoikuak. Munduban inok ezer badaki, Jaungoikuak erakutsitako puska bat baño ez daki. Ta daki jana bere, (pediaz osterantzekua) utsegitez naastauta baino ez daki. Jaungoikua da jakitun bakarra edo jakiturija utsa. Bada, kristinaubak, munduko per-sona bat ainbeste ameetan bida ta estimeetan bida jakituna dalako, ta ain-bestet desietan bida aren adiskide iza tia, zeinbat geijago amau biar dogu ta estimau biar dogu geure Jaungoikua, jakitun guztien jakiturija dalako? Ta zeinbat geijago desiau biar dogu Jaungoikuaren adiskide izatia, gauza guztiak berak dakizalako ta dakigun puskia berak erakutsita baño ez daki-gulako? Ordu lauren baten edo istante baten geijago erakusten deutsa Jaungoikuak arimiari, munduko liburu ta maisu guztiak bere denpora guz-tian erakutsi legijuen baino. Pensau egizu bada, kristinaubak, ia Jaungoikuak mereziduten daben geuk beste gauza guztiak baño geijago ameetia, Jakitun guztizkua ta amai bagakua dalako. Oh, neure Jaungoiko on! Ameetan zaitut biotz guztigaz, zeu guztiz jakituna zarialako. Nire pozik andijeara da, Jauna, zeu ezaututia, zeuri entzutia, zeugaz berba egi-tia ta beti zeure adiskide izatia, jakitun bakarra zarialako. Baita, Jauna, zuzena zarialako bere.



## II.

*Zuzena* dalako bere amau biar dogu, kristinaubak, geure Jaungoiko ona, beste gauza guztiak baiño geijago. Zuzentasuna da, munduban txito asko nai dan gauzia. Berbeetan, tratuban ta artu emonian zuzena dan kristinauba, guztiak estimeetan dabee ta ameetan dabee. Ta guztiak ondo gura deutsee alako zuzenari. Beste aldeti, paltsakerijak, engainubak, naastiak ta arpegiera bi lagun artian darabiltzan kristinauba, ez dau inok ikusi gura. Ta ezda agaz traturik edo artu emonik euki bere, paltsua dalako. Zuzenari, ziurrari ta zintzuari begiratuteneusagu beti karinoz ta amodijoz. Ta beragaz nai dogu kontuba ta adiskidetasuna eukitia. Oh! Zuzenak beragaz darua geure bijotzeko amodijo guztia.

Zer dala deritxazu bada, kristinaubak, munduko zuzentasun guztia, Jaungoikuagana jaso ezkero? Ez beste gauzarik, ezbada engainuba ta paltsakerija. Geure Jaungoiko ona da bakarrik ta berez zuzena, arteza, ziurra ta egijazkua. Gizon guztiak, dino Dabid erregiak, dira guzurtiak edo guzurra esan legileenak. Jaungoikua da bakarrik zuzena ta arteza bere juizizuan. Ez dago inor bere luurraren gainian ain zuzenik, zeinda egunian egunian askotan uts egiten ez dabenik. Jaungoiko ona da bakarrik, uts egiterik ez daukana. Zelan ezautu ginai, bada, Jaungoikuaren zuzentasun neurri bagakua? Gomutara ekarrijagaz zer egiten dabeen geugaz. Bago inor Jaungoikuaren kontra kexau leitekianik? Ez. Mundura etorri dirian gizon ta emakume guztiakin, zeruban dagozan aingeru guztiakin ta kondenauta inpernuban dagozan guztiakin kontubak egin ditu ta egingo ditu Jaungoikuak. Bainak ez dago guztien artian bat, ta ezda izango bere, Jaungoikuak engainau dabenik. Berba on bat esaten badozu Jaungoikuaren izenian ta Jaungoikuaren amodijuagaz; desio santu bat, egitade zuzen bat, konseju on bat, limosna txiki bat, baso bete ur karidadez emotia, Jesus bijotz onagaz esate bat, zerurutz zuzpiru bat egitia; dana dala, danik gauzarik txikarrena bere, Jaungoikuaren izenian ta Jaungoikuaren amodiju gaiti egin dana ta egingo dana, guzta zuzen ta ziatz kontauko deutsku Jaungoiko onak. Ta guztien sarija zeruban ugari emongo deutsku, bera ameetan badagu beste gauza guztiak baino geijago.

Beste aldeti ez dau Jaungoikuak inor bere kastigauko, bere pekatubak mereziduten dabeen baino geijago. Inpernuban kondenauta dagozan diabrubak ta arimaak ondo ezaututen dabee, daukeen pena guztia dala,

eurak pekatubakin irabatzi ebeena. An dakutsee zoriga[i]stokuak ze zuzena ta ze arteza dan Jaungoikua, kondenaubeen pekatuzko naijak, berbaaka ta egitadiak ondo pisauta, bakotxari bere mereziduba emoten deutsanian. Ez deutsa Jaungoikuak inori bere eskatuko, emon deutsan baino geijago. Bost emon deutsazanari, eskatuko deutsa bosteen errazoia. Bi emon deutsazanari, birena. Ta bat emon deutsanari, batena. Bainak guztiai zuzen ta artez, inok bere kexarik eukiko ez daben moduban.

Oh, Jaungoiko zuzena! Nok amauko ez dau bada, neure entzula onak, ain Jaungoiko zuzena ta arteza? Ez dau mereziduten Jaungoikuak geure amodijo guztia, karino guztia ta bijotz guztia, zuzena ta arteza dalaiko? Ez deutsagu entregauko Jaungoiko zuzenari bildur bagarik geure borondatia oso osorik geure gurari guztiak, sinistu ezkero bere izenian ta bere amodiju gaiti ezauberaz esaten dogun, entzuten dogun, egiten dogun ta desietan dogun guztiaren sarija zuzen emongo deutskula zeruban? Errazioaren usura eldu ginaneti erijotzako orduraginoko ezauberazko pensamentu, berba, egite, nai ta gura guztien kontuba ta errazoia, nos, nun, zer, zelan, zegaiti, zeinbat bidar ta zeinbat mesede edo kaltegaz izan dan, Jaungoikuari emon biarko deutsagu guztiok erremedijo bagarik. Konturik nausijeenak, konturik naastaubeenak ta konturik baliosuenak egin biarko ditugu Jaungoikuagaz. Oh, ze sail andija! Oh, ze kanpo andija! Zeinbat estimau biar dogu bada, neure kristinaubak, Jaungoikua zuzena ta arteza izatia, geure kontubak guztiak, gomuta ditugunak ta ez ditugunak, beragaz egiteko! Egon leiteke ezer maitegarria gorik ta geure bijotza beragana geijago darioanik, Jaungoiko zuzena baño? Oh, neure Jaungoiko ona! Beste ontasunik ez bazeunka bere, zeu guztiz zuzena ta arteza zarialako, ameetan zaitut nik bijotz guztiagaz ta arima guztiagaz. Baita aberatsa zarialako bere.

## III.

Aberatsa da Jaungoikua. Ta au gaiti bere mereziduten dau geure amodijo osua. Erreparau egizu paska bat, kristinaubak, ze leku daukeen geure bijotzeetan ondasunak; zelan enkanteetan dabeen ondasunak geure gogua. Ondasunak domeetan ditubee senduak, beeratuten ditubee altubak, jasoten ditubee baxubak, txikitutten ditubee andijk ta azten ditubee txikijkak. Ondasunak argitutten ditubee begijkak, poztutten dabee bijotza ta, dagozan lekuban dagozala, eureetara darioie geure amodiju. Beti izango da egijja, ondasunak asko ameetan diriala ta dirubari guztiak obeiduten



deutseela. Beti izango da egijja, ondasunak ta diruba Jaungoiko txiki batzuk diriala. Aberats bati guztiak ondo esaten deutsee, guztiak obeiduten deutsee ta guztiak naija egiten deutsee. Ta aberats izatia baino beste paltarik ez badauka, guztiak estimeetan dabee ta ameetan dabee.

Bada, kristinaubak, ondasunak ta aberatsa ainbeste ameetan badira, Jaungoikua da ondasun guztiak daukazan aberatsa. Basuak guztiak, soluak guztiak, etxiak guztiak, palazijuak guztiak, errijak guztiak ta erreinubak guztiak beriak ditu Jaungoikuak; ta nai dabenari emoteko daukaz. Ganadubak guztiak, arrainak guztiak, txorijak guztiak ta pristjia jenero guztiak beriak ditu Jaungoikuak; ta nai dabenari emoteko daukaz. Zidar,urre, diamante ta perla jenero guztiak beriak ditu Jaungoikuak; ta nai dabenari emoteko daukaz. Indijeetako ondasun estimau guztiak, erregeen ta andijeen etxeetako ta soineko urretja, seda, damasko, karmesi ta perle-rija guztia beria dau Jaungoikuak; ta nai dabenari emoteko dauka. Esan daigun batera, zerubak eta luurrik ta zeruban ta luurrian daguan guztia da Jaungoikuarena; ta nai dabenari emoteko dauka. Baiña au guztiau ezer bere ez da, Jaungoikuak bera ameetan dabeentzat, zeruban gordeta daukazan ondasuneen aldian. Ez aditu, ez ikusi ta ez entzun ezin ginaiz, san Pablo apostolubak dinuanez, Jaungoikuak zeruban geuretzat daukazan ondasunak.

Bada, kristinaubak, ugarra darijon diru puska bat ta sitsak jaaten dituban luurreko gauza batzuk ainbeste ameetan baditugu, zeinbat geijago ta geijago amau biar dogu geure Jaungoiko aberatsa? Zer dira munduko ondasun guztiak, Jaungoikuagaz bat egiteko? Zegaz naikotu ginai geure bijotza Jaungoikuagaz ostian? Oh, neure Jaungoiko aberatsa! Ez dot gura beste ondasunik, zeu baino. Erakutsi egidazu, ondasun egijazkuak ameetan. Alderatu egizu neure bijotzeti luurreko ondasun guztien amodijua, zeu bakarrik eta beti amau zaidazan, beste gauza guztiak baino geijago. Aitiaren, Semiaren ta Espiritua Santubaren izenian. Amen.

## IV. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan

*Jaungoikuari zor deutsagun amodijua,  
lauba, andija ta indartsuba dalako.*

Jaungoikuak mereziduten badau, neure kristinaubak, geure amodijo guztia jakituna, zuzena ta aberatsa dalako, ez dau gitxiago mereziduten lauba, andija ta indartsuba dalako. Egon zaitez entzute onagaz.

### I.

Lauba da Jaungoikua. Ta au gaiti bere eskatuten deutsku geure bijotzko amodijo guztia. Laubaren izenagaz esan gura dot, zeubek esan oi dozuna. Ta da eukitia personiak modu on bat ta graziojoso bat guztientzat. Andija ta txikija, pobria ta aberatsa, zaarra ta gaztia, guztiak estimetia ta guztiai karinoz begiratutia. Buru eretxi bagakua, andiari bagakua, persona bat bere desprezietan ez dabena da duda bagarik *lauba*. Munduban gitxi usauba da egijazko lau izatia. Andiaria, buru eritxija ta noberak edu ondasun, jakiturija edo entzute ez daukeenai kasurik ez egitia ta ozta berba bat edo bi baino ez egitia da, giza artian sarrijen ikusten doguna. Lau errial daukazana lotsatuten da, bi baino ez daukazan bat berba egiten. Aberats batek uste dau, mesede andi bat egiten deutsala pobriari, berba bat edo agur bat eginagaz. Guraso pobre baten umia deskuiduan zerbaiten jaube egiten bada, ya ez dau entzun gura aita edo ama pobriaren izena bere. Ta oraindino gitxiago nai dau, bere etxe aberatsian sartu dakiyon guraso pobria. Andiari utsa ta soberbia utsa da au. Guztiai gorroto deutseena. Baina munduban txito asko agindutен dabena. Ta beste aldeti txito asko estimeetan dana da lautasun egijazkua.

Gogoratu daigun bada, kristinaubak, ia geure Jaungoiko ona lauba dan edo ez. Oh, neure Egila guztiz maitia! Zeu zara bakarrik egiazko lauba. Ez zara bategaz bere lotsatuten. Ez zara inogaz bere aaztutzen. Ez deutsazu inori bere zeure palazijoko atia isteen. Andijeentzat ta txikijentzat, aberatseentzat ta pobreentzat, ondraubeentzat ta desondraubeentzat, guztientzat daukazu bijotza zabalik, neure Jaungoiko ona, zeu amau ezkerro. Ain opa onagaz erantzuten deutsa Jaungoikuak kurutzian josita



daguan lapurrari zein Jerusalengo juez nausijari. Ain pozik sartuten da Jaungoikua Lazaro, Marta ta Madalenaren etxe humildian zein paresijo aberatsarenian. Ain gusto berba egiten deutsa Jaungoikuak uretarra doian Samariako emakume pekatarijari zein Isrraelgo legegin, agintari ta obispua. Ain arpegi onagaz begiratuten deutsa Jaungoikuak Bera ta Eleisa guztia persegidu dituban Saulori zein da Eleisa guziaren buru egin daben Pedrori. Oh, Jaungoikuaren bijotz zabala! Oh, zeure maite guztien erarako bijotz santuba! Zeure amodijua eskatuten deutskuzu bakarrik. Zeu amau ezkero, guztientzat zagoz prest. Moises, arzain pobriagaz berbeeta luzziaguak daukaz Jaungoikuak, Ejitoko Faraon erregiagaz baino. Dabid, Arzaina sarrijago bisiteetan dau Jaungoikuak, Saul Isrraelgo erregia baino. Samuel, mutil gaztiari obeto zabaldutene deutsaz zeruko jazo altubak ta santubak, Eli sazerdotiari baino. Enpin beste milla jazogaz erakusten deutsku Jaungoikuak Eskritura Sagraduban, guztientzat daukan ontasuna ta lautasuna.

Munduban dagozan gizon ta emakume guztiai, nai diriala entzute andikuak, nai baztar baten aaztuta bitzi dirianak, nai aberatsak, nai pobriak, nai euren gatx eginak gaiti erbestetubak, nai tronu andijeetan jarrita dagozan erregiak; dan modukua dala, guztiai entzutia emoten deutsee Jaungoikuak. Guztiai edegiten deutseez bere miserikordijaren atiak Jaungoikuak, ta eskintzen deutsee borondate onagaz grazija santia ta bere adiskidetasuna. Nor arrituten ez da, kristinaubak, gogoratu ezkero Jaungoikuaren lautasun neurri bagakuak? Ze gauza andija, edozeinek Jaungoikuagaz berba egin al izatia! Edozeinek, Jaungoikuagana juateko beti atia zabalik eukitia! Enpeñu bagarik, bitaarteko bagarik ta ate onduan zain egon bagarik, nos nai daben, Jaungoikuari berba egitia! Oh, Jaungoiko ona! Oh, Jesus maitegarria! Ameetan zaitut nik neure bijotz guztiagaz, ain ona, ain presta ta ain prestuba zarialako. Ta ez dakit zeinek amauko ez zaituban, gogoratu ezkero zeure ontasun neurri bagakuak.

Zer pensau ginai, neure entzula onak, ikutsi ezkero geure Jesus, Jaungoiko ta Gizon egijazkua ain laster ta pozik doiala, mendi arteko txa-bola baten daguan ikezgin tristia konsoleetara, zein palaziojongo andi baten daguan erregiagana? Karzela atsitu, illun baten preso daguanagana, zein seda ta urre artian daguanagana? Etxe zaar, jausi pobre batera, zein aberats barrira? Ain gogoz gabaz, zein egunaz? Ain gogoz urrinera, zein urrera? Zer pensau ginai, ezbada, arritu, humildau, adorau, alabau, jaso ta amau bijotz guztiagaz geure Jaungoiko ona? Ta zer egiten dau Jaungoikuak altarako sakramentu santu atan? Mai santu atara eldutene dira umiak ta nausijk, zaar ibili ezin dirianak ta arpegijan edo gorputzian

gatxa daukeenak, jantzi pobria daukeenak ta jaso onik ez daukeenak, mundubak sobrautzat daukazanak ta kastigauta daukazanak, grazijaan dagozanak ta pekatuban dagozanak. Bainaz guztientzat dago Jesus maitia altara santuban prest, isilik ta humilde. Ta zeinek bere ontasuna geijago maite dauen, á gana dua Jesus, dana dala, atsegin geijagogaz, poz andija-guagaz ta gogo obiaguagaz. Oh, aingeru santubak! Ez zaitez kansau Jaungoiko altu, humilde ta laubaren ondo esatian. Oh, neure arimia! Begiratu egijozu zeure Jaungoiko onari, bai zeruban ta bai munduko leku guztietan. Izan arren zu oraingino bere areriju, ameetan badozu aurrera, pozik bere adiskidetzat artuko zaitu. Urtu zaite bada, al badaizu, neure bijotz liorra, zeure Jaungoiko onaren amodijuan ta ondo esatian, ain lauba ta maitegarrija dalako. Baita andija dalako bere.

## II.

Andija da Jaungoikua. Ta au gaiti bere maitetu biar dogu, beste gauza guztiak baino geijago. Ez dago dudarik, neure entzula onak, gauza ona izan ezkero, zeinbat andijago, ainbat naijago ta maitiago. Gauza txiki ja gitxija, ona izan arren, ezer ezian geratutene da. Ta ez da ainbeste estimeetan. Adiskide pobria, lejala izan arren, adiskide txiki ja da. Urria estimauba izan arren, ain gitxi bada, asko balijo ez dau. Gauzarik oneenak, gitxi dirianian, geratutene dira ezer ezian. Bainaz andijak dirianian, guztien auan ta bijotzian dabiltz txito estimau.

Jaungoikua da bada, neure kristinaubak, on guztien artian bakarrik ona, ta andi guztien artian bakarrik andija. Andija da Jaungoikua ta txito guztiz ondo esatia merezidutene dabena, dino Dabid erregiak. Nora juango nas? Esaten deutsa Errege santubak berak Jaungoikuari: Nora juango nas zeure espiritubaganik ta nora iges egingo dot zeure arpegi santut? Zeruragino igoten badot, zeu an zagoz. Inpernuragino jasten banaz, an bere prest zagoz. Eguak artuta iragoteneban egun sentijan itxasuen bazterreragino, an bere zeure eskubak eukiko nau. Pensau neban, menturaz illunak alderatuko nindubala zeu ganik ta gabak ezkutauko nindubala zeure aurreti. Bainaz gabak argi egiten deutsu, illunak legez. Gaba ta eguna zuretzat bardinak dira. Onan kanteetan eban, neure entzula onak, Dabid erregiak Jaungoikuaren anditasun neurri bagia.

Ezin sartu leiteke gizonaren ezauberaan, ze altuba dan Jaungoikuaren anditasuna. Leku guztietan ta denpora guztietan dago Jaungoikua guztiakin ta bakotxagaz. Jaaten bagagoz, geugaz dago. Lo



bagagoz, geugaz dago. Esnaatuta bagagoz, geugaz dago. Gabiltzan leku ban ta gagozan lekuban, beti geugaz dago geure Jaungoiko ona. Itxasuk baino zabalago da, zerubak baino altubago da, kriatura guztiak kabidu ezin dabeena da. Edo obeto esateko, beste gauza guztiak ezer bere ez dira, utsa dira, Jaungoikuaren anditasunagaz bat egin ezkero. Nok neurtu dau Jaungoikua? Nok ezer erakutsi deutsa? Nok ezer emon deutsa? Nori ezer eskatu deutsa? Nos egon da ezeren premi naan? Nundi urten dau mundu andi onek? Nundi itxaso ondo luzeko dunak? Nundi eguzkijak ta izarrak? Nundi aingerubak ta gizonak? Nundi zerubak? Oh! Jaungoiko andijaren espirituzko kolko altsu ta santutti urten dabee guztiak. Bainan guztiak bat eginda bere, Jaungoikuaren anditasunaren ezaungarri apur bat baino ez dira. Beste milla zero, milla mundu ta milla bidar millinoiak geitura egingo balitu bere Jaungoikuak, bere anditasun neur[r]ji bagakua geratuko zan beti legez osorik.

Oh Jaungoiko andija! Nok ameetan ez zaitu? Zer da au, kristinaubak? Ez dogu amauko geure Jaungoiko on, andi, bakarra, beste gauza guztiak baino geijago? Ez dago beti geugaz? Edo, obeto esateko, ez gagoz beti beragaz? Ez da ordu guztietan topau biar doguna, alabau biar doguna ta amau biar doguna? Ez da zorakerija itsuba, munduko gauza on iski-jeen billa ibiltia, gauza on guztiak beragaz daukazan Jaungoiko andija geugaz euki ezkero? Ameetan badogu Jaungoikua, guzia da geuria. Ameetan ez badogu, dan baisen andija izan arren, beti geugaz egon arren ta guztiz ona izan arren, ez da geuria, geu kastigetako baino. Oh, kristinaubaren itsutasuna, ain Jaungoiko andijaren bildur ez izatia! Aren lege santuba austia! Pekatuban bitzi izatia! Jaungoikuaren kontra jagitia! Oh, Jaungoikuagaz dagozan pobre aberatsak! Oh, pekatuban dagozan aberats pobriak! Oh, neure Jaungoiko guztiz andija ta guztiz bildurgarria! Zeu ameetan zaitut neure bijotz guztiagaz ta arima guztiagaz, andija zarialako. Baita indartsuka zarialako bere.

### III.

Ontasun guztietan da amai bagakua geure Jaungoikua. Ta oneen artian bat da *indartsuka* izatia. Ezin ukatu ginai, kristinaubak, txito asko nai oi dogula geure adiskidia ezertakua, sendua ta indartsua izatia. Argala, epela ta makala bada, berak geu zaintu biarriar, geuk bera zaintu biar dogu. Orregaiti, ezertako ez danari, koitaubari, luur jota daguanari, entzute gitxi emoten deutsagu. Bainan, bida geure adiskidetzatzua animosua,

sendua, jarkija, indartsuka, inoren bildurrik ez daukana ta arerijo guztietati librau ginaizana, entero maite dogu. Ta agazkua ez galduzia gaiti beste bagarik, sarritan kanseetan gara.

Jaungoikua da bada, neure entzula onak, adiskide indartsuka bakkrik. Jaungoikuaren adiskidiak bagara ta Jaungoikua ameetan badogu, ez daukagu zetan bildurrik euki inoren bere. Jaungoikuaren adiskidia banas seguru nago arerijo guztietati. Alperrik jagiko dira nire kontra galdugarri guztiak. Alperrik munduko agintari ta borregu guztiak inpernuko puria guztiakin armauko dira nire kontra; ez deustee buruko ule bat kenduko, Jaungoikua bada neure adiskidia. Inpernubaren astuzia guztiak ta mundukuen gorroto ta alizate guztiak eltxo bat bere ez dira, Jaungoiko indartsbagaz pelietako. Jaungoikuak, bere adiskidiak zaintuteko, itxasuk liortutentz ditu, eguzkija geratuten dau, laba gorrijak oztutentz ditu, artzak eta leoiak mansotutentz ditu ta naturaleziaren lege guztiak aldatutentz ditu. Jonas bere adiskidia arrain baten tripan dauka bitzirik iru egunian ta andi aterata, bialdutentz dau predikeetara. Daniel artz goseen artian gordeetan dau pena bagarik. Babilonijako umiak laba ixuan daukaz erre bagarik. Israeltarrai itxasua liortutentz deutsee, Faraoneganik libreetako. Ta mendi soilian zeruti bialdutentz deutsee janari gozua, gose dirianeko. Lazaro illda laugarren eginian biztutentz dau. San Pedro katiaz lotuta ta soldauz ingurututa daguan lekuti libreetan dau, inok igarri bagarik ... Enpin ez mundukok, ez inpernukok, ez ezek bere ezin leikegu ezer bere gatzik, geu Jaungoikuaren adiskidiak izan ezkero.

Oh, Jaungoiko sendua ta indartsuka! Nor azartu leiteke zeure kontra ezer egiten? Nok gatz egin legijuee zeure adiskidia? Nos itxi dozu zeu maite zaitubana, arerijuaren eskubetan, zaintu bagarik? Oh! Inos bere ez. Noe justubak ez eukan ujaleen bildurrik. Moisek ez eukan Faraonen bildurrik. Eliasek ez eukan Akazen bildurrik. Apostolubak ez eukeen inoren bildurrik. Martirijk ez eukeen inoren bildurrik. Birjina santaak ez eukeen inoren bildurrik, Jaungoikuaren adiskidiak zarialako. Zeinbat donzella argalek desapijau ditubee agintarijak, erregiak, berdigubak, karzelaak, laba gorrijak ta penagarri guztiak bildur bagarik? Zer egin ebeen santa Eulaliak, santa Inesek, santa Luziak, santa Agedak ta beste millak Jaungoikuaren laguntasunagaz bakarrik? Noren bildur zan ene ama santa Teresa inpernuko demonino guztiak desapijetan zitubanian Santo Kristo bategaz? Inoren bere ez. Jaungoikuaren adiskidiak zirian; ta Jaungoikuak zaintutentz zituban.

Sinistu daigun bada, kristinaubak, Jaungoikuaren amodijorik ezak ta Jaungoikuaren adiskide izan ezak dakazala geure bijotzeetara bildurrak



guztiak. Munduko ondasuneetan, adiskideetan ta luurreko gauzeetan iminten dogu geure gogua. Aaztuten gara Jaungoikuagaz. Bilatutene dogu geure ondo egotia ez daguan lekuban, ta biarren dogunian, geratutene gara utsik eta penaz beterik. Topau daigun bada, kristinaubak, Jaungoikuaren adiskidetasuna. Gorde daiguzan bere agindu santubak. Euki daigun beragan konpifiantza osua. Ta amau daigun geure Jaungoiko ona *lauba, andija* ta *indartsua* dalako. Onegaz bitziko gara seguru geure arerijuetati; ta jadijtxiko dogu zeruko betiko gloria. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## V. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
Jaungoikua dala adiskide *pirmia, emonzailia* ta *par-kazilia*.

Jaungoikua ameetan dabenari gauza guztiak erraztutene jakoz, gatzak iruri arren, dino san Agustin gloriosuak. Jaungoikuari ondo gura deutsnarentzat ez dago gauza gatzik, ez agindu gogorrik, ez egin ezinik. Jarraitu daijeegun bada, neure entzula onak, borondatezko adiera bategaz, leen esan danaren gainera, geure Jaungoikuaren ontasunai. Gogoratu daigun oraindino, Jaungoikuaren maitetasunera geure bijotz liorrak, sikubak, otzak ta luurrezkuak irakoiteko ta gef[u]re gogua obeto presteetako, ze adiskide *pirmia*, ze *emonzailia* ta ze *parkazilia* dan geure Jaungoiko ona, geuk bijotz guztiagaz bera bakarrik ameetako.

### I.

Adiskide pirmia da Jaungoikua. Ta au gaiti bere eskatutene dau geure amodijo osua. Gauza jakina da, adiskidiak, ona izateko, pirmiak izan biar dabena. Ez da ezer esaten orain adiskide txaarrak eta pekatuzkuak gaiti. Areek zeinbat lasterrago alkarri itxijago, ainbat pekatu gitxijago. Ezbada esaten da au adiskide onak eta Jaungoikozkuak gaiti. Onak eta Jaungoikozkuak izan arren munduko adiskidetasunak, eurakin daukee penia ta bildurra. Ta zeinbat dan alkarren amodijua ta karinua andijagua, ainbat da alkar galduko ete dabeen edo ez ete dabeen arduria bere andijagua. Ara emen munduko zelo arrabijaubeen ta kaltegin andijean asieria. Asko nai izaten da ta maitetutene da adiskide pirme bat. Baina nekez topeetan da munduban. Au gaiti umeen adiskidetasunak ez dira estimeetan, laster galduen dirialako. Ta nausijenak bere bildurra, arduria ta zelo aginkarija eureekin daukee geijenian. Ta deskuiduan topeetan badira munduban adiskide bi, beti alkar maitiak eta pinak, Dabid eta Jonatas legez, bata baino bestia (oi danez) leenago illgo dira. Ta bitzirik geratutene danak negar egingo dau, adiskide ona paltau jakolako, Dabid erregiak egin eban legez. Ta zeinbat adiskide andijagua, ainbat pena andijagua.



Ez dauka bada, kristinaubak, Jaungoikuaren adiskidetasunak onako ardurarik, bildurrik edo galduko ete jakun penarik, geuk ameetan badogu bera, beste gauza guztiak baino geijago. Ez da aldatutene geure Jaungoiko onaren gogua. Atzo zana da gaur; ta gaur dana, izan da ta izango da beti. Munduba baino leenago zana, mundubaren asieraan zana ta gaurko egunian dana, izango da beti. Ez gaisuak argalduten dau, ez eguzkijak balitzuten dau, ez otzak zuritutene dau, ez edadiak zaartutene dau, ez biarrak kanseetan dau geure Jaungoiko ona. Munduko giza aldiak aldatutene dira, erreinubak, ziudadiak ta etxiak, batzuk birrindu ta beste batzuk egin, guztiak aldatutene dira. Ondasunak, osasuna, edadia, opizijuak ta munduko naijak guztiak aldatutene dira ta mudeetan dira. Adiskidiak bere algarregaz aaztutene dira edo alkarreganik aparteetan dira. Ta zeinbat bidar bata inpernura ta bestia zerura? Abel ta Kain adiskidiak zirian; Abel zeruban dago ta Kain inpernuban. Samuel ta Saul adiskidiak zirian; Samuel zeruban dago ta Saul inpernuban. Jakob ta Esau adiskidiak zirian denpora baten; Jakob zeruban dago ta Esau inpernuban. Nos bait adiskide izan arren, ez dago adiskide pirmerik munduban Jaungoikuaz ostian.

Geuk ameetan badogu Jaungoikuua beste gauza guztiaz baino geijago, bera da geure adiskide pirme bakarra. Nai gaisotu nasala, nai pobretu nasala, nai zaartu nasala, nai desondrau nasala, nai karzelaan naguala, nai erririk erri aldatu nasala, nai ill nasala; neuk ameetan badot Jaungoikuua bijotz guztiagaz, neu banas bere adiskidia, Jaungoiko ona beti izango da nire adiskidia ta ez nau inos bere bakarrik itxiko. Oh, neure Jaungoiko maitia! Ez zaitut, bida, nik amauko bijotz guztiagaz ta arima guztiagaz, neure adiskide betikua ta pirmia zarialako? Nai neuke beintzat, Jauna, zeu bakarrik ameetia, *pirmia* ta seguruba zarialako. Baita emonzailia zarialako bere.

## II.

Jaungoikuua da *emonziale* egijazkua. Ta au gaiti bere zor deutsagu Jaungoikuari geure amodijo guztia. Munduban ikusten dogunez, gauzia emoten dabeenak, estimaubak dira. Ta zeinbat geijago emoten dabeen, ainbat estimaubago. Adiskidia izan arren, urrija ta zekena bada, esaten da alakua gaiti *berezat obia dala, inorenzat baino*. Baixa gauzia ugari emoten dabena ta, endamas atzera biurtuteko eskaari bagarik emoten dabena, guztiak estimateetan dabee ta ameetan dabee borondate onagaz.

Guazan bada, kristinaubak, errazoe onetara. Ta ikutsi daigun, ia Jaungoikuak, emonzailia dalako, mereziduten dabent geure amodijo osua. Onetarako gogoratu biar dogu, Jaungoikuak ez daukala inoren bere preminarik. Zerurik eta mundurik ez balego bere, aingerurik edo santurik ez balego bere, kriaturaren errasturik erne, sortu, edo jaijo ez balitz bere, Jaungoikuua Jaungoiko izango zan beti. Zeruba ustuko balitz bere, ez leuke Jaungoikuak ezer galduko. Ta kondenau guztiak salbauko balira bere, ez litzaateke dan baino geijago izango. Berez da *dana* Jaungoikuua, ez inok emonda. Au gaiti ez dau inok pensau biar: edo limosna bat, edo barau bat, edo beste karidade bat egiten dabent; meza bat, edo sermoe bat entzuten dabent; edo beste gauza oneen bat egiten dabent, mesede andiren bat Jaungoikuari egiten deutsala. Jaungoikuak nai dau gu onak izatia ta egitade on asko geuk egitia, geu ameetan gaitubalako ta geuri zeruba emon gura deutskulako, ez geure egitade oneen preminia daukalako.

Onezaz ostian gogoratu biar dogu, Jaungoikuak ez deutsala inori bere ezer zor. Jaungoikuua da bakarrik zorrik ez daukana. Emoten deutskun guztia, duarik emoten deutsku bere borondate santiak gura dabelako. Ta emoten deutsku, berarentzat ezer atzera eskatu bagarik.

Zer emoten deutsku, edo zer emoten ez deutsku bada, neure kristinaubak, geure Jaungoiko emonzailiak? Nok emon deutsku daukagun izaatia? Nor gaiti ez gara Zubek guztiok eta ni arri bat, zur bat, pristija bat edo ezer bere ez? Nok egin gaitu gizon ta emakume? Nok gorde ginduzan geure amaren sabelian, ito bagarik? Nok emon deutskuz ta gordeetan deutskuz adizailia, borondatia ta gomutarria? Nok emon deutskuz begijak, belaarrrijak, miina, eskubak, oinak, osasuna ta beste gorputz ondo amaitubaren zati biarrekuak? Nok gaukaz zoratu bagarik, itsutu bagarik, gortu bagarik, errendu edo galdu bagarik, beste asko galdu dagozan legez? Nok erneetan ditu geure laboriak soluetan, azten ditu ta eldutene ditu? Egunaz eguzkijagaz ta gabian illargijagaz nok bisiteetan gaitu? Nok eragiten deutsaz jiraak udiai ta negubari urte oro? Zer izango litzaateke, beti gaba balitz? Zer beti udia edo beti neguba balitz? Oh, zeinbat mesede andi duarik orduban orduban egiten deutskuzan geure Jaungoiko onak! Ta oneek guztiok bere adiskidai ta arerrijai, justubai ta pekatarijai, kristinaubai ta jentilai, judegubai ta erejai. Oh, ordaina bagako emonziale ugari!

Ta zer emoten deutsee bere adiskidai, edo kristinau egijazko izan gura dabeenai? Emen agortutene da gizonaren jakituria. Emoten deutsku Jaungoikuak ber[e] seme maitia gizon eginda ogijaren ta ardauaren irudi-



jan. Emoten deutsku zeruko ondasunen sinistutia destierru onetan, ari-mako grazija, Espiritu Santubaren doiak, geure pekatubeen parkazinoia, zeruba irabazteko biar doguna, bere adiskidetasuna ta zeruban bere izate Jaungoikozkua, geuk bera ameetan badogu bijotz guztiagaz. Daukadan guztia ta nasan guztia, Jaungoikuak emonda daukat. Ta neuk ameetan badot Jaungoikua, Jaungoiko guztia da neuria ta Jaungoikuagaz beste ondasun guztiak bere neurriak dira. Oh, Jaungoiko zabala! Jaungoiko ona! Jaungoiko emonzaile ugarija! Ameetan zaitut ta amau gura zaitut nik neure bijotz guztiagaz. Emon egidazu grazia, Jauna, zeu baino beste gau-zarik inos ez ameetako.

Oh ze zorakerija, kristinaubak, ezer bere balijo ez dabeen luurreko gauzaak topeetia, estimeetia ta ameetia Jaungoikuaren lege santubaren kontra! Oh, Jaungoikuari itxita, munduban gustuak nai ditubanaren itsuba ta errukarria! Oh, munduko ondasuna, ondria, estimazinoia ta atsegina, Jaungoikua baino geijago ameetan daben kristinaubaren zorua! Iku-siko bagendu, eskeko bat eskintzen deutsala errege batek bere maija ta palazijuak ondasun guztiakin betiko duarik, ta errege jaunaren eskini ugarija nai ezda, aterik ate dabilela eskeko a goserik eta erdi biloxik, ez genduke esango zorua dala? Bada, beste ainbeste edo, obeto esateko, bardin bagarik zoruago da gauza on guztiak duarik eskintzen deutsazan Jaungoikua ameetan ez dabeena. Ta au sinistuta, Jaungoikuaren gorrotuan egotia, pekkatu mortalian bitzi izatia, ez da izan leitekian zorakeriarik andijeena edo negargarririk andijeena? Duda bagarik, kristinaubak.

Orregaiti esaten dau Jaungoikuak Jeremias propeta santubaren aoti: *Ikaratu zaitez zerubak ta birrindu zaitez zeruko atiak. Gauza deunga bi egin ditubee nire jentiak: neu izanik ur bitzi guzti-en iturri ugarija, itxi nabee ta juan dira pozu txistarretako ur berdiak edaatera.* Esango baleu legez Jaungoiko andijk pekatubaren kontrako asarriagaz: neu nas, gustuak, atseginak, poza, ondria, osasuna, ondasunak, bitzitzia, grazija ta zeruban betiko glorija gizon ta emakume guztaia duarik eskini deutseedana. Ta eurak neuri itxita, bilatu ditubee ta amau ditubee munduko ondasun ugardunak, ondra illunak, gusto atsitubak ta atsegin mingotxak. Onan kexeetan da Jaungoikua pekatarijaren kontra, neure kristinaubak. Ez gaitezan, bada, zoro izan. Amau daigun Jaungoikua, beste gauza guztiak baino geijago, emonzaile ugarija dalako. Baita parkazailia dalako bere.

### III.

Bijotz on baten aparteko senaillia da, gatz egin deutsanari parkatutia ta arerijo garbatubagaz leen baixen adiskide izatia. Mundukuen artian au gitxitan ikusten da. Ugazaba batek ez dau beinguan ostera etxian artutен, sarri deungaro egin deutsan krijaduba. Errege batek, ez bere palazijoti, eze erreinuti bere laster kenduten dau bere kontra jagi dan arerijua. Jaungoikua da onetan bere, aparteko ontasuna erakusten deutskuna. Pekatu mortala egiten dabenak, opendiduten dau Jaungoikua, injurjeetan dau Jaungoikua, desondreetan dau Jaungoikua, salduten dau Jaungoikua ta, Jaungoikuaren arerijo nausijagaz bat eginda, jagiten da Jaungoikuaren beraren kontra. Ta zer egiten dau Jaungoikuak alako esker txaarreko kristinaubagaz? Kristinauba bera garbatuten bada bere gaiski eginagaz, parkatutene deutsa Jaungoikuak bere pekatuba ta geratutene da leen baixen adiskide Jaungoikuagaz. Kristinaubak pekatu mortalagaz asarratuta euki arren Jaungoikua, esaten badeutsa bijotz osuagaz ta damu egijazkuagaz: *pekatu egin dot, Jauna; damu dot, Jauna; parkatu, Jauna; miserikordija, Jauna; ez dot ostera egingo, Jauna; konpeseetan dot, Jauna, neure pekatuba.* Au esanagaz ta eginagaz batera aaztutene da Jaungoikua, pekatarijak egin deutsan injuriaz. Ta artutene dau bere etxian, bere palazijuak, bere maijan ta bere onduan, bere kontra jagi dan gizon edo emakume a, beti bere adiskide izan balitz legez.

Oh, neure Jaungoiko ona ta parkazailia! Nok amauko ez ditu zeure erraija bigunak ta miserikordiosuak? Nok urtuko ez dau bere bijotza, neure Jesus maitia, zeure amodijuagaz, zeure bijotz amodijozkuari, kari-nosuari ta parkazailari begiratu ezker? Oh, kristinaubak, nos asiko gara geure Jaungoiko parkazaile ona ameetan! Oh, Madalena! Oh, san Pablo! Oh, Errege penitentia! Oh san Agustin! Oh, Pelajia! Zer esango zenduke zubek Jaungoikuaren bijotz biguna, ta parkatuteko presta gaiti? *Berandu asi nas, Jauna, zeu ameetan,* esango leukee ta esaten ebeen penitente areek guztiak; *ta ondo damututa gagoz, leenago asi eza zeu ameetan.* Zer esango dau santa Teresa, gorputzezko serapinak, bere bijotzian kabidu ezin dan Jesusen amodiju gaiti? Aingeru batek suzko ezpatiagaz nasaitu biar deutsala bere bijotza, esango dau Teresak, kabiduko badau Jesusen amodijo santuba.



Oh, ze ditxosuak onan pensau dabeenak! Ta baita geu bere, kristinaubak, ameetan badogu geure Jaungoiko parkazailia. Akordeetan nas bada, neure Jesus ona, pekatu mortala egin dodan beste bidar izan nasala zeure arerijo esker txaarrekua. Ainbeste bidar merezidu izan dodala zeuk ni inpernuko ondarreetara kondeneetia betiko. Parkatu deustazun beste bidar librau nozula edo atera nozula inpernuti, nun sartu biar neban popuertza neure erruz, zeuk parkatu ez bazeunst. Adorau zaijeezala, bada, zerubak eta luurrak, Jesus parkazailia. Ta ill nadilla mila bidar ni, zeu ostera open-didu baino leenago ta zeure amodijo santuba neure bijotzeti apartau baino leenago. Alan izan dedila, Jesus. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## VI. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
Jaungoikua dala adiskide *karinosua*, guztien *erarakua* ta *betikua*.

Jaungoikuak euki arren esan dirian ontasun guztiak geure bijotzee-tako amodijo osua beragana tiratuteko, balitz geure Egilla santuba bera ameetan dabenare[n]tzat asarria, gogorra, zitala, itzaltsuba edo arpegiera astunekua, ez litukee gizonak paltako atxakijaak Jaungoikuari itxita munduko gauzaak ameetako. Bainaz ez. Geure borondate gaistua izango da ta geure erruba izango da, geure Jaungoiko ona beste gauza guztiak baino geijago ameetan ez badogu. Bada, da bera ameetan dabarentzat *karinosua*, guztien *erarakua* ta *betikua*. Ikutsi daigun zelan.

### I.

Ez da erraz, neure kristinaubak, mundutaar bati aituten emoten, ze karinosua ta ze biguna dan geure Jaungoiko ona, bera bijotz guztiagaz ta arima guztiagaz ameetan dabarentzat. Jaungoikuaren adiskide maite bat biar da, esaten deutsku san Agustinek, Jaungoikuaren adiskide egijazkuai zerubak egiten deutseezan erregalu gozuak, atseginezkuak ta karinosuak aituteko. Arritura, zer pensau ta zer esan ez dakijeela geratuten dira Eleisiaren Gurasuak, Salomonen aoti Jaungoikuak bere esposa egijazkuai esaten deutseezan berba gozuak entzunda. Gorputz domaubak, arima garbijak ta Jesusen amodijuagaz ixiota dagozan bijotzak entzun biar ditu-been berbaak diriala areek, dino san Gregorijok. Ogeta amar urtera eldu ez danek ez ditubala irakurri biar, esaten eban san Jeronimok. Zer izango ete da, bada, Jaungoiko onaren karinua ta biguntasuna bere adiskideentzat, ain berba altubakin ta gozuakin, luurrezko garianoi, aituten emoten deutskunian?

Oh, Jaungoiko ona ta guztiz maitegarrija! Zeu zara duda bagarik aitarik oneena, amarik biguneena, esporosik lejaleena, erakuslarik errukiorrenea, ugazabarik mansuena, jauberik zintzueena, lagunik atseginezkuena ta adiskiderik karinosuena. Nok amauko ez zaitu bada, Jaungoiko ona, zeure ontasuna, biguntasuna, mansotasuna ta karinua probau ezke-



ro? Zer egin ez dozu zeuk zeure adiskidiak konsoleetako ta sokorriduteko, biar orduban areek aurkitu dirian?

Oh! Bela baten pikuban bialdutene deutsazu Elias, zeure adiskidiari egunian egunian ogia ta okelia. Beste bela baten pikuban bialdutene deutsazu Paulo ermitaino, zeure adiskide andijari ogi erdiya basora irudogeit urtian, egun bat bere uts egin bagarik. San Roke gaisuari ta zauritubari txakur bategaz bialdutene deutsazu ogia. San Anton Abatari artzak bialdutene deutsazuz mendi bakarrian, san Pauloren gorputza enterretako lagunzat. Baino nok amaitu, Jauna, zeure adiskidai egin deutseezuan pinezaak ta karinua? Batari bialdutene deutsazu zeruti txokolatia, bestiari musikia, bestiari larrosaak, bestiari zeruko ama maitia, bestiari aingerubak, bestiari etorten zatxakoz zeu, artuten dozu zeure esposazat, luzatutene deutsazu zeure esku santuba, emoten deutsazu edo ereztuna edo ulzia edo amodijo santubaren senalle agiri bat ta betiko bat. Oh, Jaungoikuaren adiskide egijazku! Oh, san Benito, san Bernardo, san Pranzisko, santo Domingo, san Ignazio, santa Teresa, santa Rosa, santa Katalina... ta beste milla! Zeubek esan biar zenduke ze biguna, ze gozua, ze atseginezkua, ze presta ze karinosua dan geure Jaungoikua, bera ameetan dabarentzat. Amau daigun bada, kristinaubak, Jaungoikua, *karinosua* dalako. Baita geure guzton erarakua dalako bere.

## II.

Jaungoikua da guztien *erarako* adiskidia. Ta au gaiti bere amau biar dogu, beste gauza guztiak baino geijago. Betozi munduko gizon ta emakume guztiak ta esan begijee, ze eratako adiskidia goguan jausten jakuen. Ta topauko dabee geure Jaungoikua, eurak nai dabeen erakua. Batzuk eureenez dira tristiak, ta lagunak bere tristiak gura oi ditubee. Beste batzuk dira eurenez alegeriak, ta alegeriak nai ditubee laguntzat bere. Gatxa edo penia daukanak naijago dau penadunagaz edo mindunagaz berba egin, oi danez, ain bagakuagaz baino. Aberatsak bere naijago dau aberatsa adiskidezat, pobria baino. Andikijkak andikija; pobriak pobria; zaarrak zaarra; ta gaztiak gaztia.

Jaungoikua da bada, neure kristinaubak guztien erarako adiskidia. Begiratu begijo gura dabenak, naijen daben moduban; alan topauko dau geure Jaungoikoa ona. Adiskide tristia gura dabenak, triste topauko dau Jesus, geure Jauna ta Jaungoikua Jesemaniko ortuban, tristeziak eta larrijak odolezko izerdija ateraten deutsala. Triste Anasen etxian, belaarri-

ondoko gogorrak emoten deutseezala. Triste Kaipasen etxian, guzurrak ezarten deutseezala, uletiraka, txistu urtika ta burla minbera guztiak egiten deutseezala. Triste, pillarrari lotuta azoteetan dabeenian. Triste, kurutzia lepuan dabela. Ta triste kurutzian josita, esegita daguan lekuben. Adiskide alegeria nai dabe nak, alegere topauko dau Jesus, bai Taborko mendijan Eliasen ta Moisen erdijan apostolubakin. Bai illeen arteti biztuta, Ama Birjinari, Madalenari ta apostolu santubai agertutent jakuenian. Bai zerubetara igoten dabenian. Ta bai zeruban daguan lekuben.

Penazkua nai badau adiskidia, penazkua topauko dau Jesus ogeta amairu urtian edo bitzi izan zan arte guztian. Bada, Ama Birjinaren sabel garbijan sortu zaneti kurutzian ill zan arte guztian, beti penaz bitzi izan zan geure Salbazalle maitia. Ta ez dau inok irago penarik, desondrarik edo mingarririk, leenago Jesusek irago ez dabenik. Nai badau adiskide odol onekua ta entzute andikua, Jesus da guztien artian odolik garbijeenekua ta entzuterik andijeenekua. Errege guztien erregia ta jaun guztien jauna da bere Aita, zein dan Aita Betikua. Abraan, Isaak, Jakob, Dabid ta beste patriarka ta errege nausijeen alabia da bere ama, zein dan Maria Santisimia. Bago andiki andijagorik edo kaballero nausijagorik, Jesus geure Jaungoiko ta gizon egijazkua baino? Nai badau adiskide aberatsa, Jesus da zeruko ta munduko ontasun guztien jaubia. Aberats guztien aberatsa edo aberats bakarra. Nai badau lotsa onekua, inok burlarik egingo ez deutsana ta bere ondria zaintuko dabena, Jesus da lotsia, itzala ta errespetua daukana. Berba bategaz luurrera ezarten ditu, bera preso artutera duazan Judas ta soldaubak. Ija illian daguala illunduten dau eguzkija, ikaraturuten dau luurra, zatituten ditu arrrijak ta biztutent ditu illak Jesusek. Ta nai bategaz erabilten ditu zerubak ta luurrak, gura dabent moduban.

Nai badau adiskide pobria, ondo pobretuba topauko dau Jesus, bai Belenen jaijo biar dabenian, ostaturik edo litorperik inok emon gura ezda, korta batera jaijotera doianian. Ta bai alemanijen erdijan jaijota, aska baten dagua nian. Bai bere janian ta soinian; bida, san Joseperen aotzijako irabazijagaz bitzi zirian Jesus, Maria ta Jose; ta jantzi bat baino euki ez eban bere denpora guztian. A bere kendu eutseen azoteetako ta kurutzian josteko. Pobria gura badau adiskidia, ondo pobre dauka Jesus kurutze santaan josita. Penaz dago aberatstuta; baina munduko ondasunez ondo pobretuta. Bere gorputz illa meztituteko izaria bere inok karidadez emonda dauka. Jesusek ama bere pobria eban. Aita ordekua bere pobria eban. Laguntzat edo diszipulutzat artu zitubanak bere pobriak zirian; arrain arzailiak zirian. Orrako altarako sakramento santuban bere pobre dago Jesus maitia. Leku askotan argi apur bat ozta bere aurrian iminten jako. Ta



korporal zaar ta askotan loi batzubeen gainian dago Jesusen gorputz Jaungoikozkua.

Ze atxakija emon legi, bada, kristinaubak, geure Jaungoiko ona ez ameetako? Izango ete da inos galduko ete dogun arduria? Ez, kristinaubak. Betikua da geure Jaungoikua. Ta au gaiti bere amau biar dogu, beste gauza guztiak baino geijago.

### III.

Oh, ze atsegin andija kristinaubarentzat Jaungoikua betikua izatia! Ez da geure Jaungoiko ona geuganik inos aldenduko, geu beraganik aldenduten ez bagara. Ez deutsku inos bere itxito, geuk berari isten ez badeutsagu. Ez dauka amairik Jaungoikuaren adiskidetasunak, geuk geure guraz ta borondatez pekatu eginda galduen ez badogu.

Bijotz guztiagaz, gogo guztiagaz, arima guztiagaz ta beti ameetan badogu geure Jaungoiko guztiz maitegarrija beste gauza guztiak baino geijago, duda bagarik da guretzat Jaungoikua adiskide jakituna, adiskide zuzena, adiskide aberatsa, adiskide lauba, adiskide andija, adiskide sendua, adiskide pirmia, adiskide emonzailia, adiskide parkazailia, adiskide graziosua, guztien erarako adiskidia ta betiko adiskidia. Jaungoiko guztia ta bere erreinu guztia da betiko geuria. Ta ameetan ez badogu Jaungoikua beste gauza guztiak baino geijago, Jaungoikuaren betiko gorrotua, asarria, zamaija, zeruti betiko erbestetutia ta inpernuko betiko erreeria demoni-nuen ta kondenaubeen artian, guztia da geuria. Bijeetati bat, kristinaubak. Edo betiko zeruba edo betiko inpernuba, guztia geuria. Jaungoiko onaren amodijo santubaren sarija da betiko zeruba. Amodijo santu onen paltaan betiko inpernuba. Zer esan legi bada, kristinaubak, pediagaz egija oneek sinistuta, pekatu mortalian bitzi dan errukarrija gaiti? Jaungoikuaren gorrotuan, dakijala, daguana gaiti? Pena bagarik lege santuba ausita, Jaungoikua betiko galduen dabena gaiti? Pekatu mortala egiten dabena gaiti? Esango dogu, alako kristinauba zorua dala? Ala itsuba dala? Ala gaistua dala? Ala pede bagakua dala? Ez da erraz, egija esateko, pekatu mortalian Jaungoikuaren gorrotuan sosiguz jan ta lo egiten dabenari, ondo jagokan izen bat emoten. Esan dakijola, bada, san Paulo apostolu-bagaz: *Jesukristo geure Jauna, Jaungoiko ta gizon egijazkua ameetan ez dabena, izan dedila madarikatuba, izan dedila eskomulganba, izan dedila beti kondenanba.* Oh, ze berba ikaragarrijak! Bainak Espiritu Santubak esanak. Errazoiari

darraikozanak. Ain Jaungoiko ona ta maitegarrija pekatu mortalagaz opendituten dabenak, ondo irabatzija dauka betiko kondeneetia.

Esnaatu gaitezan bada, kristinaubak, geuri guztia balijo deutskul, betiko ditxiari begiratuteko. Gogoratu daiguzan sarritan Jaungoikuaren ontasunak. Batian jakituri jaunak, bestian bere ontasun zabalak ta ugarijak, bestian bere betiko Erreinu baketsuba ta ditzosua, bestian geuri deutskul karinua, amodiju ta borondate ona. Begiratu daijogun geure arimeetako nai on guztiagaz ta bijotzeetako amodijo pin guztiagaz Jesukristo, geure Salbazale maitiari. Batzubetan Belengo ganadu aska pobrian bere jaijotzaan; beste batzubetan Ama Santisimaren ta san Josepe bedeinkatubaren altzuan ta besuetan; beste batzubetan Jesemaniko ortu santuban auspaztuta odolezko izerdija dariojola, gu gaiti orazinoe egiten daben lekuban; nosbait, zelan azoteetan dabeen; beste baten zelan kurutzia lepuan dabela doian Kalbarijora ta daguan kurutzian esegita. Begiratu daijogun illeen arteti biztutenean; altarako sakramento santuban; en fin bere bitzitzako ta erijotzako pausu santubeetan. Penseeta oneek ekarriko dabee geure bijotza Jaungoikua ameetara, beste gauza guztiak baino geijago. Ta au da asko, gu beti zeruban ditzoso izateko. Aitiaren, Semiaaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



## VII. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan

*zer dan nobera ameetia.*

*Ta zeintzuk dirian ge[u]re proximuak.*

Ikasi ezkerro kristinaubak, lelengo agindubak eskatuten deutsala Jaungoikua ameetako beste gauza guztiak baino geijago, ta zelan dan geure Jaungoiko ona gutziz maitegarrija, onen ondorik Jesukristo, geure Jaunaren esana ta kristinaubaren eginbiarra da, ameetia geure proximua, geure buruba legez. Ez gaitezan, badala, engaiñau, kristinaubak. Proximua ameetako daukagun aginduba, txito andija da. San Paulo apostolubak dinuanez, adulteriorik ez egitia; ezer ez oostutia; inor ez illtia; testigantza paltorik ez emotia, ta beste Jaungoikuak aginduten deutskul guztia kabitutzen da berba oneetan: *amauko dozu zeure proximua, zeure buruba legez.* Proximua ameetako geure buruba legez, jakin biar dogu zelan geure buruba amau biar dogun. Askok usteko dabee, bakijeela euren burubak ameetan. Ta izan leiteke eureen gorputzak ta gurarijak ameetan jakitia. Bainan Jaungoikuak aginduten deutskul moduban eureen burubak ameetan dakileenak ez dira guztiak, eze gitxijago bere. Au gaiti erakutsiko deutsut dotrina onetan: 1. *Kristinaubak zelan amau biar daben bere buruba.* 2. *Nortzuk dirian geure proximuak.* Prestau egizu entzutia.

### I.

Laarregijkak ta gitxijegijkak eragotzita dagoz lege guztian. Borondatezko ta ezauberazko gauza guztietan biar da moduba ta ordenia. Alan, kristinaubak, Jaungoikuak aginduten deutskulian proximua ameetako, *ge[u]re buruba legez*, moduren baten aginduten deutsku geure burubak ameetako bere. Zelan baina amau biar dau kristinaubak bere buruba? Ah, neure entzula onak! Emen dagoz utsegite asko. Geure buruba esaten danian, aituten emoten da gizon edo emakume guztia, gorputz ta arima. Arimia ta arimiari darraikozanak, ta gorputza ta gorputzari bere izatian darraikozanak da gizona edo emakumia. Ta au da bere ordeniagaz ta modubagaz bakotxak amau biar dabena. Bainan zelan? Jaungoikuak aginduten daben moduban. Geure arimia ta arimako adilaria edo entendi-

mentuba ta nailaarija edo borondatia, ta gorputza bere sentidu guztiakin Jaungoikuak geuri duarik emonak dira. Ta zetarako emon deutskuz Jaungoikuak geure burubak, gorputza ta arimia? Bera ezaututeko, bere naija egiteko, bera ameetako ta gero beti zeruban bere ontasuna gozeetako. Begaz, amau biar ditugu geure burubak Jaungoikua gaiti ta Jaungoikuarentzat. Beste gauzarik esatia, ordena guztia okertutia da. Uts egitia da.

Amau biar dogu geure izatia, Jaungoikuari grazijaak emonda, gizon egin gaitubalako. Amau biar dogu geure arimia. Ta arimia ameetia da pekaturik ez egitia. Bada, pekatu egiten dabena da bere arimiaren areriju. Arimia ta gorputza betiko ditxoso egiten ditubana da grazija. Ta au gura izan biar dogu, beste gauza guztiak galdu bida bere, geure buruba Jaungoikuak aginduten deutskul moduban ameetako. Gorputza ta arimia betiko zorigestoko egiten ditubana da pekatuba. Ta pekatubarri gorroto izan biar deutsagu, beste gauza guztiai baino geijago, geure buruba ameetako. Amau biar dogu geure gorputza, arimiaren krijaduba dalako ta arimiari Jaungoikuak serbiduten lagundu dagijon. Amau biar ditugu geure entendimentuba, borondatia ta sentzailiak edo sentidubak, arimiari ta gorputzari lagundu dagijuen Jaungoikua serbiduten ta zeruba irabazten. Amau biar ditugu bitzitzia, luzia edo laburra; geure osasuna, sendua edo makala; geure gorputzaren zatijak, osuak edo ausijak; geure kleituba, jakturria ta beste geure izatiari ta izatiaren ontasunari darraikozan ta daukaguzan gauza guztiak. Bainan guztiak Jaungoikua gaiti ta Jaungoikuaren naija egiteko. Jaungoikua serbiduteko ta obeto ameetako. Pekatuti aparteetako, biar onak egiteko ta zeruba irabazteko. Geure zeregin nausija ta bakarra dan legez Jaungoikua ameetia ta geu salbeetia, onetarako amau biar dogu geure buruba, garian guztia ta daukagun guztia. Jazoten bajaku inos ordu esturik ta ain esturik, zeinda erremedijo bagakua dan: edo grazija galdu edo begija galdu; edo pekatu egin, edo besua edo izarra galdu; edo arimia galdu, edo bitzitzia galdu; edo Jaungoikua opendidu, edo kleituba, aziendia ta adiskidiak galdu; erabagita dauka Jesukristo geure Jaunak bere ebanjelio santuban. Ta zer? Leenago galdu biar ditugula geure begijkak, geure besuak, geure izarra, geure kleituba, ondasunak, adiskidiak ta bitzitzia bere, grazija galdu baino, pekatu egin baino, arimia galdu baino, Jaungoikua opendidu baino.

Zer balijo deutsa gizonari mundu guztiak, bere arimiaren kaltian bida? dino Jesukristo geure Jaunak. Esango baleu legez Jesus, geure zeruko erakusla andijkak: Oh, kristinauba! Zariana zariala, aditu egizu ta sinistu egizu, geijago balijo dabela zure arimiak, munduko ontasun, entzute



andi, portuna ditxoso ta atsegigarri guztiak baino. Mundu guztia irabatzi arren zeure arimia galduen badozu, guztia galdu dozu. Arimiaren kaltia ezegaz bere erremedijauko ez dozu. Munduko gauza bat gaiti pekatu eginda kondeneetan bazara, inpernuti inok bere aterako ez zaitu. Beste leku baten esaten deustzu Jesukristo geure Jaunak dotrina au berau: Zeure begija dala medijo pekatu egiten badozu, atera egizu begija. Bada, oba dozu begi batagaz zerura juan, begija gaiti pekatu egin ta begi bijakin inpernura juan baino. Zeure eskubak pekatu eragiten badeutsu, ebagi egizu eskuba. Bada, oba dozu esku batagaz zerura juan, eskuba gaiti pekatu egin ta esku bijakin inpernura juan baino. Zeure oiña dala medijo, pekatu egiten badozu, ebagi egizu oina. Bada, oba dozu oin batagaz zerura juan, bijakin inpernura baino. Berba oneetan esaten deutsku geure Salbazaire maitiak: Begijk, eskuba, edo oina baisen maite doguna bada bere geuri pekatu eragiten deutskuna; nai aita, nai ama, nai umia, nai senidia, nai adiskidua, nai geure aziendia, nai geure kleituba, nai beste edozein gaua; dana dala, leenago galdu biar dogula, pekatu egin baino. Geijago amau biar dogula geure arimia, munduko gauza guztiak baino. Au da geure buruba ameetia, Jaungoikuak gura daben moduban.

Ta inok dudeetan badau, ia bitzitzia gordeetia gaiti pekatu egin legijan, au bere erabagita dauka Jesukristok bere ebanjelio santuban, nun dinuan: gorputza ill baino besterik ezin deutsunari, ez egijozu bildurrik euki; baina bildur izan zakijoz, gorputza ta arimia inpernura bota legizuzan Jaungoikuari. Emen erakusten deutsku Jesus maitiak, leenago galdu biar dogula geure bitzitzia, Jaungoikuak pekatubagaz opendifu baino. Geijago amau biar dogula geure arimia bitzitzia baino. Arimia dan legez geure izate nausija ta ya betikua, Jaungoikuak bere irudira egindakua, au gaiti geure arimia ta arimako salbazinoia amau biar dogu, Jaungoikuazurreengo, beste luurreko gauza guztiak baino geijago. Onen ondorik amau biar dogu bai geure bitzitzia, bai geure osasuna, bai geure gorputza, geure kleituba ta Jaungoikuak emon deutskun guztia. Baina oneek guztiok amau biar ditugu ta guztiakin balijau biar dogu Jaungoikuaren agindubak gordeetako, Jaungoikuak bera ameetako ta geure arimia salbeetako. Arimiaren kaltian gor putza, bitzitzia, osasuna, kleituba, ondasunak, gurasuak, adiskidiak edo luurreko gauzaak ameetia da, bere burubari ondo gura ez izatia.

Zer! Naiko zenduke zeure etxian gauza txaarra eukitia? itanduten deutsa san Agustinek pekatarijari. Ta erantzuten deutsa: Ezer bere ez zenduke naiko txaarra eukitia; ez emaztia, ez semia, ez alabia, ez krijaduba, ez krijadua, ez arkondaria ta ezda oinetakuak bere. Ta nai dozu eukitia bitzi-

tza txaarra ta arima txaarra? Amau egizu, bada, geijago, esaten deutsa santubak, zeure arimia oinetakuak baino. Oh, zeinbat kristinauri esan legijuen beste ainbeste! Ameetan ditubee, lastima gorrija! euren burubak Jaungoikuak opendifuteko ta diabrubia serbiduteko. Ameetan ditubee eureen gorputzak pekatu nasaijak beragaz egiteko. Ameetan dabee eureen osasuna Jaungoikuaren lege santuba austeko. Ameetan ditubee eureen sabelak, begijk, belaarrijak, bitzitzia, ondasunak ta Jaungoikuak emonda daukeen guztia. Baina zetarako? Ah, pekatari tristiak! Sabela ta gorputza Jaungoikozat artuta, eurak serbiduteko, eurai gusto emoteko, pekatu egiteko ta arima errukarrija kondeneetako. Ta au da kristinaubak bere buruba ameetia? Esango dogu soberbijotso batek, enbidijoso batek, gorrotosu batek, guleru batek, ordi batek, kodizijotso batek, lujrijotso batek, pekatari batek ameetan dabela bere buruba? Ez. Arimiaren areriju ta bere burubaren areriju da, pekatu egiten dabena. Amau daiguzan bada, kristinaubak, geure burubak, Jaungoikuak agindutzen deuskun moduban, proximuak ameetako geure burubak legez. Baina onetarako, jakin biar dogu, zeintzuk dirian geure proximuak.

## II.

Munduban dagozan gizon ta emakume guztiak dira geure proximuak. Ez euki uts egiterik, kristinaubak, gauza onetan. Nai urekuak ta nai urrinezkuak, nai errikuak ta nai erbestekuak, nai adiskidiak ta nai arerijuak, nai senidia ta nai atziak, guztiak dira geure proximuak. Adan eta Ebaganik datozen guztiak, dino san Agustinek, dira zeure proximuak. Guztiok gara alkaren lagunak. Baina ez guztiok modu baten, zerurako ustiari begiratu ezkerro. Kristinaubak izan ez arren, zeure proximuak dira. Bada, ez dakizu zuk Jaungoikuaren aurrian zer jatzoten dan. Askotan zuk, kristinai ez dalako, burla egiten deutsazuna biurtutzen da Jaungoikuagana. Ta benturaz zuk baino obeto serbiduten dau, adoreetan dau ta ameetan dau Jaungoikuak. Geuk jakin ez arren nortzuk eta zeinbat dirian, bagoz kristinai ez dirianeen artian kristinaubak. Ez dakigu Jaungoikuaren aurrian zer jatzoten dan, ez zer jazoko dan. Ez daki gu zeintzuk salbauko dirian edo kondenauko dirian. Orregaiti munduko gizon ta emakume guztiak euki biar ditugu geure laguntzat ta proximozat. Au da san Agustinen berbeetia.

Emeti ateraten da kontuba, kristinaubak, gorputza ta arimia daukeen gizon ta emakume guztiak, nai diriala erejiak, nai judegubak, nai moruak,



nai jentilak, nai Jaungoiko bagakuak, nai beste edozein kastatakuak, geure lagunak ta proximuak dira. Ta geure buruba legez amau biar ditugunak dira guztiak, salbauko bagara. Alan 1. amau biar ditugu, zeruban Jaungoikuagaz ditzoso dagozan aingeru, santu ta santa guztiak. Alegrau biar dogu eureen ditxa onagaz ta gloria ederragaz. Ta erregutu biar deuteegu, izan ditezala geure lagun onak zeruban Jaungoiko andijaren aurrian. 2. Amau biar ditugu purgatorijuaren erreeta dagozan arima pielak, dirialako Jaungoikuaren adiskidiak; grazija ta karidadia inos galduko ez dabeenak ta zeruban santubakin beti bitziko dirianak. Errukitu biar dogu purgatorijoko arimaak daukeezan penaakin. Ta sokorridu biar ditugu orazinoagaz, barubagaz ta beste egitade onakin, pena areetati librauta, geure bitarteko zeruban izan ditezan. Purgatorijoko arima pielak gaiti Eleisa Ama santiak erakusten deutskuna da. 1. Jaungoikuaren graziajaan ta adiskidetasunian ill dirian arimaak, baina pekatu mortal ondo konpesaubeen edo pekatu txikarreen zor guztia Jaungoikuaren zuzentasunari munduban pagau bagarik ill zirianak, illda gero pagau biar dabeela zor guztia padetzidubagaz. 2. Arima errukarri areek purgatorijuaren dagozan artian, erriaiz ta padetzidubagaz baino bestelan eureentzako ezin legijeela ezer. 3. Eleisa Ama santiaren ta kristinaubeen egitade onak, limosnaak, orazinoiak, mezaak, induljenziaak ta karidadiak, purgatorijoko arimeen izenian egin ezkerro balijo deutseela, eureen zorrak pageetako ta penaak arinduteko, edo guztia edo zati bat. Ta zeinbat geijago egiten dan eureen izenian, ainbat lasterrago urtengo dabeela purgatorijoti. 4. Arima ditzoso areek seguru dagozala betiko. Ezin legileela ya pekaturik. Ta zorra pagau dagijeen instantian sartuko diriala zeruko erreinuban.

Au da, kristinaubak, pediak erakusten deutskuna purgatorijoko arima pielak gaiti. Padetzietan ta erreeta dagozan proximuak dira. Jaungoikuak ta aingerubak maite ditubeenak dira. Zeruko pamelija santuba geituko dabeenak dira. Premina andijan dagozanak dira. Menturaz geure gurasuak ta senideurrekuak dira. Ezker onekuak dira. Bada, geuk geure egitade onakin orain pena areetati libreetan baditugu, duda bagarik izango dira zeruban Jaungoiko andijaren aurrian bitarteko segurubak. Sokorridu daiguzan, bida, alegin guztijagaz purgatorijoko arima errukarrjak. Baita onevez gainera amau biar ditugu munduko proximo guztiak, geroko dotrinan esango dan modubagaz ta ordeniagaz, salbauko bagara.

Erregutu dagijogun bida, neure kristinaubak, geure Jaungoiko onari, erakutsi daigula bere anditasuna, geure burubak ta proximuak ameetan. Aitiaren, Semiaaren ta Espiritu Santubaren Izenian. Amen.

## VIII. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Arerijo ez dirian proximuak ameetia zer dan.*
2. *Ze ordenagaz amau biar dirian.*

Ikasi ezkerro kristinaubak zelan amau biar dabentur buruba ta zeintzuk dirian bere proximuak, oni darraiko, neure entzula onak, ikastia zer dan ge[u]re proximuak ameetia ta ze ordenagaz amau biar ditugun. Esango deutsut, bida, dotrina onetan: Leleengo, *zelan amau biar ditugun ge[u]re proximuak*. Bigarrenian, *ze ordenagaz amau biar ditugun*. Ez da dotrina onetan ezer esaten, arerijuai zor deutsagun amodijua gaiti. Au dan legez sarritan jatzoten dana ta kristinau askok nekez ikasi oi dabeena, dinot: *arerijuak ameetia*. Geroko dotrinako isten dot oni jagokana erakustia. Egon zaitez, bida, atenzinoe omagaz.

### I.

Jaungoikuaren aginduba da, neure entzula onak, proximua geure buruba legez ameetia. Inor bere ez dago libre zeregin santu onetati. Inok bere ukatu ezin legi lege santu au. Proximuak ameetako neurrija bere, Jesukristo geure Jaunak berak iminija da. Ezin kendu ginaijo izpirik, kari-dadian paltau bagarik. Ze neurri da, bida, au? Geure burubari deutsagun ondo guria proximuarri izatia. Geuretztat gura gendukiana, proximuarri gura izatia. Geure burubak legez, proximua ameetia. Ara emen neurri argija, zabala, duda guztiak kenduten ditubana ta edozeinek bertati ikasi legijana. Nai dozu zeuretzat osasuna? Bada, nai izan biar deutsazu proximuarri. Nai dozu zeuretzat bakia? Bada, nai izan biar deutsazu proximuarri. Nai dozu zeuretzat kleitu ona, ondra ona, bestiak zeu gaiti ondo esan dagijean ta estimauzagijeezan leku guztietan? Bada, nai izan biar deutsazu proximuarri kleitu ona, estimazinoe ona, jentiak bera gaiti ondo esan dagijan ta pensau dagijan. Nai dozu zeure laboriak ondo ta ugari eldutia, zeure ganadubetan, tratubeetan ta artu emoneetan ondo urtetia, ta inor kansau bagarik, zegaz bitzi munduban eukitia? Bada, beste ainbeste opa biar deutsazu zeure proximuarri bere laboreetan, aziendaan ta artu emonetan. Nai



dozu bitzitzia luzia ta pamelija ona zeuretzat? Bada, beste ainbeste proximua rentzat.

Zeure osasunian, pamelijaan, senikeraan edo etxian gaiso bat, naibage bat, negargarri bat edo atsekaba bat jazoten jatzunian, nai zenduke zeure auzua ta lagunak zeugaz errukitu ditezan, lastima artu dagizubeen ta aleginaz lagundu dagizubeen gaiso edo premina atan. Bada, zeure buruba legez proximua ameetako, errukitu biar dozu zeure auzuaren ta proximua ren naibagia, atsekabia ta trabajuba dakutszunian. Guztia baino geijago gura dozu Jaungoikuak parkatu daizuzan zeure pekatubak, emon dagizun arimako grazia ta zeruko gloria? Bada, munduko guztiai opa biar deutseezu, luurreko ondasun ta atsegir guztiak baino obeto, eureen pekatubeen parkazinoia, arimako grazia ta zeruko gloria. Ara emen proximua ameetako neurrija.

Ondo gura deutsagunari ta ameetan dogunari ez deutsagu, dakigula, naibagarik emoten. Ez deutsagu gatxik egiten ez osasunian, ez aziendaan ta ez kleituban. Ta Jaungoikua gaiti ameetan badogu, ez deutsagu pekatutako biderik bere emoten. Penaz edo triste badago geuk benetan Jaungoikua gaiti ameetan dogun adiskidria, pozik eta gogoz lagunduten deutsagu. Triste badago, konsoleetan dogu. Gose edo egarri bada, kopau bat baino ez bada bere, euki ezkero, borondatez emoten deutsagu. Penaz badago, errukitutenean gara ta arindu gura genduke bere penia. Pekatu mortal bat egiten badau, oh! oraindino geijago sentiduten dogu bere pekatuba beste bere gatz guztiai baino. Erregututenean deutsagu Jaungoikuari geure adiskidiaren arima errukarrija gaiti. Gogoratutenean deutsagu berari bere (artia, moduba ta tertziiorik oneena artuta) egin daben pekatuba, laster erremedijau dedin ta pekatu mortalian ill ez dedin. Ara, kristinaubak, geure proximua ameetako neurrija.

Oh, ze gauza ona izango litzaatekian guztioi onan alkar ameetia ta alkarrilagundutia! Gogoratuta beste bagarik, emoten dau enbidija santu bat, kristinau guztiai onan alkar ameetan ta alkarrilagundutenean bitzi iza-tiak. Errazoiagaz esaten dau san Paulo apostolubak, Jaungoikua gaiti proximua, biar dan legez, ameetan dabenak gordeetan dabela lege guztia. Ez dakit zek emoten deutsan ainbeste su geure bijotzari, proximuarentzat kontra gorrotua, ikusi ezina, gaiski esatia ta gaiski opa izatia eukiteko.

Proximua ameetako ez da asko auagaz esatia: *guztiak ameetan ditut nik; ez deutsat nik inori bere gatxik gura.* Au esatia gauza ona ta biarrekua da. Baina auagaz esaten dana borondatiagaz nai izan biar jako; ta al izan ezkerro eginagaz aitutem emon biar da. Au gaiti esaten dau san Juanek, mese-de eginagaz amau biar ditugula proximua, ez berba utsagaz. Ta

Santiagok esaten deutsku: *Dakutszunian pobre, bilos, gose, otzak irago bat, zuk esan arren ari: zuaz Jaungoikuagaz, berotu zaite ta zerbait jan egiz; zeureti ezer emoten ez badeutsazu, zer baljo deutsa pobriari zure ondo esanak?* Egitadiak dira geure pediaren ta karidadiaren testigubak. Au berau aitutem emoten deutsku san Paulo apostolubak, dinuanian: *Aingeruben minagaz berba egingo baneu bere, zeruko misterijo guztiai ezautuko banitu bere, jakiturija guztia baneuka bere, mendijk batetik bestera iragoteko sinistutiagaz banengo bere, ta neure gorputza erreestaragino kastiganuko baneu bere; karidaderik ez badaukat, utsa nas ta ezer bere balio ez deustee.* Oh, karidade santuba! Oh, Jaungoikuaren ta proximuarentzat amodijo santuba! Zeinbat gauzaren paltaak erremedijeetan dituzun!

Ta inor engainau ez dedin karidadia daukala pensaubagaz, Apostolu santubak berak banaan konteetan deutskuz karidade egijazkuaren egitadiak. Dino, bada: Karidadia itxaan andikua da, pazienzia andikua da, biguna da, enbidija bagakua da, gatxik egin gura ez dabena da, banidade ta andiari bagakua da. Karidadia daukanak ez dau asarrerik erakusten; ez dau gatxik penseetan; ez deutsee bere gauzai ainbeste begiratutenean; ta inoren on guztiai alegereetan da. Karidadia daukanak guztia supridutenean dau, guztia sinistutenean dau, guztia esperetan dau, ta inor gaiti bere ez dau gatxik penseetan. Oneek dira karidade egijazkuaren senailiak; ta emeti ezautuko dau kristinaubak ia karidadia daukan edo ez.

Proximuarentzat karidadiaren kontra pekatu egiten da modu askotara: 1. Proximua i gorroto izanagaz edo gauza txaarra opa izanagaz, 2. Inoren gauza onaren enbidijagaz. 3. Proximua bakia galdubagaz. 4. Proximua gatxagaz alegrau edo onagaz tristetubagaz. 5. Al dagijala, nezesidadian daguan proximua sokorrudu ezagaz, nai arimako nai gorputzko premineetan. 6. Proximua i pekatu eraginagaz nai pekatu egiteko bidia emonagaz. Pekatu ezaina ta Jaungoikuaren gorroto andikua da inori pekatu eragitia nai pekatu egiteko bidia emotia. Zorigaitokoa eta desditztaubak esaten deutsee Jesukristo geure Jaunak bere ebanjelio santuban proximua i pekatu eragin edo pekatu egiteko bidia emoten deutseenai. Arri bat samati lotuta, itxasoko ondarreetara boteetia merezidu dau alako pekatarijak, dino Jesukristok. Bere arimia galduzia ezer ez balitz legez, proximua i arimia, pekatu eraginagaz, galduzia dabelako. Oh, ze pekatu kasta txaarrekua eta eskandaluko pekatuba! Inori pekatu eragitia! Pekatu egiteko bidia emotia! Kristinaubak karidadez alkarrilagundu bia-rian Jaungoikua serbidutenean ta zeruba irabazten, alkarrilagundutia dia-bruba serbidutenean ta inpernuba irabazten! Ikasi bada, kristinaubak, zer dan proximua ameetia. Baita ze ordenagaz ta modugaz amau biar dan bere.



## II.

Karidadiaren ordenia ta moduba aituteko, gogoratu biar dogu, neur entzula onak, gauza on batzuk egin ginaizala proximo guztia gaiti. Bainaz beste batzuk ezin ginaiz guztia gaiti. Ezda gitxiago gaiti bere. Guztia gaiti egin al daiguna, guztia zor deutseegu. 1. Proximo guztia opa biar deutseegu arimako grazija ta zeruko gloria. Baita Jaungoikua serbiduteko ta zeruba irabazteko munduban biar dabeena bere. 2. Guztia nai biar deutseegu bitzitzia, osasuna ta geuretzat gura doguna, leen esan dan legez. 3. Erregutu biar deutsagu Jaungoikuari proximo guztia gaiti. Karidadiaren estalgi zabalak guztia batutzen ditu ta geuk proximuarri deutsagun karidadiak bere guztietara zabaldu biar dau. Iru gauza oneek guztia gaiti daigueuz ta guztia zor deutseeguz.

Baina aparteko sokorruba ta laguntasuna proximuarri egiteko, ez dira bardinak ez proximak, ez areen premina ordubak. Ta oni begiratu biar jako karidadiaren ordenia gordeetako. Ordena au austia pekatu da, dino santo Tomasek. Personeen artian dagoz gurasuak, senar emaztiak, seme alabaak, senidiak, ongillaak, kristinaubak, erejiak... Premineen artian batzuk dira arimakuak, beste batzuk gorputzekuak. Oneen artian batzuk dira bertati erremedijua eskatuten dabeenak; ta luzatu ezkerro, erremedijau ezin legizanak. Beste batzuk dira, luzapen edo asti geijago emoten dabeenak.

Esaten da, bada. Lelengo: arimako preminaan daguana leenago sokorridu biar dala, gorputzeko preminaan daguana baino. Pekatu mortalian illteko peligru urekuan dago persona bat. Bada, a leenago sokorridu biar dogu, gorputzeko preminaan daguana baino. Arima batek geijago balijo dau, munduko gauza guztia baino. Proximua salbeetako popurtxak bida, galdu biar dogu geure bitzitzia ta daukagun guzia bere, pekatu egin bagarik al daigunian. Geure arimaak salbeetia gaiti emon eban Jesus, Jaungoiko ta gizon egijazkuak bere bitzitzia. Ta esaten deutsku Jesus maitiak, proximua salbeetia gaiti bere bitzitzia emoten dabenak daukala karidaderik andiarena. Au gaiti arimiaren onerako egiten dirian limosnaak eureenez geijago balijo dabee gorputzaren onerako egiten dirianak baino. Bigarrenian: Premina bardinian leenago da geure burubak sokorridutia inorena baino. Ez deutsku Jaungoikuak agindutu geu baino geijago proximua ameetako, ta proximua salbeetia gaiti geu kondeneetako. Irugarrenian: Gurasuak, senar emaztiak, umiak, senidiak eta ongillaak

leenago dira, bakotxa bere lekuban, beste eeduban ez dirianak baino, geuk sokorriduteko. Gurasua, emaztia, umiak... gosez ta bilosik daukazala, areek biar leukeenagaz limosna egitia ez da karidadia, ezbada karidadiaren kontra. Laugarrenian: Arrisku edo premina bardinian aurkitu ezkerro, luurreko gauzeetan leleengo sokorridu biar da proximuaen bitzitzia, gero osasuna, gero kleitura, gero ondasunak, ta oneen ondorik kristinaubak Jaungoikua serbidubagaz munduban bitzi izateko biar dabena. Ez da erreza erregela edo neurri seguru bat iminten, ordena onen paltia nos pekatu mortala ta nos beniala dan esateko. Karidadia da birtute guztietati nausijeara; baita laster zauria egiten jakona bere. Karidadiaren paltia da, neur entzula onak, kristinaubeen kondenagarria. Karidadiaren paltaz topau ebeen birjina nezijuak zeruko atia itxita. Birjinaak zirian, gorputzari guraarijak ukatu eutseenan, beste obra onak bere egingo zitubeen ta usteko ebeen, menturaz, zeruko Espusuak txito maite zitubala. Bainaz eureen arimako lanparia amatauta eukeen ta ixioteko oriorik ez eukeen. Ez dogu irakurten birjina nezijo areek iñor ill ebeenik. Ezda, iñori ezer oostu eutseenik bere. Ezda, inogaz auzi txaarrik edo gorroto agirikorik euki ebeenik bere. Ezda bidau gaistorik edo maldezinoerik egiten ebeenik bere. Zegaiti, bada, topau ebeen zeruko atia itxita? Zegaiti kondenau zirian birjina nezijuak? Karidadia palta ebeelako, dinue Eleisako Gurasuak. Mundubaren begijetan palta andi agirikorik euki ez arren, borondatiaren nai ona edo karidade santia ez eukeelako, zein dan arimiarren lanparia exioteko orijua. Azaleko kristinutasun bategaz gorde ebeen eureen bijotzian birjina nezijuak enbidija, inoren onaren ekusi ezina, buru eretxija ta eureen gauzaak osorik euki guria, inori karidadez emonda kastau bagarik. Au gaiti topau ebeen itxita zeruko atia. Karidade egijazkuaren paltaz ez zituban ezautu, zeruko Espusuak bere espasatzat. Ta eureen birjinidadiagaz ta azaleko santidadiagaz kondenau zirian.

Karidadiaren paltia arpegijan eazarriko deutsee Jesukristo geure Jaunak kondenaubai juizijoko egun ikaragar[r]ljan. *Gose izan nitzan ta ez zeunstan jaaten emon, esango deutsee Jesukristok. Egari izan nintzan ta ez zeunstan edaaten emon. Bilosik ibili nintzan ta ez ninduzun jantzi. Gaixorik egon nintzan, karzelaan egon nintzan ta ez ninduzun bisitau. Zuañ bada, madarikatubok, betiko inpernuko sutara.* Ara Jesusen azkeneko sentenzia, karidadiaren paltia gaiti. Oh, zeinbat kristinau artutzen dituban azpijan sentenzia bildurgarri onek! Gorde guria, euki guria, inor gaiti ez kansau guria, au da kristinau askoren bijotzeko prestaeria, proximua ameetako. Askok uste dabee, proximuarri kalterik egin ez badeutsee, sekula mesede txiki bat Jaungoikua gaiti edo karidadia gaiti egin ez arren, santubak diriala. Ez da



asko proximari kalterik ez egitia, Jaungoikuak aginduten daben moduban proximua ameetako. Egin biar deutsagu mesede, premina daukanian ta al daigunian, salbauko bagara. Bada, karidadiaren jantzia da zeruko eztegurako popuertza biar doguna. Amau daigun, bada, geure Jaungoiko ona, beste gauza guztiak baino geijago; ta geure proximua, geure buruba legez, zeini darraikon geure betiko ditxia zeruko erreinuban. Aitiaren, Semieren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## IX. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*geure arerijuari zor deutsagun amodijua.*

Aparteko kristinaubaren zeregina da, arerijuak ametia. Ta askoren eritxian zeregin gatxa. San Jeronimok esaten eban bere denporakuak gaiti, batzuk uste dabeela Jaungoiku serbiduteko ta on izateko, asko dala arerijuari gorrotorik ez eukitia ta gatzik ez opa izatia; baina onezaz gainera geuri gaiski egin deutskuna maite izatia, inok ezin legijana dala. Ez dau, bada, Jaungoikuak aginduten inok ezin legijan gauzarik, dino santubak berak. Jaungoikuaren agindu guztiak dira errazak. Biguna ta arina da Jaungoikuak imini deutskun kargia, dino Jesus maitiak. Gauza jakina ta argiro esana da ebanjelijo santuban, arerijuak ameetako daukagun egin-biarra. Jesus geure zeruko erakusliak ezin esan eutskegun agirijago ta ezaunago gizonaren zeregin au, esan eban baino. *Neuk aginduten deutsut, dino Jesus maitiak, ameetako zeubeen arerijuak; parkatuteko gaiski egin deutsunari; Jaungoikuari erregututeko zeu persegiduten zaitubana gaiti, deungaro esan deutsuna gaiti.* Ara berba onetan Jaungoikuaren aginduba ondo ezagun, inok dudarik euki ez dagian. Jesus maitiak berak berba oneen ondorik ekarten deutsku gogora, ze gaiti amau biar ditugun geure arerijuak. Bada, dino: neure Aita zerukuak bere onai ta deungai, guztiai argituten deutsee eguzkija, guztientzat egiten dau eurija. Bere arerijuai ta adiskidai, pekatarijai ta justubai, guztiai egiten deutseez mesediak neure Aita zerukuak. Zeubeen adiskidiak ta ongillaak baino ameetan ez baditzu, dino Jesus maitiak, ze sari zerurako irabatziko dozu? Jentilak ta deungaak bere eureen adiskidiak ta ongillaak ameetan ditubee. Parkatuten ez badeutsazu bada, dino geure Salbazaile onak, zeure arerijuari gaiski egina, neure Aita zerukuak zeuri bere ez deutsuz parkatuko zeure pekatubak. Zer izan leiteke au baino berbeeta klarubagua?

Amau biar ditugu, bada, geure arerijuak; ta parkatu biar deutseegu gaiski egina. Orregaiti doctrina onetako zeregina izango da erakustia: 1. *Zelan amau biar ditugun geure arerijuak.* 2. *Zetaragino parkatu biar deutseegun, gaiski egina.* Egon zaitez guztiok zur, entzuten.

**I.**

Jaungoikuari zor deutsagun amodijuan sartuta dago, neure entzula onak, arerijuari zor deutsagun amodijua. Jaungoikua gauza guztiak baino geijago ameetan dabenak, nai dau popuertza gizon ta emakume guztiak Jaungoikua adoreetia, alabeetia ta ameetia. Nai dau guztiak Jaungoikuaren adiskide izatia, graziajan egotia, lege santuba gordeetia ta zerurako bide zuzenian bitzi izatia. Proximo guztiai, nai arerijuai ta nai adiskidai au opa ez deutsanak, ez dau Jaungoikua ameetan. Proximuri gorroto deutsanak ez dau Jaungoikua ameetan, arerijuia izan arren proximua. Onezaz ostian:

Zure arerijuia, zuri gatz egin deutsuna ta zu galdu gura zindukezana ez da gizona edo emakumia? Ez da Jaungoikuaren irudi bitzija? Ez da Jesukristo geure Jaunaren odol santubagaz diabrubari erosita daguana? Ez zan Jesus maitia kurutzian josita ill zugaiti, zeure arerijuia gaiti ta beste guztiak gaiti? Ez da zure arerijuia Jesusen bitzitziaren prezjua? Ez dauka Jaungoikuak luurraren gainian bitzirik zure arerijuia? Nor zara, bada, zu, zariana zariala, nai erregia, nai kondia, nai obispua, nai ugazaba, nai señoaria, nai laguna? Nor zara zu, Jaungoikuaren irudi bitzijari gorrotua eukiteko? Jesusen odol santubagaz erotsita daguan gizon edo emakumiari gatz opa izateko? Nor zara zu luurreko ar bat baino, Jaungoikuaren arerijo bat baino, inpernuban egon biar zendukian bat baino? Zeure arerijuari bengeetako? Ari arimaan, edo osasunian, edo kleituban, edo aziendaan gatxa nai izateko? A gaiti deungaro esateko? Ari berbarik egin gura ezda egoteko?

Oh, ze itsutasun andija, neure kristinaubak, arerijuaren gorrotuan bitzi izatia! Oh ze ezaubera txikija, arerijuaren gorrotuan daguan kristinaubarena! Bada, izanik bera Jaungoikuaren arerijuia, sarri Jaungoikua opendido dabena, injurijau dabena, desondrau dabena ta, san Gregoriok dinuan legez, pekatu mortalagaz Jaungoikua bera ill gura izan dabena, aaztutenean da bere gaiski egin guztiakin; ta proximuak berari gatz bat egin deutsalako, aren kontra su artuta, gorrotua darijola dago. Akordeetan ete da alako bijotz gorrototsuba, berak bere Jaungoikuaren gorrotua irabatzi dabena? Naiko ete dau, Jaungoikuak berari parkatutia? Ta berak pekatu-bagaz egin deutsan injurija aaztutia? Duda bagarik naiko dabena, kristinauba bada. Bera sarri izan arren Jaungoikuaren arerijuia, naiko dau Jaungoikuak berari parkatutia. Naiko dau bitzitzaan ta erijotzaan Jesus maitiak amodijuagaz ta miserikordijagaz berari begiratutia. Oh!

Gogoratuko baleu kristinaubak, proximuak naibage bat egiten deutsanian, berak leleengo pekatu mortalagaz Jaungoikua asarratu ebanian bota baleu Jaungoikuak irabatzi eban inpernura, ez eutsala orduko gatxa proximuak egingo, oztuko leuke gorrotuaren suba. Bada, Jaungoikuak geuri parkatu badeutsku ainbeste bidar inpernura botatia, ze gauza andija izango da, geure lagunari egin deutskun gatz puskia parkatutia Jaungoikuaren izenian ta Jaungoikuak parkatu daigun?

Egija esateko, pediaren paska bat da asko geure arerijuari egin deutskun gatz parkatuteko borondate onagaz, ta berari ondo gura izateko. Au gaiti arerijuarentzat euki biar dogun bijotzeko prestaeria da: 1. Opa biar deutsagu arimako grazija. Jaungoikua serbiduteko, gorputzian ta arimaan biar dabena ta zeruko gloria. 2. Ez dogu euki biar bijotz txaarrik, gorrotorik, ez gatzik jazo dakijon desiorik, ez geuk berari egiteko guraaririk. 3. Arerijuia preminaan ikusi ezkerro, euki biar dogu bijotzeko presteera ona lagunduteko ge[u]re arerijuari biar orduban; nai dala arimako preminaan, nai dala osasunian, nai dala kleituban, nai dala pameljaan, edo aziendan. Dinot, beti euki biar dogula gogua prest, alako premina ordu baten ikusiko bagendu geure arerijuia, al izan ezkerro, ari lagunduteko. 4. Arerijuari ez deutsagu ukatu biar agur egitia. Auzo eraan egon ezkerro, gaisorik daguan arerijuia ez bisitetia; agaz berba ez egitia gaiti, bidia austia, ezkuteetia, arpegi ez emotia; berbarik alkarriz egin gura ezda egotia; ta beste onako kristinu arteko artu emonak, leenago alkarreregaz egiten zitubeenak, bata besiari ukatutia da gorrotuaren, ikutsi ezinaren ta opa txaarraren senailia, dino san Bernardino Senakuak.

Bada, Jaungoikuak agindu ezkerro arerijuak ameetako, esan dirian gauzaak dira amodijo onari ta borondate onari berekauten darraikozanak. Ta al dagijala, egiten ez baditu, gauza agiri ja arerijuarentzat borondate txaarra daukana ta ameetan ez dabena. Au beti da karidadiaren palta; gauza andijan bada, palta andija ta gitxijan bada, txikija. Ezin, bada, dudaan imini ginai, kristinaubak, arerijuak gaistuak, lizarokuak ta gatz andijk egin deutskubeezanak izan arren, amau biar dituguna Jaungoikua gaiti ta Jaungoikuaren izenian, salbauko bagara. Baino jazo leiteke kristinaubak dudeetia, gatz guztia parkatu biar deutsan edo ez. Ta au da bigarren lekuben esango deutsudana: Zetaragino parkatu biar deutsagun geure arerijuari.

**II.**



Ezin ukatu ginai, (esaten da ostera bere, kristinaubak, ta sarrijagotan esan biar litzateke, palta andija dagualako) arerijuari gatx egina parkatu biar deutsaguna. Jesus geure zeruko Erakusliak esaten deutsku: Zeubek parkatuten ez badeutsazu arerijuari gatx egina, neure Aita zerukuak zeubei bere ez deutsuz parkatuko zeubeen pekatubak. Jesusek berak erakutsi eutskun *Aita geuria*. Ta An bere ez zan aaztu Jesus maitia, arerijuai parkatuten geuri erakustiagaz. *Parkatu egiguzur geure zorrak, geuk geure zordunai parkatuten deutseguzan legez*, esaten dogu Aita geurian. Ara emen Jaungoikuaren agindu agirria, arerijuai parkatuteko, salbau gura badogu. Jesus maitiak esanagaz ta eginagaz erakutsi eutskun dotrina au.

Geure pekatubak gaiti kurutzian josita eguan lekuban, leleengo Jesusek esan eban berbia izan zan bere Aita zerukuari erregututia, Jesus bera kurutzian illten ebeenak gaiti. *Aita, parkatu onei*, dino Jesus maitiak, *zer egiten dabeen ez dakjee ta*. Oh, ze bijotz biguna Jesusena bere arerijo andijeentzat! Saulek persegidu eban ainbeste urtian Dabid santuba. Sarritan ill gura izan eban. Sarritan lantzadia jaurtegi eutsan bertan illtek Dabidi. Baino Dabidek beti parkatu eutsan Sauli. Bein baino geijagotan eria euki eban Dabidek, Sauli ondo bengeetako. Ez eutsan inos bere kalterik egin. Beti amau eban ta beti parkatu eutsan Dabid erregiak Saul arerijuari. San Esteban leleengo martirija arrika ill ebeen judegubak. Illten eguan lekuban belaunbiko jarrita, Santubak Jaungoikuari erregututene eutsan bere illzaile arrikarijak gaiti. Oh, ze exenplubak oneek, arerijuari parkatuten ikasteko! Baino zer? Badago zeruban santurik edo santarik, munduban arerijuak izan ez ditubanik? Ta guk daukaguazan baino gaistuagak ta mingarrigualak euki ez ditubanik? Ta bago zeruban inor, arerijuak amau ez ditubanik? Arerijuak gaiti Jaungoikuari erregutu ez deutsanik? Borondate onagaz arerijuai gatx egina parkatu ez deutsanik? Ezda bat bere.

Konteetan dira bai asko, gorrotuak ta bengeetako naijak inpernura eratsi ditubanak. Kain zegaiti dago inpernuban? Abel bere anae inozentziaren gorrotua gaiti. Esau, Amon, Absalon, Jezabel, paresijuak ta beste milla dagoz inpernuban proximuaren gorrotua gaiti. Ta egongo dira aurrera bere, arerijuari parkatu gura ez deutseen guztiak. Oh, ze itsutasun andija, kristinaubak, ordu betian bere proximuaren gorrotuan egotia! Kontu atera daigun: Auzuak edo proximuak galdu deutsula ondria bere minagaz; oostu deutsula zeure diruba edo aziendia bere eskubagaz; galdu deutsula zeure etxeko edo senikerako bakia embusterijagaz, guzurragaz edo txismerijagaz; imini deutsula auzi oker bat ta kastau eragin deutsula daukazun guztia. Ara emen arerijuia.

Ta zer ateraten dozu zuk, ari bidaoka, gatx opa deutsazula, aren gorrotuan ta odijuan su artuta egonagaz? Erremedieetan dozu zeure kaltia? Etorten jatzuz atzera arerijuak kendu deutsuzanak, ari bidao eginda, gorroto izanda? Bat bere ez, esango dozu. Oh, ze itsuba! Ze penseeta txikiku! Arerijuak zure kontra pekatu egin dabelako, zuk pekatu egiten dozu aren kontra edo Jaungoikuaren kontra. Ak austen dau agindu bata ta zuk bestia. Bijok presteetan zara inpernurako. Parkatu daijogun, bada, arerijuari gatx egina, Jaungoikuak aginduten deutskun moduban, Jaungoikuak geuri parkatu daigun. Ta parkatu biar deutsagu arerijuari egin deutskun kalte guztia? Jaungoikuaren aurrerako bai. Esan gura neuke, ez deutsagula opa biar arerijuari, Jaungoikuaren begijetan kargurik euki dagijan, geuri egin deuts kun kaltia gaiti. Ez deutsagula opa biar munduban bere gatxik etorri dakijon, geuri gatx egin deutskulako. Osterantzian, gorroto bagarik, odijo bagarik, bere arimaan, osasunian, pamelijaan, kleituban edo aziendaan gatxik opa bagarik, neuri kalte egin deutstanari, eskatu negijo juezaren aurreti egin deustan kaltiaren erremediju. Oostu deust? Biurtu dagidala oostuba edo pagau dagidala. Kendu deust ondria edo kleituba? Biurtu dagidala. Ta onan beste kalte eginak. Ez da au gorroto izatia, ezbada bakotxak bere gauzia eskatutia. Au karidadian paltau bagarik egin legi, ta egin dabee santu askok. Atarako dagoz juezak, Jaungoikuak iminita.

Arerijuaren gorrotuan gagozan artian, ez ditu Jaungoikuak estimeetan geure eskintzarijak. Altaraan gagozala bere, dino Jesukristok, gogoratutene bajaku, proximua asarre dala geugaz, opriendia edo eskintzarija altara gainian itxita, proximuagaz bakia egiteko leleengo. Au egin ta gero Jaungoikuak estimauko dabela geure orazinoia edo opriendia, dino Jesusek. Proximua injurijau dabenak parka eskatu biar deutsa lagunari ta bestiak parkatu biar deutsa bijotzeti egin deutsan injurija, leen esan dan moduban. Arerijuia izan arren ta norbait geuri kalte egin gurarik ibili arren, zor deutsagu borondate ona, Jaungoikuak aginduten dabelako.

Arerijuia bada pekatu eragin gura deutsana, pekaturako konbideetan dabena ta persegiduten dabena, alako arimia galdu gura deutsan arerijuari arpegi asarria ta bekoki illuna erakustia, dino Poujet jakitunak san Agustin ta Orijenesegaz, ez dala pekatu. Askotan gauza ona ta biarrekua dala, arpegierriagaz ta bekokiko itzalagaz aituten emotia alako pekatarijari bere egitade ezaina ta pekatuzkua, kontuban jausi dedin ta inozentia persegidutari itxi dagijon. Egiña esateko, eskandaluko kazan dabiltzanak beti topeetan badabee arpegi alegeria ta karinozko berbeetia, nekez eskarmentauko dira ta nekezagoko esperantzia galduko dabee, eureen pekatuzko



guraarijak kunpliduteko. Oh! Arpegi itzaltsubak pekatu asko gitxituten ditu.

Amau daigun bada, kristinaubak, geure Jaungoiko ona. Amau dai-guzan proximo guztiak bere. Parkatu daijeeguzan arerijuai gatx eginak, Jaungoikuak geuri parkatutia gura dogun legez. Erregutu daijogun Jaungoikuari proximo guztiengabeko salbazinoia. Ez daigun inor gaiti deungarrik esan. Ta iges daigun lotsiagaz, itzalagaz ta errespetuagaz, pekatu eragin gura deutskubeen arerijo gaistuetati. Ta gordeko dogu leleengo mandamentuko aginduba. Alan gura izan dagijala Jaungoikuak, bera dana dalako. Aitiaren, Semиaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## BIGARREN AGINDUBA



## I. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan

*zer dan juramentu egitia. Juramentu nos egin biar dan.  
Ta juramentuko aginduba zelan kunplidu biar dan.*

Bigarren aginduban esaten deutsku Jaungoikuak: Ez dozu aotan artuko premina bagarik zeure Jaun eta Jaungoikuaren izen santuba. Ez da kastigu bagarik geratuko alperrik Jaungoikuaren izen santuba aotan artutzen dabena. Leleengo aginduban esan deutsku Jaungoikuak, bera ameetako beste gauza guztiak baino gejago; ta bigarren aginduban esaten deutsku, bere izen santuba ondreetako. Gauza bat agindubagaz eragozten deustuzu beste bat Jaungoikuak, dino Erromako Katedralkoa. Edo gauza bat eragotzizagaz aginduten deutsku beste bat. Eragozten deut[s]ku Jaungoikuak agindu onetan, bere izen santuba premina bagarik aotan artutia; ta aginduten deutsku, bere izen santuba ta bedeinkatuba ondreetia.

Jaungoikuaren izen santuba ondretan da, neure entzula onak, modu askotara. Leleengo: orazinoe eginagaz. Bigarrenian: Jaungoikuaren ontasunak ta izen santubak, ta Jesukristo geure Jaunaren bizitzako, erijotzako, bitztuerako ta betiko misterioko santubak amodioz ta gogoz sarri esanagaz. Irugarrenian: botuak eta promesak Jaungoikuari eginagaz. Laugarrenian: Biar dan moduban ta orduban juramentu eginagaz. Bostgarrenian: Aingerubak, santubak ta santaak alabaubagaz ta bitxitza onagaz. Agindu onetan Jaungoikuak eragozten deutskuna da: Leleengo bere izen santuba alperrik aotan artutia. Bigarrenian: botuak eta promesak gauza txaarrerako egitia. Irugarrenian: Juramentu gaistuak egitia. Esplikauko deutsut, bida, agindu onetan, juramentubari, botuai ta berba deungai jaokuena. Ta guztia asieria emoteko, doctrina onetan esango deutsut: 1. *Zer dan juramentu egitia.* 2. *Nos juramentu egin biar dan.* 3. *Juramentubaren beekoa aginduba zelan egin biar dan.* Egon zaitez atenzinoinagaz, askori jaokan ikasikizuna dalako.

### I.

Juramentuba egitia ez da beste gauzarik, neure entzula onak, ezbada geuk egin dogun edo ez dogun, entzun dogun edo ez dogun, ikusi dogun

edo ez dogun gauza bat, Jaungoiku edo Jaungoikuaren izen santuba testigutzat aotan artuta, onan edo alan zala edo dala esatia, egija esaten dabela sinistu eragiteko. Jaungoiko egijazkuaren izena aotan artutzen dau testigutzat juramentarijak. Bada, juramentubaren izate guztia da, Jaungoiko guztia dakian zuzena testigutzat artuta, ez edo bai esatia. Juramentu egiteko modu asko dagoz. Ta kristinau asko bitzi dira kasik berbaan berbaan juramentu egiteko ekandu gaistuagaz ta pekatzuagaz. Zerbait inori sinistu eragiteko kurutziari mun egitia juramentuba dana, kasik kristinau guztiak dakijee. Bada, kurutze santia da Jesus Jaungoiko ta Gizon egijazkuak bere erijotziagaz santutu ebana. Orregaiti kristinau guztiak deutsee kurutziari aparteko erreberenzija. Juramentu egiteko bere, geijeenian kurutziari mun egiten jako.

Beste juramentu modu batzuk dagoz, kristinau gitxi jakinak ainbes-te aintzat ez daukeezanak, ta guzurra edo egija sinistu eragiteko txantzaan edo benetan sarritan aotan artutzen ditubeenak. Onetariko berbeeta modubak izaten dira, zerbait sinistu eragiteko esatia: *Jaungoikorako; Jaungoikua testigutzat iminten dot; Jaungoikua daguan legez; Jaungoikuak dakian legez; ebanjelijoko egija legez; Jesukristo ill zan legez; Jesukristoren izenian; kurutziaren izenian; zerbua daguan legez; luurra daguan legez; argia dakustan legez; luurra paltan dagidala; pausurik egin ez dagidala...*

Inori zerbait sinistu eragiteko, Jaungoiku edo beste kriatura, Jaungoikuaren grazijkak aparteko argitasuna emoten deutseenak, zeintzuk dirian *Eleisia, pedia, sakramentuak, kurutzia, arimia, grazzia, zeruba, luurra, argia* ta beste asko testigutzat aotan artuta esaten danielan, egiten da juramentu. Ez da, bida, popuertzakua kurutziari, ebanjelijuari edo beste gauza sagradu bati mun egitia, juramentu egiteko. Oh, zeinbat juramentu txaar egiten dirian, asko pensau bagarik! O, zeinbat bidar aotan artutzen dan Jaungoikuaren izen santuba alperrik!

Kriaturaak Jaungoikuaren izenian testigutzat artuta, zerbait esaten danielan, juramentu egiten dana, ebanjelijo santubak esaten deutsku san Mattheoren aoti. Ez egizu juramenturik egin ezer gaiti bere, dino Espiritu Santubak. Ez zeruba gaiti, Jaungoikuaren jarlekuba dalako. Ez luurra gaiti, Jaungoikuaren oin lekuba dalako. Ez Jerusalen gaiti, errege andijaren ziudadia dalako. Ez zeure buruba gaiti, ulezuritu bat ezin zinaijalako ta ezda baltz bat bere. Izan bitez zeuben berbaak: ez edo bai. Onezaz gainerakua gatxerik datorrena da, dino Jesukristo geure Jaunak.

Kriatura oneek egijari eurenez ez deutsee indarrik emoten; ezbada Jaungoiko andijaren aparteko argitasuna ta itzala dago eureetan, ta au gaiti daukee juramentubari izatia emoteko indarra, egijaren testigutzat aotan



artutene dirianian. Emeti ezaututen da bada, kristinaubak, zer dan juramentu egitia. Oni darraiko ikastia nos egin biar dan.

## II.

Biar dan denporaan ta modubagaz egin ezkero juramentu, gauza ona da. Jaungoikua ondreetan da bere izen santuba aotan artubagaz, biar dan orduban. Au gaiti ikasi biar dau kristinaubak nos egin legijan juramentu, ondo dan moduban. Espiritu Santubak esaten deutsku, neure entzula onak, Jeremias propeta santubaren aoti, Juramentu egin biar dala egijagaz, preminiagaz ta gauza onerako. Iru gauza oneek biar dira juramentuba ona izateko. Egijagaz egiten da juramentu, dakijana dakijan moduban, geitu bagarik, gitxitu bagarik ta ezkutau bagarik esaten danian. Entzun beeban, entzun ebala; ikusi beeban, ikusi ebala; esan beeban, esan ebala; edo ez ebala... dakijan moduban edo noberak uste dabentz moduban juramentu egiten danian da egijazkua. Dudaan daukan gauzia, ondo ez dakijana, eritxikua edo sospetxakua esaten badau ziurtzat juramentubaren beian, egiten dau guzurrezko juramentuba. Entzuna ikusitzat ta ikusija entzuntzat esaten badau, edo mudeetan badau dakijen moduti, egiten dau guzurrezko juramentuba.

Jazoten da askotan, juramentubaren beian juezak itanduten deutsnian, dakijana esan biar dabentz edo ez, ez jakitia. Endamas kristinu gitxi dakijenari. Orduban itandu biar deutsa, al badai, dudia daukanak dakijanari, juramentu egitera orduko; zelan juramentu egin biar dabentz ta zer esan biar dabentz. Ta au ezin dabentz, edo ez egin juramenturik, edo esan zuzen dakijana, dakijan moduban. Bada, guzurrezko juramentuba beti da pekatu mortala. Onetan ez dago dudarik, kristinaubak. Alperrrik izango da gauza gitxixa juramentubagaz esaten dana. Alperrrik izango da gatz uste bagarik edo, esan oi dan legez, inori kalterik egin bagarik. Guzurrezko juramentuba beti da pekatu mortal Eleisako Gurasuen esanian. Oh, zeinbat pekatu mortal egiten ditubeen berban berbaan *Jaungoikorako, argia ja dakutstan legez, luurrak paltan dagidala* ta beste onako juramentuzko berbaak esateko oitura galdua daukeenak! Askotan guzurragaz, sarritan des-tajuban ta geijeenian premina bagarik.

Biar da premina edo nezesidadia, juramentu egiteko. Ta nos izango da preminia? Sarritan jazo lekijo kristinaubari juramentu egin biarra. Leleengo: juezak eskatuten deutsnian. Bigarrenian: opizijuak, zereginak edo estadubak aginduten deutsnian. Irugarrenian: noberaren edo proxi-

muaren bitzitzia, osasuna, kleituba edo aziendia jasoteko, zaintuteko, gordeetako edo galdu bide batetik libreetako biar danian. Ta laugarrenian errazoe geijagogaz: nobera edo norbait pekatuko okasinoeti libreetako biar danian. Alako gauza andija noberarena ta nai proximuarena, arimakua ta nai gorputzekua gorde, librau edo jaso ezin danian, juramentu egin bagarik; orduban juramentu egitia egijagaz ta gauza onerako, juezak eskatu ez arren, ez da gauza txaarra ta askotan biarrekua, preminia dagualako.

Irugarren lekuben, juramentubak ona izateko biar dabentz da, gauza onerako izatia. Oni esaten jako: zuzentasuna. Egijazkua, biarrekua ta gauza onerakua izan biar da juramentuba. Zuzena da juramentuba, Jaungoikuak gura dabentz gauzaren bat egingo dabela juramentubaren beian aginduten dabentz. Edo Jaungoikuak gura ez dabentz gauzaren bat egingo ez dabela, juramentubaren beian aginduten dabentz. Limosna bat emotia, meza bat entzutia, ondo ta laster konpeseetia, ez orditutia, joko txaarrik ez egitia, pekatu ekanduko bat ez egitia ta beste onako Jaungoikuak gura dituban gauzaak juramentubagaz agindutia da, juramentu zuzena egitia. Aginduten baditu juramentubagaz gauza txaarrak: arerijuari ez parkatutia, tema gaistuagaz urtetia, pekatu egitiari ez istia, nai beste edozein berez gauza ona ez dana; orduban da juramentuba pekatuzkua zuzentasunaren paltaz. Oneetan guztietan Jaungoikuari egiten jako injuria, bere izen santuba, altuba ta bedeinkatuba aotan artuta, testigutzat ekarrita, edo guzurra esaten dalako, edo premina bagarik esaten dalako, edo gauza txaarrerako esaten dalako. Oh, zeinbat juramentu txaar entzutzen dirian! Ya panparrerijaz, ya gorrotoz, ya amodijo txaarrez, ya ekandu gaistoz. Gogoratu bada, kristinaubak, zelan egin biar dan juramentu, ona izateko. Baita ikasi zelan egin biar dan bere juramentubagaz aginduten dana.

## III.

Esan dan legez, izan ezkero gauza ona juramentubaren beian aginduten dana, kunplidu biar da, al dedilla. Jaungoikuari egiten jako juramentu. Bere izen santuba aotan testigutzat artuta egiten jako. Bada, pekatuzko gauzia ez bada, aginduba egin biar da, al dedilla. Ardaugaz, jokuagaz, pekatuko etxera juanagaz, edo pekatuko lagunagaz bat eginagaz, edo beste oitura galdu bategaz egiten dozu pekatu. Dala pekatubaren kargia jaso ezin dozulako, edo grazijaren kolpe batek konturatuzaitubalako, edo pekatubak berak lotsatzen zaitubalako, aginduten deutsazu Jaungoikuari



juramentubagaz ardaorik ez edaatia, joko gaistorik ez egitia, etxe deunga atara ez juatia edo beste pekatuko okasinoian ez sartutia? Bada, egin biar dozu atxakija bagarik. Aginduten dozu juramentubagaz erlijinoian sartutia, kastidadia gordeetia, meza bat entzutia, limosna bat egitia edo baru bat ateratia? Oneek gauza onak dira. Bainaz jazo leiteke juramento egin arren, guztiak egin ezina. Orduban bere, al dagizuna egin biar dozu juramentuba gaiti.

Agindu dozu juramentubagaz pekatu dan gauza bat egitia, arerijuari ez parkatutia, limosnarik ez emotia edo beste gauza pekatuzko bat? Ez dozu kunplidu biar juramentubagaz aginduba, pekatu dalako. Alako juramentuba egitia pekatu da. Ta egin da gero kunplidutia bere pekatu da. Ezin gizonak legerik imini legijo bere burubari, pekatu egiteko. Guraari txaarrak, amodijo gaistuak, gorrotuak edo soberbijak inos eragiten badeutsa kristinaubari juramentu, pekatu dan edo izan leitekian gauzia egiteko, (Erodesek Erodiaren alaba dantzaarijari egin eutsan legez ta san Juan Bautistaren sama inozentiak pagau eban legez) ez da balijoko juramentuba, ezbada pekatuzkua ta ez da kunplidu biar. Ez aaztu bada, kristinaubak, ze erreberenziagaz ta errespetuagaz artu biar dogun aotan Jaungoikuaren izen santuba. Gogoratu ondo nos eta zelan egin biar dan juramentu. Egijagaz, premiagaz, ta gauza onerako egin biar da juramentu. Ta bein egin ezkerro, kunplidu biar da juramentubagaz aginduten dana, pekatu bagarik kunplidu al deinian.

Ezin ukatu ginai, neure entzula onak, txito oitura galdua ta zabala daguana kristinaubeen artian juramentubak egiteko. Umetati ikasten da premina bagarik juramentu egiten. Ta askok zaartuta bere eurakin daukee, premina bagarik juramentu egiteko ekandu gaistua. Oh, zenbat pekatu egiten ditubeen alako juralrijak! Oh, zeinbat injuria egiten deutseen Jaungoikuaren izen santubari! Ez dira, bada, kastigu bagarik geratuko, dino Espiritu Santubak, Jaungoikuaren izen santuba alperrik aotan artutten dabeenak. Juramentu asko egiten dabent miinak buruko uliai ikara era-giten deutsee ta belaarrijak gogortutenean, dino Eklesiastikok. Dendatu biar dozu, dino san Agustinek, juramentu egiteko ekandubaren kontra, ekandu txaarraren, txaarraren kontra ta kendu zeubeen auetati juramentubak. Botikakua legez da juramentuba, dino Erromako Katezismuak.

Oh, ze erakutsi ona! Botikakua legez juramentuba. Nos artutzen da botikakua? Zelan artutzen da? Zeinbat artutzen da? Botikakua artutzen da biar daniel. Gaixo daniel. Aibagarik osasuna jadiitxi ezin daniel. Ta zelan? Ah! Gatxa ondo examinauta, medikubai itanduta, ak aginduten dabent moduban ta ordubeeetan artutzen da botikakua. Ta zeinbat? Ez gei-

jago ta ez gitxiago, gatzak eskatutzen dabent beste edo eskatutzen dabela uste dan beste ta medikubak agindutzen dabent beste baino. Oh, ze ardura andijagaz gordeetan dirian gorputzaren onerako lege oneek! Artuko zen-duke botikakua, osasun onagaz zagozanian? Artuko zenduke edo artutzen dozu premina bagarik? Ta premina daukazunian edo gaixo zarianian bere, artutzen dozu inori itandu bagarik? Ondo jakin bagarik? Artutzen dozu edozein botikako? Edozein ordutan? Edozein beste neurri bagarik? Ah, kristinaubak! Ez dago onako zororik munduban.

Bada, botikakua legez juramentuba. Botikakua gaiski artubak gorputza ill legi. Bainaz juramentu gaiski eginak, arimia illten dau. Ez egin, bida, juramenturik, premina andija bagarik. Ta orduban, ondo pensauta, ondo kontuba atarata. Ez egin juramenturik prijsaka ta arin aringa. Ez egin juramenturik, leendanaz ondo jakin bagarik, ia juramentubak ari-maan on egingo deutsan edo ez? Ez egin juramenturik edozein denporatan. Ez egin juramentu biar dan baino geijago. Bada, botikakuak bere ona izan arren, laarregi bida edo ordu txaarrrian bida, ill egiten dau gorputza; ta juramentubak bere egijagaz izan arren, biar ez dan denporaan dalako edo laarregija dalako, ill egiten dau arimia. Ze gitxi au penseetan dabeen orduban ordubango juralrijak. Ekandu txaarra artutzen dabee berbaan berbaan juramentu egiteko, ta inos ez dira dendatutenean oitura pekatuzkuaren kontra.

San Agustinek autor eban bere buruba gaiti, egunian egunian juramentu egiteko oitura galdua eukana. Jaungoikuaren bildurrak kendu zituban nire juramentubak, dino santubak sermoetan. Zeubeen artian bitzi nas, esaten eutseen, ta nos entzun deustazu niri juramentuba? Ez nituban leenago egunian egunian egiten? Bai. Bainaz jakin nebanian gauza txaarra zana, bildurtu nintzan ta peliau nintzan juramentu egiteko ekandu gaistuaren kontra. Erregutu neutsan Jaungoikuari ta emon eutstan grazi-ja geijago ez egiteko. Ez daukat gauza errazagorik juramentu ez egitia baino, zinuan san Agustinek. San Juan Krisostomok emoten dau konseju bat, juramentu egiteko ekandu gaistua galduko. Esango dozu gatxa dala, baina gatz geijago dakar ekandu galduak. Dakutsunian, dino Santubak, zeuk edo zeure umiak, edo zeure emastiak, edo otseginak daukazula juramentu egiteko ekandu galdua, juramentu egin dozun gabian apaldu bagarik zuaz lotara. Ta zeure etxekok egiten badau juramentu premina bagarik, ez egijozu aparirik emon, dino Santubak. Artu daiguzan bida, kristinaubak, konseju santu oneek geure onerako. Alan kenduko ditugu laster ekandu gaistuak, juramentu egiteko. Orduban izango dira geure juramentubak egijazkuak, preminakuak, ondo pensaubak ta gauza onera-



ko. Ta bein Jaungoikuari juramentubagaz gauza ona agindu ezkero, kunkplidu ziur ta zuzen. Alan gura izan dagijala Jaungoikuak, geuk alabeetia bere izen santuba. Aitiaren, Semieren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## II. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*guzurrezko juramentubak Jaungoikuari  
 egiten deutsan injuria;  
 ta inori egin oi deutsazan kaltiak.*

Juramentuba dan legez bateti ain gauza sagraduba ta santuba; ta besteti ikusten dan legez kristinaubeen artian ain erraztasun andija, bapere premina bagarik juramento berbaan berbaan egiteko, nai guzurragaz ta nai egijagaz, bai umeen artian ta bai nausijen artian; pensau dot, neure kristinaubak, dotrina onetan erakutsi biar deutsudala guzurrezko juramentubak mereziduten daben gorrotua, gurasuak eta umiak, guztiok itxi dagijozun ekandu galdubari. Jaungoikuaren aurrian txito gorroto andikua da guzurrezko juramentuba. Mundukuen artian bere gauza lotsagarriku ta desondrauba da. Baita erejeen ta jentileen artian bere. Ikutsi daigun, bada, *ze injurija egiten deutsan Jaungoiko andijari. Ta ze kaltiak ekarri oi dituban mundura juramento paltsuak. Ta zelan erremedijau biar dirian.* Entzuteko gogua eskatuten deutsut zeubeen arimako ona gaiti.

### I.

Pekatubaren malezjia ta oitura galdubak gizonen artian azi, geitu ta zabaldzu zirianian, dino san Juan Krisostomok, agertu zala mundura juramentubaren biarra. Orduban, gizonak ta emakumiak euren esaneetan guzurti agertutenean zirianian, alkarreren esanari pijau ezinda, asi zirian Jaungoikuari testigutzat dei egiten; Jaungoikua euren esanaren testigutzat ekarten. Au gaiti esaten dau Jesukristo geure Jaunak, *eñ edo bai* esateko. Bada, onezaz gainerakua, dino, gatzaganik datorrela. Geure malezijati, geure guzurti izatetzi datorrela, dino Jesukristok. Kristinaubak bagina egi-jazkuak ta zuzenak, dakiguna dakigun legez, geitu, gitxitu, edertu, toloztu, ezaindu edo estaldu bagarik, geure goguan daguan legez beti esaten dogunak, ez legoke preminarik inos bere juramento egiteko. Orduban asko izango litzaateke, alkarrri sinistuteko, esatia: onan zan edo alan zan, Jaungoikuaren izen santuba testigutzat aotan artu bagarik.



Baina gizon eta emakumiak dirian legez eureenez malezijotsubak, engainutsbak eta guzurtijak, dakjeena ez jakin egiten dabeenak; ez dakjeena, jakina legez esaten dabenak; eritxikua ta sospetxakua zuzentzat konteetan dabeenak; zuzen jakina erdiz erdi baino esan gura ez dabeenak; edo guzurra asmauta esaten dabeenak, beti dago bildurra, gizonaren edo emakumiaren berbaak egijazkuak ala guzurrezkuak ete dirian. Bildur au gaiti balijoko gauzen egija jakiteko artutten dira testigubak, noberaren esanaren gainera. Bainan munduko testigu guztiak bere gizonak edo emakumiak dira. Ta guztiak engainaun ginaijeee. Biar da, bada, testigu bat, guztia dakijana ta guzurrik esan ezin legijana. Ta ara emen juramentubaren premimia. Gizonari edo emakumiari sinistuko badeutsagu duda bagarik bere esana, ekarri biar deusku testigutzat edo, san Juan Krisostomok dinuan legez, bere esanaren pijadoretzat, guztia dakijan ta guzurrik esan ezin legijan bat. Au da geure Jaungoiko zuzena ta egijazkua.

Guztia daki geure Jaungoikuak, ta inos bere guzurrik esan ezin legi. Au gaiti Jaungoikua testigutzat aotan artuta esaten dana, sinistuten da. Ez bakarrik kristinaubeen artian, baita erejeen, judegubeen, moruen ta jentileen artian bere. Jaungoikua testigutzat artuta esatia da, gauzia sinistu eragiteko errazoe nausija gizoneen artian. Jaungoikua testigutzat artuta egija esaten bada, sinistuten jako. Guzurra esaten bada bere, sinistuten jako, Jaungoiko egijazkua testigutzat ekarri dabelako. Bainan zer egiten dau, Jaungoikua testigutzat aotan artuta, guzurra esaten dabenak? Bere partez Jaungoiko egijazkua egiten dau guzurti. Juralari paltsuak esaten dau guzurra, inor engaineetako. Ta ekarten dau Jaungoikua bere guzurraren testigutzat, Jaungoikuak egijazkotzat ta ontzat emon dagijan bere testigantzta paltsua ta guzur esatia. Au da berbeeta onian Jaungoiko egijazkua bere guzur lagun egitia; testigu paltsuak esan daben guzurra, egija dala esatia. Ara emen, kristinaubak, juralari edo juramentari paltsuak Jaungoikuari egiten deutsan injuria. Bera guzurtija ta paltsua dan legez, Jaungoikua bere guzurti ta paltsa egitia bere partez. Guzurrezko juramentuba egiten dabenak, bere partez ukatuten deutsa Jaungoikuari bere izate santuba ta ontasun guztia. Esaten dau moduren baten Jaungoikua dala guzurtija. Orregaiti dakar, guzurra sinistu eragiteko testigutzat. Jaungoikua guzurtija balitz, ez litzaateke izango ez zuzena, ez jakituna, ez egillia, ez ona, ez Jaungoikua; ezbada paltsua, engainutsuba, malezijotsuba ta gaistua, juralarija bera paltsua dan legez. Oh, ze injurija! Ze desprezjual! Ze desondria egiten deutsan juralari paltsuak Jaungoiko egijazkuari! Pensau ta beste bagarik ikaratutenean dau kristinauba juramentu paltsuak. Oh, juralari paltsa tristiak, ze karga pisutsuba artutenean dozun zeubeen gainian, guzurragaz

juramentu egiten dozunian! Aingerubak, santubak ta kriatura guztiak armauko dira zeubeen kontra. Guztiak predikauko dabee, egijazkua dala geure Jaungoikua, zubek guzurti egin gura izan arren. Zaintuko dabee Jaungoikuaren ondria ta bengauko dira juralari paltsuaren kontra.

Ta ez pensau, neure entzula onak, injurija andi au Jaungoikuari egi-teko, juezaren aurrian egin biar dala juramentu paltsua; edo proximuari etorri biar jakola kaltia zeubeen guzurrezko juramentubagaz. Ez. Orrako zeubeen berbaan berbaango oiturazko juramentubok, destajuban, eritxi-ra, ondo ez dakizula, txantzaan, bada ez badaan edo barre eragiteko esaten dituzun errazoiok, lasto bat balijo ez deutsubeenok, Jaungoikua testi-gutzat artuta esaten dituzunok, orreek dira Jaungoiko egijazkua desondretan dabeenak. Orreek dira sakrilejiozko pekatu mortalak. Kristinau askok daukee ekandu madarikatuba, errazoe bakotxian esateko, nai guzu-rra dala nai egija dala esaten dabeena: *neure arimarako alan dana; argia dakutstan legez; ebanjelijuia dan legez; Jaungoikorako...* egija dana. Inori kalterik egin ez arren, guzurrezko juramentubak desondreetan dau ta injurietan dau Jaungoiko egijazkua. Kendu, kendu, kristinaubak, daukazunok ekan-du gaisto ori. Segurubago da inos bere juramenturik ez egitia askozaz, dino san Anbrosiok. Ez ondo juramentu egitia pekatu dalako, ezbada guzurragaz egitia pekatu ikaragarrija dalako ta juralarijak sarri guzurragaz egiten dabelako.

Egijjagaz, preminiagaz ta gauza onerako juramentu egitia, geure Jaungoiko ona ondreetia da. Jaungoikua egijazkotzat autortutia da. Jaungoikuak berak egin dau sarri juramentu, geure argaltasunari begiratuta, bere berba santubai indar geijago emoteko. Elias propeta santubak Isrraeli predikeetan eutsanjan Jaungoikua testigutzat ekarten eutsan, egijaak sinistu eragiteko. Propeta askok ta san Paulo apostolubak beste ain-bestete egiten ebeen sarritan, jentari eureen esanak sinistu eragiteko. Baita zurak ta arrijak Jaungoikotzat eukeezan jentilak bere, sarritan juramentu egiten ebeen, euren Jaungoiko paltsuen izenian. Bainan ez zirian azartutenean, dino san Agustinek, guzurragaz juramentu egiten. Bada, jentil itsubak azartutenean ez baziran arrijeen ta zuren izenian juramentu guzurrezku egi-ten, zer izango da, pedia daukan kristinau batenzat, Jaungoiko egijazkua-ren izenian guzurrezko juramentu egitia? Oh, kristinaubak! Ez da erraz aitutenean emoten, ze injurija andija egiten deutsan Jaungoikuaren izen santubari, guzurragaz juramentu egiten dabenak, nai juezaren aurrian, nai osterantzian, nai adrede ta nai benetan, nai gauza gitxijan ta nai andijan. Baita askotan guzurrezko juramentubak mundukuai bere ekarten deutsseez kalte andijk. Ikutsi daigun zelan.



## II.

Juezak dauka eskubidia, egija jakin biar dabenian, juramentubaren beian erasoteko bere agindupekuai sail atan dakijena. Ta juramentubagaz esaten dana, egijatzat artuten da leku guztietan. Juezak erabagi biar daben sail atan jazoten da egotia edo proximaren ondria, edo kleituba, edo aziendia, edo bitzitzia. Askotan maijorazgo oso bat, edo etxe bat, edo solo bat, benefizio bat, edo irabaziko tratu bat. Beste askotan gizon baten edo pamelija oso baten pamia ta kleituba. Beste batzubetan inozente bat galduzia edo gaisto bat libreetia, edo pekatari bat kastigubagaz erremedjeetia, edo eskandalu bat erriti kendutia ta beste onetariko balijo andiko gauza asko jazoten dira. Juezak, zuzen jakinda, erabagi ta erremedijau biar ditubanak.

Kontu egin daigun, bada, onako balijoko gauza bat jakiteko, juezak eskatuten deutsula zuri, juramentubaren beian dakizuna esatia. Bada, zuk egiten badozu guzurrezko juramentuba, okertuten dozu juzgu guztia ta juzgu geijaren erabagia. Zure guzurrezko juramentuba sinistuta, (sinistu biar daben legez, Jaungoikua testigutzat artuta esan dozulako) juezak maijorazkua, etxia, solua edo diruba kenduko deutsa jaubiari ta emongo deutsa beria ez dabenari. Persona ondrauba edo pamelija geratuko da desondrauta; ta enbusteruba, okerra edo lapurra ondriagaz. Urkamendijan edo destierruban egon biar leukiana geratuko da libre; ta inozentzia urkamendijan edo destierruban. Eskandaluba ta xenplu gaistua geratuko da errijken, leen legez; ta zelo santubagaz erremedijau gura izan dabena geratuko da lotsatua, isilduta, arpegia atera ezin dabela. Au guztiau zuk juezaren aurrian egin duzun guzurrezko juramentuba gaiti.

Ze naastiak ta okertasunak imini legizan ta imini dituban askotan, neure entzula onak, guzurrezko juramento batek! Nok kontau legiz bere kaltiak? Naiko zenduke, auzuak guzurrezko juramentubagaz jueza engainauta, zeuri aziendia edo kleituba galdua, pobre edo desondrau geratutia? Naiko zenduke, errurik ez daukazula, zeu destierrura bialduta, lapur bat edo gaisto bat errijken libre ta ondräu geratutia? Ez. Begiratu bida, kristinaubak, zeubeen arimaak gaiti juramentubaren itzalari ta bere ondoriak dakin errubari. Biar dan e[fr]reberenzijagaz egiten bida, Jaungoikua ondreetan da juramentubagaz. Bainaz guzurragaz egiten bida, ta endamas juezaren aurrian, kalte ikaragarrijak dakaz bai arimarako ta bai mundura-

ko. Ta erremedijau biar ditu juralari guzurtijak alako inori egindako kaltiak?

## III.

Duda bagarik, kristinaubak. Salbauko bida juralari paltsua, erremedijau biar ditu. Bainaz zelan? Bere konpesoriak esaten deutsan moduban. Galdu eragin deutsa guzurrezko juramentubagaz etxia, solua, diruba edo irabatzi jakina? Bada, galdu eragin deutsan beste ta kastau eragin deutsan beste biurtu biar deutsa juralari guzurtijak atzera, salbauko bida. Galdu deutsa kleituba edo ondria guzurrezko juramentubagaz? Bada, juralari paltsuak biurtu biar deutsa ondria edo kleituba galdu deutsanari, salbauko bida. Nundi daukan artian juralari guzurtijak, jaso biar deutsaz juramentu paltsuagaz proximari egin deutsazan kaltiak, nai aziendaan, nai kleituban, nai bakian, nai osasunian, salbauko bida.

Gauza gatxa da au. Nekez ta gitxitan egiten dana da au. Baita esan ginai, nekez ta gitxitan erremedijeetako ta salbeetako arriskuban aurkitutzen diriala juralari paltsuak. Errazago da, neure entzula onak, juramenturik ez egitia, alako lor bildurgarrijetan geratutia baino. Artu daigun, bida, guztiok Errromako Katezismuaren konsejuba. Ta zer? Sarri ta ondo pensauta ta ondo jakinda egin juramento. Juramento egitera orduko begiratu, dino, ondo ia gauza ak mereziduten daben edo ez juramento egitia. Juramentubaren beian esan biar bida, denporia artuta, astiña artuta, sosisguz pensauta prestau biar dau Jaungoiko egijazkuaren izenian juramento egiteko, ez gorrotuagaz, ez odijuagaz, ez prijsaka; ezbada zentzunez ta kontuz juramento geijari begiratuta, ak eskatuten dabelako. Kuidado andi onegaz egiten ez dan juramentuba, ondo pensau bagarik, prijsaka ta arin aringa egiten dana izango da okerra ta nezijua. Alan oi dira, edozein gauza gitxiren gainian juramentubagaz *baitz* esaten dabeenak. Juizioz baino ekandu gaistuagaz leenago juramento egiten dabeenak. Tratalarijak, salzailiak ta eroszailiak, euren gauzaak goraago saldu edo merkiago erotsi egiteko, ardura bagarik juramentubagaz jasoten ditubee edo tatxeetan ditubee erozi edo saldu biar ditubeen gauzaak.

Gurasuak kargu andija eukiko dabee Jaungoikuaren aurrian. Batetik eurak bildur bagarik juramentubak egiteko ekandu gaistua daukeelako ta pamelijaren aurrian sarritan egiten ditubeelako.

Ta besteti eureen umiai ta etxekuai, juramentubak egiteko oitura galduba artuten isteen deutseelako. Artu daigun bida, kristinaubak, pekatu



ikaragarri onen gorroto santuba, asarratu ez daigun jeure Jaungoiko ona ta libre egon gaitezan beste esan dirian juramentu guzurrezkuaren gatxetati. Zerubak egin daigula onetarako grazia. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

### III. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*zer dirian botuak edo promesak.*  
*Zelan botozko aginduba egin biar dan.*  
*Ta zelan kenduten dan eureen egin biarra.*

Bigarren Jaungoikuaren aginduban sartutenean dira botoz edo promesez Jaungoikuari egiten jakozan agintzarijak. Kristinau asko dira txito prestak, nai bakian, gatxian ta estutasunian Jaungoikuari edo santubai onako edo alako gauza ona edo egitade santuba borondatez eskintzeko. Baina ez dira guztiak ain prestak, alako borondatzeko agindu santuba bere orduban egiteko. Emeti dator kristinau asko luzaro pekatuban bitzi izatia, eurak Jaungoikuari egindako agindu santubakin aaztutenean dirialako. Bada, san Juan Krisostomok Ananias gaiti dinuan legez, oba da botorik edo promesik inos ez egitia, eginda aginduba ez gordeetia baino. Ezagutu dagjeen, bada, kristinaubak ze ardura andija eskatutenean deutskubean Jaungoikuari jeure naiz egiten deutsaguzan agindubak, esango deutsut, neure entzula onak, dotrina onetan: 1. *Zer dan boto edo promesa egitia.* 2. *Egin ezkerro, zelan gorde biar dirian.* 3. *Zelan kenduten dan euren eginbiarra.* Zeubek dakizu zeinbat bidar konzienzijako zer eginagaz ta peniagaz aurkitu oizari bota ta promeseen gainian. Bera gaiti esaten deutsut, aitu dagizula doktrina au zurtasun guztiagaz.

### I.

Botua edo promesa zer dan esatera orduko, jakin biar dau kristinabak, Jaungoikuari berari bakarrik egiten jakozala botuak edo promesak. Geure kristindade santuko egitadia da botua. Jaungoiko andijari, kriatura guztien gainian daukan eskubidia ta altsutasuna autortuteko egiten deutsaguna da botua. Alan aingerubai, santubai ta santai egiten jakuezan agindubak edo botuak, Jaungoikuari berari egiten jakozanak dira eurenez. Santu bat edo santiari zerbait aginduten jakonian; edo santuba ta santia izentauta aginduten danian, Jaungoikuari berari aginduten jako. Ta santuba edo santiak iminten da bitaartekotzat, Jaungoikuaganik jaditxi daigun



gura gendukian grazija, laugarren sakramentuban meza santubaren gai-nian agirijago erakutsiko dan legez. Au onan izan arren, aintxinako debo-zinoia da Eleisa Ama santaan, Poujet jakintsubak dinuan legez, kristinaubak Ama Birjina guztiz santiari, aingerubai ta zeruban Jaungoikuagaz dagozan santubai mezaak ateratia ta beste egitade santubak euren ondrarako agindutia. Alan dauka, esan oi dan legez, bakotxak bere debozinoe-ko santuba edo santia. Ta egiten jakuez agintzarijak Jaungoikuaren ize-nian. Alan Eleisa Ama santiaren goguagaz bat eginda, Jaungoikua bere lekuban ta santuba eureenian ondreetako botuak eta promesak egitia, gauza santuba da. Gauza ona da. Geure Erljinoeko egitadia da.

Geure sinistutiaren aitu era onegaz prestauta esaten da, neure entzu-la onak, botua edo promesa dala *noberaren ezauberiagaz ta naijagaz Jaungoikuari gauza ona baino obia agindutia*. Esaten da, *noberaren ezauberiagaz*. Boto edo promes egiten dabenak, ezautu ta jakin biar dabelako ondo zer egiten daben. Ez jakinaz ta destajuban egiten dirian botuak ez dira onak. Esaten da *noberaren naijagaz*. Botuak borondatezkuak izan biar dabeelako. Bada, santo Tomasek esaten daben legez, izena bera bere botuak boron-datetik dakar. Noberaren guraz ta nai osuagaz ez dala, ez da botorik egiten. Esker gaistoko ta derrigorrezko botuak ez ditu estimeetan Jaungoikuak. Ezaubera osuagaz ta nai osuagaz egin biar da botua. Esaten da *gauza ona baino obia*. Botuaren geija edozein ez dalako. Boto edo promes izateko, ez da asko Jaungoikuari edozein gauza on agindutia. Izan biar dau ona baino obia. Gauza ona da matrimonioko sakramentuba, baina berez ez da botuaren geija. Obia da erlijinoian sartutia, nai ezkondu bagarik kastida-dia Jaungoikuaren izeñian gordetia. Egin biarreko gauzaak bere edo lege-pian dagozanak eurenez ez dira botuaren geijk, ezbada geure naijaren beian dagozanak.

Botuen geijk izaten dira: Erljinoian sartutia; matrimonioko estadu-ba artu bagarik, Jaungoikuaren izeñian kastidadia gordeetia; Jerusalengo, Errromako ta Santiagoko leku santubak bisiteetia; santu edo santa bat ondreetia; limosnaak egitia; barubak ateratia; mezaak entzutia; sarrijago konpeseetia; erosarijuak errezeetia; ta beste Jaungoikua ganako nai onak. Onetariko geure borondatepian dagozan ta ona baino obia dirian gauzaak dira boto geijk eurenez. Esaten da, *Jaungoikuari agindutia*. Aituten emoteko Jaungoikuari berari bakarrik egiten jakozala botuak, leen esan dan legez. Baita aituten emoteko, Jaungoikuari bein alan agindu ezkerro nobe-rak ezauberaz ta naiz gauza ona baino obia, ya ez daguala bere eskuban agindu dabena egin bagarik istia, gero esango dan legez. Jaungoikuak ziur ta gogoz emoten deutskuz agindu deutskuzan sarijak, agindu deutskuzan

moduban. Dinot, kristinaubak, Jaungoikuak ziur gordeetan deutskuzala egian deutskuzan promesak, geuk ziur egiten dogunian bere aginduba. Sinistute oso bategaz esaten eban san Pablo apostolubak: *Gordeta dago nire-tzat onto eginaren sarija, zein emongo deutstan Jaungoiko zuzenak neure azkeneko egunian*. Bada, Jaungoiko andijk esanda badauka bere berbia ondo egi-na-ren sarija geuri emoteko, ta inos ukatuten ez badau, beti ziur gordeetan badau; kristinaubak bere ezauberaz ta naiz Jaungoikuari egindako *botua* edo aginduba gorde biar dau. Esaten da, *botua edo aginduba*. Ez ustia edo gogua. Ta erakutsi onen paltaz kristinau asko bitzi dira utsegitiagaz. Batzuk gogua edo ustia artu ezkerro gauza ona baino obia egiteko Jaungoikuaren, santu edo santa baten izeñian, uste dabee botua dala. Beste batzuk, Jaungoikuari edo santubai egindako boto edo agindu jaki-nak bere ez daukeez bototzat.

Botuaren ta ustiaren edo goguaren artian erabagi andija dago. Buruko mina edo beste gatx bat oi dozulako zeuk edo zeure etxeak, etorten jatzu gogua ta artutен dozu ustia alako santu edo santa bat bisi-teetara juateko geijagoko bagarik; au ez da botua, ez da promesa. Au uste ona da, gogo ona da. Baina egin biarraren karga barrija burubarri ezarten ez deutsuna da. Buruko mina bera gaiti edo beste gatx bat gaiti, Jaungoikuak edo santubak librau zaizan, asmeetan dozu zeure buruban santu etxe batera juatia, meza bat ateratia, baru bat egitia edo beste ona baino obia dan gauza bat egitia. Ta dinozu zeure artian gauza on ari ondo erexita, nai goguagaz bakarrik ta nai berbiagaz ta goguagaz: *Eingo dot, bida, Jaungoikuaren edo santubaren ondraan*. Au botua da. Au Jaungoikuari egindako ezauberazko ta bere gurazko aginduba da. Egiteko ustiaz ta goguaz gainera, ezarten deutsa onek bere burubarri aginduba egin biarra. Beste edozein jazotan au berau erakusten da boturen ta goguaren gainian. Egiteko gogua edo ustia artutен dan gauzia egin ez arren, ez da pekatu barririk egiten, gogozko edo ustezko gauzia egin ez dabelako. Baina botozko edo promesezko gauzia egiten ez bada, al dedila, pekatu egiten da. Egin biarra bere burubarri berak ezarri deutsa. Konpeseetako biar da pekatutik ez egiteko gogua. Ta biar da gogo sendua, gogo pirmia, pekatu egin baino gauza guztiak leenago galdueteko gogo egijazkua ta borondatia, parkatuko bajakoz pekatubak. Baina ez da botua. Ta ostera pekatuban jausi arren, ez dau proposituba ausi dabelako pekatu egiten, ezbada Jaungoikuaren aginduba ausi dabelako. Emeti agiri da bada, kristinaubak, zer dirian botuak eta promesak. Ta ikasi biar dozu zelan egin biar dan botozko aginduba.



## II.

Ta esaten da, Jaungoikuaren edo santubeen izenian egindako botua gorde biar dala. Botozko aginduba egin biar dala. Erakutsi onen errazoe sustraizkua da, Jaungoikuak nai izatia geuk egin daiguzan gauza obaak ta gorde daiguzan bere konseju santubak. Jaungoikuaren ondra santubari jaokana da geu onak baino obaak izatia. Aginduten deutsagunian, bada, Jaungoikuari ezauberaz ta naiz, gauza oba bat egitia, aintzat artutene deutsku Jaungoikuak geure aginduba, ta geratutene gara gauza atan Jaungoikuaren zordun. Au berau jazoten da giza arteko promes agijazkutan. Aginduten deutsazu adiskide bat, bere izenian meza bat duarik esatia; artutene dau aintzat adiskidiak zure agindu ona; bada esan edo atera biar dozu mezia. Parkatu deutsazu, al daizula, ezauberaz ta naiz zordunari zor eutsuna. Ondo dago esanda, aintzat artu dau. Bada, parkatuta geratutene da ta ez deutsazu ostera eskatu biar.

Jaungoikuari egiten jakon aginduba ona izan ezkerro, berez indartsu bagua, santubagua ta eginbiar estubagua dakarrena da, gizonari egiten jakona baino. Bada, Jaungoikuari lotsa geijako, leijaltasun geijago ta ardua geijago zor deutsagu geure egitadeetan, munduko gizon guztiai baino. Orregaiti Jaungoikuari aginduba ez gordeetia pekatu andijagua da, gizonari ez gordeetia baino. Ta zer esaten dogu munduban, ezaubera osuagazta nai guztiagaz lagunari egindako agindu ona, al dagijala, gordeetan ez dabena gaiti? Txatxarra dala, doiloorra dala, prestubeza dala, bere berbiaren jaube ez dala, inor pijau ezin lekijola... ez agindu baino ez eukala... burla egin deutsala... Au guztiau esaten dogu alako[a] agindu ta ez egin egiten dabena gaiti. Ta errazoiagaz. Zer esango dau, bada, geure Jaungoikuak zeruban, bere anditasunari ezauberaz ta borondatez gauza oba bat aginduta, al dagijala, egiten ez dabena gaiti?

Zeubek pensau daikezu, kristinaubak. Asarratuko da Jaungoiko ona alako kristinai promesgin ta gordezaile edo eginzaile prestubezaren kontra. Lotsia, errespetua ta ondria galdu deutsalako bere anditasunari, botozko aginduba, al ebala, egin ezagaz. Ara emen, kristinaubak, botuak ta promesak gorde biarra, egin ezkerro. Ara emen Jaungoikuaren gorrotua, gordeetan ez badira. Ara emen pekatuba, botua edo promesa austia gaiti. Au gaiti esaten deutsku Espiritu Santubak: Bein zeure aoko berbiagaz (bardin da borondatiagaz) Jaungoikuari agindu deutsazuna gordeko dozu ziur, agindu dozun moduban. Oba da, dino beste leku baten Espiritu

Santubak, botorik eta promesik ez egitia, egin ta ez gordeetia baino. Egiteko ez deutsku Jaungoikuak aginduten. Baina egin ezkerro, gordeetako bai. Alan zamaitutene ditu Jaungoikuak, promes egina gordeetan ez dabena. Azken txaarra, dino, santubai promes eginda, gero esaneti atzeera biurtutene dan gizonari. Berau gaiti kristinaubak euki biar dau txito ardura andija, botuak eta promesak egin dituban legez gordeetako.

Ta, ze pekatu dala uste dozu, neure entzula onak, botozko aginduba ez egitia? Berez pekatu mortala da, erakuslaak esaten deutskubeeenez. Alan botozko edo promesezko aginduba egin biar da aginduten dan denportaan ta aginduten dan moduban. Santu bat ondreetako, agindu dozu bisperaan meza bat entzutia edo barau bat egitia. Bada, besperaan. Ta mezia agindu badozu, mezia. Barauba agindu badozu, barauba. Onan beste boto ta promes guztieta. Ez dauka botoginak edo promesginak eskubiderik egin dabentzat promesa edo botua luzatuteko, ez beste gauza batera aldatuteko. Agindu dozu konpeseetia ta entzuten dozu aren orde-rako mezia. Ez deutsu balijo. Agindu dozu baruba ta emoten dozu aren orderako limosnia. Ez deutsu balijo. Aginduten dozu aste onetan baru bat egitia; al dagizula, isteen dozu geroko; egiten dozu pekatu, al dagizula, agindutako denportaan kunplidu ez dozulako. Ta modu onetan dira, neure entzula onak, beste imini legizan boto jenero guztiak.

Ta itanduten badozu, ze pekatu egiten dan botozko aginduba ausiagaz. Esaten da, gauza andijan bada, egiten dala pekatu mortala edo illgarrija. Gauza gitxijan bada, egiten dala pekatu beniala edo txiki. Botua edo promesa egin ezkerro, baru bat ateratia, meza bat entzutia, onako egunetan konpeseetia, erosariojko santu bat errezeetia edo beste lege santuban gauza anditzat artutene dirian gauzaak, egin edo kunplidu biar dira pekatu mortalaren beian. Gauza gitxija da *salbe* bat, *abemaria* bat, argitako puska bat, limosna txiki bat ta beste onako gauza arinak. Orduban alako botozko gauza gitxi a ez egitia, pekatu arina edo beniala da. Denporiaren partetako nos kunplidu izentauta egiten bada botua, orduban kobru emon biar jako agindu bari. Luzatutene bada nagitasunez, egingo dau pekatu. Denporta luzian ta gauza andijan bada, izango da pekatu illgarrija. Alan ez bida, izango da pekatu beniala. Botoginak señaletan ez bidauditu botua kunpliduteko denporta, ainbat lasterrean kobru emon biar deutsa botuari. Ya dakutszu, kristinaubak, zelan kobru emon biar jakon botuagaz edo promesagaz Jaungoikuari egindako agindubari. Ta entzun egizu berba bitan, zelan kendutene dan euren eginbiarra edo obligazioia.



### III.

Botuen eginbiarra edo obligazinoia kenduten da: 1. Botozko aginduba ezin danian. Ezin dabena, lege guztietati libre dago. 2. Eleisako agintarijak, zeintzuk dirian Aita Santu Erromakua, obispo jaunak ta beste asko, botuaren eginbiarra kenduten dabeenian. 3. Konpesore Jaunak beste gauza batera aldatutenean deutsanian botoko aejinduba. 4. Botua egin dabenari, atarako eskubidia daukanak, guztia parkatutenean deutsanian. Au da, neure kristinaubak, boto santubeen gainian ikasi biar dozuna: zer dirian ta zelan kobru emon biar jakuen egiten dirian moduban, eureen eginbiarra edo obligazinoia kentu artian. Duda bagarik, kristinaubak, pekatu asko egiten dira promesak kunpliduten ez dirialako. Estutasun bategaz, naibage bategaz, buruko min bategaz, edozein premina ordutan, nai auzi bat, nai enpeñu bat, nai ganadu baten gaiso bat danian, laster egiten da promesa. Jaungoikuak eta santu edo santaren batek lagundu dagijon biar ordu atan. Ta kobru emoten jako promesari? Egiten da agindutenean moduban?

Ah! Esan ginai gaurko eguneko kristinaubak gaiti, beste denpora baten jakitun zelotso batek esaten ebana: Gerria badator geure etxera, pestiak edo gatzxak estututenean bagaitu, trumoiak edo arrijak geure laboriak zamaituden baditu, liortia edo euririk eza sentiduten badogu, subak edo urak artutenean bagaitu, gosiak persegiduten bagaitu edo beste penagarri bat bajatorku, Jaungoikuari ta santubai agintzari andijakin edo promesakin sokorruba eskatutenean deutseegu. Ordubar gomutatutenean gara Jaungoikuagaz ta bere santubakin. Premina ordu estu batek jo artian nekez eldutenean dira kristinaubak Jaungoikuagana edo zeruko santubeetara. Bainan bildurra juan dedinian, estualdiya irago dedinian, ez daukee konturik Jaungoikuari ta santubai egindako promesakin. Ezda esker onak emoteko bere. Kristinaubak, Jaungoikuak eta santubak ez daukee gure premianik. Geu gagoz ordubar gomutatutenean. Geuk erantzun biar deutseegu, bada, esker onagaz, Jaungoikuak bere miserikordija gaiti, Jesukristo geure Jaunaren merezimentubak gaiti ta zeruko santu ta santeen bitartekotasuna gaiti egiten deutskuzan egunian eguniango meseidai. Ta gorde biar ditugu ziur, Jaungoikuari edo santubai egin deutseeguzan botuak.

Onetarako kristinaubak egin biar dabena da: Lelengo: Ez botorik edo promesik egin, ondo ta astiro pensau bagarik. Ondo pensau bagako

edo nezijozko promesa ez da Jaungoikuaren gogogua. Bigarrenian: Eginda daukazan botuak edo promesak gorde ta kunplidu, agindu dabenean denporaan ta moduban. Izentau ez badau nos kunplidu, kunpliku aintzat. Bada, luzatutia pekatu da, dino Espiritu Santubak. Irugarrenian: Promes egina kunplidu al dagian, edo kunplidu biar dabenean edo ez dudia badauka, itandu konpesoriari ta egin esaten deutsana. Gauza txaarra jadisteko egiten dirian botuak ez dabee balio. Pekatuzkuak dira. Eskatu daijogun, kristinaubak, geure Jaungoiko onari, emon daigula grazia, bere lege santuba gordeetako ta bere anditasunari ta ontasunari egiten deutsaguzan agindubak leijal ta ziur egiteko, zeinegaz ondrauko dogun bere izen bedeinkatuba ta irabatziko dogun zeruko betiko gloria. Amen.



## IV. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*Zer dirian blasphemijaak, maldezinoiak ta bidauak.*

Jaungoikuak aginduten daben moduban juramentubak eta botuak egiten dirianian, ondreetan da, neure entzula onak, Jaungoikuaren izen santuba, leengo irakatsijeetan esan dan legez. Baita botuagaz ta juramentubagaz bere desondreetan da ta injurijeetan da geure Jaungoiko andijaren izen bedeinkatuba, esanda geratu dan legez. Bainagoz beste berbeeta batzuk ta ez gitxi kristinaubeen artian, Jaungoikuaren izen santuba desondreetan dabeenak ta karidadiari zauri andija egiten deutseenak. Onetariko berbak dira edo Jaungoikuaren beraren kontra ta santubeen kontra. Ta oni esaten jako *blasphemija*. Edo dira noberaren burubaren edo proximuaren gatxerako. Ta onei esaten jakue *maldinoinak*. Edo dira gatxaren izenak, ta onei esaten jakue *bidanak*, premina bagarik dirianian. Geijago edo gitxijago guztiak dira pekatubak. Ta moduren baten bigarren agindu santubaren kontra. Esango deutsut, bada, dotrina onetan: 1. *Zer dan blasphemija; edo Jaungoikuaren kontrako berbia.* 2. *Zer dirian maldezinoiak.* 3. *Zer dirian bidanak.* Entzun egizu kuidazoz.

### I.

*Blasphemija* esaten jako, neure kristinaubak, Jaungoiku bera bere iza-tian, edo bere santubeetan, edo bere gauza sagradubetan desondreetan daben berbiari edo egitadiari. Pekatu ikagarri au egiten da: 1. Jaungoikuari bere izate santuban daukan ontasun bat ukatutu jakonian. Esango baleu batek, *Jaungoikuak zer egiten daben ez dakijala, edo Jaungoiku sinplia dala, sinplia txotxakerijatzat artuta, edo Jaungoikuak inor kondenau biar ez dabela, izango litzaateke au blasphemijako pekatuba.* 2. Jesukristo geure Jaunari ondria kenduten deutsan berbia esaten danian. Esango baleu batek, *Jesukristo illagoz guk probetxurik ez dankagula, edo Jesukristori gu salbeetia asko kostoa ez jakola* edo beste onako Jesukristoren gizatasunaren kontrako berbia, izango litzaateke blasphemijako pekatuba. 3. Blasphemijako pekatuba da kurutze santubaren kontra, sakramentubeen kontra, meza santubaren kontra ta Eskritura Sagradubaren kontra esaten

dirian berbaak. Kurutze santiari burla egitia, meza santia ta sakramentubak desprezijeeetia ta Eskritura Sagraduko egijai sinistuterik ez emotia edo guzurrak diriala esatia, blasphemijako pekatubak dira oneek guztiok. Jaungoiku bera desondreetan da, gauza sagradu onei burla egiten jakue-nian, nai eureen kontra berba deungaak esaten dirianian. Ta askotan pedia ukatutu da. 4. Blasphemijako pekatuba da Ama Birjina guztiz santiaren kontra berba egitia. Esango baleu batek, edo *Maria Santissima donzelia ez dala, edo Jaungoikuaren ama ez dala, edo bere debozinoiak ta bitaarte kotasunak baljo ez deutskula* edo beste onako berba txaarra Jaungoikuaren Ama Birjiniaren kontra. 5. Blasphemijako pekatuba da zeruban dagozan santubeen ta eureen gorputz zati edo relikijeen kontra berba egitia. Zeruban dagozan santubak dira, Eleisa Ama santiak aintzat erakusten deutskuzanak. Ta eureen gorputz zatijak dira, Eleisiak berak aintzat ezaututa, adoreetako emoten deutskuzanak. Santubeen ta areen gorputz zatijen desondrako ta desprezijoko berbaak esatia da Jaungoiku bera bere san-tubeetan desondretia, dino santo Tomasek. 6. Blasphemijako pekatuba da kurutze santiari, relikijai ta santu been edo santeen imajinal txistuba des-prezijoz jaurtegitia, ostikopian erabiltia, nai burla egitia, nai injuriazko gauzaak egitia. Jaungoikuaren, santubeen, aingeru oneen, sakramentubeen ta gauza sagradubeen kontrako berbaak ta egitade burlagarrijak dira blasphemijaak.

Ta ze pekatu da blasphemijako pekatuba? Sakrilejijo ikagarrija, dino san Bernardok. Jesukristo kurutzian ill ebeeneen sakrilejiju baino ezainago dala esan legijana. Ez dago ezer bere bildurgarrijagorik edo ezaina-gorik, esaten eban san Jeronimok, zerubaren kontra aua edegitia baino. Beste pekatubak onegaz bat egin ezkerro, gauza gitxija dira. Blasphemijako pekatubari esaten jako Espiritu Santubaren kontrako pekatuba. Ez mundu onetan, ez bestian parkatuten ez dan pekatuba. Ez jako esaten parkatuko ez dan pekatuba, Jaungoikuak parkatu ezin legijalako. Ez dago Jaungoikuak parkatu ezin legijan pekaturik. Ez bida esaten da blasphemijako pekatuba ez dala parkatuko ez mundo onetan ta ez bestian, pekatu ezaineen artian txito ezaina, itxusijen artian entero guztiz itxusija ta Jaungoikuaren gorroto andikuen artian txito gorroto andikua dalako Jaungoiko Santubaren beraren kontra aua edegitia. Arrika illteko aginduten eban Jaungoikuak leengo legian zerubaren ta gauza sagradubeen kontra berba egiten ebana. Kristindadeko agintari jauneen ordenaak erijotziagaz kondeneetan dabee, Jaungoikuaren, Jesukristo geure Jaunaren, santubeen, sakramentubeen edo Eleisiaren kontra berba deungaak esaten ditubana. Eleisa Ama santiaren erregeliak aginduten dau, blasphemija esaten



dabena, zazpi domeekatan, eleisako ateetan kanpoti egoteko, barrura sartuteko lizenziya bagarik. Ta aurreko zazpi barijakubeetan ur ta ogi barau egiteko.

Begiratu bada, kristinaubak, ze pekatu ezaina dan Jaungoikuaren kontra, santubeen kontra ta gauza sagradubeen kontra berba gaistuak esatia. Ta ez aaztu, sarritan egiten diriala kristinaubeen artian blasphemijako pekatubak bildur gitxigaz. Orrako taberneetan, orrako jokuetan, orrako okasinoietan, askok dauke izkune madarikatuba blasphemijako berbaak esateko. Ustez uste bagako min bat artuten dabenian; gauza bat eureen naira ez jatorkuenian; eskuko kartiak edo erramientiak gaiski urteten deutsanian, nai gauza gitxi bateko su aldiagaz esaten dira blasphemijaak Jaungoiko Santubaren kontra. Beste arima galduko batzuk burlaz, adrede, gatx uste bagarik balitz legez, Satanesen bereno guztiagaz esaten ditubee berba deungaak eta blasphemijaak meza santubaren kontra, konpesinoia-ren ta komuninoiaren kontra, imajineen ta reliquia jakineen kontra, Eskritura Sagraduko berbeen ta beste gauza sagradubeen kontra. Oneek edan dabee ur mingotxa ta berenotuba pediaren kontrako liburubetan, ta zabaldutenean arimeetako gatx iratskorra Jaungoikua, santubak ta sakramentubak desprezijetako. Oh, desbenturau tristiak! Kontuban jautsi zaite ta ez egizu aorik edegi zerubaren kontra, An[t]joko, Erodes, Juliano apostata, Nikanor ta beste blasphemio asko legez, zerubak kastigau ez zaizan. Ez dedilla entzun geijago zeubeen aoti blasphemiarik. Ta ezda maldezinoerik bere, zein dan beste bizijo bat txito ezaina kristinaubaren auan. Ikusi daigun zelan.

## II.

Maldizioia da, neure kristinaubak, inoren gatxa eskatutenean dabeen berba deungaak esatia. Izan leiteke noberaren burubaren kontra edo proximaren kontra. Maldizioiagaz esaten dan edo desietan dan gatxa, izan leiteke arimakua edo gorputzekua edo munduko gauzai jagokuena. Arimiaren kontrako maldizioiak dira: *Diabrubak eruan dagjeela; Jaungoikuak parkatuko ez al deutsala; inpernuban erretan egongo al dala: zeruban sartuko ez al dala* ta beste arimiaren gatxa eskatutenean dabeen berbaak. Gorputzaren edo munduko gauzeen kontra maldizioiak izan leitekez bitziziaren kontra, osasunaren kontra, bakiaren kontra, kleitubaren kontra edo aziendiaren kontra: *Ilgo al dala; itoko al dala; bitzirik pausurik egingo*

*ez al dabela; oeti jagiko ez al dala; botikako gaistotan artuko al dabela; minak urtengo al deutsala; gozo onik izango ez al dabela; su gaitok erreko al dabela...*

Arimiaren kontrako maldizioiak pekatu andijaguak dira eureenez, gorputzaren ta munduko gauzeen kontrakuak baino. Gorputzko ta munduko gauzeetan bere batzuk geijago balijo dabee ta geijago estimateetan dira beste batzuk baino. Gauza estimaubaguaren edo balijkokuaguren kontra egiten dirian maldezinoiak pekatu andijaguak dira bestiak baino. Noberaren burubaren kontra egiten dirian maldezinoiak pekatu andijaguak dira eureenez, inori egiten jakozanak baino. Zeinbat persona andijaguarri edo urraaguari egiten jakon maldezinoia, ainbat da pekatu andijagua. Au gaiti konpesau biar da, ez bakarrik maldezinoeko pekatuba edo maldezinoia egin ebana, ezbada baita ze gatx opa izan eutsan bere maldezinoia egin eutsanian. Ala arimako gatxa, ala illteko gatxa, ala osasunekua, edo kleitukua, edo aziendakua maldezinoiagaz eskatu deutsan esan biar dau konpesinoian. Baita ala bere burubari, ala inori maldezinoe egin eutsan bere. Ta inori bazan, ze kondezinoetako personiari egin eutsan bere bai. Ala sazerdotiari, juezari, gurasuari, umiari, senarrari edo emaztiari...

Ta ze pekatu da maledinoe bere burubari edo inori egitia? Santo Tomasek erantzuten dau, kristinaubak, berez pekatu mortala dala inori maldezinoe egitia. Ez gaitu pekatu mortalak baino bestek alderatutenean zeruko erreinuti, dino santubak. Maldezinoiak aparteetan gaitu zeruti, san Paulo apostolubak dinuanez, *ez diriala maldezinoeginak zeruban sartuko*. Begaz, maldezinoe egitia berez pekatu mortala da. Maldezinoia da norbaiti gatxa opa jakonian, a eskatuteko berbeetia. Bada, proximuari nai bere burubari gatxa opa izatia ta a eskatutia karidadiaren kontra da. Ta karidadiaren kontra dalako, berez pekatu mortala da, dino santubak. Ta zeinbat geijago amau biar dogun ta erreberenzia andijagua zor deutsagun persona bat, aren kontra egiten dogun maldezinoia ainbat da pekatu andijagua, leen esan dan legez ta santo Tomasek berak erakusten dabenez.

Orregaitino, ez dira maldezinoe guztiak pekatu mortalak izaten. Bada, jazo leiteke, dino Santubak berak, inoren gatxa eskatutenean dabeen berbaak pekatu txikarra izatia; edo gauza gatx txikija opa deutsalako, edo txantzaan maldezinoe egin dabelako, edo gatxa etorri dakijon gogo bagarrik maldezinoia egin dabelako. Maldezinoia bada gauza gitxijan, borondante gaisto bagarik, adrede esaten dabela, edo zer esaten dabean ez dakijala ta entzuten dabeenak eskandalizau bagarik, ez da esaten beinguan alako maldezinoia pekatu mortala dala. Baino gauza jakina da, maldezinoiak diriana txito bildurgarrijak. Gorrotuaren subak ta bengeetako naijak erasoten ditu



maldezinoiak ta inoren gatxerako berba deungaak. Nobera bengau ezin jakonian arerijuari edo gatx egin deutsanari, eskatuten deutsa Jaungoikuari bialdu dagijola ari laster gatxa. Alan sosegeetan dabee maldezinoiagaz eureen gorrotuaren suba. Oh, ze errukarrijak dirian ain bijotz galduko maldezinoeginak! Duda bagarik egiten ditubee pekatu mortal asko.

Oraindino gejago arritu leiteke kristinauba, ainbeste miün maldezinoegin edo gatx eskala ikusita. Zeinbat gatx eskaera entzuten ez dira kristinaubeen artian? Ez dagoz asko, bai gizonak ta bai emakumiak, edozein nai-bage jazoten jakuenian, gauza gitxija bada bere, auan artutia mereziduten ez dabena bada bere, maldezinoeka luurrari ikara eragiten deutseenak? Zeinbat kristinau desditxaux berba birik baten dauke auan maldezinoia? *Lupu gaistua, botikako gaistua, zentella gaistua, besuak igartutia, tripaala gaistok jotia, münak urtetia, bitzirik alderik ez egitia, diabrubak airian erna tia, niri emon deutstazan egunak berari jazotia...* Oneek dira kristinau askoren naibage bakotxeko orazinoe edo gatx eskatze madarikatubak. Onako maldezinoiak ezarten jakoz arerijuari, zerbait esan deutsanari, zerbait oostu deutsanari, nai lagunari. Baita ez gitxitan senarrak emaztiari ta emaztiak senarrari, gurasuak umiai ta umiak gurasuai. Oh, ao madarikatubak! Luurrari ikara eragiten deutsee eureen berba bildurgarrijakin. Aurrian dagozanak belaarrijak tapeetan ditubee, entzun ez dagjeezan maldezinoe ikaragarrijak. Oh, zenbait gurasok maldezinoiak esateko dotia isteen dabeen eureen umeetan! Aitari edo amari maldezinoia ezarten deutsana ill dedilla, dino Jaungoikuak. Maldezino[e]ginak ez dira zeruban sartuko, dino san Paulo apostolubak. Jaungoikuak gorroto andija deutsee maldezinoeginai ta askotan egin ditu gurasuen ta umeen artian kastigu ikaragarrijak, maldezinoiari deutsan gorrotua erakusteko. Bildurtu bada, kristinaubak, izenagaz beragaz.

### III.

Bidauak dira beste kristinaubeen arteko esan era bat ezaina ta bildurgarria. Bidaua ez da berez, ez blasphemija, ez maldezinoia; ezbada gatxaren izena premina bagarik esatia. Bada, blasphemijk Jaungoikuari edo santubari kenduten deutsee ondria. Maldezinoiak noberaren edo proximuauren kontra eskatuten dau ta desietan dau gauza gatxa. Bainan bidau egiten dabeenak, gatxaren izena esatia baino ez dau egiten. Esaten da bidaua gaiti, premina bagarik oituraz, ekanduz, purijaz ta soberbijaz berbaan berbaan *demoninua* ta *diabriba*, ta askok ez banaka, ezbada millaka, esatia dala txito izkune galdua. Gurasuak esan biar ez dabeela. Umiai

esaten itxi biar ez jakuela. Ta izkune galdua daukanak, dendatu biar dabela kansau bagarik, gatxaren berbaa bere aoti kendutera.

Ez pensau, kristinaubak, demoniuak bere izena dabela. Bere izena dau, ta biar danian esaten da, bai pulpitan, bai ebanjelijo santuban bere, baita edonun bere. Bainan onegaz edertu gura zendukez zeubeen orduban ordubango demonio esatiak? Atertu bagarik zeubeen etxeetan nai asariagaz ta nai ainbagarik esaten dozun bidaio tegia? Gurasook egiten badi-tuzu bidauak ta maldezinoiak zeubeen umeen aurrian, zer ikasiko dabee umiak? Ta ondo deritzazu guraso ta ume guztiok demoninoka ta diabruka bitzi izatiari? Gaztetako ekandubak zaartu artian iraun oi dabee. Ta naiko dozu, zaartu zaitezanan, zeuri umiak esatia sarritan, *agura diabriba* edo *atso demoninua*, zeuk orain ume diabrubia edo ume demoninua esaten deutseezulako? Ikaratu egingo zara, pensauta bere, zeure umiaren aoti onako bidaua entzutia. Bada, gaztetako ekandu galdua zeuk daukazun legez zaartuta, zuri ikasitako izkune madarikatuba ez jakue juango zure umiai bere. Ta bardin egingo deutsubee zuri bidaio, zein eureen umiai, zein beste edozeini. Ta onen gainera, bitzitzaan sarri dei egiten badeutsazu gatxari, zure erijotzako orduban indar gejago eukiko dau zeure kontra. Oh, ze bildurgarria! Zeuk ekandu gaistoz millaka berbaan berbaan auan erabili dituzun demoninuetati dozena bat aua zabalik illten zagozanian zeure oe baztarrian ikustia, zeure arimia inpernuban irunsteko! Ta uste dozu ez diriala an egongo? Sinistu egizu, bidaotija ta maldezinoegina, zariana zariala, ez diriala aaztuko demoniuak zure bidauakin.

Kristinaubak, gauza jakina da juramentu gaistuak, blasphemijaak, maldezinoiak ta bidauak alkarriz dautseena. Gizon bat edo emakume bat bida bidaotija, egingo ditu maldezinoe asko. Maldezinoiak egiten baditu, jausiko da blasphemijeetan ta ez bein bakarrik guzurrezko juramentubee-tan. Oh, Jesus maitia! Oh, Ama Birjina gozua! Oh, san Josepe bedeinkatubal! Oh Jaungoiko ona, Aita zeruko ona! Ze izen gozuak, santubak ta grazijaz betiak oneek geure auan artuteko, geure penaak arinduteko, jeue-re bijotzak alegereetako ta Jaungoikuaren izen santuba ondreetako, bigarren agindubak eskatuten deutskun legez. Bijuaz, bida, gure auetati blasphemija madarikatubak, juramentu deungaak, maldezinoe bildurgarrijak ta bidaio gaistuak. Esan daigun gogo onagaz sarritan Jesusen izen santuba. Jesus bijotzian, Jesus goguan, Jesus auan; Jesus, Maria ta Jose, ta geure Aita zerukua, geure Jaungoiko ona. Oneek dira geure pena, naibage ta estu ordu guztietaan auan artu biar ditugun berba santubak ta izen grazijazkuak. Alan gura izan dagijala Jaungoikuak bere Izen Santuba gaiti. Amen.



## IRUGARREN AGINDUBA

### I. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*agindu onetan Jaungoikuak zer eragozten deutskun;*  
*ta zelan eragozten deutskun.*

Irugarren aginduban esaten deutsku, neure kristinaubak, Jaungoikuak guztioi: *Sei egunian biarra egingo dozu, ta egingo dituzu zereginak. Zazpigarren eguna zeure Jaungoikuaren zapatuba da. Ez dozu biarrik egingo egun atan, ez zenik, ez zeure semiak, ez zeure alabiak, ez zeure krijadubak, ez zeure krijadiak, ezda zeure etxe barruban daganan alemanjak bere.* Sei egunian Jaungoikuak egin zituban zerubak, luurrik, itxasuat ta areetan dagozan gauza guztiak, ta zazpigarren egunian atseen eban. Orregaiti Jaungoikuak bedeinkatu eban ta santipikau eban zapatuko eguna. Au da Jaungoiko andijaren aginduba. Emen eskatuten deutsku Jaungoikuak, berari zor deutsagun agiriko ondria. Jaungoikuari agiriko ondria emotia da leleengo ta bigarren agindubari darraikona, dino Errromako Katedismuak. Areeta agindutene deutsku, bijotz guztiagaz ameetako geure Jaungoiko maitegarija, berari sinistuteko ta beragan jeure betiko ditxiaren ustia eukiteko. Bada, errazoa da jeure gogo guztiagaz maite dogunari ta gauza on guztiak emoten deutskuzanari esker onak emotia. Ta munduko zereginetan gogua daukeenak Jaungoikuari eskerrak emoteko denporia jakin dagijeen, izentauta itxi deutskuz Jaungoikuak atarako egunak. Zer egin biar dau, bada, kristinaubak egun santu oneetan? Jaungoikuak ta Eleisa Ama santiak agindutene deutskuna. Domeekak ta jaijak gordeetia da egun oneetako kristinaubaren zeregina. Zapatuko aginduba zelan eta ze gaiti domeekara aldatu zan esango da gero. Urte barruko jaijak batzuk dira osuak, ta areetan domekeetako eginbiarrak dagoz. Beste batzuk dira jai arinak edo jai erdijak. Ta areetan meza santuba en tzun ezkerro, biarra egin legi. San Gregorijok esaten dau, domeeka ta jaijak gordeetan diriala biarrik egin ezagaz ta obra onak eginagaz. Gauza bi eskatuten deutskuz, bada, Jaungoikuak agindu onetan, domeekak ta jaijak gordeetako: Bata da, egun santu oneetan biarrik ez egitia; ta bestia da, egun santu oneek Jaungoikuak ondreetako egitadeetan iragotia. Au da Jaungoikuaren aginduba. Onezaz ostian Eleisa Ama santiak agindutene deutsku, jaijegunetan meza osua enzuteko. Ara emen agindu onetako ikasikizun guztia. Erakutsiko deutsut leleengo, Jaungoikuak zer eragozten deutskun irugarren aginduban.



Bigarrenian, meza santuba zelan entzun biar dan; ta irugarrenian, jai domeeketan meza osua entzunda, zer egin biar dan. Edola bere astian bein pekatu mortalaren beian egin biar doguna da, kristinaubak, domeekak ta jaijak gordeetia. Errazoia izango da, bada, agindu onetako ikasikizunak, ardura onagaz zeubek entzutia ta ainbat onduen goguan eukitia. Esango deutsut, bada, dotrina onetan: 1. *Ze biar eragozten deutskun Jaungoikuak jai domeekeetan.* 2. *Zelan eragozten deutskun.* 3. *Zegaiti biarra egin legian jai domeekeetan pekatu egin bagarik.* Artu egizu ardura osua, ainbat onduen ikasteko.

## I.

Gizonak egin al dagizan biarrak, dino santo Tomasek, edo dira pekatzko biarrak, edo dira ge[u]re ta proximuaren onerako biarrak, edo dira Jaungoikuaren ondrarako biarrak. Pekatu egitia da pekatzko biarra, ta geratutena da pekatupian edo pekatubaren krijadu dino Juanek. Egun guztietan ta beti dago gizonari eragotzita pekatu egitia edo pekatuko biarra. Beti da Jaungoikuaren gorrotokua pekatuba. Baino domeeka ta jaijegun santuban egiten dan pekatuba ezainago ta itsusiago da Jaungoikuaren begijetan. Jaungoikuak, bera serbiduteko, bera ondreetako ta berari esker onak emoteko senailau dabena egunian, Jaungoikua opendidutia ta desondreetia pekatubagaz, ezainago ta lotsagaldukuago da kristinaubarengat. *Gordeko dituzu jaijegunak,* dino Jaungoikuak, Isaías profeta santubaren aoti, *pekatu bagaz egin santu areek mantxan bagarik.* Jaungoikua kexeetan jakuen judegubai beste pekatu askoren artian Ezekiel profeta santubaren bitaartez ta esaten eutsen: *Baita geijago bere egin deutsee niri. Mantxan ebeen egin atan neure santu lekuba ta ausi ebeen zapatuba edo jai eguna.*

Esango baleu legez geure Jaungoiko onak: pekatu asko egiten dabean kristinaubak. Ez dira aspertutene neure kontra, ta au ezer ez balitz legez, oraindino geijago egiten dabean. Eureen arimaak santututeko, eureen aste barruko pekatubeen parkazinoia neuri eskatuteko ta neu ondreetako emon deutseedazan egunak artutengitibetean neu opendiduteko ta pekatu egiteko. *Gorroto deutset ta kendu ditut neure begijetatik,* dino Jaungoikuak, *zeubien piesta egunak pekatubari konsagretan deutsazuzalako.* Modu onetan asarratutena da Jaungoikua jai domeeketako pekatubaren kontra. Egun santu areetan egiten dan pekatuba, berez eguna gaiti ezainago dalako. Au gaiti esaten dabean san Antoninok ta beste askok, domekaan pekatu egiten dabean lege bi austen ditubala: Bata pekatu egiten dabelako, ta bestia

domeekan egiten dabelako. Eragozten dau bida, kristinaubak, pekatzko biarrak edo pekatubak jai domeekak gordeetia. Zerbait gaiti esaten dau santo Tomasek san Agustin andijagaz: *Judegubak pekatu gitxiago ebeela zapatuban soluan nabasen edo etxian gorubetan eginagaz, danzan eginagaz baino.* judegubeentzat zapatuba zana da kristinaubeentzat domeekia ta jai osua. Ta Judegubeentzat zapatuban pekatu zan nasaitasuna, kristinaubeentzat domeekan pekatu da.

Ez dakit, neure entzula onak, zer esango dabean Jaungoikuak geure domeeka ta pista egunak gaiti. Dakuskuna da, kristinau asko domeekien edo jai egunaren zain dagozala, pekatubaren nasaitasun guztiari jarraituteko. Nos okasinoia, nos joko gaistua, nos ordikeria, nos desonestidadia, nos eskandaluba. Domeekan edo jai osuan. Jaungoikuari konsagraturako egunian. Egun santuban. Oh, zeinbat kristinau gaiti esan legijan, Jaungoikua serbiduteko aparteko egin santubak pekatubari ta Satanasarri konsagretan deutseezala. Aste guztia iragoten jakue askori pekatu mortal bat egin bagarik. Ta jai santuban goxerik arrats dagoz pekatu egiten. Argitu, bida, begijak, kristinaubak, Jaungoikuak gorroto izan ez dagijueen geure jai domeekai. Ez egin pekatuzko biarrak jai egunetan. Ez egin pekatutik. Ta au izango da geure jai santubak gordeetako prestaerarik oneena.

Onezaz gainera dino Jaungoikuak: ez dozu biarrak egingo ez zeuk, ez zeure semiak, ez alabiak, ez krijadubak, ez krijadiak, ez alemanijak. Berba oneekin erakusten deutsku, Jaungoikua ondreetia ta serbidutia galaratzo leigubeen gauza guztiak daukaguzala eragotzita jai domeeketan. Ze gaiti au? Kristinaubak, beste zer eginai largata, eureen gogua, pensamentuba ta borondatia libre euki dagijeen domeeketan ta jai osuetan, Jaungoikuaren ondrako ta arimako salbazinoetako gauzeetan. Onetarako eragozten deutskuz Jaungoikuak jai domeekerako biarrak, dino Erromako Katezismuak. Biar oneek dira geure bitziziaren edo proximuauren probetxurako egin oi dirianak.

Eleisa Ama santaren batzarrak ta erakuslaak konteetan ditubee oneitariko biar eragotzijak. Ta geuri jagokunez, beste askoren artian, domeka ta jai osuetan eragotzitako biarrak dira: soloko biarrak, basokuak, argintza, arotzija, erramientagintza, oinetakoginza, joste, saldu erozi ta beste gorputza nekatuta bitziziaren irabazirako egin oi dirianak.

Biar oneek egiteko kristinaubak biar dabean legez arduria ta gogua eskubetako zereginian, ezin erabatera bere gogua ta pensamentuba euki legiz Jaungoikuaren ondrako gauzeetan ta esan dirian biar geijetan. Agaiti esaten deutsa Jaungoikuak kristinaubari: *sei eginian egingo dituzu zeure biarrak. Zazpigarren eguna neure eguna da.* Beste biarrak egitiari itxita, neure



ondrarako ta zeure arimarako biarrak egiteko eguna da. Ez dozu, bada, biarrak egingo, ez zeuk, ez zeure etxekuak, ez zeure alemanijak, dino Jaungoikuak. Ya gauza jakina da, domeeketan ta jai osuetan biarra egiten dabena austen dabena Jaungoikuaren aginduba. Ikusi daigun, bada, nos eta zelan pekatu egiten dan jai domeeketako biarragaz.

## II.

Pekatu mortalaren beian dago eragotzita, kristinaubak, domeeketan ta jai osuetan esan dirian biarrak egitia. Bainaz ez da biar eragotzija egiten dan guztian pekatu mortala egiten. Pekatu mortala ala beniala dan ezaututeko begiratu biar jako, dinue Eleisiaren erakuslaak, bai egiten dan biarrari ta bai biarrian iragoten dan denporiari. Askotan denpora gitxijan egia legi balijo andiko edo irabatzi andiko biar eragotzi bat. Ta izango da pekatu mortala denpora gitxi biarrian irago arren, balijo andiko biarra egia dabelako. Merkatarijai eragotzita dago jai domeeketako saldu erosja (aparteko libertadia ez badaukee eguneen batzubeetarako). Bada, merkatari batek denpora gitxijan izan arren, egiten badau eragotzitako egunian irabatzi andiko saldutia edo erostia, egindo dau pekatu mortala. Beste ainbeste esaten da, juez jaunai jai domeeketan eragotzita dagozan biarretan; zeintzubetan ez jakon begiratuten biarra egiten dan denporiari, ezbadaka biar eginari, ze pekatu egin daben ezaututeko.

Beste jai-domeeketako biarretan denporiari begiratuten jako gejeeanian, biarra egitia pekatu andija ala txikija dan ezaututeko. Ta denporiari begiratuta bere ez dabee erakusla guztiak bardin esaten. Jai domeeketan ordu erdian biar eragotzija egitia, Eleisako neurgarrijen erakutslaak dinuenez, ez da iragoten pekatu txikarreti. Ordu betian biarra egitia, esaten dabee gei jenak, ez dala eldutten pekatu mortalera. Ordu beteko biarra gaiti beste batzuk esaten dabee, egiten bada jaijegunagaz aprobetxetia gaiti, irabatzija gaiti edo orduko biar eginagaz gauzia aurreratutia gaiti, izan leitekiala pekatu mortala. Endamas jaijan jaijangua edo sarritakua bada. Jai domeeketako biar eragotzija eldutten bada ordu bira, pekatu anditzat edo illgarritzat erakusten da errazoerik oneenian, gauza andira eldutten dalako.

Aitu bada, kristinaubak, zeubeen arimako ona gaiti. Domeeka ta jai osuetan biarra egiteko oitura galdua daukazunok pensau ze laster egiten dan pekatu mortala egun santubeetako biarragaz. Kodizijak eragiten dabena da. Puska bat egiten asi ezkerro, geijago gura dozu. Josten edo

beste biar eragotzijak egiten asten zarianian, ez dozu erlojuba beti eze gitxiagotan bere aldian eukiten. Ta sarritan gauza gitxiti asita andira iragoko zara, pekatu txikiti mortalera. Ta uste dozu, domeekako biar eragotzijagaz ezer aurreratuko dozula? Ez, kristinaubak. Jaungoikuaren lege santubaren kontra ez da ezer aurreratutzen, ez arimarako ta ez gorputzrako. Nundi ez dakizula, zelan ez dakizula, urtiaren generako jai domeeketako biar eginarena juango jatzu. Jaungoikuak gorroto deutsa domeekako biarrari. Eskritura Sagraduban irakurten dogu jatzo bat, guztiok ikaratu biar gaitubana jai domeeketako biar eragotzien kontra.

Judegubak topau ebeen zapatuban (eureen biarrerako egun eragotzijan) gizon bat, basuan egurrik batutzen. Eruan ebeen gizon tristia Moisen, Aaronen ta jentiaren aurrera. Ta esan eutseen guztiak zelan topau ebeen gizon a zapatuban biarrian. Moises, legegin santuba geratu zan, gizon agaz zer egin ez ekijala. Sartu eban karzelaan ta itandu eutsan Jaungoikuari zer egingo eban gizon agaz. Erantzun eutsan Jaungoikuak Moisi: *ill egizu*. Atera egizu jente arteti kanpora ta an guztiak arrika ill dagijeela. Atera ebeen jente arteti leku bakarrera. Ta an guztiak arrika ill ebeen Jaungoikuak agindu eban moduban, jai egunian biarra egin ebalako. Judeguben zapatuba gere domeekia da, kristin[a]jubak, biarrak ez egi[te]ko ta Jaungoikua ondreetan iragoteko. Ez deutsa Jaungoikuak gorroto gitxiago geure domeekako biarrari judeguben zapatukuari baino. Ez, bada, biarrak egin domeeka ta jai osuetan premina bagarik. Ta nos egongo da preminia? Ordu askotan egon leiteke preminia jai domeeketan biarra egiteko. Ikutsi daigun zelan.

## III.

Jai domeeketan preminiagaz biarra egitia ez da pekatu. Preminia dagoala esaten da, geure arimako grazija, geure bitzitzia, geure osasuna, edo galdutera doian aziendia gordeetako ta zaintuteko popuertza biar danian. Ez eban Jaungoikuak egia gizona zapatubarentzat, ezbada zapatuba gizonarentzat, dino Jesukristo geure Jaunak. Onegaz aituten emoten deutsku Jesus maitiak, berez biarra egitia eragotzita egon arren jai domeeketan, alako premina andija daguanian, ez dabela gura Jaungoikuak geure grazija, geure bitzitzia, geure osasuna, edo geure eukija galduzia, biarrak ez egitia gaiti. Alan domeeka ta jai osuetan biarra egia legi pekatu bagarik: 1. Noberaren bitzitzia, osasuna edo balijo andiko gauza bat, laboria, gana-duba, etxia edo aziendia galduetako arriskuban daguanian ta astegunerako



itxi ezin legijanian. 2. Proximuaren gauzaak, noberarenak legez, galduteko peligruban dagozanian, ari lagunduteko egin legi biarra jai domekeetan. 3. Obispo jaunak edo Eleisiaren burubak jai domekeetan biarra egiteko libertadia emoten dabenian. 4. Usadijo artuba, jakina ta ontzat emona daguanian.

Beste biar egitiak gitxiago edo geijago beti dira Jaungoikuaren lege santubaren kontra ta beti dira pekatu. Ez, bada, engainau, kristinaubak. Itxi erabatera biar eragotzitakuai jai domeeketan. Premina andija daukanzunian, eskatu libertadia kura jaunari. Zeubeen preminia ezaututa, Jaungoikuaren bendizinoiagaz itxi dagizun biarra egiten. Jai egun santubak ondo gordeetan ditubanari, sari andija eskintzen deutsa Jaungoikuak Eskritura Sagraduban leku askotan. Jai egun santubak austen ditubana nekez ondo izango da. Beti biarpian, beti arrastaka, beti prisaka, sarri ernegau ta beti biarretan atzera. Jai santubak ondo gordeetan ditubanari, eskura Jaungoikuak ekarten deutsaz biarrak. Gitxiago kansauta, geijago egiten dau. Ta au bada pekatu ez dirian biarrak gaiti, zer izango da pekatzuko biarrak gaiti?

Oh! Zeinbat kristinauk, jai domeeken goxik geijena eragotzitako biar modu askotan iragota, arrastei guztia ta gabaren zati bat diabrubia serbiduten iragoten dabee? Zeinbat joko ordena bagako, ibilera desonestu, ordikerija nasai ta okasinoe gaisto jai domeeketan? Oneek guztiok desondreetan dabee Jaungoikua ta mantxeetan ditubee egun santubak, dinue Eleisiaren Gurasuak. Oh, gurasuak eta umiak! Bildur izan zaitez Jaungoikuari konsagrauta dagozan egun santubak diabrubari konsagretan. Ez dagijala gura izan Jaungoiko andijak, bere egun santubak guk desondreetia ta bere gorrotuan bitzi izatia bere misericordia andija gaiti. Amen.

## II. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*zer dan meza santuba; zeintzuk dirian meziaren zati  
edo parte nausijk; nortzuk entzun biar dabeen ta  
zelan entzun biar dan.*

Jai domeeketako zeregina da, neure entzula onak, biarrik ez egitia ta domeekia edo jai osua Jaungoikuaren ondrarako ta geure arimako salba-zinoerako gauza onak egiten iragotia. Domeeka ta jaijeetan egin biar dirian obra oneen artian leleengua da, meza osua entzutia. Ta meza osua entzun biarra dago ez domeeketan ta jai osuetan bakarrik, ezbada baita jai erdijetan edo jai arina esaten jakuenetan bere. Eleisa Ama santiaren aginduba da meza santuba entzutia. Baina domeeka ta jaijeetako eginbiarra dan legez, pensau dot irugarren Jaungoikuaren aginduban erakutsi biar deutsudala, meza santuabaren gainian popuertza jakin biar dozuna. Imini egizu, bada, ardura ona ta entzun egizu doktrina onetan: 1. *Zer dan meza santuba.* 2. *Zeintzuk dirian meziaren zati nausijk.* 3. *Nortzuk entzun biar dabeen mezia.* 4. *Zelan entzun biar dan.*

### I.

Meza santuba ez da beste gauzarik, kristinaubak, ezbada sazerdotiak altara ganian berba santubeen bitaartez ogijaren ta ardauaren izatia Jesukristo geure Jaunaren gorputz ta odol bitzi izatera aldatuta, Jesukristoren beraren izenian eta berak itxi eutsun moduban, Aita Eternuari egiten jakon eskiniña edo oprezimentuba, kriatura guztiengainian daukan eskubidua ta ala izatia Aita Betikuari autoritateko. Meza santuban sazerdotiak Jesukristoren izenian Aita Jaungoikuari egiten deutsan eskintzia edo oprezimentuba ta Jesukristok berak Kalbarioko kurutzian geure pekatubak gaiti bere erijotza penazkuagaz Aita Betikuari egin eutsana, bardinak dira; edo, obeto esateko, bat dira. Sazerdotia Jesukristoren ordekua da meza santuban. Jesukristoren izenian esaten dau mezia. Jesukristoren berbaakin konsagreetan ditu ogja ta ardaua. Ta Jesukristoren izenian egiten deutsa Aita zerukuari meziaren



eskinija edo oprezimentuba. Orregaiti meza bakotxak balijo dau, Jesusen Kalbarioko erijotziak berak edu.

Iru gauza ez daukaz meza santubak, Jesusen Kalbarioko erijotza penazkuak eukazanak. Leleengua da: Jesukristo penaz ta alaz ill zan kurutzian. Bainaz dau padereziduten meza santuko oprezimentuban. Bada, biztu zan Jesus maitia illeen artetik, ostera ez illteko ta ez padereziduteko. Bigarrena: Jesusek egin eban kurutzian bere bitzitzat santiaren oprezimentuba, odola erijola. Bainaz mezatan ez dau odolik emoten. Orregaiti esaten jako meza santubari odol botate bagako *sakripizjua*. Irugarrenian: Jesukristo geure Jauna ill zan kurutzian, aurrian egonzanak begijekin ekutseela. Bainaz meza santuban ez dogu ikusten Jesus begijakin, pediagaz baino. Iru gauza oneek alderatu ezkero, esan dirian moduban, Jesukristo geure Jaunak Kalbarioko kurutzian geure pekatubak gaiti artu eban erijotzia ta beragaz Aita Betikuari egin eutsan eskinia amai bagakua bera barristeetan dau sazerdotiak altaraan, meza santuba esaten dabenian. Ez dau gitxiago balijo meza bakotxak, Jesusen erijotziak berak baino.

Altarako mirarizko ta amodijozko Jesusen oprezimentu oni esaten jako mezia. Meziak esan gura dau *bialdutia*. Bai, Aita zerukuak bere Seme maitia ogijaren ta ardauren irudijan mezatan altarara bialdutene deutskulako. Ta bai Jesukristo geure Jauna, geure Salbazale maitia meza santuban altarati geuk eskinia ta bialdutene deutsagulako Aita Jaungoikuari. Meza santuba da, Jaungoikuari egin ginaijozan eskinia edo oprezimentu guztietatik estimaubeena ta balijkuen. Jesus bere Seme bitzija, Aita zerukuaren pozta atsegin bakarra, bere bitzitzat erijotzako ontasun guztiak da, mezaan Aita Jaungoikuari egiten deutsagun eskinia. Meza bat geijago da zeruko aingerubak ta justu guztiak egin ditubeen ta egingo ditubeen egitade santu guztiak baino, Jaungoikuaren begijetan.

Au gaiti esaten da, meza santubak beragan kabitutene ditubala lege guztietan ta denpora guztietan Jaungoiko andijari egin jakozan oprezimentu edo eskinia santu guztiak. Aingerubeen amodijua, patriarkeen pedia, apostolubeen trabajubak, martirijeen penagarrijak edo tormentubak, ermitainuen penitenzijak, birjineen edertasuna ta arima justu guztien on izatia ezer bere ez da, meza baten balijorako. Meza santuba eskintzen jako Jaungoikuari illak ta bitzijak gaiti, justubak ta pekatarijaka gaiti. Meza santuba da, Jaungoikuagaz pekatarijaren arteko bakegina. Meza santuba da zeruko ondasunen ekarria, bai arimarako ta bai gorputzerako, edo munduban bitzi izateko. Meza santuba da, Jaungoikuaren asaria bigundutene dabena ta geuri mesediak egitera bere borondate santuba prestetean dabena. Meza santuba da, zeru guzta alegreetan dabena; purgatorioko

ko arimaak sokorriduten ditubana; geure arimaak garbitutene ditubana; tentazinoiak goituteko grazia emoten deutskuna ta geure pekatubeen zorrak pageetan ditubana. Pensau, bada, sarri, neure kristinaubak, zer dan meza santuba ta bere balijo andija. Baita ikasi puska bat edola bere, zeintzuk dirian meziaren parte edo zati nausijak, beraren debozinoia zeuben bijotzeetan obeto gordeetako.

## II.

Meziak zati asko daukaz, kristinaubak. Guztiak dagoz mirarizko ta amodijozko erakutsijagaz jantzita. Bainaz baina bestia dira gauza altubaguak adituren emoten deutskubeezanak. Komuninoeko sakramentuban esango dira astiruago meziaren zati guztiak, ta bakotxak zer esan gura dabeen. Bada, ez dago meza santuban ezer bere, aparteko erakutsija ta pensaukizuna ez daukanik. Ta guztiak ondo jakitiak txito asko balijo deutsa kristinaubari, biar dan probetxubagaz entzuteko.

Meziaren zati nausija edo, askok dinuanez, izate guztia dago konsagrazioian. Sacerdote jaunak ogija ta ardaua konsagretan ditubanian. Au meziaren izate guztia ez bida bere, popuertzakua da. Orregaiti da, atenzinoe guztiagaz entzun biar dana. Onezaz gainera, meziaren zati nausitzat konteetan dira: Leleengo: Sazerdotiak konsagrau baino leenago ostiagaz ta kaliziagaz Jaungoikuari egiten deutsan eskinia edo oprezimentuba. Ordubar eskintzen deutsa sazerdotiak Jaungoiko andijari ostrija mantxa bagakua ta kaliza osasunekua, zein dan Jesus geure Salbazale ona geure pekatuben parkazinoerako. Ta erreguteten deutsa, artu dagijala ontzat eskinia santuba. Bigarrenian: Konsagrauta gero, barriro sazerdotiak kalitza konsagraubagaz ta ostrija konsagraubagaz Aita zerukuari egiten deutsan eskinia. An gogoratutene ditu sazerdotiak Jesusen bitzitzako ta erijotzako merezimentubak. An dobletan ditu bere erregubak. Dei egiten deutsee aingeru santubai datoza sakripizjua Aita zerukuaren aurrera eruatera, ta entregetan deutsa ordubar, esateko moduban, Jesusen erijotza barrija Aita Eternuari, ge[u]re pekatuben parkazinoerako. Irugarren meziaren zati nausija da, sazerdotiak errezibidutia edo artutia ostrija konsagrada ta kalizako arda konsagrauba. Bijak biar dira: ogija ta ardaua, mezia izateko. Bata baino ez bida, ez da mezia. Ogijaren lekuban beste gauza bat bida, ez da mezia. Ogija ta ardaua konsagrau arren, sazerdotiak artutenez baditu bijak, ez da mezia. Meza santuko eskinia balijo tsuba izateko edo Jesusen erijotza odoldu bagakua altaraan barristetako, popuer-



tzakua da ogija ta ardaua konsagretia ta sazerdotiak errezibidutia edo artutia. Laugarrenian: meziaren zati guztiz santuba da, *santuseti* asita sazerdotiak ostrija konsagrauba ta kalizako ardao konsagrauba artu artekua. Denpora atan barristetan dira altara santuban egunian egunian Jesus, geure Librazaile maitiaren bitzitzako, erijotzako ta biztuerako mirari altubak. Orduban barristetan dira mezatan, Jaungoikuaren semia gizon egitia, geure artian bitzi izatia, apostolubakin eguben santu gabian egin eban aparija, ogija ta ardaua bere berba santubakin berak konsagrauta geuri emotia, geure janaritzat altaretan bera geratutia, geu gaiti pasinoian irago zituban pena neurri bagakuak, bere erijotzia, bere enterru santuba, illen arteti egin eban mirarizko bitzueria ta beste Jesus, Jaungoiko ta gizon egi-jazkuaren egitade santubak. Au guztiau barristetan da meza bakotxian, kristinaubak.

Oh, zeinbat gauza andi dagozan meza bakotxian! Oh ze gauza ona, kristinaubak misterijo santu oneen ezauberia ta aitute argija eukitia! Oh ze onera andikua geure arimeentzat, kristandade guziarentzat ta purgatorijoko arima pieleentzat, meza santuban Jesuseن egitade santubak humilda-diagaz ta bijotz samurragaz adoreetia ta maitetutia! Ez daukagu kristindade guztian egitade bat altarako meza santuba baino altubago, balijotsubago, argijago ta maitegarrijago danik, ezda asko prestago daukagunik bere. Oh, ze itsubak ta errukarrijak dirian kristinaubak, derrigorrian, nekezka ta nora ezian legez, meza santuba entzutera duazanak! Mezarik laburrenaren billa dabiltsanak! Oh, ze gusto gitxi daukeen biotzeten ta arimeetan! Argitu dagizala, bada, Jaungoikuak geure adilaak, geure onerako dan moduban, meza santuba entzuteko.

### III.

Baina nortzuk dira meza santuba entzun biar dabeenak? Meza santuba ta osua domeeka guztietan, jai osuetan ta jai arinetan edo jai erdijetan ta errijak botoz edo osterantzian meza entzun biarrekotzat artuta daukazan egun guztietan esan edo entzun biar dabee, errazoiaren usura eldu dirian kristinu guztiak, pekatu mortalaren beian, gero esango dan moduban. Au da Eleisa Ama santiaren aginduba ta obeidu biar deutsagu. Errazoiaren usura nos eldutzen dirian umiak, ez dau inok bere erabagiten zuzen. Bateti gauza gatxa dalako ezaututia, umiak nos artu dabeen leleengoa ezauberia gauza onerako edo malezija gauza txaarrerako. Besteti guztientzako denpora bardina ez dagualako. Batzuk dira eureenez adilla argi-

jagokuak ta zolijagokuak umetati. Oneek goxaago kontuban jausten dira ta balijeetan dira errazoiagaz gauza onerako, edo gatxerako. Beste batzuk dira adilla lodijagokuak ta lainotsubaguak umetan, ta nekezago kontuban jausten dira gizonen errazoiari jagokazan gauzeetan. Orregaiti ezin imini legi edade ziertu bat, umiak nos errazoiaren usura sartutzen dirian esateko. Zer egin biar dabee, bada, gurasuak gauza onetan? Erakutsi umiai dotrini txikitati. Erakutsi meza santuba zer dan ta zelan entzun biar dan. Ta guztiz zoruak edo tontuak ez badira, bialdu meza santuba entzutera, zazpi urte ditubenetzi aurrera. Ez badakijee ondo, juanagaz, ikutsijagaz ta esanaz ikasiko dabee. Au da gurasuen eginbiarra. Bada, errazoiaren usura eldu ezkerro, entzun biar dabee umiak meza osua jai domeeketan. Ez daki inok zuzen nos sartutzen dirian errazoiaren usuban. Baina zazpi urte ditubeeneko, geijenian ta geijenak erakusten dabee ezauberia, bai gauza on batzubetarako, bai etxeko onerako ta bai eureen paltaak ezkutetako bere. Begaz, nai dabenerako balijetan dira errazoiagaz ta sartu dira errazoiaren usuban. Bada, erakutsi biar jakue meza entzuten ta bialdu biar dira.

Oh gurasuak, gurasuak! Zortzi, bederatziz urteko umiak meza entzun bagarik etxian daukazuzanak! Ez dakit ze kontu emongo deutsazun Jaungoikuari zeuben umiakin. Zeubek esaten dozu zeuben umiak gaiti, sei zazpi urte ditubeneko esanak egiteko, etxeko gauzai begiratuteko ta kontu artuteko akordu onekuak diriala, ta nausi batek leetxe egiten dabeela. Ta dotrini erakusteko ta meza santura bialduteko izango dira umiak, sen bagakuak ta ezer ez dakijenak, zeubek esan oi dozun legez? Ah, gurasuak, gurasuak! Pekatu mortala da, mezia entzun biar dabeen umiak entzun bagarik eukitia. Ta zeinbat bidar eukiten dituzun, ainbeste pekatu egiten dituzu.

Errazoiaren usura eldutako kristinu guztiak esan edo entzun biar dabee jai domeeketan meza osua pekatu mortalaren beian. Meziaren zati txiki baten asieran edo amaijan palteetia ez da pekatu mortaltzat beinguan erakusten. Bere guraz mezia uts egiteko peligruban jarten danak egiten dau pekatu, gero mezia entzun arren. Bada, bere naiz itxi eutsan meziari, peligruban jarri zanian. Ta ausi eban legia. Mezarik erdija baino entzun ezin dabenak, entzun biar dau al dagijana edo jaditxi daben erdija. Guztia pagau ezin dabenak, al dagijana pagau biar dau.

Ta beti izango da pekatu meza bagarik jai domeeketan geratutia? Ez, kristinaubak. Aita biguna da geure Jaungoikuaren Ama biguna da geure Eleisa Ama santiaria. Arimako, bitzitzako, osasuneko, kleituko edo azienda-ko noberaren edo inoren kalte andi bat bagarik mezia entzun ezin danian, ez da pekatu mezia entzun bagarik geratutia. Alan ez daukee meza entzun



biarrik: Leleengo: oian gaisorik dagozanak edo oian egon ez arren, gaiso erdi edo makal dabiltsanak; ta osasunaren kalte andi bagarik eleisara juan ezin dirianak. Bigarrenian: Karzeletan preso dagozanak. Irugarrenian: Besterik ezda, oeko gaisuai jaamon biar deutseenak, ardura andiko gaisua bakarrik ez istia gaiti, besterik nok kuidado egin ez daguanian. Laugarrenian: Noberaren edo inoren balijo andiko gauza bat, arimakua edo gorputzekua erremedijau biar dabenian. Ta gatx a erremedijauta mezia entzun ezin dabenian, jaijeguneko biarra gaiti esan dan legez. Etxe batek su artutia, proximo bat pekatutti ateratia, aixe edo su deunga batetit laboriak libreetia ta beste onako balijo andiko gauza bat erremedijau ezin bada meziari itxi bagarik, atarako meziari istia ez da pekatu. Osterantzian entzun biar da meza santuba ta osua pekatu mortalaren beian. Esan dirian gauzaak gaiti meza entzun bagarik geratuten danak, dino san Antoninok, al badai etxian edo daguan lekuban egin biar dabela orazinoia edo beste egitade on bat, Jaungoikua ondretako. Ikasi ezkerro kristinaubak norzuk entzun biar dabeen meza santuba, jakin biar dau zelan entzun biar dan. Ta aitu egizu berba gitxitan.

#### IV.

Ez da pensau biar, kristinaubak, mezia entzuteko asko dala eleisaan egotia, mezia esaten dan artian. Eleisaan egon biar da, edo mezia entzuten daguan jentiaz bat eginda egon biar da. Bainaz mezia entzuten egon biar da atenzinoiagaz ta debozinoiagaz. Zer da atenzinoia? Mezatan biar dan atenzinoia da, entendimentubagaz mezako gauza santubak, Jesusen pasinoeko ta erijotzako, ta altarako misterijo santubak penseetia edo Jaungoikuaren ondrako ta geure arimiaren onerako gauzeetan gogua eukitia. Zer da debozinoia? Borondateko nai prestagaz ta bijotzko ta arimako gurari gogotsubagaz Jaungoikua adoretia, alabetia ta ametia; ta geure arimiaren onerako mesediak Jesusen merezimentubak gaiti errregututia. Au da atenzinoia ta debozinoia, mezatan biar dana. Au da geure adiliaren ta nailiaren mezatako zereginia. Ez dago, kristinaubak, debozinoe erabagirik meza santuba entzuteko. Ge[u]re nailia edo borondatia Jaungoikuagana ta arimaren onerako gauzetara jasoten dabena izan ezkerro, edozein debozinoe edo pensakizun da ona, meza santuba entzuteko. Jesusen jaijotzia, bitzitzia, erijotzia; altarako sakramentu santuban Jesus geratutia; geure erijotzia, juizijua, zeruba, inpernuba, pekatubaren ezaintasuna edo beste onako gauzaak penseetia; erosario santuba, Jesusen

koroia edo Ama Birjinaren koroia astiro ta ondo pensaubaz errebetia; edo beste debozinoezko gauzaak errebetia; edozein da asko, borondatia ta gogua Jaungoikuagana jasota euki ezkerro. Bainaz esan dan atenzinoia ta debozinoia popuertzakua da, meza santuba entzuteko.

Emeti ezautuko dozu, neure entzula onak, mezia esaten dan artian eleisaan egon arren, ez dabeela mezakirik entzuten: 1. Albokuekin berbeetan ta endreduan mezako denporaan dagozanak. 2. Eleisako jentiaz, nor nun daguan ta zelan daguan ikusten, gogua ta pensamentuba zabalduta mezatan daukeenak. 3. Auagaz errebetan egon arren, ezauberaz ta naiz beste biar ez dirian gauzeetan gomutia ta borondatia daukeenak. 4. Meziaren zati nausijan, edo zati txiki askotan meza bakotxian alan dagozanak ez dabee mezakirik entzuten, atenzinoiaren ta debozinoiaren paltaz. Ah, zeinbat meza priisaka ta debozinoe bagako agertuko dirian Jaungoikuaren aurrian! Endamas gazte tegijak! Euren pensamentuba, borondatia ta gogua arratsaldeko ibilte galduabetan ta nasaijetan daukeela, entzun gura leukee askok meza santuba. Argitu daiguzan begijak. Jausi gaitezan kontuban. Gorde daiguzan agindubak. Endamas meza santuba ondo entzuteko daukaguna, jaditxi daigun arimako grazija ta zeruko glorrija. Amen.



### III. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*domeeka ta jai osuetan zer egin biar dan.*

Entzun dozu, kristinaubak, leengo irakatsijetan, batetik Jaungoikuak agindutenean deutskula domeeketan biarrik ez egiteko; ta bestetik Eleisa Ama santiak agindutenean deutskula, egun areetan meza osua, geure gogua ta bijotza Jaungoikuaren gauzetara jasota, entzuteko. Meza santuba entzutia ordu erdi bateko zeregin da. Emeti dator, bada, pensakizuna, ta ez gitxi balio deutskuna, ge[u]re astian astiango edo sarriagotako eginbiar altu ta nausi bati kobru emoteko. Ta ze pensakizun dala au uste dozu, neure entzula onak? Ez besterik, ezbada jakitia kristinaubak, ia domeeka egunian ta jai osuetan asko dan biarrik ez egitia ta meza osua entzutia, Jaungoikuaren irugarren aginduba gordeetako. Edo, ia esan dirian egunetan libre dagozan kristinaubak mezia entzun ezkerro, pekaturik edo biarrik egin bagarik, osterantzian nai dabeena egiteko.

Jaungoikuaren lege santuba gordeetari edo austiari jagokan geija da, irakatsi onetan esaten dana. Bera gaiti eskatuten dau zeubeen adiera osua. Mundutarrauk ta ez gitxik kristinauben artian uste dabee, jai domeeketan meza bat esaten dan artian eleisan egon ezkerro, beste egun santu areeta-ko denporia ibilteko ta olgetako dala. Esaminau daigun bada, kristinaubak, gauza au puska bat, irugarren agindu santuko eginbiarrari kobru emoteko. Onetarako erakutsiko deutsut dotrina onetan: 1. Zer dirian domeekak. 2. Zetarako Jaungoikuak itxi eutsukan. Oneen ondorik txito errazto ezautuko dogu zer egin biar dogun jai domeeketan. Prestau zaitez adierarik gogotsubenagaz ondo entzuteko ta beti goguan eukiteko.

#### I.

Berekautan ta popuertza legez ezaututen dogu, kristinaubak, geure arimako, gorputzeko ta munduban bitzi izateko biar ditugun gauza guztia emoten deutskuzala Jaungoikuak duarik. Begaz, Jaungoikuari esker onak ta grazijak emon biar deutsaguz egiten deutskuzan ta egin biar deutskuzan mesede andijk gaiti. Jaungoikuari gizonak emon legijozen esker onak ta grazijak dira: Jaungoikua bera alabetia, adoreetia, ezautzia

ta bijotz guztiagaz maite ta laztan izatia. Jaungoikuak ta Jesus bere Seme bakar gizonubak geu gaiti egin ditubeen ekitade santubak, amodijotzkuak ta betikuak, humildade andi bategaz gogoratutia, lotsa onagaz pensemendia ta nai bigunagaz maitetutia; Jaungoikuaren ta Jesusen ondrarako ta ondo esanerako balio dabeen gauzaak alegin guztiagaz geuk egitia, zeinetan sartuten dirian misericordijaren, karidadiaren, zelo santubaren ta penitenzijaren egitadiak. Au ta oni darraikona da, gizonak Jaungoikuari emon legijozen esker onak edo grazijak ta ondo esatia. Ta au bada Jaungoikuari grazijak ta eskerrak emotia, popuertza biar dau gizonak oneitarako denporia.

Adan, Abel, Noe, Abraan ta beste naturaleziaren legeko patriarka santubak ez dakigu zuzen, denpora seinalaurik eukeenik Jaungoikuari grazijak emoteko; ezbada eureen Jaungoikuaganako gogo onak ta zeruko ondasunen ta betiko egijien naijak ta amodijuak eskatuten eutseen denporan ondreetan ebeela Jaun zerukua ta egiten eutseezala eskarijak, beste munduko zereginai itxita. Baina Jaungoiko andijk, Sinaiko mendijan oinaztu ta trumoe artian Moisi judegubentzat legia emon eutsanian, agindu eban berba agirrijakin zapatubak gordeetako edo zapatu egunak santu egiteko. Lege atan bertan agindu eutsan Jaungoikuak Moisi, ta aren bitartez judegubai, zerubak mesede andijk egin eutseezan egunak egun santutzzat artuteko betiko, eurentzat ta eureen ondorengentzat. Ta ara emen zapatubez ostian urte barruko judeguben jaijen asieria, Jaungoikuak berak aginduta. Zapatubak ta urte barruko jaijak gorde zitubeen judegubak, eskritura sagraduban irakurten dan arduriagaz ta lotsiagaz, Jesukristo geure Jaunak bere erijotza santiagaz judeguben lege zarra birrinduta, ebanjelijo santuko lege biguna ta grazijazkua munduban azaldau edo publikau artian.

Apostolu santubak, Espiritu Santubak erakutsita, Jesus ill ebeen judegubakin ezetan bere bat ez egitiaren aldatu ebeen zapatuko egin biar edo obligazioe guztia domeekara. Ta onezaz gainera esaten da, apostolu santubak gorde zitubeela jaitzat ta agindu ebeela gordeetako, Jaungoikuak gizonari mesederik andijeenak egin deutsazan egunak. Apostolu gloriosuen ondorik Eleisa Ama santiak zeruko espiritubak era-kutsita agindu dau, Jaungoikuari, Jesukristo geure jaunari, Ama Birjina Jaungoikuaren Ama garbijari, apostolu santubai ta beste zeruko Jaungoikuaren adiskide askori esker onak, grazijak ta ondo esatiak emoteko, euren egunak jai gordeetako. Batzuk jai oso ta beste batzuk jai erdi. Jai osuak, domeekak legez ta jai erdijk, mezia entzuteko domeekak legez ta biarra egiteko, astegunak legez. Au da, neure kristinaubak, urtian



urtiango domeeketako ta jaijetako asieria ta egimbiarra. Urte barruko jaijak Eleisa Ama santiak gitxitu edo geitu legiz. Bainak domeekak ez ditu ez gitxitu, ez geitu. Astian egun bat Jaungoikuak ondretako, grazijk ta eskerrik emoteko ta egitade onekin santututeko itxi eutsun Jaungoikuak, ta askok dinuanez, mundubaren beraren asierati.

San Agustin gloriosuak ta Eleisiaren batzaar nausijk esaten dabee, neure kristinaubak, apostolu santubak ze gaiti aldatu ebeen zapatuko eginbiar guztia domeekara. Dira pensakizun txito onak ta domeeka egunak santututenean kristinaubari asko lagundu legijuenak. Errazoe asko dakkareez onetarako. Ta guziak dira domeeka eguna txito ondo gogoratuta, geure bijotza zerurutz jasoten dabeenak: 1. Domeeka eguna dalako egun guztietati leleengua. 2. Munduko gauza guztiai asieria Jaungoikuak domekan emon eutseelako. 3. Aingerubak domeekan kriadu zitubalako. 4. Mana esaten jakon janari gozua, altarako sakramentu santubaren irudi aintxinakua, judegubai Jaungoikuak domeekan zeruti bialdu eutseelako. 5. Jesus maitia domeekan jaijo zalako. 6. Iru Errege Maguak Jesus adoreetara, Belengo portalera etorteko, domeekan izarra agertu jakuelako. 7. San Juan Bautistak Jesus domeekan batiatu ebalako. 8. Jesusek bost ogigaz ta arrain bigaz bost milla gizon mendi soilian domeekan jandu edo mantendu zitubalako. 9. Jesus maitegarrija domeekan illeen arteti biztu zalako. 10. Espiritu Santu pozlarija domeekan apostolu santubai zeruti jatsi jakuelako. Oh ze kanpo andija dan au, neure kristinaubak, domeeka santubetan penseetako, ta Jaungoiko altubari ta altubari grazijk emoteko! Bainak aitu ezkero zer dirian domeekak ta jaijak, ikutsi daigun ia zetarako dirian.

## II.

Jaungoikuak ez dau alperrik ezer bere aginduten. Bere jakiturija amai bagakuak gauza guztiak zuzenduten ditu zerbaiterako. Bada, Jaungoikuak eragotzi ezkero ain lege estubagaz, ikutsi dozun moduban, jai domeeketan biarra egitia, autortu biar dogu zerbaiterako eragotzi eutskula. Izango ete da Jaungoikuak guri biarra eragoztia jai domeketan, esan dan moduban, egun areetan gu alperrerrijan egoteko? Ezin izan leiteke. Alperrerijari gorroto deutsa Jaungoikuak.

Ez astian egun bat, eze geure bitzitzeta guztian ordu bete bere ez deutsku Jaungoikuak emoten alperrerrijan egoteko. Alperrerijak, dino Espiritu Santubak, malezija asko erakusten dabela. Malezija asko erakuts-

ten dabentziztua ezin Jaungoiko zuzenak agindu eutskegun, jai domeeketan egiteko. Eragotzi ete deutsku, bada, biarra egitia, jai domeekak libre euki daiguzan goxerik arrats jokorako, tabernarako, danza eragotzietarako, mundutarren bisiteetan, peligruzko pasiuetan ta ordena bagako jan edanetan iragoteko? Kristinaubak, ta ez gitxik, egiten dabeenari begiratu ezkero esan legi, onetarako Jaungoikuak eragotzi eutskula domeeka ta jai osuetan biarra egitia. Bainak ebanjelio santubari ta Eleisa Ama santiaren erakutsijari begiratu ezkero, blasfemia deritxon pekatu kastia da au esatia.

Eleisa Ama santiaren katezismuak, batzaarrak ta gurasuak ao bategaz dirianak esaten dabee, domeeka ta jai osuak ez diriala, ez alperrerijako, ez ordikerijarako, ez jaate laarregijetarako, ez probeetarako, ez desapjuetarako, ez komedijetarako, ez saraubetarako, ez bigiretarako, ez olgeeta naastaubetarako, ez munduko banidate ta nasaitasunetan iragoteko. Ez, kristinaubak, ez. Ez dago onako legerik. Egitade madarikatuzat konteetan ditu Elcisa Ama santiaren espiritubak alako oitura oneen galduarrak ta aragijaren nasaitasunak, ta endamas domeeka ta jai santubetan. Askok egiten dau, bada. Bainak ez da Jaungoiko santuba gitxiago desondretan askok egin arren, geijago baino.

Zetarako eragotzi deutsku, bada, Jaungoikuak, egun santu areetan biarra egitia? Kristinaubak, Jaungoikuak berak esan deutsku zetarako. Ta ukatu ezin ginai. Jaungoikuak berak esan deutsku, santu egin ebala edo santipikau ebala zapatuba. Bedeinkatu ebala ta santu egin ebala zapatuba, dino osteria bere Jaungoikuak. Berak santu egin eban eguna, geuk bere santu egin daigula edo santipikau daigula, dino Jaungoikuak. Akordau zaite, dino, *memento* edo goguan euki egizu zapatuba santututia; *ut diem sabba ti sanctifices*. Jaungoikuak santipikau ta bedeinkatu eban zapatuba (orain domeekia) bere eguntzat; ta agindu eutsun geuri bere domeeka egun santuba ta bedeinkatuba geuk bere santu egiteko ta bedeinkatuteko. Esango baleu legez Jaungoikuak: Sei egun emoten deutsudaz astian, pekatutik egin bagarik, zeubeen biarrak egiteko, zeubeen solo, baso, tratu, artu emoneko ta bitzitzarako zereginai kobru emoteko. Bainak zazpigarren eguna, domeekia, neuria da. Egun bedeinkatuba da. Egun santuba da. Neure izate altubai konsagraturako eguna da. Beste biarrai itxita, neure izen santuba alabeetan, adoretan, ondreetan ta ameetan irago biar dozun eguna da. Ez domeeka bakotxeko ordu erdi bat edo ordu bete bat, ezbada astian egun bat, domeeka guztia santu egiteko aginduten deutsut. *Memento, ut diem sabbati sanctifices*.

Beste gauza bategaz aituko dozu au obeto, kristinaubak. Urrezko plater bat, koilara bat edo baso bat edozeinek eskuban erabili legi ta jau-



biak agaz edozein gauza egin legi. Bainha jaubiak egiten badauurrezko plater agaz kaliza bat ta konsagreetan bida kaliza a mezia esateko altararako, Jaungoikuaren serbizijorako, ya kaliza konsagrada eta artian, a edozeinek eskubetan erabili ezin legi ta jaubiak bere beragaz nai dabena ezin legi, mezatarako konsagrauta daguan kaliza santuba ta bedeinkatuba dala-ko. Domeeka ta jai osuak dira Jaungoikuari konsagrautako egun santubak ta bedeinkatubak.

Beste aste barruko egun baten edo geijagotan gizonak egin legi pekatubaz ostian deritxona, egon edo ibili, errezau edo lo egin, urre jaubiak urriagaz egin legijan legez. Bainha domeeka ta jai osuetan, pekatuk egin ez arren, nai dabena ezin legi kristinaubak, kaliza jaubiak kaliza konsegraubagaz ezin legijan legez. Bada, kaliza konsagrauba altararako ta meza santurako eta legez, domeeka ta jai osuak Jaungoikuaren serbiduteko dira. Ez dago onetan dudarik.

Zer egin daike, bada, kristinaubak egun santu oneek ondo gordeeta-ko? Domeka ta jai osuetan egin daizeuzan gauzak asko dira, neure enzu-la onak. Guztiak ezingo dituzu bakotxak. Bainha edozeinek daizeuzu aree-tati bat edo beste bat. Bai egun batian bat eta bestian beste bat bere, zeu-been jakituriak ta estadubak eskatu ta aginduten deutsun moduban. Zeregin santu oneen artian konteetan dira: 1. Meza osua bijotz onagaz ta adiera gogotsubagaz entzutia. Inundi al badedi meza nausija ta bakotxak bere parrokian. Au txito gauza ona da, jai santuba gordeeta. Kristinaubak bere parrokian daukaz leenagoko gurasuen azurrak. Bere parrokian dauka kristinau egin zaneko arimiaren garbi lekuba. Bere parrokian errezibiduten ditu sakramentu santubak. Bere parrokian dau-kaz arimiaren jaolaak, kura jaunak. Bere parrokian egiten da orazinoia erriko illak ta bitzjak gaiti. Ta bere parrokian erakusten da Jaungoikuaren berbia, Trentoko konziliuak aginduten daben legez, jaijetan ta meza nau-sitan. Errazoe oneek ta beste asko gaiti esaten jako kristinaubari, jai domeeketako eginbiarraren zati andi bati kobru emoten deutsala bere parrokian meza nausija ta Jaungoikuaren berbia entzunagaz. 2. Jai domeeketako zeregin santuba da, Jaungoikuaren berbia entzutia; goixeti edo arratsaldian predikeetan danian ta predikeetan eta lekuben. Jaungoikuaren berbia edo sermoia da arimiaren janaria. 3. Sakramentu santubak prestaera onagaz artutia; konpesetia ta komulgetia. Oh ze ondra andia Jaungoikuari ta onera andia bere arimiari, edola bere illian bein ondo prestauta, konpesetia ta komulgetia! 4. Jai domeeketan besperetara juatia, eleisan errosoario santuba errebetia ta altarak eta eleisia bisitetia. Zer egin santuba ta indulzenzia edo parkazinoe askogaz apainduba da au. 5.

Edozeinentzat, ta endamas euren etxeetati urten ezin dabentzat, edo meza nausitara, besperetara edo sermoetara juan ezin dirianentzat, egiki-zun santuba ta ona da jai domeeketarako: Jaungoikuaren dotrinia ikastia edo erakustia; gaixuak bisiteetia; tristia konsoletia; al dagijan limosna egi-tia; orazinoe egitia; edo erlijinoeko egijja altubak, erijotzia, juizjua, imper-nuba ta zeruko gloria astiro ta gogoz penseetia; Jesukristo geure Jaunaren bitzitzako, peneetako, erijotzako ta biztu erako pausubak bijotz bigunagaz gogoratuta, Jesus maitia ta Jaungoiko andija adoreetia ta maitetutia; pede santuba gaiti ta purgatorioko arima pielak gaiti Jaungoikuari erregututia; enpin, aste barruban bere zer eginetan egin dituban palteen parkazinoia ta aurrera ez egiteko biar daben grazija Jaungoikuari eskatutia.

Ara emen, kristinaubak, domeeka ta jai osuetako zereginak ta egin-biarak. Bata ez bada bestia, edozeinek egin legizanak. Zaarrak bere egin legijeez, gaztiak bere bai. Aberatsak bere bai, pobriak bere bai. Etxian daguanak bere bai, bidian dabilenak bere bai, oian daguan gaixuak bere bai. Bata ez bada bestia, gitxiago edo geijago, errazoiaren usuba badauka, edozeinek. Au da, neure entzula onak, domeeka ta jai osuak santu egitia edo santipiketia. Onetariko Jaungoikuaren ondrarako ta geure arimen onerako egite santubeetan domeekak ta jai osuak iragotia da, jaijak ta domeekak gordetia. Au da irugarren aginduban Jaungoikuak eskatutene deutskuna. Pekaturik ez egitia egin guztietako Jaungoikuaren aginduba da. Ta domeeka edo jai santubetan pekatu egitia, beste egunetan egitia baino pekatu andijagua da. Meza santuba jai domeeketan entzutia Eleisa Ama santiaren aginduba da. Jesukristo, geure Jaunak zerubetara igo ezkerokua da. Bainha domeeka egunak santu egitia, Jaungoikuaren beraren aginduba da. Mundubaren asierati datorrena da. Egun santu oneek obeto, poz geijagogaz ta arimako onera geijagogaz gorde ginaizan, Eleisa ama santiak agindu eutskun meza santuba entzuteko. Bainha mezia entzun bia-rrik ez bageunka bere, gorde biarko genduke astiango eguna santu egina-gaz, pekatubaren beian. Ez ordu erdian, ezbada egin guztian. Egun guz-tia santu egiteko aginduten deutsku Jaungoikuak.

Dakutszu, bada, kristinaubak, zer dirian domeeka ta jaijak. Baita Jaungoikuak ta Eleisa Ama santiak zetarako itxi deutskuzan bere. Ta esango dozu, ordu erdian meza bat entzunagaz ta biarrik egin ezzagaz gordeeta ditubala kristinaubak domeeka ta jai osuak? Ordu erdi bateko egitate santubagaz pageetan dabela egin guztiko zorra? Ordu erdian edo ordu betian baino biarra egin ez deutsunari emoten deutsazu egin guz-tiko alobera? Bada, Jaungoikuak eskatutene deutsku domeeka ta jaijegun osuetan, goixerik arratserako biar onak egitia; *memento, ut diem sabbati santi-*



*fices.* Egun guztia da, geuk santu egin biar doguna. Ta deritxazu ordu erdi baten meza bat prisaka entzunagaz egingo dogula Jaungoikuagazkua? Pensau egizu zeubek, neure entzula onak, errazoe onen indarra. Ta bali-jau zaite beragaz, zeuben jai domeeketako eginbiarrak zuzenduteko. Baita gogoratu egizu ze urrin dagozan jai domeekak gordeetati, domeeka ta jai osuak tabernetan, jokuetan, desapijo ta probeetan, olgantza desonestubetan ta pekatuko lan gaistuetan iragoten ditubeenak. Meza bat ozta ta bera prisaka ta gaiski entzunda, beste domeeketako ta jai osuetako denpora santuba mundubari, aragijari ta diabrubari konsagretan deutseenak ze urrin dagozan, dinot, jai santubak gordeetati. Oh zeinbat kristinau nasai onetarikuak, lastima gorrijan! Oh gurasuak ta umiak, jai santuben deson-dragarrijak! Edegia egizuz zeuben begijak.

Baina zeuk geure Jaungoiko maitia, zeuk imini biar dozu geure bijotzetan egija santu oneen amodijua. Zeuk erbestetu biar dozu geure gogoti munduko banidade nasajetarako naija ta zabaldu aren lekuban zeruko ondasunen gosia ta zeure grazija, zeinegaz jaditxiko dogun zeruko betiko gloria. Amen.

## LAUGARREN AGINDUBA



## I. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*gurasuak umiai zor deutsen azieria.*

Jaungoikuak laugarren aginduban esaten deutsku, neure entzula onak: *Ondrauko dituzu zeure aita ta ama, lužaro bitzi zaitezan zeure Jaun eta Jaungoikuak emongo deutsun luurrian.* Leleengo iru agindubetan Jaungoikuak eskatutenean deutsku, bere anditasunari jagokan lotsia ta ondria; ta beste zazpi agindubetan proximua jagokan probetxuba edo oneria. Jaungoiko onak ta guztien arduria daukanak, bere ondriaren ondoriak bertati begiratutenean deutsa, geuk bata bestiaren artian euki biar dogun ontasunari, zuzentasunari ta maitetasunari. Ta au zintzoro gorde daigun emon deutskuz lotute edo lege oneko agindubak. Bada, san Juanek dinuan legez, geure artian bitzi dirian ta geure begijen aurrian daukaguzan anaiak edo lagunak ameetan ez baditugu, zelan amauko dogu ikusten ez dogun Jaungoikua? Geure artian dagozanen edo proximo guztien artian leleengo dira, Jaungoikuaz ostian, geuri izatia emon deutskubenak, geure gurasuak. Au gaiti laugarren lekuan Jaungoikuak aginduten deutsku, *gurasuak ondreetako.*

Gurasuen edo aitaren ta amaren izenagaz sartutenean dira agindu onetan, dino Erromako Katezismoak, ez bakarrik geu sortu gindubetan aita ta ama, ezbada baita geuri animako edo munduko gauzeetan aginduteko eskubidua daukeenak bere. Obispo jaunak, kura jaunak ta sazerdote jaunak, esaten da, diriala geure gurasuak; ta ez azkenengo Aita Santu Erromakua, Jesukristoren ordekua luurrian. Bada, san Paulok esaten dabenean legez, ebanjelio santuban ta Jaungoikuaren sinistutian eurak sortu gaitubee. Oneen ondoriak gurasotzat daukaguz geure errege jaunak ta areen ordian dagozan erraketako agintariak. Alan esaten eutseen *aita* bere krijadubak Naamani. Azkenian, gurasuak esaten jakue edadian, zereginian edo opizjuan ta jakiturian nausijago dirianai, zeintzuk dirian zaarraguak, geure erakuslak edo maisubak ta kuradoriak edo geure arduria artu dabeenak. Onei guztoi zor deutseegu, bakotxari bere lekuan ta moduban, ondria ta lotsia. Ta guztiak sartutenean dira edo enzerretan dira laugarren aginduban. Bainan guztien artian leleengo lekua dauka, seme alabaak euren gurasuai zor deutsen lotsa onak. Ta alkarri darraikozan legez, gurasuak seme alabai zor deutsen aziera ona; ta seme alabaak gurasuai zor

deutsen lotsa ona. Esango deutsut irakatsi onetan, *gurasuak ze aziera emon biar deutseen umiai.* Ta onen ondoriak, beste agindu oni darraikona. Egon zaite entzute onagaz.

Umeen aziera ona da, neure kristinaubak, ez bakarrik kristandadian, ezbada baita mundu guztian ta jentilen artian bere, ardurarik andijena darioana ta zer eginik gejen emoten dabena. Menturaz ez da legegin bat ezaututenean, gazteeria ondo azteko agindu ez dabeniak. Eskritura sagradubak zeinbat lekutan ta ze ardura estubagaz aginduten dabene esatia, laurregi lutzetutia izango litzateke, guztijak dakien gauza baten gainian. Agintari guztien eginbiarra da, gazteeria ondo aztia. Bainan leleengua ta andijena gurasuena. Alperrik kansauko dira kura jaunak, alkate jaunak, erakuslak ta konpesoriak, umiak Jaungoikuaren bildur santuban ta lotsa onian azten, gurasuak ardura onagaz lagundutenean ez badeutsee. Gurasuen kontura itxi dau Jaungoikuak seme alabeen aziera kristinauzkua. Zer egin andija da. Buru auste andikua da. Bainan gurasuak egin biar dozuna da, Jaungoikuaren zamai bildurgarrijetati librauko bazara. Era batera batuta iminiko deutsudaz zeuben umen aziera onerako eginbiar nausijak, erreztuago goguan euki dagizuzan:

1. Pekatu egiten dabee gurasuak seinik ez izateko gauza txaarra egiten dabeenian, seinak azteko nekia gaiti.

2. Pekatu egiten dabee amaren sabelian daguan seina ilteko peligruban iminten dabeenian euren erruz, dan moduban dala. Bada, zein jaijoteko dagunari bitzitzia kendu ta zein jaijota daguana ill, bardin da, dino Tertulianok.

3. Deungaro egiten dabee gurasuak, eurak libre egotia gaiti, euren errajetako prutuba amaren bularrian axtiak daukan nekia gaiti edo usadijo gaisto bat jarraitutia gaiti, beste premina bagarik, inori azteko seina emoten deutseenian. Naturalezia bera lotsatutenean pekatuba da au. Jaungoikuak amari prestau deutsa, seina bere bularrian azteko biar dabeena. Ta amak, neke puska bat ez artutia gaiti, sosiguzago bitzi izatia gaiti, bere gorputza munduko gustuetarako libre eukitia gaiti, beste premina bagarik, inori seina azteko emotia da, naturaleziak ta Eleisa Ama santiaren espirituak ikutsi ezin daben pekatuba. Seinora andijk zirian Sara Abraanen emaztia, Ana Samuelsen ama, Rebeka Jakoren ama ta beste seinora ta erregina asko, Eskritura Sagradubak ta Eleisako jazuak esaten deutskuben legez. Bainan euren bularretan ahi zitubet euren sableko prutubak. Ama Birjina guztiz santiak bere bular gozuetan ahi eban Jesus bere seme bakar maitia.



Inoren bularrian azten dan umiari, nai otzagua erakusten deutsa geijenian gurasuak. Baita umiak bere gurasuari. Bularragaz iraasten jakoz umiari, ez gitxitan, azten dabaren gorputzeko gatxak ta arimako guraarijak. Bularra emoten deutsana da gatx duna, garbitu biarrekua edo ondo garbitu bagakua, inude asko oi dirian legez? Bada, seinari ezarten deutsa edo ezarri legijo bere gatxa. Seinaren azizailla da bizijo gaistuetakua, nasaija? Bada, umiak agiriko dau, isten bajako, noren bularra artu eban. Ta ezin jazo leiteke seina trukeetia? Ah gurasuak! Bein baino geijagotan jazo leitekian gauzia da. Ta oraindino urte asko ez dala jazo zan Pranzijako erreinuban onelako sein trukeeta bat, inudiaren deskuido bat zala medijo. Inudiak subaren onduan itxi eban seina ardura gitxigaz ta erre jakon arpegi ja paska bat. Seina zan konsejeru baten alabia. Ez zan azartu inudia gurasuai jazo tristia esaten. Kendu eban inutsein egijazkua, ta aza eban beste ume bat aren lekuban. Ta biurtu eutseen gurasuai inoren umia, euren balitz legez. Ezkondu ebeen gurasuak seinora andi. Ta ezkonduta gero autortu eban inudiak bere deskuidua ta engainuba. Azaldau zan trukadia, birrindu zan ezkontzia, zabaldu zan eskandaluba ta oni darraikon guztia. Eskarmentau bada, gurasuak, inoren gatxigaz ta aza zeuben umiak zeuben bularretan, inundi al dagizunian. Ama baten ondrarik andijena da, dino san Anbrosiok, sabeleko prutuba bere bularrian astia.

4. Seme alabei gurasuak zor deutsen aziera onaren kontra ta txito deungaro egina da, lau bost urtera eldu ezkerro edo leenagotia, umiak eurekin oian eratzotia. Baita multixubak eta neskataak alkarreregaz eratzotia bere. Baita gela baten guztientzat oiak alkarreren onduan eukitia bere. Gauza onetan nasaitasun andija ikusten da pamelija askotan. Errial bat edo bi ez kastetia gaiti bitzi dira gurasuak eta umiak, ta askotan otseginak, kanpokuak ta etxeak, gizonezkuak ta emakumiak, kristandadiaren lotsagarrijan. Ugazaba jaunak edo etxejaubiak ez daukee erru gitxi sail onetan. Errentia osorik artuten dabeezta zuzen. Bakjee, erreenteru pobriak ta menturaz laster etxetzi urteteko bildurragaz daguanak pamelija guztia kasik era batera eratzoten dabena, oe bat nun aparte imini etxe barruban ez daukalako. Ta orregaiti ez dau ugazabak oe leku apart bat egingo bere etxian.

Oh Gurasuak edo ugazabaak, zarianak zariala! Ez dakizu ondo ta jakin biar zendeuke zeinbat arima inozenteri pekaturako bidia emoten deutzezun. Zeinbat malezija sortutzen dan umen goguan ta arimetan zeuben ardura gitxija gaiti ta konzienzia nasaija gaiti. Ta uste dozu ez deutsula Jaungoikuak kontu artuko bai gurasuoi ta bai ugazaboi, ume inozenten arimak alan gatxerako goixtartu ta argitu dituzlako? Pensau egizu zeubek

ze okasinoia dan. Ta ez egizu sinistu umiak diriala. Salomon gaiti esaten da, amaeka urte zitubaneko aita zala.

5. Deungaro egiten dabee gurasuak, umiai bost sei urte ditubeenetia aurrera edo leenagotia berba txaarrak, gatxaren izenak ta beste eurenez pekatu dirian gauzaak parkatutiaz. Umetati ikasten danak iraungo dau zaarta artian, dino Espiritu Santubak. Txikitati oker azten dan landaria, nekez zuzenduten da, sutara artian. Txikitati gurasuen erruz gaiski azten dan umia, sarri juan oi da inpernuko sutara zuzendutera edo beti erreeta oker egotera. Guraso arro askok, umen zazpi zortzi urteko pekatubak, lotsagaldukokeriaak ta berba ezainak banidadez kontau oi ditubee, gauza andi batzuk balira legez. Ez egijozu, bada, umiari parkatu txikitati, gero berak egitia edo esatia ondo ez dana.

6. Deungaro egiten dabee umiai dotrinia biar dan moduban erakusten ez deutsenian. Oh Guraso errukarrijak ta ume desditxaubak gauza onetan! Leleengo ikasikizunian esan da zerbait onen gainian. Bainan esan al dedin guztia utsa da gurasuak kontura ekarteko euren eginbiar andi onetan. Orazinuetako berba banaka batzuk ozta goguan euki eragita ta areek bere askotan oker ta naastauta da, guraso askok umiai emoten deutsen kristandadeko erakutsi guztia. Geu salbetako popuertza jakin biar ditugun egija santuben ezauberarik ez daukee urrineti bere seme alaba askok, aita ta ama edu azita egon arren. Ze mirarija da, gero gurasuak bere ez jakitia! Ze mirarija, guraso ta ume inos dotrinia ondo ikasi bagarik bitzi izatia ta illtia! Beste auzo inguruko ta erriko kontu guztia, ta bai asko onak ez dirianak bere, ikasten ditubee umiak ziatz ta txito laster. Jaungoikoa serbiduteko ta arimak salbetako popuertza biar doguna da, zorijonian edo zori gaistuan, ikasi ezin dabeena. Gurasuen betiko kantia ta atxakija da, umiai doktrinia erakutsi ezin deutzela. Bainan obeto esan legi, gurasuak erakutsi gura ez deutzela. Umiai dotrinia erakusten, edo ez dakijeela, edo kansau gura ez dabeela. Edo argiruago esateko, guraso askori, umiak dotrinia jakin nai ez jakin, bardin deutzela. Guraso askok ardura geijago daukee, zinuan san Juan Krisostomok, etxeko ganadubakin, seme alaben arimakin baino. Ariman epai garratza egiten dabentz paltia da bada, kristinaubak, gurasuak txikitati umiai doktrinia sustraiz ez erakustia.

7. Txito deungaro egiten dabee gurasuak, umiai bidauak eta maldezinoiak ezartia. Exenplu edo erakutsi txaarra da au umentzat. Gurasuen maldizinoiak, dino Espiritu Santubak, ondatutenean dabela etxe guztia. Gatz opa bagarik izan arren, gaiski erakusten jakue umiai bidaugaz ta maldezinoiagaz. Zenobio santubak dinuan amak jazo zatekian gatxik ez opa iza-



tia bere umiari. Bainha ume txikarrak ura eskatu eutsanian amari, amak purijaz ura eskinita, esan eutsan umiari: *Autsa, edaiak diabrubia*. Ta bertati sartu zan diabrubia umiaren gorputzian.

8. Deungaro egiten dabee gurasuak, umiai meza santuba entzutia, konpesetia, komulgetia ta beste arimiaren onerako biarrak egitia, errazoe bagarik, eragozten deutsenian. Gauza onetan gurasuen eginbiarra da, zazpi urte ditubeneko erakutsi dotrina santuba, edade atan izan leitekian onduen. Bialdu orduti meza santuba entzutera. Ta baita Pazkueta kura jaunagana konpesetara bere. Ta andi aurrera, kura jaunak aginduten deutsenian, sakramentubak errezipidutera ta jaijan jaijan meza santuba entzutera.

9. Deungaro egiten dabee gurasuak, seme alabei isten deutsenian gura daben lekubetara juaten; nai dabeeen lagunakin ibilten; nai dabeeen moduban jantzten; ta gura ditubeen berba ta kanta ezainak esaten edo beste pekatubak egiten, dakijeela. Emen sartuten da, kristinaubak, guraso askoren pekatu pillo andi bat, ez irakatsi txiki baten, eze liburu baten bere kontau ezin legizan beste. Ta nos eragotzi biar deutseez onako gauza txaarrak gurasuak umiai? Nos? Beti. Umetati, txikitati asita gurasuen aginduban dagozan artian. Bainha endamas amar, amalau, amazortzi, ogei urtian irago artian, ta Jaungoikuaren bildur santubak euren arimetan sus-traijak egin artian. Gaztetan ereiten badozu, guraso onak, zeuben seme alaben bijotzetan Jaungoikuaren bildur santuba, birtutene amodijua, Jesusen ta Ama Birjina guztiz santiaren debozinoe biguna, Jaungoikuaren berbia entzuteko, sarritxutan konpesetako, eleisako zeregin santubetara juateko, zeruko gauzaak entzuteko, ikasteko ta esateko gogo presta ta argija; iminten badeutsezu euren arimaan erijotziaren, juizijuaren ta inper-nubaren bildur santuba, pekatubaren gorrotua, munduko banidades, ibi-lera nasaijen, jantziera erdi biloxen, olgeta pekatuzku edo pekaturako peligrukuen enpaduba ta gogo betia, Jaungoikuak gura ez ditubalako; enpin, erakusten badeutsezu zeuben umiai txikitati berba onak esaten ta lotsa ona guztiai ekarten, ya ogei ogeta bi urtera eldu ditezanian eurak zaintuko ditubee euren burubak ta euren arimak edo, obeto esateko, Jaungoikuak gordeko ditu zeuben seme alabak okasinoe guztietatit.

Bainha parkatutene badeutsezuz txikitak palta txikijak ta, azitxubago eginda, anditzubaguak; azten badituzu gizon izatia ta kristinak izatia zer dan ez dakijeela, alemania batzuben gisaan, izango dira zeuben zaartzako desondragarrijak ta negargarrijak ta ez gitxitan kondenagarrijak. Oh! Ez dakit ze arimagaz egoten dirian guraso asko, zuzen dakijeela euren seme alabak gabaz ta egunaz eskandaluba emoten dabeela, adiskide txa-

rrakin dabilzala, etxe sospetxakuetan sartutene diriala, jantzi desonestubak darabilezala, bigira, sarau ta pekatuzko olgetara paltetan ez dabeela, tabernetako jokuetati urteten ez dabeela, ta beste onako pekatu agirijak irunsten ditubeela. Ez dakit, dinot, ze arimagaz lo egiten dabeeen guraso askok, onako bitzitza galdua ta desondragarrija euren umiai parkatutene deutsenian. O zeinbat bidar, san Bernardok dinuan legez, gurasuak etxian seguру daukeen bildotsa ataijan daguan otsuari ateraten deutsen! Seme alabai gabian etxeti olgeeta pekatuzkora isten deutsenian, inpernuko otsuari entregetan deutz euren umen arimak. Ta gurasuak juango dira pena bagarik lo egitera? Ah galdu biarra!

Aitu egizu bada, neure entzula onak, zeuben arimen errukija gaiti. Ta aitu egizu, gurasuak, zeuben errajetako prutuben amodijua gaiti. Jaungoikuak egiten deutsun eskari nausija da, seme alabaak zerurako aztia. Eskritura Sagraduban milla bendizinoe andi eskintzen deutz Jaungoikuak mundurako ta zerurako, seme alabaak Jaungoikuaren bildur santuban azten dituben gurasuai. Oh ze ditxosuak Elkana ta Ana Samuelen gurasuak! Ze zorijjonekua Job santuba, bere umen arimako ona gaiti egunero orazinoa egiten ebana! Ze bedeinkatubak Abraan, Tobias aita semiak ta Makabeo anaien ama santia, euren umiak pekatubak egitia baino andaan ikustia naijago ebeenak! Ze ordu onekuak ainbeste errege ta erregina, Eleisako jazuak esaten deuskuben legez, euren zereginnen artian ardurariak geijen seme alabaak zerurako azten imini ebeenak! Oh gurasuak! Banaan banaan kontau biar litzaatekez zeuben egitadiak.

Baita Jaungoikuaren zamaijak bere, guraso ardura bagakuen kontra. Zaartzza desondrauba, penazkua, lotsazkua, sepulturaragino jarraituko deutsana, laugarren belauneragino amaituko ez dan kastiguba ta beste onako zamaijak daukez euren kontra, seme alabaak dotrina onian ta Jaungoikuaren bildurrian azten ez ditubeen gurasoak. Eli baten kastiguba da guztien eskarmenit ona. Bere semiak kastigau ez zitubalako biar zan duina, Jaungoikuak ill eban Eli seme bijakin.

Oh Jaungoiko parkatzaila! Lotu egizu zeure zamai bildurgarrija. Zabaldu egizu zeure ontasunaren argija guraso guztien arimetara. Zelo santu bategaz ta indar itzalsu bategaz zeure ezauberaan, zeure bildurrian, zeure lotsa onian ta zeure amodijo bigunian azi dagijezan, zeuk grazijaz ta mesedez ondo azteko ta euren zaartzako pozgarri ta ondra izateko emon deutzuzan seme alabaak. Guraso ta ume, guztiak euki dagijen ditxia, zeu zeruban beti gozeetako. Amen.



## II. IKASIKIZUNA

*zeinetan erakusten dan  
seme alabaak gurasuai zor deutseena.*

Gurasuen eginbiarrak badira andijk seme alabaak Jaungoikuaren bildur santuban azteko, oneek gurasuai zor deutseena ez da ardura gitxago biar dabena, neure entzula onak. Gurasuak dira, Jaungoikuaz ostian, geuri izatia emon deut[s]kubeenak. Eurak dira, sarritako izerdijagaz ta nekiagaz, zer jan ta zer jantzi prestauta, emon deutskubenak. Geure ama ona da, bere sabelian arduraz ta kontuz lutzaro erabili ginduzana. Alaz ta minez nekez argitara atera ginduzana. Sarri lua galdua, sarri janari[a] itxita, aldatu, garbitu, isildu, berotu ta zaintu ginduzana. Geure guraso zintzuak dira, geure umetako mainaak, min bagako negarrak ta iletak, gurari ta tema ernegagarri guztiak, iru edo lau urte osuetan edo geijaguan ixilik ta karinoz, parkatu eutskubezanak. Eurak ahi gaitubee. Eurak bitzi izaten erakutsi deutskubee. Eurak Jaungoikuaren lege santuba erakutsi deutskubee. Eurak jantzi gaitubee. Eurak emon deutskubee, edo eskolia, edo opiztua, edo daukagun bitzigarria. Zeinbat naibaga, zeinbat kastu, zeinbat ardura, zeinbat lo galdua, zeinbat neke, dinot, padezidu ez ditubee guraso tristiak gure onerako? Baino eguno gauza on bat egin ez baleutskubee bere geure gurasuak, sortutia ta egitia baino, gurasuak dira, ta gurasuak dirialako zor deutsegu: 1. *Maitetasuna*. 2. *Ondria*. 3. *Obeidutia*. Ta ara emen, kristinaubak, irakaste onen geija. Entzun egizu gogo bitzijagaz.

### I.

Zor deutsegu geure gurasuai, dirianak diriala, nai onak ta nai arin onak, nai ondraubak ta nai desondraubak, nai ondo ahi gaitubenak, nai gaixki ahi gaitubenak, gurasuak dirialako zor deutsegu maitetasuna. Dinot, neure entzula onak, maite izan biar ditugula geure aita ta ama, beste proximo guztiak baino lenago. Bada, gizonaren izatia, Jaungoikuaz ostian bestek inok bere emon ez deutskuna, emon deutskubee geure gurasuak. Ta au da naturalezan daukagun ditxarik andijena. Zor deutsegu gurasuai: 1. Arpegiera biguna, berba humiliak ta lotsa ona. 2. Opa biar deutsegu gurasuai bakia, osasuna, bitzi izateko ditxa ona ta zaartzia luzia. Ta oneek

baino geijago, arimako grazia, erijotza santuba ta zeruko gloria. 3. Erakutsi biar d[e]utsegua ta aituten emon biar deutsegua agiriko seinaliagaz, geure bijotzian ta ariman eurentzat daukagun nai maitetsuba ta opa ona, eriak ta ordubak eskatuten dabienan. 4. Erregutu biar deutsagu Jaungoikuari geure gurasuen arimako ta bitzitzako oneraak gaiti, bitzi dirian artian ta ill ditezanien euren arimak gaiti. Au da geure gurasuai zor deutsegun maitetasuna edo amodijua. Ta onen ondorik zor deutsegu ondria.

### II.

Laugarren aginduban Jaungoikuak berba argiak eskatuten deutskuna da, aita ta ama ondretia. Zer da, bada, *ondretia?* Norbait ondretia da, estimazioiaren, lotsa onaren, uste onaren ta opa onaren seinale agirijkari emotia. Alan gurasuak ondretiak gauza asko eskatuten deutskuz: 1. Beti berba ondo egin biar dogu geure gurasuak gaiti, dagozan lekuban dagozala. 2. Geure gurasuak euki arren paltak ta izan arren deungaak, ez ditugu euren paltak kontau edo azaldau biar, ezbada Jaungoikuari erregutu eurak gaiti. 3. Entzun ta artu biar ditugu esker onagaz ta nai humildiagaz, aitak eta amak emoten deutskubezan erakutsi onak eta konseju santubak. 4. Lagundu biar deutsegu alegin guztijagaz aitari ta amari euren premina ordubetan. Bai gaixorik dagozanian, bai inok persegidutenean ditubanian, edo gaixki egin gura deutsenian; bai zer jan edo zer jantzi ez daukenian; ta endamas arimako peligruban dagozanian. 5. Ardura andija zor deutsee seme alabak gurasuai gaixorik dagozanian gurasuak, sakramentu santubak errezipidu bagarik ill ez ditezan ta erijotzako ordu estuban euki dagijezan kristinaubak nai oi ditubeen arimako sokorrubak. 6. Seme alabak kobru emon biar deutsee zintzoro, eurai jagokuenez, gurasuen azkeneko naijai edo borondatiai, zeintzuk geratu oi dirian testamentuban edo berbaz esanda. Au guztia egin biar dabee seme alabak, alizatiak, eriak eta preminiak esku ta aginduten deutsenian, gurasuak ondretako, Jaungoikuak laugarren aginduban eskatuten dabent legez.

Sinistu biar dau kristinaubak, gurasuen kontra umiak egiten ditubeen pekatubak diriala txito Jaungoikuaren gorrotokuak. Pekatu gustiai deutsee Jaungoikuak gorroto. Baino batzuk Jaungoikuaren gorroto andijagua dakkree beste batzuk baino. Aparteko markiagaz seinalaute dagoz Eskritura Sagraduban. Ta onetarikuak dira seme alabak gurasuen kontra egiten ditubeenak. Aitari edo amari bekoki illuna imintia; arpegi asarria



erakustia; berba astunak, gogorrak ta itzalsubak esatia; euren paltaak ta leenagoko deskuiduak argijan ezartia edo euren ondorik esatia; gurasuak burla egitia; dakijeela, atsakabaak ta penaak emotia; gurasuen esan onak ta konseju onak ta santubak desprezijetan edo barregeitzat entzun ta kontentia; errazoe minberekin, ta lotsa txaarragaz bildurtuta, isilduta, gurasuak imintia; preminan dagozanian, nai justiziaren eskubetan, nai karzelan, nai gaixuan, nai ez orduban, edo pobrezan, nai arerijo baten gaxian edo persekuzinoian, nai arimako biar orduban; orduban, dinot, gurasuari ez lagundutia ta esan dan moduban gurasua umiak trateetia da, Jaungoiko onari ta guraso guztien ondria zaintutenean, esateko moduban, bijotzaren erdijan ikututenean pekatu madarikatuba, maldizinoe askogaz zamaituta daukana.

Aitari atsekaba emoten deutsan ta amari iges eragiten deutsan semia edo alabia, dino Espiritu Santubak, izan dedila desondrauba ta desditxauba. Aitari edo amari burla egiten deutsan umiaren begija, dino Espiritu Santubak, pikau dagijeela ibaiko belaak. Edo argiruago esateko, jan dagijeela ta iruntsi dagijeela alako ume lotsa gaistokua inpernuko pristijaak. Aitari edo amari bidao egiten deutsan umia, dino Espiritu Santubak, ill dedilla, kondenau dedilla ta bere odola bere kontra izan dedilla. Gurasuak badauke seme nezijo bat edo lotsa galduko bat, euren esana egin gura ez dabena, eruango dabee juezen aurrera seme gaistua ta esango deutsee gurasuak juezari: *Gure seme au lotsa txaarrekua ta nezjua da, gure esanak ta konseju onak desprezijetan ditu. Ez deutsku obeidu gura. Jan edan gaistuetan, luxurijetan ta bide galdu betan dabil.* Orduban juezak aginduta, erriko jentiak arrika ill dagijeela gurasuak esana egin gura ez dabena seme lotsa galdukuak. Kenduko dozu zeuben arteti alako ume nezjua. Ta Isrraelgo jentiak entzuten dabenian, ikara egingo dau. Au egiteko, dino Espiritu Santubak, gurasuak desondrako ta esker txaarreko seme ezi bagakuakin. Madarikatuba izan dedilla, dino azkenian Espiritu Santubak, aita ta ama ondreetan ez dituban umia. Ta jente guztiak esan dagijala: Amen. Maldizinoe oneek guztiok eta geijago ezarten deutseez, neurri kristinaubak, Jaungoiko andijak bere Eskritura Sagraduban lotsa txaarreko, esker txaarreko ta ezi gaistoko seme alabai.

Oh ze bildur izan biar dabena bai gurasuak ta bai umiak! Gurasuak umiak ondo azteko txikitati Jaungoiko andijaren bildur santuban, zamai ikaragarri oneetati libre egon ditezan. Ta umiak euren gurasuak amau ta ondratua dagijezan karinoz, lotsa onian ta Jaungoikoa gaiti, Jaungoiko altubaren asarriak kastigau ez dagizan. Kan, Noeren semia, bere aitari erreberenizia galdu eutsalako zan ta da madarikatuba inpernuban. Ez bera

bakarrik, ezbada bere ondo renetara, bere seme alabeetara bere eldu zan Jaungoikuaren maldezinoia. Esauk bere aitaren aginduba egin ez ebalako edo aitaren esanaren kontra pekatu egin ebalako, galdu eban majorazgua, galdu eban ondria, galdu eban arimia ta da madarikatuba inpernuban. Absalon, Dabiden seme lotsa gaistokua, lagi zan aita onaren kontra. Bainaz zerubak persegidu eban ta azkenian iru ezpatagaz josita arimia entregau eutsan Satanasi. Bainaz nok kontau Jaungoikuak seme alaba gaistuen kontra egin dituban kastigubak? Esan legi, pekatu jenero gitxi dagozala Jaungoikuak, mundutu asita, prestago ta agirijago kastigau ditubanik, gurasuak kontra umiak egiten ditubenak baino. Gitxitan ikutsi izango da seme bat edo alaba bat bere gurasuari lotsa txaarra ekarri deutsana, naibagiak ta atsekabaak arpegijan emon deutsazana, ezaubera ona ta premina orduban sokorruba ukatu deutsana, modu txaarrian ta temaz justizijati justizijara erabili dabena, gurasuaren abisu santubai ta konseju onai burla egin deutsena... dinot kristinaubak, gitxitan edo nekez ikusi izango dala onako seme bat edo alaba bat zaartzera onian auzuak ta etxeak estimetan dabee-la, erijotza ona egiten.

Oh, ze bildurgarrrijak umiak gurasuak kontra egiten dituben pekatubak! Bainaz, oh ze ugarrijak! Ez dakit, ala gurasuak Jaungoikuak bialdutenean azotia dan, ala ume gaistuak eurentzat presteetan dabeeena dan. Bainaz bai guraso askok negar egiten dabeeela bijotz mingotxagaz, seme alaba gaistuak eraginda. Ez dagoz ume asko ta asko gurasoai maldizinoeka? Ez dabee beste askok nai dabeeena egiten etxian gurasuak esker gaistuan? Ez dabee urtetan etxetik gabaz ta egunaz nai dabeeen lekura, gurasuak agiraka ta diadarka dagozala? Ez dira sartutenean gura dabeeen etxeetan? Ez dira egoten eskandaluko lagunakin? Ez dira ibilten pekatuko lekubetan, aitak eta amak etxian euki ezinda? Ez dagoz seme alaba asko, ez gurasuak, ez kura jaunak, ez juezak ezi ezin ditubeenak? Ez dagoz beste asko gurasuak jotera egiten deutseenak ta joten ditubeenak? Ez dagoz guraso zaar asko euren etxeetan sobrauta, berba bat esaten azartutenean ez diriala, bantzartuta, isilduta, ikaratuta euren etxian, semiak edo alabiak, erreinak edo suinak, edo guztiak bekoki astunagaz ta berba gogorragaz agindutenean deutsela ta burla egiten deutseela? Ez dagoz guraso asko, euren izerdijagaz irabazita euken puskia kendu artian berba labanak ta aginzari andijkumia eginda, sinistuta, engainauta, eukeena umia emonda gero gosiaz ilten dagozanak? Zeinbat onetariko? Zeinbat guraso zaarren kexak entzuten dira?

Ah guraso desditxaubak! Zeubek olan portau bazinian zeuben gurasuak, ondo mereziduba edo irabatzia daukazu zeubetik bestetik bestetik



umiak egitia. Bainaz ez dira orregaiti zeuben umen pekatubak txikijago. Errukirik geijen emoten dabeenak dira guraso zaar uatubak edo ibili ezin dirianak. Eukeen guztia umiai emonda, gosia iragoten ta errazoe txaarrak entzuten bitzi dirianak. Alako umiak nai dabee guraso zaarrak laster illtia. Bana oneen kontra dira Jaungoikuaren zamai bildurgarri, esan dirianak. Egija da, gurasuak izan leitekez deungak, ordijk, lapurrik, bidaotijk, okasinoetsubak, bake txaarrekuak, desonestubak ta errazoe gaistokueta-kuak. Au gurasuak deungaro egiten dabee. Espiritu Santubak esaten deutsee gurasuai bere, ez dagijuela asarratu eragin ta su artu eragin euren umiai berba deungaakin. Bainaz orregaiti ez deutsa umiak lotsa ona ta borondate ona galdu biar gurasuari, esan dan legez.

Jazo leiteke gurasuak euren umiak gaiski azi ditubenak izatia. Bainaz gurasuen pekatubak eta gaiski eginak ez ditubee txikituko umen pekatubak. Ta deungaak izan arren gurasuak, gurasuak dira. Ta gurasuak dirialako aginduten dau Jaungoikuak ondretako. Konturik zuzenenian jazo leiteke, alako gurasuak eta umiak munduban alkaren gozo bagarik, poz bagarik edo, obeto esateko, alkaren gorrotuan ta bidaoka bitzi izatia; gurasuetati umeetara gatx onek belauneti belaunera luzaro irautia; ta negargarri andijan guztiak guraso ta ume beste mundura euren pekatuben sari txaarra artzera juatia. Oh zeinbat onetariko jazo irakurten dirian! Ondrau daiguzan bada, kristinaubak, geure gurasuak, Jaungoikuak aginduten deutskun moduban. Baita obeidu bere, Jaungoikuak aginduten deutskun gauzeetan.

### III.

Seme alabak gurasuai obeidu biar deutsena gauza jakina da, kristinaubak. Nos eta zetaragino da, ikasi biar dana. Santo Tomasek dino umiak gurasuai obeidu biar deutsela, arimiaren onerako ta etxeko pamelijaren onerako ta kobernurako biar dirian gauzeten. Alan umiak egin biar dabee gurasuen aginduba: 1. Dotrina ikasteko, meza santuba entzuteko, konpesatara nosik bein edo errazoezko denporan juateko aginduten deutsenian. 2. Lagun peligruzuakin ez ibilteko, etxe sospetxakora ez juateko ta pekatuko okasi noetati aparteetako aginduten deutsenian. 3. Berba ta kanta desonestubak ez esateko, danza peligruzuetara ez juateko ta liburu indezentziak ez irakurteko aginduten deutsenian. Oneek pekatuko okasinoiak dirialako. 4. Gabian etxeti premina bagarik ez urteteko, joko txaarretati ta tabernetati alde egiteko aginduten deutsenian. 5.

Eskandaluko edo modu txaarreko jantzia eragozten deutseenian. Umeen bitzi modurako ondo dan opizjua edo ikastia aginduten deutseenian. 6. Etxeko biarretako, artu emoneko ta saldu edosiko gauzeten umiak obeidu biar deutsee gurasuai, gurasuen aginduban dagozan artian. Gauza oneetan gurasuen esana ta aginduba ez egitia, beti da pekatu. Gauza andijan bada, pekatu andija ta gauza txikijan bada, pekatu txiki ja.

Ez da popuertzakoa umiak gurasuai obeidutia euren estadubaren gainian. Jaungoikuak emoten deutsa eskubidia kristinaubari, zeruba iratzeko onduen deritxon estaduba artuteko. Ta gurasuak galarazo ezin legijue umiari estaduko libertadia. Egija da, Eleisiaren erakuslaak dinunez, pekatu da umiak gurasuai kontu emon bagarik, eria daukal edo eurakin bitzi dala, ezkontzia egitia. Estaduba artutia gauza andija dalako ta, edola bere, gurasuak jakin biar dabeelako. Umiak ez deutsee obeidu biar gurasuai pekatu egiteko edo pekatuko okasinoe agirira aginduten deutsenian. Bada, leenago da Jaungoikuari obeidutia, gurasuai baino. Ta Jaungoikuak aginduten dau pekaturik ez egiteko, ez munduko guztiak gaiti, ez mundu guztia gaiti bere.

Begiratu egizu bada, kristinauba, zelan maite izan biar ditugun geure gurasuak; zelan ondrau biar ditugun, bai bitzi dirian artian, baita ill da gero bere; ta azkenian zelan obeidu biar deutsegun ta egin biar ditugun euren agindubak, al izan ezkero, pekatu ez dirian gauzeten. Artu daigun Jesus maitiaren exenpluba, kristinaubak, gauza onetan bere. Bada, izanik zeruben ta luurren jaubia, izanik Jaungoiko egijazkua, Jesus humildiak obeidu eutseen bere amari ta aita ordekuari. San Joseperen ta Ama Birjinaren esana egiten eban Jesusek munduban, dino ebanjelijo santubak. Oh Jesus, guraso guztien gurasua! Erakutsi egijezu, bada, guraso guztiai, euren umiak dotrina onian, humilde ta kristinau egiazko azten. Oh Jesus, Jaungoiko geure ona gaiti umetuba! Izan zaitez zeu seme alaba guztien guraso biguna. Artu gaizuz guztiok zeure grazijaren ta bildur santubaren katiapian. Biztu egizu geure gogua zeu maite izateko, zeu ondretako ta zeuri obeiduteko beste guztiai baino leenago; ta zeure ondorik, geure gurasuai zor deutsegun maitetasuna, ondria ta ob[e]jidutia pageetako, ta beti zeruban zeugaz bitzi izateko. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



### III. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*Aita Santu Erromakuari, obispo jaunai...  
 errege jaunai... zer deutsagun ondria ta agindubak egitia.*

Esanda geratu da, kristinaubak, leengo ikasikizunian, laugarren agindu santuban sartutene diriala ez bakarrik gurasuak eta umiak, ezbada baita geure arimen ardurarako ta bitzitziaaren konturako Jaungoikuak bere ordian imini deuskuzanak bere; zeintzuk dirian Elexa Ama santiaren serbizailaak edo sazerdotiak ta erreinuben ta errijken burubak. Errege jaunak ta aren ordian errijak gobernetan ditubenak. Oneek dira, leleenguaak geure aimen gurasuak ta bigarrenak geure aziendiaren, ondriaren ta, askotan, bitzitziaaren gurasuak edo gordezailiak. Jaungoikuak aginduten deutsku onei guztioi, jagokuen moduban ta lekuban, lotsa ona ta errespeto ona ekarteko. Eurak ondretako, euren agindubak egiteko ta Jaungoikuari aparteko goguagaz eurak gaiti erregututeko.

Eginbiar oni zerubak eskatuten deutskun legez kobru emoteko, irakatsi onetan esango deutsut, *zer zer deutsagun Aita Santu Erromakuari, zer obispo jaunari, zer kura ta sazerdote jaunai, zer errege jaunai ta zer juezai*. Entzun egizu, kristinaubak, ikasteko gogo onagaz.

#### I.

Aita Santu Erromakua da, Jesukristo geure Jaunaren ordekua luurrian. Eleisa guztiaren buruba. Kristindade guztiaren pedeko ta oitura santubeetako agintaria. Geure arimen onerako gauzetaen kardenal, patriarka, obispo, errege, agintari ta kristinau guztiak entzun biar deutsseen. San Pedroren ta aren ondorengo Aita Santu Erromakuen eskubetan itxi ditu Jesukristo geure Jaunak zeruko giltz santubak. Aita Santu Erromakuari emon eutsan Jesus geure Librazailiak, gizonai pekatubak parkatuteko edo ez parkatuteko alizatia edo *poderia*. Baita Eleisa guztiak arduria bere. Aita Santu Erromakua, Eleisa guztiaren buruba dan legez, bera da inpernuko etsaiaren, ereje gaistuen ta Eleisa Ama santiaren arerijuen tirorik geien ta andijenak artutten ditubana. Bera da Jaungoikuaren sokorruba ta Espiritu Santubaren grazija onduen ta ugarijen biar dabena,

Eleisa Ama santia kobernetako edo zaintuteko, ta kristinau piel guztiai zerurako bide zuzenak erakusteko. Au gaiti estimau, ondrau ta amau biar dogu kristinau guztiok Aita Santu Erromakua ta erregutu biar deutsagu Jaungoikuari bere osasuna, ontasuna, aziertuba ta arimako grazija gaiti, guztiene luurreko guraso nausija dalako.

#### II.

Obispo jaunak gaiti beste ainbeste egin biar dogu. Endamas geure obispo jauna gaiti. Obispo jaunak dira apostoluben ordekuak luurrian. Eurak imini ditu Jaungoikuak erreinubetan zabalduta Aita Santu Erromakuaren ureengo, Eleisako pedia ta dotrinia zaintuteko, gordetako ta kristinau pielai gorde eragiteko. Eurak sazerdote egin biar ditubee gizonak; beti oinian egon dedin ordiako sakramentu santuba, ta bizi dedin giza aldirik giza aldira mundubaren amairagino kristindadia edo Jesukristoren Eleisia. Obispo jaunak ezautu biar dabee sazerdote, konpresa, predikadore ta arima gordezailen jakiturija, ontasuna ta bizi moduba, sakramentu santubak ta arimen erakuste ona noren eskubetan isten dituben, jakiteko. Obispo jaunak dira geure arimen gurasuak, ardura andijkak, zeregin andijkak ta kontu emokizun estubak daukezanak. Orregaiti amau biar ditugu, estimau biar ditugu ta jaso biar ditugu obispo jaunak. Ta erregutu biar deutsagu Jaungoikuari kansau bagarik eurak gaiti. Baita egin bere eureen agindubak txito ziur ta gogo prestagaz, geure guraso onak dirialako.

#### III.

Kura jaunak ta sazerdotiak, bai abadiak ta bai prailiak, oraindino urragoti zaintutene ditubee geure arimak, inpernuko etsaijak, mundu gaisituak ta aragi labanak engainau ta goitu ez dagizan zerurako bideetan. Kura jaunak ta sazerdotiak dira geure arimen argijak, geure erakuslaak, geure graziaren bideginak, geure arerijuuen bildurgarrijak. Eurak dira geuri zer egin biar dogun erakusteko ispilubak, geure peligruben zelatarrijak, geure konzienzien jaubiak ta jaolaak, geure pekatuben parkazailiak, pekatarijagaz Jaungoikuaren arteko bakeginak. Edo guztia berba baten esateko Malakias propeta santubagaz, sazerdotes ezpanak ta aua dira



zeruko iturri bitzijetako grazijak ta ontasunak geure arimetara iragoteko kainubak.

Nok prediketan deutsu Jaungoikuaren berbia? Nok erakusten deutsu Jaungoikuaren naija? Nok ekarten dau berba bigaz altara santura Jesus Jaungoiko bitzia? Nok arinduten dau zure konzienziako kargia? Nok parkatuten deutsuz zeure pekatubak? Nok emoten deutsuz sakramentu santubak? Nok animau, sendotu ta konsoletan zaitu zeure erijotzako ordu tristian? Kura jaunak ta sazerdotiak. Zeinbat bidar eldu zara konpesoriaren oinetara, zeure pekatu andijak ta ezainak larrituta, lotsatuta, bildurtuta, areen karga astuna jaso ezin dozula, kasik izerdija darijazula ta zeure salbazinoi[algaz dudetan asten zariala? Ta zeinbat bidar jagi zara konpesoriaren beraren oinetati, biztuta, poztuta, konsolauta, zeure pekatu andijeen karga guzia berari ezarrita, beste bat bazina legez, inos pekatutik egin ez bazendu legez, konpesore jaunaren karidadia, zelua, ontasuna, pazienzia, moduba ta atarako alizatia dala medijo? Zeinek munduban bestek egin euskezun á mesedia? Zeinek bestek emon euskion orduban zure arima triste ta larrijari á bakia? Á poza? Á atsegina? Á sosiguba? Á segurutasuna? Munduko batek bere ez. Konpesore batek baino bestek inok bere ez luurraren gainian.

Sinistu daigun bada, kristinaubak, Jaungoikuak emon deutskuza la eleisa gizonak geure arimen onerako. Jaungoikuaren ordekuak diriala luurraren gainian. Begiratu biar deutsegula errespeto andijagaz. Amau biar ditugula, geure guraso onak dirialako. Egin biar ditugula euren agindubak, sailari jagokan moduban. Estimau, zaintu ta jaso biar dogula euren ondria. Sinistu biar dogu, txito pekatu andija dala eleisa gizonak, nai Aita Santu Erromakua, nai obispo jaunak, nai kura jaunak, nai beste sazerdote edo relijiosuak aotan gaiski erabiltia; areen esanen ta aginduben gainian burla egitia, edo eleisa gizonak desprezijetia. Jesukristo geure Jaunak itxi zituban bere ordekozat eleisa gizonak ta berak esan eutseen guztiai: *zenbei entzuten deutsunak, neuri entzuten deust, ta zubek desprezijetan zaitubanak, neu desprezijetan nau.*

Jaungoikuaren agindu santuba ikusi ezkero eleisa gizonak ondretako, Zer esan legi, neure entzula onak, ainbeste berba ezain ta desondragarri entzuten dirianian sazerdote jaunak gaiti? Edo dala ekandu galdua gaiti, edo dala konzienzia nasaijak gaiti, edo dala orrako pede gaistoko errijetia Espaina sagradura etorri dan irakatsi madarikatuba gaiti, ya esan legi kristinauben zereginetati ez dala txikarrena eleisa gizonen paltak jakitia, esatia, entzutia, geitutia, azaldeetia ta zabaldutia. Kain madarikatuba legez, arimako gurasuen deskuido bat ikusi daijeeneko, arin aringa, pozka

ta barreka duaz, agiri dirianai kontetara. Abade baten edo praile baten palta bat, guzurrezkua edo egijazkua entzuten badabee, guztiak sarian sartutene ditubee, ez deutsee parkatuten euren miin gaistuagaz, ez zaarri ta ez gazteri, ez sendori ta ez argali. Eleisako estadubaren kontra, eleisa gizonen kontra dira tiro guztiak denpora desditzau onetan. Sospetxako ta eritxiko paltaak, sazerdotenak izan ezkero, saldutene dira ta edosten dira pozik egijazkotzat. Destajuzkuak, zuzentzat. Ta agirikorik ez badauka, intenzinoia izango dau txaarra. Asko da eleisa gizona izatia, paltsua edo gaistua izateko munduko askoren miinian. Orain esaten dodan au berau gaiti, pensauko dozu askok, neure ondria jasoten dodala. Bada, jakin biar dozu, naguan lekuban nagualako ta alan berba egitia zeuben arimen kalte andijan dalako ta eleisa gizonen ondra ona onan erabili ez dagizun, esaten deutsudala. Bestelan zuben esanak pena andirik emoten ez deustee.

Ez dogu esaten, kristinaubak, eleisa gizon guztiok gariala santubak, ezbada eleisa gizon guztiai zor deutsegula lotsa ona, ondra ona ta maite-tasuna. Au Jaungoikuaren aginduba da. Guztiak egin biar dabeena da. Ez dago estadurik paltadunak ez daukazanik. *Nire estaduba ainbat oneena izan arren, dino san Agustinek, gizona nas ta gizonen artian bitzi nas. Ez nas azartutene, dua santuba esanaz, neure etxia obia dala, esaten, Noerenai baino; baina an bere bat kondenau zan.* Edo Abraanena baino obia dala; baina andi bere Jaungoikuak ama semiak kanpora bota zituban. Edo Isaak patriarka santubarena baino obia dala; baina an bere seme bata gaistua zan. Edo Jakorena baino obia dala; baina an bere entzuten da, semiak senidiagaz pekatu egin ebala. Edo Dabid erre-giarena baino obia dala; baina an bere seme batak arrabiagaz pekatu egin eban. Ta bestia aita mansuaren kontra armaak artu ta jagi zan. Edo Jesukristo geure Jaunagaz bitzi zan pamelija baino obia dala; baina an bere amabiren artian Judas bat paltua zan ta Jesus, bere Aita maitegarrija saldu eutsen judegubai. Ez nas azartutene, dino azkenian santubak, neure etxia edo estaduba obia dala esaten, zeruba baino; baina zeruti bere jausi zirian ainjerubak inpernura.

Onako humildadiagaz ta euren buruben ezauberiagaz berba egiten dabee Eleisiaren Gurasuak, estadurik santubeneko paltaak ta paltadunak gaiti. Ez mundutarrik legez, sazerdote baten palta bat ikusi edo entzun dagijeeneko, barre, txistu, geitu, zabaldu ta sazerdote guztiai ezarri. Ezkondu batek adulterijuak egiten ditubalako, esaten dozu ezkondu guztiak diriala adulterio ginak? Ezkonduben artian ordi asko dagozalako, lapur asko dagozalako, drogeru asko dagozalako, logreru asko dagozalako, paltso asko dagozalako, kodizioso asko dagozalako, arro asko dagozalako, zeken asko dagozalako, zital asko dagozalako, esaten dozu ezkondu guztiak diriala alakuak? Ez. Zeuben estadubaren ondria nai dozu



gorde dagizuben, gaisto asko estadu atan egon arren. Bada, eleisa gizonen estadubaren ondria Jaungoikuak bere kontura artuta dauka. Ta bein baino geijagotan kastigu ikaragarri jakin aituten emon dau, berak zaintuko dabena.

Moises sazerdotiaren kontra murmurau ebalako, lepra gaisto betegaz jantzi eban Jaungoikuak Maria, Moisen beraren arrebia. Kore, Daten ta Abiron, Aaron sazerdotiaren kontra murmurau ebeelako ta sazerdote jauna desprezijau ebeelako, lurrik iruntsi zituban bitzirik inpernura. Eliseo propeta santubari burla egin eutseelako, berrogeta bi mutil ito zituben era batera otsuak. Elias Jaungoikuaren sazerdotia desprezijadu ebalako kapitan batek, zeruti jatsitako subak bertan erre eban kapitana soldau guztiak. Ah kristinaubak! Jesukristo bera desprezijeetia da sazerdote jaunen kontra berba egitia. Erakutsi lekuban jarriko dira sazerdotiak, dino Jesukristok, ta egizu zubek, eurak esaten deutsubena; ta ez egizu egin, ona ez bada, eurak egiten dabeena. Onegaz erakusten deutsku Jesus maitiak, eleisa gizonen paltaak bere kontura dagozala. Ta kristinaubari jagokana dala, sazerdotiak ondreetia ta euren erakutsija egitia.

#### IV.

Errege Jaunai bere zor deutseegu laugarren aginduban lotsa ona, agidubak egitia ta maite izatia. Errege jaunak dira erreinu guztiaren burubak. Jaungoikuaren gauzetarako leleengua dan legez kristindade guztian Aita Santu Errromakua, alan geure bitzitzak, aziendaak ta ondria munduban bake onian zaintuteko dira errege jaunak lelenguak euren erreinubar. Erreinu batek zeinbat arerijo, zeinbat gatzegilla ta zeinbat ardurakizun daukazan esaten, ez da errez. Gerraak, pestiak, gose urtiak, lapurretaak, auzi gaistuak, bide bagako erijotzaak, alper askoren naija egin ezinak ta beste geure burubetara etorten ez dirian ta geure onerako dirian sail andijk gau ta egun biarrian darabilez errege jauna ta berari ureengo lagundutenean. Esan ginai, kristinaubak, ez daguala eginkizun bat, ardura geijago, buru auste geijago, naibage geijago ta arimarako ta gorputzterako peligru geijago daukanik errege jaunarena baino. Ta guztia geure bakia, bitzitzia, osasuna, ondria ta eukija zaintuteko.

Orregaiti guztion eginbiarra da: 1. Geure errege jauna, Kristoren unjiduba dan legez, beti ondreetia esker oneko ezauberiagaz ta errespeto andijagaz. 2. Jaungoikuari erregututia, geure errege jaunari lagundu dagijon osasunagaz, zeruko argijagaz ta erreinu guzikto zuzen bidiagaz. 3.

Egin biar ditugu errege jaunaren agindubak. Bada, san Pedro apostolubak esaten badau, errege deungai ta pede bagakuai bere obeiduteko, ta Baruk propheta santubak esaten beutsen Israeltarrai Nabukodonosor Babilonijako erregia gaiti Jaungoikuari erregututeko, ta Eleisiaren lelengo giza aldiagetako agintarijak Eleisiaren ta kristinauben gaiskinak edo *tiranuak* izan arren, kristinaubak ondretan bazitubeen, eurak gaiti orazinoia egiten beebeen ta pekatu ez zan gauzeten obeiduten beutsen, zeinbat geijago geure errege zuzenak, kristinau egijazkuak, Jaungoiko zuak ta Aita on baten erraja bigunak daukezanak gaiti egin biar dogu guk?

#### V.

errege jaunaren urrengo dira ta errege lekuban dagoz errijetako juezak. Oneek dira errijetako bake santuba, lege zuzenak ta ordena onak oiniak euki eragin biar ditubenak. Juezak dira, eskandalubak, gabetako batzaar sospetxuak, ordikeriak, lapurretak, blasphemijak, maldezinoiak, ibilte desonestubak ta beste agiriko pekatubak eragotzi biar ditubeenak. Karidadiagaz ta modu onagaz, aldagijenian, ta ezbabere kastigubagaz zaintu biar dabee euren errijetako ordena baketsuba ta Jaungoikuaren lege santuba. Bada, san Paulo apostolubak dinuan legez, ez darabili alperrik gerrijan ezpatia, ezbada Jaungoikuak emonda dauke eskubidia juezak, gaiski egiten dabena kastigetako, liburu sagradubetan sarri irakurten dan legez.

Alan Jaungoikuaren aginduba da, kristinaubak, bai Testamentu Zaarrrijan ta bai ebanjelijoko irakatsi santuban, juezak ondrau biar dituguna, amau biar dituguna ta euren errijaren onerako agindubak egin biar dituguna. Arima guztiak, dino Apostolubak, gizon eta emakume guztiak egon biar dabee altsu nausijen agindupian. Alizate guzia dator, bida, Jaungoikuaganik. Alan agintarijari gogortutenean jakona, Jaungoikuaren ordeniari gogortutenean jakoa, dino san Paulok berak. Ta esaten deutsa Timoteo bere diszipulbari, errege jaunak ta juezak edo egintarijak gaiti erregubak ta orazinoiak egiteko Jaungoikuari. Ez dago gauza jakinagorik, neure entzula onak, kristinauben legian, munduko agintarijai zor deutsegun lotsia, leijaltasuna ta obeidutia baino.

Oneen ondorik dira nausijaguak, zeintzuk ondrau biar ditugun Jaungoikuaren izenian. Bada, Jaungoikuak berak esaten deutsku, ondrau daiguzala persona zaarrak ta lagi gaitezala buru urdinaren aurrian. Onegaz aituten emoten deutsku, edadiari euki biar deutsagula lotsia. Ta



aparteko modubagaz ondrau biar ditugula geu baino nausijago dirianak, edo geuri aginduteko edo zaintuteko eskubidua daukeenak, zeintzuk oi dirian geure erakuslak edo maisubak, geure jaolaak edo kuradoriak, geure gurasuen gurasuak edo guraso ordekuak ta zaarraguak. Oneek guztiok sartutenean dira laugarren Jaungoikuaren aginduban.

Ezautu daigun bada, kristinaubak, agindu onen kontuba artuko deutskula Jaungoikuak, besteena legez. Jaungoikuaren beraren lekuban dagozala eleisa gizon guztiak, geure salbazinoeko lanetan biarra egiteko. Ta baita errege jaunak ta juezak bere, geuri munduban bitzi izaten lagunduteko. Ta guztiak ondrau biar ditugula Jaungoikuaren izenian, ta guztiak obeidu biar deutseegula, esan dan moduban. Erregutu daijogun, bada, zerubari guztiak gaiti, emon daigun bere grazia ja betiko gloria. Amen.

## IV. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*ugazaabak otsegina zor deutseena, ta otseginak ugaza-  
 bai zor deutseena.*

Tratu baten bitarte ugazabaak ta otseginak euren burubai ezarten deutseez, neure entzula onak, leenago ez eukeezan eginbiarrak. Ugazaba batek otsegina etxera artutenean, zeregin barrijak ezarten deutsaz bere burubari. Ta otsegina bat ugazaba serbidutera doianian, sartutenean ugazabaren agindupian. Ta ara emen zelan, gurasuak umiai zor deutsezan legez eginbiar batzuk ta umiak gurasuak beste batzuk, ugazabaak bere daukeezan aparteko eginbiarrak otseginen onerako; ta otseginak ugazaben onerako.

Zeregin oneek izentetan ditu san Paulo apostolubak, bai otsegina edo krijadu krijadenak, ta bai ugazaba edo jaunenak. Ta dino Apostolu santubak: *Otsegina zarianak edo krijadu edo krijada, obeidu egijeezu zeuben aragizko ugazaba edo jaunai bildurragaz ta ikariagaz, bijotzeko humildade ta zintzotasunian, Jesukristori berari legez. Ez ainbeste euren ederra gaiti ta eurak ikusi zagijezan areen esanak eginagaz, ezbada Jesukristoren kri[j]adubak legez. Jaungoikuaren borondatia gogoz ta bijotzeti eginagaz.* Nai otseginak ta nai bestelakuak jakin biar dau, baina, ondo eginaren sarija artuko dabela Jaungoikuaren eskubetati. Ta zuek ugazabaak edo jaunak otseginak daukazuzanok, beste ainbeste egin eurai, zamaijak parkatuta edo zamaika beti jardun bagarik, gogoratubagaz zeruban daguala zeuben otsegineen Jaungoikua, guztien ugazaba, inor bere munduban andija edo txiki ja dala, goguan geijago sartutenean ez jakona. Espiritu Santubak san Paulo apostolubaren aotia esandako berba oneetan agiri da, kristinaubak, argiro otseginak zer zor deutseen euren ugazabai, ta ugazabak zer zor deutseen euren otseginai. Alkarri dautseez bitzueen eginbiarrak. Ta entzun egizuz gogo onagaz zeintzuk dirian.

### I.

Laugarren aginduba gordeetako, otseginak edo krijadu krijadaak: 1. Amau biar ditubee ta estimau biar ditubee euren ugazabaak bijotz onagaz, humildadiagaz ta lotsiagaz Jaungoikuaren lekuban dagozalako. Otsegin



izatia edo ez izatia noberaren eskuban dago. Bainan bein otseginzara juan ezkerro, ugazabari lotsa ona, humildade ta maitetasun egijazkua erakustia, Jaungoikuaren aginduba da. 2. Otseginak obeidu biar deutsee ugazabai: Bateti, etxiaren onerako biarreetan ta agindubeetan. Bada, ugazabaren esanak egiteko ta etxial serbiduteko duaz otseginzara. Bestetia, obeidu biar deutsee ugazabai, euren arimeen onerako errazoez aginduten deutseezan gauzeetan. Dotiria ikastia, sakramentu santubak errezipidutia, sermoetara ta eleisako zeregin santubeetara juatia, erosarioj Santuba errezeetia, ta beste eureen arimeen onerako dirian ta erreztzo egin al dagijeezan gauzaak ugazabak agindu ezkerro, egin biar ditubee otseginak. Beste ainbeste, pekatutti alderatuteko aginduten deutseenian. Edo joko gaistorik ez egiteko, edo maldizinoerik ez esateko, edo gabian etxetia ez urteteko, edo pekatuzko dantzeetara, adiskide deungetara eta etxe sospetxakuetara ez juateko, edo jantzi indezentziak ez erabilteko, nai beste pekatu edo pekatuko peligruba dan gauzia ugazabak agindu ezkerro, egin biar dau otseginak. Ta esan biar dau konpesinoian, beste pekatuben gainera, ugazabaren agindubaren kontra egin ebana onako edo alako gauza. 3. Otseginak begiratu biar deutsee ardura andijagaz ugazabaren gauzai, endamas bere kontura ugazabak itxi ditubanai. Onen kontra otseginak egiten dabee pekatu: Leleengo: jagokuen beste biar egin ezagaz. Bigarrenian: eureen paltaz ugazabaren gauzaak galdubagaz. Irugarrenian: biar dabeen baino geijago kastaubagaz, nai gulerijeetan, nai isilikako asmueta, nai euren kontura dagozan etxeko gauzeetan. Laugarrenian: Ugazabeen naija bagarik, etxeko gauzaak inori emonagaz. Bostgarrenian: Etxeko gauzaak ostubagaz. Ta erabatera asko izan ez arren, lapurreta txikijak alkarri badautsaz, egiten dabee pekatu andija, gauza andira eldutene danian. Alperrik da esatia, soldata txikiak emoten deutseela. Andijagua eskatu baino ez dauka. Edo andijagua emoten deutseen lekura juan. Bost jazo oneetan, esan dan moduban, otseginak kalte andija egiten badeutsa ugazabari, biurtu biar deutsa atzera kendu edo galdu deutsan beste. Bada, ugazabak, tratuba egin eban legez soldatia ta janarija emon ezkerro, geijago zor ez deutsa. Ta andi gainera otseginak bere erruz galdu eragiten deutsana, oostuba legez da. Ta jaubiari biurtu biar jakona da.

Oneek dira, kristinaubak, otseginen zeregin nausijak euren ugazaben ondrarako ta onerarako. Onezaz ostian otseginak estimau ta maite izan biar dabee etxial jentia, guztiak pameliak batekuak dirian legez. Euren ontasunari jagoka, etxian jazoten dirian paltaak, deskuiduak ta isilgauzaak, laatzak ezkutau biar ditubanak, kanpuan ez esatia ta ugazaben ondra ona ta kleitu ona gordetia. Bada, guztiak gorroto deutsen gauzia da,

otsegin baten auan ugazaben paltaak, jenijuak, deskuiduak, asarriak ta etxeko pameliaren arteko kasik popuertzako argaltasunak ta geurezko miseriajak ibiltia. Otsegin humildiak, zinzuak, isilak, esan onekuak, Jaungoikozkuak eta biarginak dira zerubak eta mundubak estimetan ditubanak. Ta duda bagarik Jaungoikuak emongo deutsee otsegintza onaren saria euren erijotzako orduban. Baita ugazabai bere, otseginai beste ainbeste egiten badeutsee, Jaungoikuak aginduten deutsen legez. Ikusi dai-gun, bada, ugazabaak otseginai zer zor deutsen.

## II.

Ugazaba edo jaun dirian guztiak gogoratu biar dabee, leleengo, ez daguala Jaungoikuaren aurrian ya erabagirik, andija edo txikiak dalako, aberatsa edo pobria dalako, jasua edo bajukua dalako, jikituna edo ez jakina dala-ko. Ezbada jentila ta judeguba, zirkunzidauba ta ainbagakua, barbarua ta eszitia, krijaduba ta ugazaba, nai dan sortuera edo bitzierakua, guztiak diriala Jaungoikuarenak, ta onak izan ezkerro, guztieta daguala Kristo gure Jauna. Gomuta onegaz aisaatu daikeez munduko jaunak, aberatsak ta ugazabaak euren burubetan banidadiak sortu oi dituban keiak, eritxi arruak ta andiari irago gaistokuak. Bada, Jaungoikuak, guztiak Jaun baka-trrak, Ugazaba bakarrak ta Aita onak, geijago gura deutsa pobre zintzuari, aberats arruari baino. Geijago krijadu lejal ta zuzenari, ugazaba aisaatubarri ta bijotz gogorrekuari baino. Guztiok gara Jaungoikuaren krijadubak. Ta ojala bagina zintzuak! San Paulo apostolubak bere ondrarik andijentzat kontetan eban Jesukristoren krijadu izatia. Ta zeinbat ugazaba ta jaun biurtu dira krijadu izatera? Zeinbat krijadu pobre eldu dira ugazaba ta Jaun andi izatera? Ah! Murmurau begi mundu gaistuak onako jazo askoren gainian. Bainak dira Jaungoiko altsubak bere jakiturria amai baga-kuan ondo neurtuta daukazan egitadiak. Eurak dira geure begijen bistati kendu biar ez ditugunak. Ta endamas, edo eukijagaz, edo entzutiagaz, edo jakiturriagaz, edo agindutiagaz, edo inoren mesediagaz beste jentiarren artetik goraago igon dabeenak. Oneek ezautu biar dabee, beerago itxi ditubeenak bere, Jaungoikuarenak diriala. Ta eurak jaso ditubanak areek bere jaso eukezala, gura izan baleu. Ta munduban itxi baditu luurraren urraago krijadu krijadaak ugazaben agindupian, zeruban goraago jasoteko itxi ditubala menturaz.

Prestaera onegaz esaten jakue ugazabai:

1. Amau ta estimau biar ditubela euren otseginak bijotzeti, euren umiak balira legez.



2. Otseginak ez badakijee doktrinia ondo, erakutsi biar deutsee ugazabaak, edo nok erakutsi imini, edo ikasteko bidia emon batetik edo bestetik. Bada, ugazaben kontura dagoz otseginak, ta ugazabaak Jaungoikuari kontu emon biarko deutsee eurak gaiti.

3. Otseginai emon biar deutsee ugazabaak denporia, etxeko laneen eta eginbiar oi dirianen kalte bagarik, sakramentu santubak errezipiduteko, Eleisako zereginetara juateko ta kristinu egiazgo baten bitzi moduba iragoteko. Bada, bere arimiaren kaltian ez dua inor bere otsegintzara, ta juan bere biar ez dau.

4. Eragotzi biar deutsaz ugazabak otseginari pekatu dirian gauzak. Pekatuzko esanak edo eginak, pekatuzko ekandubak, egotiar, ibiltiak, etxiak eta lagunak, guraso batek umiari legez. Bada, ugazabak neurrija iminita, kontu artutenez badeutsa otseginari onako Jaungoikuaren ondrakoa ta bere arimiaren onerako egin biarretan, bestek ez deutsa artuko. Ta geratuko da otsegina ezi bagakua, kristinutasun bagakua, lotsa on bagakua ta Jaungoikuaren bildur bagakua. Ta au guztia izango da ugazabaren erruba.

Bakit ugazaba askok esango dabeena: Lastima andijan! *Otsegunai esija iminten asi ezkerro, edo euren ibiltiak galarako ezkerro, arekin bakerik ezin legijala; biarrik egin gura ez dabeela; edo etxeti urtetan dabeela; Jaungoikoeko otsegia bat topan ezin legijala...* Atxekija oneek ez dabe balio Jaungoikuaren aurrian. Ugazabaak badira Jaungoikozkuak, topauko ditubee otseginak Jaungoikozkuak. Bainan moduban dala, ugazaben eginbiarra da, otseginak etxian daukezan artian, onei kontu egitia ta Jaungoikuaren kontrako gauzaak eragoztia. Etxeko pamelijaren arduria ez daukan, dino Apostolu santubak, jentila baino deungaago dala. Ta ze pamelijaren arduera dauka, otseginari nai dabean nasaitasun ta ibilera pekatuzkuak, gabazta egunaz, etxian ta kanpuan, biarra egin dagijan, parkatutenean deutsazan ugazabak? Biar madarikatuba da alakua. Ta jentilla baino oba ez dana alako ugazaba.

5. Ugazabak emon biar deutsa otseginari etxiak dakarren janarija, gosez euki bagarik. Jan urrija ta gosezko maija daguan etxian, otseginak urterik baino lapurreta geijago egindo dau.

6. Ez deutsa ugazabak otseginari, edadiak, opizijuak ta errazoe onak agindutenean dabean baino biar geijago eragin biar. Ez ditu ugazabak otseginak biar alperrerijarako, leen esan dan legez. Bainan, ezda gau ta egun etenaz, arrastaka, bitsa darrijuela, biarrian beti erabilteko bere. Bagoz ugazaba batzuk otsegineen biarragaz inos aspertutenez dirianak. Ze gauza andi da, bada, alako ugazabaak inos krijuadu edo krijada on bat ez eukitia? Beti

ituaz biarpian? Beti ugazabak otseginaren biarrari gitxi deritxola? Nai leuke otsegin Jaungoikozkuak etxian eukitia? Ta oni ezarten bajako gosia, orduban izango da etxe ondrauba otsegin zintzuak ta Jaungoikozkuak topeetako. Oh zeinbat ugazaba zeken ta kodizioso dagozan, otseginari zanetako odola bere txupauko leuskijuenak, al balegijee! Ez dira otseginak sobraubak. Ez dira edosijak. Kristinaubak dira. Geure anaiak dira. Geu edu Jesukristori kosta jakozanak dira. Ze pozgarri emoten deutsee, bada, alako ugazabaak euren otseginai, biar geijago eragin dagijuen? Konzienzijako libertadia. Biarra egin ezkero eureen gustora, atiak zabalik daukeez alako etxeetan otseginak gabaz (nai egunaz, jaijegun santuba bia-rrrik ezin legijana izan ezkero) bigiretarra, joko gaistuetara, erromedija ta piesta pekatuzkuetara, etxe edo lagun sospetxakuetara, edo jakiniko pekatuzkuetara juateko. Oh penagarria! Zurtu, zurtu ugazabaak. Zeuben umiak ez badira bere, zeuben umien lekuban artu dituzunak dira. Zeuben umiak balira legez, Jaungoikuari kontu emon biarko deutsazuzanak dira.

7. Ez jako otseginari biar eragotzikorik eragin biar domeeka ta jai osuetan. Noberak egitia legez da otseginari eragitia. Zeinbat otseginek jai santubak iragoten ditubee euren erropaak adabetan, astegun baten puntada bat eurentzat egiten istean ez deutseelako! Ugazabak zor deutsa otseginari, beste gauzarik tratuban irago ez beebeen. Otseginzako errazoiak au eskatutenean dau.

8. Erabagita dauken soldatia emon biar deutsee otseginai zuzen. Azkenian, aparteko errazoiak ez daukeela, ez ditubee otseginak etxetia atera biar, urtia edo denpora izentauba eldu artian, otseginak kleituban kalterik euki ez dagijen. Oneek dira, kristinaubak, ugazaben egin biar nausijak euren otseginen gainian. Oni darraiko otseginari berba deungarik ez esatia, exenplu deungarik ez emotia, inoren gauziari, gitxijan izan arren, oratuteko ta etxera ekarteko ez agindutia, arpegiera astunik edo gorrotokorik ez erakustia. Maite izatia, karinoz ta berba bigunakin biarra eragitia, ta beste guraso on batibere umentzako jagokan guztia.

Txito gauza txaarra da, otseginak gaiti leen esan dan legez, ugazabaak euren otseginen paltaak ta deskuidua azaldeetia. Bagoz ugazaba batzuk, inos otsegin txaarrik izan ez dabeenak. Ta zegaiti? Euren kristinutasunagaz, bijotz bigunagaz, ordu oneko esan lotsa onekuagaz, pazienzijagaz ta otseginen arimako, osasuneko ta gorputzeko ardura ona ta presta artubagaz, begiratutenean deutsazan otseginai. Otseginak ain onak izan ez arren lelenguan, dakutseenian aita on bat edo ama on bat ugazabaren lekuban, artutenean dabee gogo barrija, etxiari ta etxeko gauza guztia ondo begiratuteko, euren ugazaba ona ta ondraduba maite izateko ta esti-



meetako, guraso on bat balitz legez. Beste batzuk inos bere ez oi dabee otsegin onik. Ta zegaiti? Esanda geratu da zati bat. Onen ondorik ez gitxien dana, ugazabaak euren otseginen paltaak zabaldutia, ekandu gal-duba da. Ez dabee otseginak biar euren ondria ta kleituba? Ez dabee munduban bitzi biar? Zeuben umen paltaak alan azaldeetan dituzu? Bada, otseginak bere Jaungoikuarenak dira ta zor jakue ondra ona. Palta bagakorik inor bere ez dago. Ugazabari jagokana da, otseginaren paltaak ale-ginaz erremediejetia. Ondo esanagaz, pazienzijagaz, lotsa onagaz ta itza-lagaz, ta askotan zurria emonagaz otsegina okerra ta gaistua bada, esku-ratu ta ondu biar dau ugazabak, inundi al badai. Palta andijk bidaukaz otseginak, lotsa gaistokua bada, obeidu gura ez badeutsa ugazabari ta zuzendu ezin badau, denporia dabenian etxeti atera, edo leenago, premi-niak eskatuten badau. Bainaz ez otseginaren paltaak zabaldo. Au karida-diaren kontra beti da. Ta askotan zuzentasunaren kontra bere bai.

Ez bada aaztu, neure entzula onak, laugarren aginduko eginkizune-kin. Gurasuak amau begijeez seme alabaak Jaungoikuaren izenian ta aziko ditubee zerurako. Umiai erakutsi bekijee txikitati Jaungoikuaren dotrinia, pekatubaren bildurra ta zeruko ondasunen gurarija, ta eurak izango dira ume onak, zintzuak, Jaungoikozkuak ta esanekuak. Sacerdote jaunetan gogoratu daigun Jesukristo geure Jauna bera, zeinen krijaduurrekuak dirian sazerdote guztiak. Orduban amauko ditugu ta ondrako ditugu sazerdote guztiak, bakotxa bere lekuban, Aita Santu Errromakua, obispo jaunak, kura jaunak ta beste guztiak. Errege jaunai ta juezai begiratu dai-jeegun geure ongila andijk legez, eurak zaintutene dabeelako geure errei-nuko, errijeetako ta etxeetako bake ona ta eukijaren zuzentasuna. Orduban eskerrak emongo deutseeguz, lelengo Jaungoiko onari ta gero geure agintarija. Ontzat artuko ditugu euren agindubak, ta kobru emon-go deutseegu gogo onagaz. Ugazabaak sinistu begijee, umen lekuban dau-keezala otseginak; ta eurak estimauko ditubee, maitetuko ditubee ta begi-ratuko deutsee otseginai arimako ta gorputzeko premineetan, eureenak balira legez. Ta orduban eukiko ditubee aukerako otseginak ta guztiak gordeko dabee laugarren aginduba.

Eskatu dejogun grazija andi au Ama Birjina guztiz santiari. Bera da Jaungoikuaren Ama, sazerdote guzti Ama, errege ta agintari guzti Ama, guraso ta ume guzti Ama, ugazaba ta otsegin guzti Ama. Izan zaitez zeu, Ama errukiorra, Jesus zeure seme maitiaren aurrian geure bitarteko seguruba, jaditxi daigun mesede santa au, ta onegaz zeure gra-zija ta zeruko gloria. Amen.

## BOSTGARREN AGINDUBA



## I. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*zelan aitu biar dan inor ez illtia.*  
*Nos ez dan pekatu inor illtia.*  
*Ta ze pekatu andija dan inor illtia.*

### I.

Bostgarren lekuban aginduten deutsku, neure kristinaubak, Jaungoikuak inor ez illteko. *Non occides*. Gauza bi Jaungoikuak eskatutene deutskuzala agindu onetan, dino Erromako Katezismuak: Bata da inor ez illtia. Ta bestia, arerijuak ta adiskidiak, proximo guztiak maite izatia, guztiakin bakia eukitia ta besten paltaak pazienzijagaz iragotia. Geure lagunak edo proximuak zelan maite izan biar ditugun; ta arerijuai gatzxegiak zelan ta zetaragino parkatu biar deutseguzan, esanda geratu da lelengo aginduban. Ta agindu onetan bakarrik esango da, inor ez illtari jagokana.

Agindu guztietan gogoratu biar dogu, kristinaubak, geure Jaungoikuaren ontasuna; ta bere biguntasunak geu gordeetako ta zaintuteko daukan arduria. Laugarren aginduban zaintu dau gurasuia ta nausijaguai euki biar deutsegun ondria, lotsa ona ta maitetasuna. Bada, eurak dira, Jaungoikuaren urengo, geure gizonaren ta kristinaubaren izatia emon deutskubeenak. Onen ondorik Jaungoiko onak ta mansuak zaintu ta gorde gura deutsee guztiak bitzitzia. Alan aginduten dau inor ez illteko. *Non occides*. Berba oneetan eragozten deutsku Jaungoikuak, ez bakarrik inor illtia, ezbada inori osasunian edo gorputzian kalte egitia bere bai. Alan, inor illtia, banatutia, odoldutia, beso bat edo azur bat austia, bere-nua edo gatxgarri bat emotia edo gaixotutia, guzia dago eragotzita bostgarren aginduban. Baita geijago bere. Bada, noberak inor illtia, bes-tiari inor illteko, banatuteko edo gorputzian kalte egiteko agindutia, lagundutia, konseju emotia, atarako botikakua, erramientia edo bidia emotia, guzia dago eragotzita agindu santu onetan. *Ez dozū ilgo*, dino Jaungoiko andijkak. Ez deutsazu inori kalterik egingo, ez bitzitzaa, ez osasunian, ez gorputzian, ez zeure eginagaz, ez inori egiten erakutsijagaz, ez agindubagaz, ez lagundubagaz, ta ezda ezetara bere. Jaungoikua bera da geure

bitzitziaaren ta erijotziaren, osasunaren ta gaixuaren, gorputzaren ta ari-miaren jaubia. Ta ez dau aren ontasun altubak gura, luurrekok inori gauza onetan ikutu dagijon, bere agindu santuba edo alizatia bagarik.

*Ez dozū inor ilgo* Jaungoikuak bere legian esanagaz batutene modu onian agindupe ometara munduko gizon ta emakume guztiak. Ez ganadubak eta pristijaak edo patarijak, Erromako Katezismuak san Agustinegaz dinuan legez, denpora bateko erejeen utsegitiak urrin baino urrinago alderatuteko. Bada, Jaungoikuak ez deutsku eragozten ganadu gauzaak illtia agindu onetan, ez bestetan bere, gauza bitzijak dirialako. Gizonak ta emakumiak dira agindu onetan sartutene dirianak, amaren sabelian sortutene dirianeti bitzi dirian arte guztian. Agindu onek artutene modu, bada, bere azpijan gizon ta emakume guztiak, bai kristinaubak, bai erejiak, bai turkubak, bai jentilak bai judegubak; ta baita geure burubak bere. Izan ezkerro gorputza ta arimia daukana, nai urrinezka ta nai urekua, nai adiskidia ta nai arerijuia, nai ona ta nai deungia ezin illginai inor, Jaungoikuak edo Jaungoikuaren ordekuak agindu bagarik. Ezda kalterik egin bere, leen esan dan moduban. Kanpo au guztiak artutene dau bostgarren agindu santubak, inor ez illteko esanagaz. Oh Jaungoiko guztiz ona ta mansua! Nok maite ez zaitu! Ta beti izango da pekatu inor illtia? Ez, kristinaubak, ta ikusi daigun nos ez dan pekatu.

### II.

Modu askotara jazo leiteke inor illtia, pekaturik egin bagarik. Leleengo: juezak aginduten dabentzian. Juezak Jaungoikuaren lekuban dagoz, leen esan dan legez. Jaungoikuak agindu deutsee juezai errjetako ta etxeetako jentiaren bitzitzak, aziendak ta bake ona zaintuteko. Jaungoikuak berak emon deutsee juezai eskubidia edo alizatia, gaistuak ta deungaak kastigetako, baita askotan illteko bere. Gizon bat edo emakume bat bada errijken okerra, lotsa galduak ta ezi bagakua, lagunai kalte egiten deutseena ta ez zamaijagaz, ez ondo esanagaz, ez beste kastigugaz eskura ta agindupera etorri gura ez dabena, bida guztien kaltegina, dino santo Tomasek alako gizon edo emakumia gaiti, popuertzakua dala ta ondo dala, alakua illtia. Osalarri batek edo mediku batek gorputzeko zati igartu edo usteldu bategaz egiten dabena egiten dau juezak alako gizon edo emakume deungiagaz. Gorputzaren zati guztiak dira onak ta biarrekuak, gauza badira, gorputzari lagunduteko bere biarretan. Baino gorputzaren zatija bida igarra edo ustela, bere lekuban egon gura ez dabena ta



gorputzari lagundu biarrian kalte egiten deutsana, ebagi ta kendu egiten jako gorputzari alako zati galdua.

Beste ainbeste egiten dau ta egin biar dau juezak gizon ta emakume deungaakin. Besteet kaltian diriana ezautu ezkero, kendu biar ditu, ill biar ditu deungaak, legiak aginduten dabent moduban. Alan urkatuteneira dira ta illten dira gizon eta emakume deungaak, juezak aginduta, pekaturik egin bagarik. Bigarrenian: esan dan errazoa gaiti, juezaren igesi erririk erri edo mendirik mendi dabilen gaiskina, juezaren agindubagaz illtia ez da pekatu. Askotan jazo oi da, juezak sarija agindutia onako edo alako gizon edo emakume igesi dabilen deunga bat, bitzirik edo ilda eruaten deutsanari. Ordubar, justizijaren aguazilak edo agindukaak bitzirik artu ezinda, artu guraan illten badabee gaiskina, ez da esaten pekatu egiten dabeela. Bainan inundi bitzirik gorde al badagije, gaiskin andija izan arren, ez dabee eurak ill biar, ezbada artuta juezari eruau.

Irugarrenian: Gerra zuzenian soldaubak arerijuak illtia ez da pekatu. Ez arerijuuen ondasunen gurari gaistuagaz, ez gerrako eginbiar edo ordenantatik kanpora, ezbada errege edo agintari jaunari obeidutia gaiti, ta erreinu guztiko ona gaiti. Errege jaunak edo erreinubak aginduteneira dabenten gerria egiteko, soldaubak obeidu biar deutsee agintarijari. Gizonak ill bagarik gerrak ezin legi. Bada, ordubar gizonak illtia da errege jaunari obeidutia ta erreinu guztia serbidutia. Soldaubak Juan jakozanian san Juan Bautistari itandutera, ia zer egingo ebeen, ez eutseen esan san Juan Bautistak gerrak ez egiteko, armaak isteekoa ta geldi egoteko, ezbada bide bagarik, ordena bagarik ta errazoe bagarik gerraan inor ez zauritu ta ez banatuteko; inori guzurrezko paltsakerijarik ez ezarteko; ta eurai jatorken aloberagaz edo sarijagaz kontentu izateko. Legezko gerria Jaungoikuak ontzat emoten dabena da. Bainan gerriaren eztalgijagaz egiten dira pekatu asko, Jaungoikuaren agindu santuben kontra. Ta pekaturak ez ditu Jaungoikuak ontzat emongo. Ezin ukatu ginai, gerria dala Jaungoikuak erreinu ta errijeetako pekaturak kastigetako bialduteneira deutsku azote gogorra. Ikara egiten dabee oraindino geure bijotzak, leengo eguneetako geure gerra odoltsubak gogoratuta. Ojala obatu balitubee geure ekandubak! Ojala bigundu balebee geure Jaungoiko zuzenaren asarría!

Laugarrenian: Jaungoikuaren agindubagaz inor edo norbera illtia ez da pekatu. Alan ill zan Sanson. Alan ill zituban Phineek Zanbri ta onegaz pekaturan eguna Madiango alabia. Alan ill zituban Eliasek Isrraelgo proteta paltsuak. Jaungoikuaren legez gere bitzitzean jaubia, Jaungoikuaren agindubagaz inor edo norbera illten danian, ez da austen Jaungoikuaren legia.

Bostgarrenian: deskuidean inor edo norbera illtia ez da pekatu, ustez uste bagarik ta naijaz bestera danian. Nairik ez daguan lekuban, pekaturik ez dago. Bada, ezaubera bagarik, gatznai bagarik, deskuido baten geijago-ko bagarik gizona illtia ez da esaten pekatu dala. Orraitino bere, dino Errromako Katezismuak, deskuidezko erijotzeta modu bitara pekatu egin legijala. Bata da, inor illteko arriskuko gauza txaarra egiten dabela, inor illten dabenten. Ordubar, inor illtia gura izan ez arren, nai dau inor illteko peligruko egitia ta andi dator inor illtia. Bada, ezarten jako erijotziaren erruba. Joko baleu batek, dino Katezismuak berak, emakume sein-dun bat ostikuagaz edo ukabilagaz ta galduko baleutsa sabelian daukan seina, joten dabenten borondatiaz edo naijaz kontra izango litzateke seina galdua. Bainan egingo leuke pekatu, seina egiteko daguan emakumia ezetara bere jo biar ez dabelako. Bestia da, naijaren kontra izan arren, inor deskuidean illtia, biar dan ardura guztia imini ez dabelako jazo atan. Deskuidean izan arren bere, ustez uste bagarik izan arren bere, bere ardua bagatasunez ta osoro begiratu ezaz egin badau erijotzia, pekatu da.

Seigarrenian: Norbera ez illtia gaiti. Ez dago ezer bere mundurako bitzitzia baino gauza estimaubagorik. Beste edozein gatz iragotera, leenago etorten dira gizonak illteria baino, juizijo onian dagozanian. Eskubak eta oinak ebagita, gorputza moztuta baino ez bida bere, bitzi gura dau gizonak. Buruko arinak edo etsaijaren tentazinoiak ekarri legi bat bere buruba itotera edo illteria. Askok esan oi dabee, arrabioz su artuta: *Illda balegoz, itota balegoz*. Bainan illteko orduba eldu dakijuenian, bitzi gura oi dabee areek bere. Jaungoikuaren amodijo santubak ixiota dagozaneen batzuk, Elias batek, san Paulo batek, beste onetarikuak Jaungoiko gozua zeruban laster ikustia gaiti, benetan illtia desiau dabee lege onian ta errazoez. Bitzitzia da berez luurreko gauzarik estimaubena. Ta illtia da inori munduban egin ginaijon kalterik andijena.

Karidade egijazkua asten da, bada, norberaganik. Edozein premina edo biar ordutan, nai arimakuan ta nai gorputzku, bijen premina ordubak bardinak izan ezkero, leenago da norberari begiratutia proximuan baino. Alan, izan arren inor illtia berez pekatu andija, badator deunga bat neu illteria librau ezin badot neure bitzitzia aren esku gaistuetati bera illda baino, ez da pekatu a illtia. Esaten da: librau ezin badau bere bitzitzia. Bada, ezetara librau al batedi alako arerijo gaistoaganik norbera bitzirik, ez dau ill biar. Orregaitz[il] aitu biar da dotrina au ardura andijagaz. Sarritan jazoteneira dana da. Geijagotan jazo leitekiana da. Iges eginda alde-ratut al batedi arerijuaganik, ez dau ill biar. Lagunai otseginda, diadar eginda librau al batedi, ez dau ill biar, nor bera illteria datorrena zuzen jakin



arren. Kolpe batzuk emonda apartau al badedi arerijuaganik, ez dau ill biar. Enpin, norbera ill edo arerijo illtera datorrena ill baino beste urteearrik inundi bere ez daguanian esaten da, bere bitzitzia zaintutia gaiti, a kendu gura deutsan arerijuua illtia ez dala pekatu.

Egija da, orduban bere, alan norbera illtera datorrenaren estadu tristia ezaututa a illten badau, betiko inpernura botaten dabena gogoratuta, bitzirik geratuta menturaz erremedijau dedin itxiko baleutsa arerijuari norbera illten bera ill bagarik, egingo leuke Jaungoikuaren aurrian karida-de andi bat. Emongo leuke bere bitzitzia proximuaren arimia gaiti. Ta duda bagarik Jaungoikuak sari andija prestauko leuskijo zeruban. Onetarako, alan norbera illten bere arerijuari isteeko, norberak egon biar dau, bere ustez, Jaungoikuaren grazijaan. Bada, bijak badagoz pekatu mortalian, ez dau ondo egingo arerijuari bera illten istia, dino santo Tomasek.

### III.

Esan dirian sei jazueta, erakutsi dan moduban, inor illtia odijo bagarik, gorroto bagarik, kondenetako ta geijago benetako opa txaar bagarik, ez da pekatu, kristinaubak. Onezaz ostian, beste inori edo norberari bitzi[t]zaan edo gorputzian kalte egitia, eragotzita dago bostgarren agindu santuban. Guztioi gorde ta zaintu deutsku Jaungoikuak geure bitzitzia. Aintxinako jentil askoren utsegitiak erbestetuta, aberatsai ta pobriai, zaarrai ta gaztai, gurasuai ta umiai, guztiai lege estu bategaz gorde deutsku zerubak geure bitzitzia estimauba. Bainan zelan? Txito lege estubagaz ta gogorragaz. Gizona illtia da proximuaren kontra egiten dan pekaturik andijena. Au gaiti dauka lege on guztieta, inor ill dabenak, ill biarra. Bitzitziaren trukian, bitzitzia; begijaren trukian, begija; aginaren trukian, agina; eskubaren trukian, eskuba; ta oinaren trukian, oina, dino Jaungoikuak. Esateko moduban: Ill dozu inor? Zeu illagaz pagauko dozu aren zorra. Galdu deutsazu eskuba, oina, edo begija proximuri? Zeure eskubagaz, oinagaz edo begijagaz pagauko dozu aren zorra. Gizon illzailia zan Kain desbenturauba. Ta zer dino bera gaiti Eskritura Sagradubak? *Zure anaiaren odolarene dejak diadar egiten deust luurreti*, esan eutsan Jaungoikuak Kaini, Abel bere anae errubagia ill ebanian. Abel ill zan. Aren odola luurrak txupau eban ta liortu zan. Bainan diadar egiten eban zeruragino odol illak. Kainen bengantzia eskatuten eban odol inozentziak Jaungoiko zuzenaren aurrian. Edo Kainen gizon illzako pekatu ikaraga-

rrija agertu zan Jaungoikuaren aurrian zeruban ta eskatu eutsan pekatu aren bengantzia. Ta zer esaten deutsa Jaungoikuak Kaini? *Madarikatuba zara emeti aurrera luurraren gainian, zeinek bere ana edegita artu eban zure eskubetati zeure anaiaren odola*.

Aitu, kristinaubak, ze berba itzalsubak ta bildurgarrijak dirian oneek Jaungoiko bitzijaren auan. Aitu, ze gorroto andija deutsan Jaungoikuak gizon illtia. Ta zer jazo jakon Kain anae illzailari berari? Desesperau egin eban lelengo bere burubagaz. Enbidijk, kodizijk ta inoren ikusi ezi-nak ill eragin eutsan Kaini Abel bere anae errubagia. Ill eban. Bainan bertati sartu jakon bitziro bere buruban Kaini pekatu ezainaren karga astuna. Ezin jaso eban. Ikara eragiten eutsan bere bijotzian, bere belaunetan ta gorputz guztian gizon bitzija illak. Sinstu eban, zeruba ta lurra diadar-ka eukazana bere kontra. Astundu ta mindu jakon bere bitzitzia, inorena galdu ebalako, ta itxi baten esan eutsan Jaungoikuari: *Andijagna da nire pekatuba, parkatutia merezidu daben baino*. Oh Kainen bijotz tristia, larria, jausia, illuna ta astunia! Oh gizon illte desbenturauba! Ze sail txaarrak dakazuzan zeugaz. Kain lelengo gizon illzaillia, zeruba ta luurra, bere konzienzia ta bere bitzitzia, guztiak bere kontra ditubala, marka bategaz dabil bazarrik baztar *vagus et profugus* guztien igesi. Bainan ez da libreetan illteti. Ezda inpernuti bere.

Ara, kristinaubak, gizon illtia sail bildurgarrijak lelengo gizon illzailaren buruban. Gizona illten dabenak, birrinduten dau Jaungoikuaren obra andija. Jaungoikuak ekarri gaitu gizon ta emakume guztiok mundura, berak gura daben artian munduban bera jaso, alabau, serbidu ta amau daigun. Onetarako emon deutsku bere izatiaren irudija. Zer egiten dau, boda, gizona edo emakumia illten dabenak? Birrindu Jaungoikuaren egin nausi bat. Galdu gizon bat edo emakume bat. Edo sortuta laster amaren sabelian, bitzi izaten ondo asi bagarik. Edo umetan, Jaungoiko bere egilia ezaututen asten danian. Edo azita, Jaungoikua, proximuak, errija ta etxia serbidu biar ditubanian. Edo zaartuta, bere egineen prutuba batuta, zeru-bari bere bitzitzia ta arimia emoteko prestectan daguanian. Orduban gizon illzailiak kutxilo bategaz ebaten deutsa bitzitziaren arija, bialduteneau arimia beste mundura ta gorputza ar artera. Galdu deutsaz, Jaungoikuari emon biar eutsan ondria ta beste egingo zitukian biar on guztiak. Ta esku artuten deutsa Jaungoikuari, Jaungoikuak berak ill biar eukian gizona illagaz.

Ikara egin daigun, kristinaubak, gizon illtia gogoratuta beste bagarik. Eskatu daijogun Jaungoikuari, emon daigula espiritu mantsua, espiritu biguna, iraun andiko gogua ta bijotza, geure arerijuuen prestuezkerijak ta



azalkerija mingarrijak kariadade santia galdu bagarik iragoteko. Eskatu dai-jogun, amatau dagijala gere bijotzetan gorrotuaren, odijuaren, enbidijaren, kodizijaren ta bengantziaren su madarikatuba, gorde daigun beti geure arimetan Jesusen mansotasuna ta grazija, zeinegaz jaditxiko dogun zeruko gloria. Amen.

## II. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*ez dala inor ill biar ondria zaintutia gaiti,  
 ondasunak gordeetia gaiti.*

Kristinaubak garian legez txito minberak ta geure gauzak asko maite ditugunak, inok gatx bat egin daiguneko jagiten da geure bijotzetan aren kontra suba, gorrotua ta benetako gurarija. Onako gorrotuaren subak amatetako ta geure lagunen paltaak pazienzijagaz iragoteko, aginduten deutsku Jaungoikuak, neure entzula onak, bostgarren lekuban, inoren bitzitziai kalterik ez egiteko. Ta inor inos gorrotuak su emonda, azartu bada arerijua edo gatx egin gura deutsana illtera, pagau dau bere bijotz gogorraren ta odoltsabaren egite pekatukua, bai mundu onetan, oi danez, ta baita bestian bere. Kainen ondorenguak dira gizon illzailiak. Lamek, Kain bera ill ebana, askok dinuanez, ez zan atseenago bitzi muduban, gizon illzilia ta deungia izan arren ill ebana. Basuan bakarrik egin arren erijotzia, autortu eban Lamekek bere pekatuba. Bere arimako larrijagaz ta bildurragaz esan eutseen bere emaztiai: *Entzun egizu ta jakin egizu, neuk neure gorrotuagaz zauritu dodala ta ill dodala gizon bat. Zazpi bidar bengauba izango da Kainen pekatuba ta irurojeta amazapzi bidar niria.* Alan gizon illzaile desbenturaubak, itsututa legez, iminten ditu eureen pekatu odoltsabak.

Ez dago menturaz arima bat larriagorik, ikutsi oi danez, ta bijotz bat bildurgarriagorik gizona ill dabenaarena baino. Bere keiziak bere ikara eragiten deutsala, esan legi, gizon illziliari. Askotan, nai izan arren, iges egiteko modurik bere ez dauka. Pekatuba ezkuteetako bere ez. Alde egi-teko bere ez. Aldendu gura dabenian dua juezaren aurrera ta eskubetara sarritan gizon illzilia. Ezkutau gura dabenian bere pekatuba, berak agertutenean. Ta ukatu gura dabenian, autortutenean. Zegaiti au, kristinaubak? Ah! Gizona iltiak beragaz dakarrelako itzal astuna, buruko iluntasuna, bijotzeko ikaria, arimako larrija ta pekatu odoltsabaren pisu krubela. Amatau, kristinaubak, gorrotuaren suba. Igese egin, inor illteko asarre ta okasinoetati. Bada, ez da ezezagaz bere osatutenean munduban gizon illzako pekatuba. Geijagoko bagarik gizona ill biar ez dana guztia daki-je, ta agindu onetan argiro esanda dago. Bainan askok pensau legijee banidadia-ren uts egite bategaz, kalte andi bat egin deutsunari, edo ondraan, edo



aziendan, edo beste gauza balijkoren baten, opa izan legijola illtia. Edo menturaz ill bere egin legijala alako arerijo deungia.

## I.

Esaten da, bada, munduko ondria gaiti ezin inor ill legijala. Egija da, kristinau batek bere zuzentasunagaz ta bitzi modu zintzuagaz irabatzi daben ondria ta lagun arteko entzute ona, txito asko estimetan dau. Bitziziaren beraren urrengo dala esaten da. Bada, nai jatorrizkua ta nai norberak irabatzija, kleituba, ondria edo entzute ona galdu ezker, ez dauka kristinaubak munduban nok jaso andirik, zegaz poztu andirik, ez zer galdu andirik. Au gaiti da gauza guztiz mingarrija, erru bagarik guzurragaz ta enbusterijagaz inori ondria galdu. Entzute onak asko balijo deutsa kristinaubari. Ondria ez galdu gaiti, lotsaari baten ez jaustia gaiti, menturaz Jaungoikua gaiti baino geijago, zeinbat bidar pekatuko bideti alde egiten dabee kristinaubak? Munduba gaiti gauza ona egiten dabenak, edo mun[du]ba gaiti bakarrik gauza txarra egitiari isteen deutsanak, ez dauka saririk Jaungoikuaren aurrian. Baino dino santo Tomasek, munduba gaiti bada bere, gauza onak egitera ta txaarrak ez egitera oituten danak, ikasiko dabela Jaungoikua gaiti ta karidadia gaiti gauza onak egiten ta txaarrai isten. Ta onetarako bere, asko balijo deutsa kristinaubari ondra onak.

Ez eutskun alperrik esan Espíritu Santubak entzute onari edo kleitu onari begiratuteko, zaintuteko ta gordeetako. Bein kleituba galdu ezker kristinaubak pekatu egintza baten nai beste baten, berekautan legez, nasajago ta lotsa galdukuago egiten da, ikutsi oi danez. Batuten badau batek ordijaren, lapurrazen, desonestubaren edo nasaijaren entzute agirija ta azaldauba, botaten dau munduko esanaren arduria ta jarraitutene deutesee bizijo gaistuai lotsa bagarik. Oh ze bildur izan biar dogun lelengo pekatubaren! Oh ze maite izan biar daben, daukanak, bere entzute ona! Ta jazoten bada norbaitek galdu gura izatia geure ondra edo kleitu ona guzurragaz ta enbusterijagaz, ill ginai a geure ondria galdu ez daigun? Ez, kristinaubak. Gauza andija ta estimaua da geure ondria edo entzute ona, esan dan legez. Baino andijagua da gizonaren bitzitzia. Erru bagarik galduen deuskubenian geure kleituba, Jesus maitiaren bidiai jarraitutene deutesegu. Orduban Jaungoikuak bere kontura artutene dau geure kleituba. Ta duda bagarik zaintuko dau ta gordeko dau. Bere nai santuba bada, mundu onetan, egiña azaldauta. Ta ezbabere azita ta geitura beste munduban,

zeruban, bere izenian iragoten baditugu guzurrezko desondraak. Miñ gaistuak mundurako galdu leikegubee ondria. Baino ez Jaungoikuaren aurrerako. Jaungoikuaren aurrian agertuko gara guztiok, garian moduban. Au gaiti santu eta santak ostikopian erabilen mundubaren gaiski esan guztia.

Pekatu da bada, kristinaubak, munduko ondria, kleituba edo pamia gaiti inor illtia. Alan erakusten deutsku Eleisa Ama santiak. Ta ukatu ezin ginai. Kleitu galdua zerbaite jaso legi juezaren aurreti. Gizon illa biztu ezin legi. Kleituba, ona nai arin ona, mundubagaz amaitutene da. Gizonaren erijotzia mundubaren amaija ta betijaren asieria da. Ez da bardindutene gizonaren bitzitzia munduko gauzagaz. Ta ez da galdu biar munduko ondria gaiti. Ta galdu legi munduko ondasunak gaiti?

## II.

Egija esateko, ondasunak bere estimetan dira munduban. Ta jazo leiteke, ta sarritan jazo oi da, deunga batek guztiak edo zati batzuk etxetie edo daukazan lekuti eruan gura izatia. Penagarrija da, lapur batek gura dabelako, norberak bere izerdijagaz irabatzita daukazan dirubak edo ondasunak galdu. Ta jazo leiteke, ta bein barriz jazo da, ondasunak eruan ez dagijozan lapurra illtia.

Gizona illtiak itzal gaistua dakar beti beragaz. Bildurgarri andija da. Orregaiti kristinau guztiak goguan euki biar dabee gauza onetan Eleisa Ama santiaren erakutsi. Esaten da, bada: 1. Jazo oi danez, urrezko eskudo bat gaiti ez dala inor ill biar: 2. Gero eukiko ditugun, baina oraindino ez daukaguzan ondasunak gaiti, edo geuri jatorkuzana dakigun ta gero eukiteko ustia daukagun ondasunak gaiti ez dala inor ill biar: 3. Ez dala ill biar, noberari jagokan aziendia edo inok agindutako artutekua beretutia, engainuz ta erruz eragozten deutsana edo atzeratutene deutsana. Eleisa Ama santiaren eraku tsija da au, kristinaubak. Deungaak izan arren lapurrik, Jesukristo geure Jaunaren mansotasuna erakutsi biar dogu geure egitateetan. Zelan pekatuti librauko da, esaten eban san Agustinek, galdu biarko dabeen ondasunak gaiti gizonari bitzitzia kenduten deutsana? Esango baleu legez Santo gloriosuak: Gizonaren bitzitzia ondasunak baino geijago da. Ondasunak ugardunak dira, galduko dirianak dira. Lapurrik ondasunak eruan arren, Jaungoikuaren probidenzia edo arduria ez da palta. Baino gizonaren bitzitzia asko balijo dabena da. Ta ondasunak ez galdu gaiti lapurra illten dabenak, amaitutene dau gizonaren bitzitzia.



tzia. Ta ze arriskutan iminten dau aren arimia? Oi danez, pekatu mortalian dago lapurraren arimia. Bada, tiro bategaz edo kolpe bategaz illda isten badau, nora boteetan dau betiko aren arima tristia? Mundu guztiak baino geijago balijo dabena? Jesusen bitzitzagaz erosita daguana? Au gaiti esaten da Eleisiaren ordeneetan, *ondasunak gaiti inor illtia, erijotzia dala.*

Begiratu bada, neure entzula onak, ze errespetua ta lotsia euki biar deutsagun gizonaren bitzitzari. Ezin pensau legi, ikara egin bagarik, kristinu askoren bijotz gogorra. Edozein gauza gitxi bat gaiti edo kalte txiki bat gaiti esaten dabee: bereno bategaz illgo neuke; tiro bategaz illgo neuke; bertan oztuta itxiko neuke... Ta beste onako berba gorrototsbak ta odoltsubak gorrotxaren subagaz. Beste ainbeste bijotzeko gogortasun ta gordintasun erakusten dabee, gauza gitxi bat gaiti lagun artian kutxiluak ta ezpatak ateraten ditubeenak; ortubetara ta soluetara gizona ill leiken tiruak inori jaurtegiten deutsezanan. Nai dogu geure gauzak inok oostu ez daiguzan. Ta errazoa da. Gaiski egiten dau alan lapurretan dabilenak. Ta egija da. Baino ain gauza gitxija gaiti gizonaren bitzitzia illteko peligruban imini biar ez da.

Batian ondria gaiti, bestian ondasunak gaiti, bestian andiguria gaiti, bestian gorroto edo bengantzga gaisto bat gaiti, modu askotan paltetan da bostgarren agindu santubaren kontra. Ta ez da errazoei kanpora izango, neure entzula onak, sarrijen jazo oi dirian batzuk gogoratu. Alan bostgarren agindubaren kontra pekatu da: Lelengo: Amaren sabelian daguan seina galdueteko zerbait egitia. Nai amak ta nai bestek, nai edaautekuagaz ta nai osterantzian seina galdu gura izatia edo galdueteko zerbait egitia, pekatu andija da. Ta pena gogorrakin Eleisa Ama santiak kastigetan dabena da. Ez dauken ondra bat billatuteko ta euren pekatu ezainak ta lotsarizkuak ezkutetako, gizonak edo emakumiak itsutu oi ditu diabrubak azkeneko gatxera, zein dan sabelian erneta, azten daguan sein inozentia illtia edo itotia. Oh, sein galzaila! Zeuben tratu inpamiak estaldu gura dituzu errubagakuen bitzitzia galdubagaz ta areen arimak Jaungoiko gozuaren arpegiti betiko erbestetubagaz? Ah! Egunen batek agertuko ditu. Ez dakit, egija esateko, zelan gau baten bere sosiguz lo egin legijan gizon batek edo emakume batek, bere erruz ta bere guraz linbo ilunian betiko sartuta arima bat daukana dakijala! Ah! zure bengantzia eskatuten deutsa linboti Jaungoiko egijazkuari. Zeure arimia edu kostak jakon Jesus maitiari.

Bigarrenian: Pekatu egiten dabee emakume seindunak, sabelian daukeen seinari ainbat onduen kontu egiten ez deutseenian. Euren ardura bagatasunez seina galdueteko peligruban dabilznanian. Ya ez jagokuen karga astunakin, ya asarre arrabiaubakin, ya dantzeetako ibilteekin, sarri-

tan galdu oi ditubee scinak. Ah! zeinbat onetariko negargarri, lastima gorrijan, gurasuen paltaz. Lege guztiak deutsee aparteko kuidadua seina egiteko daguan emakumiari, bere sabelian daguan pratu inozentia gaiti. Ama gaistua ta deungia izan arren, ta urkia ondo merezidu arren, seina sabelian daukan artian, bitzitzia parkatutzen jakotz. Justizijaren eskubak lotuta daukaz, esateko moduban, sabelian daukan seina gaiti. Ta senarrak eraobiliko dau emazte katiguba ostikoka ta kolpeka, bildur geijago bagarik? Egitade oneek guztiok dira bostgarren agindubaren kontra ta merezi dabee kristinaubaren ardura guztia.

Irugarrenian: Agindu onen kontra pekatu egiten dabee, armaak artuta, bidera ta etxetara lapurretara duazanak. Bada, eurakin daroie peligruba, edo inor illteko, edo eurak illda geratuteko, sarritan jazo oi dan legez. Au gaiti alako lapurrik austen ditu agindu bi gitxienaz: bostgarrena ta zazpigarrena. Armia artuta esan dan moduban izan ez arren bere, ortura, solora, etxera edo bidera inori urtenda lapurretara doianak, sarri darua peligruba bertan illda geratuteko. Endamas denpora triste onetan lapurrik geitu ta lotsagaldukotu, ta gizon illtaren itzala ta bildurra gitxituta dakusgunian.

Laugarrenian: Makilakarijak ta okasinoetsubak austen dabee bostgarren aginduba. Ta errazoe asko gaiti: 1. Makilaketan ta okasinoietan alkar banatuteko ta askotan illteko peligruban jarten dirialako. 2. Burrukako ta makiladetako okasinoian egiten dabeena baino egin gura leukeena, geijago dalako. Gorrotxaren subagaz iragota, alkar illgo leukeen terzijuian dagoz peliada desditxadu atan. 3. Alako peliada galduetan geroko gorrotuak, bengetako naijak ta luzaroko ikusi ezinak ta eriaren zain egotik gejenian geratu oi dirialako. 4. Etxeko pamelijari emoten deutsezan ardura ta atsekaba andijk gaiti, errijan emoten ditubeen eskandalubak gaiti ta okasinoiak oi dakazan kalte txaarrak gaiti.

Alako gizon okasinoetsubak, bake gaistokuak, beti burrukarako edo makilakaroko prest dagozanak, ezin esan legi ze kaltegarrijak dirian etxian, auzuan ta errijan. Bakia gura dabeenak, ez dakijee euren aurrian zer esan edo zelan berba egin. Ondo esandako berba bat oratuta, ateraten dabee ezdabaidia. Oh ze lagun prestubezak, giza artian egoteko! Oh, zeinbat pekatu egin ta eragiten dabee! Etxia zorrez beteta, emaztia ta umiak biloxik ta gosez daukeezala, geratu bagarik dabilz alako gizon bake gitxikuak erijarik erija, probarik proba, tabernarik taberna ta okasinoerik okasinoe, leku guztietan atsekabia, zer esana, eskandaluba ta gorrotua istean dabeela.



Bostgarrenian: Pekatu egiten dabee agindu onen kontra, gurasuai erijotzia opa deutseen umiak. Nai dala gurasuak daukeezan aziendak edo ondasunak eureganatuteko guraria gaiti, nai dala guraso zaarra jandu ta zaintuteko nekia gaiti. Kodizija edo ondasun guriak pekatu asko eragin oi ditu. Edo obeto esateko san Paulo apostolubagaz, ondasun guria da pekatu guztien sustraiha. Umiak, gurasuak dauken guztia gitxi deritxuela, laster euren eskubeetan gura leukee. Tentazinoe onegaz, ez gitxitan, ume askok opa deutsee guraso zaarrai illtia. Baita uaututa edo ezertako ezda dagozanai bere askotan. Seme alaba asko dagoz bijotz gogorrekuak. Egitia ta zerbaiz aurreratutia eureen nai nausizat artuta daukeenak. Noren umiak dirian aaztuta bitzi dirianak. Euren guraso errukarrijak zaartzan sobrauta etxian daukeezanak. Guraso uatubak edo balijoko ez dirianak etxian emoten dabeen aazuba gaiti, illtia opa deutseenak. Umiak gaiti esaten dana, esaten da suinak, erreinak, lobaak ta beste edozein zaarren arduria daukan edo oneraak jatorkozana gaiti. Oneek guztiok austen dabee bostgarren agindu santuba: 1. Gurasuari illtia opa izanagaz. 2. Emoten deutsen janari kopauba, asko deritxuela ta esker txaarrian emonagaz. 3. Berba gogorrak ta errazoe txaarrak esanda, bekoki illuna ta gogo gaistua erakutsita, atsekaba astunak zaarrari emonagaz. Oneek guztiok dira persona zarraren illgarrijak. Au gaiti guraso edadeko askok, egijagaz esan oi dabee euren umiak edo ondorenguak gaiti: *Naijago leukee orrekek illda banengo*. Pekatu ezainak ta Jaungoikuaren gorroto andikuak dira oneek, kristinaubak.

Seigarrenian: Pekatu egiten dabee agindu onen kontra, nai dala ondria gati, nai dala ondasunak gaiti, nai dala andiguria gaiti, nai dala gorrotua gaiti: 1. Inori bide bagako erijotzia opa deutsenak. 2. Erijotzia egiteko aginduten dabeenak, lagunduten dabenak, konseju emoten dabeenak, botikakua edo armaak atarako emoten ditubeenak. 3. Proximuri osasunian, nai gorputzeko zatiren baten kalte egiten deutseenak. Edo beso bat edo azur bat ausi, edo zauritu, edo banatu, edo gaixotutten ditubeenak. 4. Inori gorroto deutsenak, gatxa opa deutsenak ta inoren ikusi ezina daukeenak.

Bada, Jesukristo geure Jaunak bere ebanjelijo santurban erakutsi euskun, bostgarren agindubak eragozten dabela, ez bakarrik inor illtia, ezbeta baita proximuri asarre gaistua eukitia ta asarre gaistuagaz edo gorrotuaren subagaz berba lotsarizkuak esatia bere. Neuk esaten deutsut, dino Jesukristok, proximuagana asarria daukana edo proximuagaz asarratuten dana, ikusiko da ze asarre daukan: Asarriagaz inori berba txaarra (*Raca*) esaten deutsanari, emongo jako merezi daben kastiguba. Baino esaten

badeutsa berba lotsagarria, desondragarria (*fatu*), irabatzi dau inpernuko suba. Onan erabagiten ditu Jesukristo geure Jaunak asarre gaistuaren ta gorrotuaren txikitaki andirako pausubak. Aituten emoteko kristinau guztiai, asarria ta gorrotua ta asarriagaz inori esaten jakozan berba deungaak, gauza andira eldu ezkero diriala pekatu illgarrijak edo mortalak bostgaren agindubaren kontra.

Artu daigun bada, kristinaubak, bake santubaren amodjua. Amatau daiguzan asariaren ta gorrotuaren subak. Parkatu daijeguzan arerijuari gatz eginak, geuri Jaungoikuak parkatutia nai dogun legez. Opa izan daijegun proximo guztiai luzaroko bitzitzia, Jaungoiko andija amau ta alabau dagijen munduban. Errukitu gaitezan inoren osasuneko edo bitzitzako gatz ta naibage guztiakin. Gogoratu daigun, guztiok gariala zeruko Aita onaren semiak. Emen erbeste onetan alkarrartuta, alkarrti parkatuta, alkarrti lagunduta, alkarr maitetuta karidade santurban bitzi bagara, zeruko etxe santurban beti adiskide ta ditxoso alkarrregaz izango gariala. Zorijonekuak baketsubak, dino Jesukristo geure Jaunak, bada eurai esango jakue *Jaungoikuaren semiak*. Alan gura izan dagijala Jaungoikuak bere ontasun andija gaiti. Amen.



### III. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*zelan paltetan dan noberaren*  
*bitzitziaaren edo osasunaren kontra.*

Esanda geratu da, neure entzula onak, bostgarren agindu santuban Jaungoikuak zaintutenean dabela ez bakarrik besteetan bitzitzia, baita norberaren bere. Ta oraindino ardura estubaguagaz. Bada, karidade egijazkua norberaganik asten da; ta bere burubarri egiten jakon kaltia, nai osasunian, nai gorputzaren zati baten, pekatu andijagua da beste edozeini egitia baino. Ez dago munduban inor eskubidua daukanik bere buruba illteko, bere osasuna galdueteko edo bere gorputzari atzapar bat kenduteko. Agintariak ta juezak Jaungoikuak emonda daukeet alizatia, deungaak ta gaiskinak illteko. Bainak eurak deungaak ta txito gaiskinak izango balira bere, ezin ill legijezen euren burubak. Neuk illgo dot ta neuk bitzirik eukiko dot, dino Jaungoikuak. Inok bere ez bere buruba ta ez inor ill ezin legi Jaungoikuaren ordena bagarik. Sansonek bere, bere buruba ill beebean arerijuakin naaste, Jaungoikuaren aparteko ordenia eukalako ill eban. Bestelan ez zan pekatutti librauko, dino san Agustinek.

Au gaiti dauka Eleisa Ama santia eragotzita, ezauberaz, borondatez, dakijala ta bere naiz bere buruba illten dabena leku sagraduban entreetia. Baita a gaiti meza santuba esatia ta agiriko orazinoia egitia bere. Meza santuba ez da oprezidu biar, dino Aita Santu Erromakuak, erijotzako ordu artian pekatu eginda, erijotzia bera bere burubarri emon eutsana gaiti. Zeinek, bida, erijotza pekatuzkuagua egin legi, Judas gaistuari jarraituta, diabrubak erakutsita, bere buruba ill dabena dakigunak baino, zein gaiti dinuan san Juanek orazinoerik ez egiteko? Nai erramientiagaz, nai urkatuta bere bitzitzia ezauberaz ta bere guraz galduen dabenari ez beki jo emon sepulturarik, dino beste Eleisiaren ordena batek. Bere buruba illten dabena, edo dago zoratuta, zer egiten daben ez dakijala, edo dago desesperauta, diabrubak indarra ariman artuta. Zoratuta daguanak ez dau pekaturik egiten. Zorotasunak pekatuban artu ez beebean, salbauko da, bere buruba berak ill arren, ezauberia palta dabelako. Ezauberaz ta naiz bere buruba illten dabenaren kondenazioia, simistu daikegunez, seguruba da. Onako negargarrira diabrubak ekarten ditu pekatariak askotan. Ez lelenguan, ezbada urte luzeetan pekatuba pekatubari ezarrita,

Jaungoikuaren dejai gortuta, konziendijaren kolpe garratza sarri nekez isilduta, otzta baten arimako bake txaarrian bitzi izan dirianak. Jaungoikuaren pazienzia kantsetan da. Arerijuaren astuziak geituten dira. Pekatubaren pisuba astundutenean da. Arimia larritutenean da. Munduko pena txikijak andi egiten dira. Bitzitzia gobaitegutegi da. Borondatia pekatu andijakin ta sarritakuakin ikaratutenean da ta gogortutenean da. Jaunkoiko asariagaz desesperatutenean da. Ta kolpe bategaz guztia amaituteko, urkatutenean da, itoten da edo illten da, ta kondenetan da. Onan oi da, kristinaubak, euren burubak illten ditubenen asieria ta amai desbenturauba. Bildurtu gaitezan guztiok. Ta erregutu daijogun zerubari, ondo illteko grazia.

Gitxi dira, ta ojala bat bere ez balitz, euren burubak ezauberaz kolpe baten illten ditubeenak. Bainak bagoz kristinu asko, edo dala panparreria ja arrokeria bat gaiti, edo dala kodizija siku bat ta gorrotogarri bat gaiti euren bitzitziai ta osasunari kalte egiten deutseenak, ta bos[t]garren agindu santuba austen dabeenak. *Lelenguak osasunari kalte egiten deutsee banidadadia gaiti. Bigarrenak zerbait aurreratutia gaiti.* Ta bitzubak pekatu egiten dabee agindu onen kontra. Ikutsi daigun zelan.

#### I.

Jaungoikuak ez gaitu bardinak egin guztiok geure gorputzetan. Batari emon deutza gorputz andijagua ta bestiari txikijagua. Batari indartsubagua, bestiari bigunagua, bere borondate santubak gura izan daben moduban. Bainak guztioi emon deutskuz Jaungoikuak gorputzak, Jaungoiku serbiduten, proximua lagundutenean ta zeruba irabazten geure arimiagaz biarra egiteko. Nai gorputz andija euki, nai txikija euki, nai indartsu euki, nai argala euki, onetarako bakarrik, Jaungoiku serbiduten ta geu salbetan arimiari lagunduteko emon deutskuz Jaungoikuak. Indar geijago emon deutsanari, duda bagarik, Jaungoikuak eskatutenean deutsa biar on geijago. Bada, ez deutskuz Jaungoikuak mesediak alperrik egiten, ezbada eurakin balijauta, bere ontasuna obeto serbidu daigun. Argal batek baino sendo batek biar geijago egin legi berez. Bada, geijago egin biar dau bere bitzi moduban, Jaungoikuari kontu ona emongo badeutsa. Bost mesede egin deutsazanari, bosten kontuba eskatuko deutsa Jaungoikuak. Bi egin deutsazanari, bidena. Ta bat egin deutsanari, batena. Alan gorputzian sendotasun geijago indar geijago, ta alizate geijago Jaungoikuaren esku santubetatu artu dabeenak, kontu geijago Jaungoikuari emon biarko deutsee.



Zer egiten dabee, bada, alako indartsu ta sendo askok? Gorputzko sendotasunagaz balijeetan dira gorputza makalduteko, osasun onagaz osasuna galduko, gorputzko indarrekin gorputza argalduko, mankeetako, uatuteko, gaixotuteko edo illteko. Askogaz geure errijetan ikutsi doguna ta geijago gaiti entzun doguna da au, neure kristinaubak, zeubek ondo dakizun legez. Aixe batzuk buruban sartuta, euren indarrekin ta sendotasunagaz arrotuta, Jaungoikuak pekatu egiteko emon baleutsez legez, lagunak desapijetan, temaak edo posturak egiten, ezin dituben kargaak jasoten ta eruaten ta beste edo bitzitzia edo osasuna galduko, edo gorputzaren palta bategaz, edo eraso bategaz betiko geratuteko peligru ezagunetan ta jakineetan dabiltz indarsu asko, geratu bagarik, euren gorputzak galdu artian. Alakuak euren goguan, buruban ta berbetan ez dauke besta gauza onik, euren indarrak, euren karga jasotia, euren peliadaak, euren burrukaak, ta euren asko jaatiak ta asko edatiak baino. Ah zoro koidubak! Indar geijago eukitia ete da gizon ondraubagua izatia? Alan balitz, zaldi bat ondraubago. Mando bat oraindino ondraubago. Ta tigre bat oraindino ondraubago. Sabel andijagua eukitia ta an geijago sartu al izatia ete da gizon prestubagua ta obiagua izatia? Alan balitz, Maximo odolgalzilia ta gizatazunaren lotsagarrija izango zan prestubeena. Bada, esaten da, egunian berrogei libra okela ta ogeta bost libra ardaio irunsten zitubala.

Ojala lotsatuko balira indardun ta jaatun banidadetsubak onako entzunakin. Ojala sinistuko balebee, prestuba izatia, ondrauba izatia, zuzena izatia, baketsuba izatia, esanekua izatia, humilde izatia, ta serbizaila izatia dala mundurako ta arimarako gizonak euki legijan prendarik oneena ta entzuterik estimaubena. Ojala ondo buruban sartuko balitzake, orrako euren buruben ta osasunaren kaltian probeetan ta desapijuetan oihabilzanoi, indarrak ez da baidakuak diriala. Gaur sendua dana, bigar gai-xorik edo andaan egon leitekiala. Ta azkenian bostgarren agindu santubaren kontra pekatu egiten dabeela: 1. Banidadez ta premina bagarik indarrak noragino dirian probeetako, karga astunak jasoten ta erabilten oihabilzanak. 2. Banidadez edo temia eginda, sartu al dagijen guztia, nai jana ta nai edana, sabelari emoten deutseenak. 3. Alako desapijuak, temaak ta gorputzezko proba neurri bagakuak egiten ditubenak. Oneek guztioak euren bitziziaren ta osasunaren kaltian edo kaltegarrijan, gauza andijan austen dabee bostgarren aginduba. Jazo lekijo gizonari, indar biar izatia ta premina orduban guztiak probeetia. Bainan banidadez, panparrerijaz, arrokerijaz ta Jaungoikuaren opendidubaz, bere bitzitzia, gorpuzeko izanera ona

galduteko peligruban imintia, gauza ezaina ta itsusija da Jaungoikuaren aurrian.

## II.

Beste batzuk kodizia gosedun bat gaiti galdu ta mankeetan dabee euren osasuna ta laburtutene ditubee bitziziaren egunak. Oneek izaten dira: Zer jan ta zegaz bitzi Jaungoikuak emonda, eurai jagokuenez, daukeela, zerbait aurreratutia gaiti, osasunaren kaltian gau ta egun biarrian diardubenak. Baita, eukita ez kastetia gaiti geijagoko bagarik, gorputzari osasunian, nai gaixuan gose tristia ta popuertzakuaren paltia emoten deutsseenak bere. Laarregiak ta gitxijegiak kondenauta dagoz, neure entzula onak, geure ebanjelijo santuban. Terzjua erakusten deusku ta aginduten deusku Jaungoikuak gauza guztietan. Ta da zerubak estimetan dabena. Ez dozu, bada, pensau biar erakutsi onetan nik leku emon gura deutsadala alperrerijari, buru gintziari, gorputza ondo artutiari, otz berorik edo goserik ez iragotia, edo beste onako gorputzaren amodijo laarregija oinian eukiteko geijai. Ez kristinaubak. Bakit, gorputzak geure salbazinoiaren arerijuak diriana. Bakit, arimiaren krijadubak diriana. Gorputzaren amodijo ordena bagakua gaiti asko kondenauta dagozana. Gorputzak ondo ezita, domauta, eskupetuta edo errazoa opera ekarrita eukiteko Jaungoikuak aginduten deutskuna. Bakit, zeruko justuben zeregin nausija, euren gorputzai gurarijak ukatutia ta padetzidu eragitia izan dana. Ojala guztiak onan ezita, domauta baleukez euren gorputzak Jesusen amodijua gaiti ta zeruba irabaztia gait!

Beste ainbeste, gauza jakina da, Jaungoikuak aginduten deutsala kristinaubari zintzo izateko, biargin izateko ta bere izerdijaren sarija estimetako. Batzubetan bialdutene gaitu Jaungoikuak inurrijagan, bitzi izaten ikastera, zeinek batutene dabent uadaan janaria negurako txito kontuz ta priisaka. Beste batzubetan erliagana, zeinek eldutene dan leku guztili, inori kalterik egin bagarik, zerbait eruaten dabent bere etxera, nun daukan bitzi izteko biar dabent palta bagarik, inok oostutene ez badeutsa. Egija da, Espiritu Santubak erakutsi oneekin jaso gura ditu geure bijotzak zeruko ondasun egijazkuak topeetara. Baina orraitino ez deutsa eragozten kristinaubari, munduban zintzo izatia ta bere gauzai begiratutia. Adani esan eutsan Jaungoikuak, bere izerdijagaz irabatzita jango ebala ogija. Ta Adanen seme guztioi geure izerdijaren ta biar eginaren saritzat emoten deutsku Jaungoikuak zegaz bitzi. Apostoluben euren artian, ez zan



Jesukristo geure Jauna aaztu zegaz bitzi eukiteko arduriagaz. Ez da bada esaten, kristinaubak, erakutsi onetan, ez gorputzak laarregi maite izan biar ditugula, ez Jaungoikuak geu bitzi izateko emon deutskuna, ardura bage egun baten kastau biar dogula.

Esaten da bai, neure entzula onak: 1. Kodizija gaiti, diruba edo gauzia aurretutia gaiti, aberatstutia gaiti, gau ta egun, euri ta aterri osasunaren kaltian, askok egiten dabeen legez, biarra egitia, bostgarren agindubaren kontra dala. 2. Jaungoikuak emonda daukala, ez kasteetia gaiti, diruba kasteetako daukan errukija gaiti gorputzari gosia emotia, edo osasunian nai gaisuan errazoez ta oi danez jagokana ukatutia, dala bostgarren agindu santuba austia. Erakutsi onetan kondenetan dana da, dirubaren gosia, ondasunen gurarija ta aberatstu naija, osasunaren kaltian dala, zerbait aurreratutia gaiti edo leen daukana ez kasteetia gaiti. Ta zein legetan ontzat emoten dau Jaungoikuak au? Nun esan deutsku Jaungoikuak geure bitzitzia ta osasuna baino dirubak geijago maite izateko? Ta zeinbat kristinu dagoz, bai gizonak ta bai emakumiak, gau ta egun, ta esan legi jai ta aste, uda ta negu beti arrastaka ta beti priisaka izerdia darrijuela, euren gorputzak naarrak balira legez nekatubaz, zerbait aurreratutia gaiti, ta etxian biar dabeena ondo daukeela? Zeinbat emakume sabel katigubagaz ta askotan osasun argalagaz, auzuak eskandalizetan diriala, euri ta aterri biarrian etenaz, etxian zegaz bitzi ondo daukala, zerbait geijago eukitia gaiti? Zeinbat kristinu, laboria saldueteko zerubak emonda etxian daukenak, arto puskabat errukiz sabelari emoten deutseenak ta gose gogorrak iragoten ditubeenak, ez kastetia gaiti? Zeinbat gaiso, diruba edo eukija daukeenak ta euren buruben jaube dirianak, kodizijaren kodizijaz errial bat ez gitxitutia gaiti, illten dira popuertzkuaren paltaz? Ah kristinaubak! Zeubek dakizu ondo, zeuben etxeetan ta auzuetan zer iragoten dan. Zeubek zara egija triste onen testigubak.

Ta ez da au dirubari edo, argiruago esateko, diabrubari bere bitzitzia ta osasuna konsagretia? Bai. Diabrubaren martirijk dira alako kristinaubak. Euren biarra, euren nekia, euren osasuna ta bitzitzia bera bere labur-tuta dirubaren Jaungoikuari, Satanasari gordeetan deutsee. Esan legije alako kodiziosuak, umiak daukezala, ta are[e]n onerako egiten dabeela. Ah neure entzula onak! Zeubei zer jan emoten deutsun Jaungoikuak, zuben umiak emongo deutsee salbeetako biar dabeena. Ez da Jaungoikua areentzako pobriago, Zubentzako baino. Ez daukaz aaztuta Jaungoiko andijak zuben umiak. Kanpuetako lorak jantzten ditubanak, zuben umiak jantzi-ko ditu. Basuetako txorijai janarija emoten deutseenak, zuben umiak

emongo deutsee. Kodizija da, diru gosia da zeuben bijotzetan aginduten dabena. Osasuna galdu eragiten deutsuna ta bitzitzia laburtutenean.

Zuben umiak biarrago dabee doctrina ona. Doctrina ona ta arima ona ez badaukee, dino san Juan Krisostomok, dirubak ta ondasunak umiai utsa balijo deutsee. Arima ona badaukee, ez eukijkal terrik egingo ez deutsee. Ezin umiai emon zinaijue aziera peligruzuagorik kodizijaren baino. Ondasunen gosia umiai erakusten deutsezunian, sortutu dozu euren bijotzetan pekatu guztien sustraija. Aberatstu gura dabeenak jaus-ten dira tentazinoian ta diabrubaren lazaban, ta puskaka puskaka duaz euren azkeneko galdu mendira. Oh, ze gatz daben, dino Jesukristok, oh ze nekez zeruban sartuko dan aberatsa! Kodizijari darraikonak, dino Salomonek, etxe guztia okertutenean. Laster aberatstu gura dabena, dino beste leku baten, ez da pekatu bagarik izango. Bago beste zorakeria bat bere munduan, dino beste leku baten, bakarrik dago, nori ondasunak itxi ez dauka; ta orregaiti kansau bagarik biarrian diardu; bere begijkak ez dira asetutenean ondasunez. Ara emen, zelan zerubak begiratutenean onda-sunai. Ara, zer balijo dabeen Jaungoikuaren begijetan, ta oneek gaiti galduko dogu jeure osasuna? Edo geure bitzitzia? Ain izango gara zoruak, ondasun galdukorra ameetako geure burubak baino geijago? Ez kristinaubak. Estimau daigun Jaungoikuak emoten deutskun osasuna ta bitzitzia. Ez daiguzan saldu edo galdu ain merke, edo obeto esateko, ain gora. Ez daijogun lekurik emon geure bijotzian tristeza larrijari, arimako illunari, ta gitxijago lelengo pekatubari ta pekatuko egotiarri. Zerubagaz deses-perauta, Judas gaistuari jarraitu ez daijogun geure burubak illettera ta imper-nura. Ez daiguzan aixaatu ta arrotu geure burubak, indar geijago ta gorputzeko alizate geijago daukagulako. Balijau gaitezan Jaungoikuak emon deutskuzan gorputzeko doiakin, esker onagaz Jaungoikua bera serbiduteko, proximuarri mesede egiteko ta arimiari salbetan lagunduteko. Kendu daigun geure bijotzeetan ondasunen gurari sikuba, liorra, mingotxa, penazkua ta asetutenean ez dana. Egin daigun biarra preminiak, errazoiak ta bitzi modubak eskatutenean deutskun moduban gorputzaren bildur bagarik. Baino ez kodizija gaiti kolpe bat bere. Domau daiguzan geure gorputzak. Ezi daiguzan ondo. Ukatu daijegun bide bagarik eskatutenean deutskubena. Artu daigun geure gorputzeen gorroto santu bat. Dendatu gaitezan geijago baino geijago padetzidu eragiten luurrezko gorputzai geure konpeso



riaren ezauberiagaz ta naijagaz, eurak gaiti arimia galdu ez daigun. Bainan ez gaitezan izan, ez osasunian ta ez gaisuan geure bitzitzaren ta osasunaren borregubak, euki ezkero ez kasteetia gaiti. Alan gura izan dagijala geure Jaungoiko onak bere miserikordija andija gaiti. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## IV. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*zer dan orditutia.*

Arimia mingotxtutia da ardao asko edaatia, dino, neure entzula onak, Espiritu Santubak. Ardao asko edatiagaz aituten emoten deutsku, ez edozelan ardaua edaatia, ezbada ardao laarregi edaatia edo orditutia. Janak ta edanak, laarregira eldu ezkero, gatx egiten deutsee ta mingotxtutuen ditubee bai gorputzak ta bai arimaak. Janedan larregijak gorputzari gatx egiten deutsana, gulerubak ta ordijkak eurak dakijee inok baixen ondo. Arimiari gatx egiten deutsana, san Paulo apostolubak esaten dau. Bada, dino, ordijkak ez dabeela zeruba gozauko. Ordijken ipoinak andijkak dira. Arimiaren kaltekuak dirianak. Gorputzaren kaltekuak bere bai asko. Beste asko mundurako bere negargarrijak. Guztiak kontau bere ezin legiz, dino san Basiliok. Noe justubaren denporati ona ez da ezaututen aldirik, ardao laarregijaren egitade txaarrak kontetan ez dirianik. Eskritura sagraduko testamentu bijeten milla berba lotsagarrigaz markauta dagoz ordijkak. Jentilak eurak bere ezin ikutsi zituben ordijkak. Erroman bein orditu zanari ez eutsen konsejuban sartutene isten. Ogeta amar urte artian ez eutsen gizonai ardaorik edaaten isten. Emakumiai inos bere ez.

Neurri santu onegaz ondo aaztuta bitzi dira gizon ta emakume asko kristinauben artian denpora onetan. Penagarririk andijena da, okerrerrija inpame onetati, bein atan ikasi ezkero, gitxi erremedijetia. Okerrerrija edo bizioko guztiak dira txaarrak. Bainan areetati ordikeri ja ez da oneena. Ta menturaz bera da gitxien ta nekezen erremedijetan dana. San Basiliok dinuan legez, ordijetati prutu onik aterako ez badogu bere, ekandu galdu atan jausten ez zarianok gorroto geijago izan dagijozen ta urrinago egon zaitezan beraganik, esango deutsut erakutsi onetan: 1. *Zetan daguan ordijken paltia.* 2. *Nos ezagututene dan orditu dana.* 3. *Ze pekatu andija dan ordijkearena.* Au izango da, kristinaubak, oraingo zeuben entzunkizuna ta ez gitxi bali jo deutsuna. Egon zaitez, bada, zurtasun guztiagaz.

**I.**

Orditutia gauza ezaina, itsusija ta lotsagarrija dana, umetaraginoko guztiak bere ezaututen dabee, neure entzula onak. Ardaua berez gauza ona da. Gauza altu ta andi askoren idurija da Eskritura Sagraduban. Jaungoikuak edateko emon eutskuna da. Errazuazko neurrijagaz, bako-txari jagokan moduban, ardaua edatiak ez lotsaaririk, ez kalterik dakar. Bainan ardaua dan legez geure sabelian sartu ezkerro ain biargin presta, sutsuba ta indartsuba, gorputzeko odolak ta ur bitzigarrijak erabilteko, berotuteko ta asarratuteko, esaten jako kristinaubari, ardaua edan biar dala botikakua legez. Alan agindutenean eutsan san Paulok Timoteo, bere eskolaubari. Estomaguko gatxa gaiti ta bere sarritako gaixuak gaiti edan dagijala ardaoa paska bat, esaten deutsa. Adin oneko guztiak begiratu deutsee ard[al]uari bildur santu bategaz, errazoia ta sinistute ona galdu ez dagijuezan. Baita adin gaistokuak ta deungaak bere bildurtu ditu ardauak. Maoma desbenturaubak uts egite ta nasaitasun guztien artian itxi zituban bere ikasikuak. Bainan eragotzi eutsen ardaua edatia. Sinistu eukian erejegin paltso ak, ardaua neurri bagarik edaten dan lekuban, ezin gizonak iraun legijeela luzaro sen baten. Ta berak itxi eu[t]sen bitziera nasaijak, loijak ta pekatuzkuak iraun egijuen, lege gogor bategaz eragotzi eutsen ardaua edatia.

Ardaoa laarregijagaz gizonak egiten dabentzitza da, errazoia illundutia ta galduetza. Jaungoikuak emon deutskuzan doetati nausijen bat da errazoia. Gizona gizon izatia. Onegaz erabagiten gara ganadubetati. Errazoerik ez bageunka, nos zer egin biar dogun ez bagenkia, ona ta txaarra ezautuko ez bagenduz errazoiagaz, gu ta ganadubak erabatekuak izango ginatekeez. Zer egiten dau, bida, orditutenean gizonak edo emakumia? Gizonaren argigarrisia ta errazoiaren usuba illundu, lausotu ta galdu. Jaungoikuak emon deutsan doe nausija, bere guraz ta bere naiz ezkutetan dau orditutenean danak, ta biurtutenean da abere baten erara. Ordijak ez zer egiten dabentzitza, ez zer esaten dabentzitza ez daki. Ez nor dan, ez zetarako dan daki. Ordijak ez dauka errazoiaren usurik. Ez dauka gizonaren egitaderik. Ordijari askotan begijetati darijo suba, aoti juramentuba, bidaua, maldezi-noia ta bitsa, endemoniadu bati legez. Alan esaten deutsa san Basiliok ordijari: *bere gurazko demoninua*. Askotan kanta berde, berba loi ta egite lotsaizkuetan atsituta dago, ganaduba bera baino loijago ta luxurijsotsabago, dino san Basiliok berak. Beste askotan batsatzat baten, bide baten

edo karkaba baten etzinda lo datza edo jagi ezinda dago. Alan esaten deutsa Espiritu Santubak ordijari: *¿Cui foree?* Beste askotan zamaika, desapijoka, burruka ta diadarka dabil, zorua legez. Beste askotan... Ah! Ezin esan legi, ordijak bere burubari eragiten deutsazan zorakerijak, okerreri-jak ta gaistokerijak. Ta zegaiti? Ardaoa laarregijagaz bere errazoia illundu ta galdu dabelako. *Fili Belial*, demoniuaren semiak esaten deutsee ordijai san Jeronimok. Terzio onetara ekarten dau ordijak bere buruba bere naiz.

Ta zer egiten dau osasunian? Ah, kristinaubak! Ordijak eurak daki-jea ondo zenbat tripa ala, zeinbat buruko astun, zeinbat aginte txaar ira-goten dituben, ardaoa sobraubari sabelian kobru emon ezinda. Eurak daki-jea, ardaoa larregijagaz zeinbat kolpe andi artu dituben. Baita jakin biar leukee, zeinbatek gorputzak gaisotu dituben, osasuna galdu dabentzitza laburto dituben ta baita, ordi aldiya irago bagarik, zeinbat ill dirian bere. Bai, kristinaubak, arimiaren ta gorputzaren kontrako pekatuba da orditutia. Bainan ardaua edatia ta laarregi edatia edo orditutia bat ez dirian legez, ikutsi biar dogu, zelan ezautuko dabentzitza kristinaubak, ardaoa laarregi edan dabentzitza.

**II.**

Ardaoa zaliak uste dabentzitza, edan dabeen guztiari sabelian kobru emon ezkerro, asko edan arren, ez dala laarregi ta ez diriala orditutia. Au sinistuta bitzi dira ordirik geijenak pekatu mortalian, menturaz euren bitzi guztian. Aoti atzera ateraten ez badabeari, geijago ta geijago edan arren, ez daukee pekatuzat. Bainan ordijak juez txaarrak dira, eurai sinistuteko. Santo Tomasek aitutenean deutsku, ez dala popuertzakua orditutenean, edan dabentzitza aoti atzera ateratia. Pekatuzko orditutia da, santo Tomasek ta beste erakusleen esanian, dakijala, bere guraz errazoiaren usuba illunduko deutsan beste, edo illunduko ete deutsan bildurra daukan beste ardaoa edatia. Ta au edozein bere ardaoa jenerogaz. Bada, guztiak dira tertziotzi aurrera irago ezkerro, juizijuaren galduarrak. Kristinau guztiak ez dirian legez osasunian, sendotasunian, janian ta edanian bardinak, santubak berak dinuen legez, ezin imini legi guztientzat neurri bat, ardaoa laarregi nos edan dan jakiteko. Au ezaututenean, erakuslaak begiratutenean deutsee ardauak sabelian sartuta dakazan egitiae. Ta andi ateraten ditubee, ardaoa laarregi edanagaz, nos pekatu egiten dan jakiteko ezaungarrijak. Ta dira:



1. Edanda daguanian, zer esan dabentzat zer egin dabentzat bijamonian gogoratu ezina. 2. Edan bagarik daguanian egin ez oitutu dala ta esan ez oitutu gauzak esatia ta egitia. 3. Gauza onak ta txaarrak errazoiagaz erabagi ezina. 4. Miinagaz ondo berba egin ezina. Berbaak naastauta, motelduta, erdiz erdi baino erabagi ezina. 5. Oinakin ondo ibili ezina. Albo alboka juatia. Etxeko edo auzoko persona ezaugunak eta jakinak ezautu ezina. Ta azkenian, etxiak edo arbolak jiraka begitandutia. Senalle edo ezagungarri oneek iminten ditubee, neure entzula onak, Eleisako era-kuslaak, arda laarregi edanagaz nos pekatu egiten dan ezaututeko. Bada, ardaak ekarten badau gizona nai emakumia, edanda eguanian zer esan eban edo zer egin eban bijamonian gomutau ezin dan edura; besteetan egin ez oitutu zorakerijak edo gaistokerijak egitera; gauza onak ta txaarrak bere burubagaz ta errazoiagaz garbitu ta erabagi ezin dala duinara; miinagaz motelka ta naastauta baino berba egin ezin dabentzat; oinen gainian zuzen egon edo ibili ezinera; etxekuak ta adiskidiak ezautu ezinera; buruba zorabijotutera ta ikusgarri ezak begitandutera; gauza jakina da, dinot, tertziro onetara arda laarregiak ekarri dabentzat, orditu dana. Ordubarra illundu dau errazoiaren argia, galdu dau gizonaren argigarria, biurto da bere burubaren jaube ez izatera ta egin dau pekatu, gero esango dan modubarra. Baino ze pekatu deritxazu dala orditutia? Entzun egizu, kristinaubak, kontuban jausteko.

### III.

Santo Tomas, ikasilekubetako aingerubak itanduten dau, ia orditutia pekatu mortala dan. Ta erantzuten dau santubak, baietz. Iru modutara, dino Santubak, jazo leitekiala orditutia. 1. Noberak uste ez dabentzat, edo ardaak aintzat ez daukala edanda orditutu daimian. Alan ardaak eragita, jazo leiteke pekatu ez izatia, dino Santubak. Au jazo jakon Noe justubari orditu zanian, Eleisiaren Guraso askok dinuenez. 2. Ardaak aintzat ez daukala, zerbait geijago edanda orditutu daniel. Ta ordubarra ardaak eragita, izan leiteke pekatu txikarra, dino Santubak. 3. Ardaak eragingo deutsana ezaututa bere, ardaudi itxi baino orditutu naijago dabentzat dabenian. Ta ordubarra pekatu mortala da ardaak eragita, dino Santubak berak. Bada, berak dakijala ta nai dabentzat galduen dala ta illunduten dala errazoiaren argia. Au da, neure kristinaubak, santo Tomasen ta beste era-kuslen dotrinia ordikerijako pekatabaren gainian.

Emeti esaten da: 1. Nos bait ustez uste bagarik, edo bustita dagualako, edo janzaarrian dagualako, edo ezaututu dala arda burutsuna dalako, edanak eratsotia edo orditutia, jazo leitekiala pekatu bagarik. 2. Tertziotu paska bat geijago edatia, errazoa illundu bagarik, gorputzian ta errazoiaren kristinau daguala, izango dala pekatu txikarra. 3. Noberak dakijala ta ezaututu dabela (leenago sarritan jazo jakolako), bere guraz esan dirian tertziuetatia batera nai beste batera bere errazoa edo gorputza ekarteko duina arda edaten dabentzat, egiten dabela pekatu mortala edo illgarria. Ta au, nai dala arda jenero bat, nai dala beste bat, nai dala ona, nai dala komuna, nai dala bakarrik, nai dala naastauba.

Erakutsi onetatu ezaututu dala, kristinaubak, eria dabeen guztian orditutu dirianak, nai gizonak ta nai emakumiak, urte askotan oitura galdu au daukeenak ta itxi gura ez deuteenak, pekatu mortalian bitzi diriala. Oh, ze penia! Ta zer askorena orditutu lotsagarria! Ez da berbarik topeetan, oiturazko ta ekanduzko ordi bat, merezidu dabentzat modubarra desondreetako. Esatia ordijari galduen dabela bere arimia, osasuna, kleituba ta eukija, alperrik da. Ardauaren gurari zorigaistokuak itsututa, engainauta dauka ordi desbenturauba. Baino, ze trago mingotxak edaten ditubee! Ze pekatu ezainak irunsten ditubee!

Zeinbat pekatu darraikoz ordikerijari? Zeinbat eskandalu? Zeinbat okasinoe? Zeinbat erijotza eragin ditu arda laarregi edanak? Zeinbat burruka, makilaka, tratu gaisto, joko galdu, auzi bide bagako ta bake txaar imini ditu errijeetan, auzuetan ta etxeetan orditutuak? Zeinbat adulterio, pornikazioe ta luxuriya lotsagarritara ekarri ditu gizonak eta emakumiak ardaak? Nos ikutsi da gizona edo emakumia, ardauan jausten dana, ta modestija, onestidadia ta kastidadia maite ditubana ta gordetan ditubana? Ah! Espiritu Santubak ta Eleisiaren Gurasuak esaten dabee, ta geuk ikusten dogu bijotzaren peniagaz. Baino zer? Ardauaren egitate nausia dala: Edo, suba, asarria, zamaija, desapuja, burruka ta okasinoia. Edo, berdetasuna, desonestidadia ta luxuriya. Ez zaitez orditutu, dino Espiritu Santubak, zeinetan daguan luxuriya. Ardaua da luxuriyotsuna ta orditutu bake txaargina, dino beste leku baten. Alemania guztien luxuriya baino txaarrago da ordijarena, dino san Basiliok. Bada, alemaniaak gordetan ditubee naturale ziaren legiak ta ordijk ez, dino Santubak berak. Nun ordija, an diabrubia, dino san Juan Krisostomok. Oh, ordi desbenturaubak, zeinbat pekatu irunsten ete ditubee! Ze estado tristian iminten ditubee euren arimak, auan eztia ta sabelian berenua dan arda pekatu bat gaiti!



Ta euren ondria? Bainaz ze ondra eukiko dau, bere guraz ta dakijala, zoro baten edo amurratu baten edo abere loi baten etxuraan sarritan bere buruba iminten dabenak? Bide baten edo basatza baten edo taberna baztar baten noren seme edo alaba dan ez dakijala, ordituta datzanak? Or emen baztarrak loituren ditubanak? Ah! Umeetaraginoko guztien barregarrija ta burlagarrija da ordija. Leku askotan testigutzat bere balio ez dau. Inor bere pijetan ez da ordijaren berbiagaz. Baso bete ardaogaz edozein tratu, logreriña, testigantza paltso, desonestitatea ta pekatura ekarten da ordija. Entzute au dauke ordijkak lagun artian.

Ta aziendia? Ah! Zeinbat etxe ta pameliña galdu ez ditubee ordijkak? Gizon ordi gejenak dira jokolariak. Gejenak, tratu txaarretan ta desonestidadetan aziendak galdu ditubenak. Gejenak, tabernetako zorrak pagetan inos amaitu ez ditubenak. Asko, etxiak konkursau ditubenak. Ta ez gitxi, emaztia ta pameliña bakee txaarrian gosezta biloxik daukenak. Ta emakume ordija? Oh! Ezin aitatu legi. Gauza guztietati ezainena, loijena, itsusijena ta galdu baina, dinue Eleisiaren Guraso askok, dala emakume ordija. *Nihil tur pius, nihil fedius, ad modum turpe.* Zer geratuteneako, bada, ordi tristari, bere arimia, osasuna, kleituba ta aziendia galdu ezkerot? Sedeziás erregiari jazo jakona jazoteneako ordi tristari, dino jakitun batek. Begijak aterata, itsu itsuban nora eroien ez ekijala, Babilonijara eruan ebeen Sedeziás. Etsai gaistuak ardaugaz itsututene ditu ordijkak. Erabilten ditu munduban Babilonijati Babilonijara, pekatuti pekatura. Ta azkenian eruaten ditu itsu itsuban bere erreinura, zein dan inpernuba. Oh, zeinbat onako jatzo negargarri irakurten dirian, kristinaubak! Entzun egizu bat ta da erakusla askok dakarrenea.

Taberna baten orditura egozala, asi zirian gizonak edozein modutan arimiaren gainian berba egiten. Areetati ordi batek zinuan: *Abadiak pundiamentu bagarik engainen gaitubee, ill ta gero arimaak gorputz bagarik bitzi diriala esanda.* Ari barreka guztiak egozala, sartu zan tabernan etxura gaistoko ezezagun bat. Eskatu eutsen trago bat ta itandu eutsen, *zer iragoten ebeen.* Erantzun eutsan ordijkak: *arimeen gainian gagoz berbetan; ta inok erosi gura badeuts neuria, azunbre bat ardaao gaiti emongo deutsat nik neure arimia.* Pensau zeubek, kristinaubak, beste ordijkak zer esango eben ta ze barriak egingo zituben, errazoe areek entzunda. Kanpoti sartu zana egin jakon arimiaren merkatari, barreka. Egin eben tratuba algaraz. Atera ebeen arimiaren baliuju, azunbre ardaua. Edan ebeen. Ta andi gerotxubago intandu eutsen arima erosliak guztiai, *ia zaldija erosten dabenak, kabubak beriak ez dituban.* Erantzun eutseen ordijkak, baietz. Bada, nik erosi dodan arima onen kabu-

ba gorputza da esanda, gorputz ta arima, ordi tristia gustien bistan gora gora jasota, eruan eban demoninuak inpernura.

Oh, zeinbat onako amai zorigestoko izan ditubee ordiak! Ez ete dira gizonak eta emakumiak nos edo nos kontuban jausiko ardaugaz! Alan gura izan dagijala Jaungoiko andijkak. Entzun dozu bada, kristinaubak, zer dan orditutia; zelan ezaututene dan; ta ze pekatu ezainena dan. Onegaz amaitutene ditut leleengo bost aginduben ikasikizunak. Amau dai-gun, bada, bijotz guztiagaz geure Jaungoiko ona. Ondrau daigun bere izen santuba. Santutu daiguzan domeekak ta jaijak. Prestau daiguzan geure arimaak, gurasuen ta nausijagen esanak pozik eta gogoz egiteko. Opa dai-jeegun proximo guztiai, geure burubai opa deutseeguna. Ta gordeko ditugu Jaungoikuaren agindu santu oneek. Oh, Jesus zerukua! Oh, Birjina gozua! Entzun egizuz, bada, gure erregubak, ta emon egiguzu zeruko erreinuba. Aitiaren, Semaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

#### LELEENGO PARTIAREN AMAIJA



## SERMOIA GURASUEN TA UMEEN ONERAKO

*Curva cervicem eius (filii) in juventute,  
et tunde latera eius, dum infans est, ne forte induret,  
et non credat tibi, et erit tibi dolor animae.*

Eccl. Cap. 30, v. 12.

*Beeratu egijozu umiari iduna gaztetan,  
ta domau egijozuz saijetsak, txikija dan artian,  
deskuiduan gogortu ez dedin, ta sinistutia  
ukatu ez dagizun, eta arimako penia izan ez dagizun.*

Eccl. ubi sup.

Arimako poz andijagaz ta bijotzeko esan ezin legijan gozotasun bategaz entzuten dira, neure kristinaubak, seme alabaak ondo azten ditubeen gurasuen zaartzako, bitzitzako ta erijotzako atseginak, ditxa onak, bendezinoiak ta grazijk. Umiak ondo azten dituban gurasua, atseginduko da ta konsolauko da bere semiagaz ta alabiagaz. Ondrauko dabee, jaso-ko dabee ta estimauko dabee auzuetako ta erriko jentiak. Bitziko da bijotzeko alegeretasun gozoz ta pozgarri maitez beteta. Ta illteko orduban ez da penauko, seme alaba oneetan isteen dabelako bere etxura zuzena, ondrauba, zintzu, baketsuba ta kristinauzkua. Job santuba, Abraan patriarka andija, Tobias ditzosua, Susana Jaungoikozkua, Ana Samuelen ama, Eleazar, Matatias, santa Monika ta beste milla dira, neure entzula onak, egijja onen testigubak. Guziak artu zitubeen ta artutene ditubee ugari zeruban, seme alabai emon eutseen atziera onaren prutu ditzosua ta zorijonekua. Espiritu Santubak, kasik isildu bagarik, ez dakit zeinbat leku- tan, aginduten deutsee ta eskatuten deutsee gurasuai seme alabeen atzie- ra ona, esanekua, humildia ta kristinauzkua. Opa deutseez bitzitzaz, ditxa ona ta zaartzza ondrauba, umiak ondo aziaren saritzat.

Baina beste aldeti, gogoratutene deutsee guraso guztiai zeruko espiritu- tubak errazoe ta jazo askogaz, umiak ondo ezi bagarik, erakutsi santuba bagarik, Jaungoikuaren bildur egijazkua bagarik, nasaitasunian ta guraari askatubeetan azten baditubee, ekarriko deutseela eureen burubai naibagezko bitzitzia, atsekabazko zaartzia, erijotza desondrauba ta azkeneko penia. Beeratu egijotzu umiari iduna gaztetan, dino Espiritu Santubak.

Gaztetan, txikitau, lau edo bost urte ditubaneti aurrera, *dum infans est*, domau egijozuz saijetsak. Kontu egizu, gogortu ez dakizun ta zeuri sinis- tutia ukatu ez dagizun. Bada, isteen badeutsazu umiari indartutene, sendo- tuten ta gogortutene, zeuri entzun gura ez deutsula, zeure esana egin gura ez dabela ta zeuri entzuterik edo sinistuterik emoten ez deutsula, izango dozu arimako penia. *Erit tibi dolor animae.* Txikitati umiari zigorragaz lotsia emoten badeutsazu, umiaren arimia inpernuti librauko dozu. Txikitati zigorragaz lotsa onian azten ez badozu umia, gorroto deutsazu, gaiski opa deutsazu umiari.

Onan berba egiten deutsee, neure entzula onak, Espiritu Santubak guraso guztiai euren seme alabeen aziera onaren gainian. Umetati seme alabai esan oneko ta errazoe oneko azieria emon biar jakueena, txikitati ezi ta domau biar diriana, tema gaistuak urteten itxi biar ez jakuena ta gauza deunigarik parkatu biar ez jakuena, Jaungoiko egijazkorik ezaututenez ebeen jentilak bere autor dabeen gauzia da. Platon, Aristoteles, Plutarko, Zizeron ta beste jentil askok erakutsi legijuee kristindadeko gurasuai, zelan txikitati aza biar ditubeen eureen umiak. Areetati batek dino, umiak prenuba biar dabeela gaztetati. Prenuba, lotsagarrija, lotugarija, bildur santuba, ta erakutsi ona umiari gaztetan. Beste batek dino, gurasuak zelakuak nai ditubeen, alakuak izango diriala umiak. Esateko moduban, gurasuen aziera ona edo arin ona dala umeen izate guztia. Beste batek dino, gurasuen zeregin nausija dala, umiak errijaren ta jentia- ren onerako aztia. Au erakusten ebeen jentilak. Onan berba egiten eutseen gurasuai, Jaungoikorik ezaututenez dabeenak. Oh, kristinaubak! Zer esan biar ete dau, bada, Jesusen eskolari batek?

Au gaiti, zeubek dakizu, neure entzula onak, era gitxi galdu ditudana neure erakutsijetan, gurasuai eginbiar andi edo nausi au gogoratu bagarik. Batzubetan atajadiak ekarrira, beste batzubetan berrijaz topauta; askotan ondo esanagaz; sarritan ezer parkatu bagarik nos bait erregutubagaz, ta ez gitxitan zamaitubagaz, ta ume gaiski azijeen sail negargarijak esanagaz, *insta, oportune, importune...* Dendatu nasala, uste dot, gurasuai eureen ta umeen onerako zeregin santu au buruban sartutene. Pensau dot, bada, oi dirian boti kakuakin gatxa osatu ezin dabean medikubak edo osalarijak, barrijak asmauta, gaisuari emoten deutsazan legez, beste asmo barriko bide bat artu biar dodala sermoe onetan gurasuen ta umeen erakutsirako.

Guraso zaar asko ikusten dira, esker txaarreko, bijotz gogorreko ta lotsa gaistoko umeen eskupian ta agindupian, asko padetzidutene dabeela euren seme alabeetati ta errukija emoten dabeela. Alako guraso triste, zaar, errukarrijai zer egin biar dabeen esatia, konseju onak emotia ta



eureen zaartzarako ta erijotzako ordurako pozgarri bat erakustia ta pres-teetia, duda bagarik da karidade andija. Au da bada, neure entzula onak, sermoe onetako nire ustia ta zeubeen entzun onaren geja: *Seme alaba deun-gaak ta esker txaarrekuak daukeezan guraso zaar errukarrijai pozgarri seguru bat erakustia.* Uste dot, entzungo deustazula gogo onagaz.

Sermoe onetan bertan ikasi daikee seme alabaak bere, baita ume txikarrak daukeezan gurasoak bere, terzijo atara eldutene badira, eureen zaartzaan ze pozgarri euki daiken. Ez nas kansauko, kristinaubak, erakutsi onetan, Zizeron ta Demostenesen berbeetako modubak tolutztuen. Egija aituten emotia da neure lanaren ta zeubeen entzutiaren geja. Au biar dan espiritubagaz ta nik guztioi opa deutsudan prutubagaz egiteko, eldu gaitezan guztiok bijotz garbijagaz zeruko tronu santura. Eskatu daijogun seme alaba guztien Aita onari, geure Jaungoiko bakarrari, jadiisteko uste osuagaz, nik sail oni jarraituteko biar dodan grazija; garbitu dagizala nire bijotza ta ezpanak, sendotu dagizala nire berbaak, zuzendu dagizala nire naija ta bigundu dagizala zeubeen borondatiak. Ta zuzenago jadiisteko grazija santa au, imini daigun bitartekotzat zerubetako Erregina, Ama Birjina guztiz santia ezanagaz: ABE MARIA.

*Curva cervicem eius in juventute, ut supr.*

Egija esateko, neure kristinaubak, zer egon leiteke munduban pena-garrijorik edo minberagorik bijotz batenzat, iru edo lau seme alaba edo geijago nekez azi dituban guraso zaar, kansau, ezertako ez bat areen esker txarrian ta lotsa gaistuan ikustia baino? Ya edadian jausita, zaartuta, kansauta, sepulturara bidian daguan gurasua, izerdi askogaz ta nekez azi dituban sableko prutubak, bere semiak edo alabaak gaizki tratetia da, duda bagarik, pena andijeetati ez txikijena. Ume batak kasurik egiten ez deutsala; bestiak lotsia ta errespetua galduen deutsala; bestiak begiratute on bat egiten ez deutsala; bestia agur bat egitera inos agertutenez jakola; bestiak berba bat esan orduko, erremuskadiagaz atzera sartutenez deutsala; bestiak gurasuak jaaten dabent kopaubari asko deritxola; bestiak auzijak eta naibagaak etxera ekarten deutsazala; bestiak agiraka ta jotera bere egiten deutsala; bestiak bere gaztetako paltaak burlaz arpegijan esaten deutsazala; beste semia edo alabia justizjak karzelaan daukala; dinot, neure kristinaubak, menturaz ez daguala luurraren gainian guraso batentzat pena garratzagorik, atsekaba mingotxagorik, naibage minaagorik ta bitzi izate-

ko gobaigarrijorik, berak nekez azi dituban umiak modu onetan zaartzan berari erantzutia baino.

Guraso batek ernegeetako, arimati negar egiteko, bijotza erdi bi egiteko, buruba amaituteko ta zerubari erijotzia eskatuteko penia da au. Umiak azi ditut, dino alako guraso triste errukarrijak. Ta eurak dira neure zaartzako penarik andijena. Umiak azi ditut, neure zaartzako pozgarritzat. Ta nire poza biurtu da neure bijotzeko mingotxtasun nausi iza-tera. Umiak azi ditut nekez ta penaz neure despeideengo eguneen arrimugarrizat. Ta eurak dira egunian egunian ta orduban orduban bitzitziaz desesperau eragiten deutsteenak. Eurak dira, ni baztartuta, sobrauta naukeenak. Ez dauka guraso penaubak luurraren gainian nora begiratu, bere umeetati atsekabia ta penia artu bagarik. Ez da gauza barrija, guraso sobraubak terzijo atan bere buruba ikusita, egunian milla bidaia ta maldezinoe umiak ezartia. Bada, egunero dauka ume bata ganik albista txaarra, bestia ganik injuria, bestia ganik gosia, ta guztietati illgarrija ta mingarrija. Ez da gauza barrija, guraso askok eureen seme alabeen lotsa gaistua ta esker txaarra ikusita, areek eskura ta errazoera ekartia desesperauta, euren burubai purijaz illtia opa izatia, (beste muduban zer ikusirik ez balego legez). Ez da gauza barrija, ta ez da gitxitan jazo oi dana bere, guraso asko, urte geijagotan bitziko litzaatekezanak, seme alaba deungaak diriala medijo, leenago illtia ta, eurak esan oi dabeen legez, munduko bakia egitia.

Oh, seme alaba gaistuak ta lotsa galdukuak daukeezan guraso errukarrijak! Oh, triste desdixaubak! Oh, ze zaartzta penagarrija ta garratza dan zubeena! Nor errukitutenez da, nori bijotza austen ez jako berekau-ten, edadian jausitako aita bat edo ama bat oian, edo makal, edo ibili ezin dala, edo bere gorputz zaarra ozta jasoten dabela ikutsita, bere umiak edo naibagez, edo errazoe txaarrez, edo gosez, sobrauta, ill ezinda illten daukeela entzun ezkerro? Oh, ze egite santuba alako guraso tristeen bijotzak konsoleetia! Oh, ze karidadia pozgarri on bat areentzat topeetia! Bainaz elen erremedijau legi onako gatx andija? Zer egin legijee, negar ta uste on guztia galdu baino beste gauzarik? Nora begiratu legijee guraso edadekuak eureen bijotz tristiak nasaituteko ta konsoleetako? Umiak andijago dira gurasuak baino. Umiak indartsu ta sendo dagoz; gurasuak zaar, makal ta bigun. Umien eskubeetan dagoz etxeko gauza guztiak. Gurasuak eurak egiten deutseenaren zain dagoz. Gurasuak ondo esaten badeutsee, ume lotsa galdukuak gaiski erantzutenez deutsee. Jotera egiten badeutsa umiari, umiak egiten deutsa gurasuari atzera edo emoten deutsa sakatu bat. Zer bait altubago edo gogorrako esaten badeutsa gurasuak, *beti barri-*



*ketan jardun bagarik, isilik egon dedilla, erantzuten deutsa umiak. Jaungoikua gaiti eleisara juan dedilla edo konpesau dedilla esaten badeutsa gurasuak, bai, zeu bere eleisazalia izan zara ta, esanda, burla egiten deutsa umiak. Kura jaunaren aurrera eruanda, lotsia emon gura izan arren umiari, leen bere izanda dago ta ez deutsa ardura. Txaarrago. Alkate aurrera eruanda, egun batzubetan karzelaan eukitia, beste ainbeste. Txaarrago. Gurasuen lotsia galdua daukanak, kura jauneena ta justizijarena bere galdua duka. Zer egingo dau, bada, edo nora begiratuko dau alako guraso errukarrijak?*

Egija esateko, ez dakit, neure entzula onak, zein botikatan topau legian alako bijotz baten konsuelua. Baino orregaiti, ez dogu guztiz galdu biar topeetako ustia. Dendatu biar dogu ardura andijagaz, guraso tristeen pozgarrijaren billa. Medikubak esaten dabee, gatzari asipena ta sustraija topau ezkerro, osatuten edo osagarrija ezarten errazago dala. Jarraitu daijogun bada, kristinaubak, bide jakin oni. Aztertu daiguzan eskina guztiak. Artu daigun errazoe zuzenaren argiña eskubetan. Ta esaminau daiguzan, bat itxi bagarik, guraso zaurreen gatx negargarrijak euki legizan asipen ta sustrai guztiak. Au topau ezkerro, errazto erakutsiko jakue guraso guztiak botikako bat, artutene badabee, eureen gatxa osatuta, gozatuta, poztuta, alegrauta itxiko ditubana. Asi gaitezan, bada, gogoz.

Seme alabaak esker txaarrekuak, gogorrak ta lotsa galdukuak daukeezalako dira guraso zaurreen atsekaba ta pena guztiak. Examinau daigun, bada, orain, ia nundi edo zelan gogortu, lotsagaldukotu ta gaistotu dirian seme alaba orreek. Oh, guraso zaar, ume gaistuak gaiti negar mingotx egiten dozun, tristiak! Nok galdu ete ditu alan zeubeen erraijeetako seme alabaak? Galdu ete ditu Jaungoikuak? Ez. Jaungoikuak, onak, zintzuak, humildiak, lotsa onekuak ta santubak emon eutsuzan zeubeen umiak, batiatu ziranian. Eguzkija baino argijago, lirijuak baino ederrago, luurra baino humildiago, guztiz onduta, aingerututa bautismoti etxera eruan zenduzan zeubeen umiak. Ta bautismuan artu ebeen ontasunagaz, edertasunagaz, humildadiagaz, karidadiagaz ta bijotzeko biguntasunagaz gorde deutsuz Jaungoikuak sei zazpi urtera artian, errazoiaren usura eldu artian. Ta andi aurrera bere seguru gagoz, Jaungoikuak galdu ez ditubana.

Mundubak galdu ete ditu zeubeen seme alaba gaisto orreek? Ez. Diabrubak lotsa galdukotu ete ditu? Ez. Aragi deungiak ekarriz ete ditu, guraso zaarreentzat esker txaarrekuak, gogorrak ta lotsa gaistokuak izatera? Ez. Bada, munduba, diabrubia ta aragi bardinak dira zeubeen seme alabeentzat ta bestientzat. Ta orregaitino guraso edadeko asko dagoz, seme alaba humildiak, Jaungoikozkuak, zintzuak, maitiak ta estimaubak daukeezanak. Eureen zaartzan laguntasuna, poza ta atsegina emoten

deutseenak. Inos, eurak esan oi dabeen legez, buruko min bat, ez naibage bat emon ez deutseenak. Jaungoikuaren bildur santuban ta kristinau egijazko baten moduban eureen guraso zaarrai osasunian ta gaisuan, ari-maan ta gorputzian lagundutenean deutseenak. Auzuak ta errijk enbidija deutseen ume onak. Asko dagoz onetariko seme alabaak. Onako seme alaba bedeinkatubak ta estimaubak euki dabee, zeubeen seme alaba Jaungoikuaren bildur bagakuak ta bijotz gogorruak euki dabeen eriko munduba, diabrubia ta aragiña. Begaz, ez deutseegu onei eazarri biar, zubeen seme alabaak galduko erruba.

Lotsagaldukotu edo deungatu ete dira eurak eureen artian ta eureen bakarrian? Ori bere ez, kristinaubak. Eurekauten ez dira semiak deungatutenean. Bakarrian bere ez. Berekauten ta bakarrian deungatutekua ta gais-totutekua inor izan balitz, Moise santuba, Dabid erregia, Elias propeta andija, san Juan Bautista, Madalena, san Anton abata, san Paulo lelengo ermitainua ta santa Maria Ejijiaka izango zirian gaistuenak ta deungeenak. Bada, eurak dira bakarrian geijien azi ta mundukuen partetia eureenez luzaruuen bitzi izan dirianak. Gurasuak, begaz ez dira zubeen seme alabaak bere eureenez ta bakarrian gaistotu ta lotsagaldukotu.

Ze miraari izan da, bada, au? Jaungoikuak onak, inozentiak, santuabak ta aingerubak emon eutsuzan. Andi ona Jaungoikuak ez ditu galdu. Mundubak bere ez. Diabrubak bere ez. Aragijak bere ez. Eurak eurekauten bere ez. Zek egin dau, bada, galdu mendi andi au zeubeen seme alabeetan? *¿Quis semina vit hic zizania?* Leen humildiak; orain soberbijosuak. Leen zintzuak; orain ardura bagakuak. Leen ixilak; orain desbergontzau-bak. Leen zeuben bijotzeko maitiak; orain zeubeen errabijo ta gorrotogarrijak. Leen, auzoeraan zirian ume rik esanekuenak, ezertakuenak, Jaungoikozkuuenak ta karinosuenak zeubeen umiak. Alan esaten zenduban zeubek, zortzi amar urte areek zitubeenian. Ta orain diriane, ta zeubek dinozunez, guztien artian deungeenak, gogorreenak ta esker gaistokuenak, zek, bada, allagina engainau ta itsutu ditu zeubeen umiak? Zeubeen maijan ta alboan azi dituzunak? Bildur nas, gurasuak, zeubek galdu ete dituzun zeubeen umiak. Zeubek erein ete dozun azi txaarra eureen ari-meetan. Bainaz nas azartutenean *baietz* esaten, ondo pensau bagarik. Gogoratu daijan, bada, paska bat sustraiz; ia, iru, lau, zortzi, amar, amabi, amalau urte ingurura artian edo geijaguan askok, orain andi eginda zeure penagarritzat ta illgarritzat daukazuzan ume lotsagalduko orrei: 1º Zer esan deutseezun. 2º Zer erakutsi deutseezun. 3º Zer agindu deutseezun. 4º Zer parkatu deutseezun. 5º Zer entzun deutsubeen. 6º Zer ikutsi deutsubeen. Prestau entzutia, gurasuak.



**1º Zer esan deutseezu?** Urte bi edo iru zitubeeneti amalau amasei urte artian, dala nai txaarragaz, dala ainbagarik, kasik egunian egunian ta askotan egun bakotxian sarri esan deutseezu zeure umiai: *plagiaren izena, barrabasa, arraijua, diabrubia, bitzirik etorriko ez al dala, itoko al dala...* batian asariagaz ta purijagaz ta bestian ekandu txaarragaz. Lagun batek deskuiduan txopin bat eginda negarrez ikusi badozu zeubeen umia, altzuan artuta, palagauta, esan deutsazu: *ia arri bat artuta, musturrak zetako ausi ez deutsazan lotsa galdukuari.* Auzoko persona nausi batek belaarrri ondoko bat emoten badeutsa zeure umiari, ondo merezidu ebalako, persona aren ta aren leenagoko guztien kontra ez zara isilduten gaineko eguneetan, umiak entzuten deutsula. Sei urteti aurrera edo leenagoti zeure umiaren paltaak ta pekatubak gitxitutia, edertutia, ezkuteetia, eurak palageetia ta aboneetia izan da, zuk esan deutseezuna. Guztiek dakijean ta eskutau ezin dozun pekatu bat egiten badau zeure semiak edo alabiak, aren erruba bere inori ezarten deutsazu. Mutil deungaren batek galdu izango dau zeure alabaren onestidadia. Ordi jokolariren batek engainau izango dau zeure semia. Bestelan eureenez ez dakijee zure umiak gauza txaarrrik egiten. Enpin, bidauak, izen gaistuak, errazoe txaarrak, palagu aixetsubak, guzurrezko abonubak, zamai gorrotozkuak ta erakutsi pekatuzkuak dira, zuri seme alabaak umetati entzun deutsubeezan berbaak. Umiak arrotuteko, gaistuteko ta lotsa galdukotuteko erdijak bere asko dirianak.

**2º Zer erakutsi deutseezu?** Gauza onik bat bere ez. Gauza deungaak asko. Zubeen umiak zortzi, amar, amabi urtegaz dotrinarik ez ekijean, konpe seetan ez ekijean, meza bat Eleisiak aginduten daben moduban entzuten ez ekijean, kristinau izatia zer dan ez ekijean. Ta oraindino bere, etxuria daukeenez, ez dakijee. Arimaan on egingo deutseen ta salbeetako balijoko deutseen gauza bat sustraiz erakutsi ez deutseezu zeubeen umiai. Beste aldeti bost sei urteti aurrera, koloria mudau bagarik esaten zitubeen zure umiak aitaren ta amaren aurrian, auzuetaan ta errijan jazoten dirian ezdabaidaak, demandaak, okasinoiak ta nauskontu guztiak. Baita kanta desonestubak ta berba ezainak bere bost urte zitubeeneti aurrera. Zelan au? Zeubek erakutsita. Ez beraarijaz, ezbada umeen aurrian zeubek ardua bagarik sarritan esanda. Eurak esaten ditubeenian, zeubek sua zabalik eurai gustoz entzunda. Zeubek esaten dozuna ta egiten dozuna, umiak ikasten dabee. Au gaiti esaten eban jentil batek: Gurasuak, ez egizu berba desonestu bat esan inos zeubeen umen aurrian. Ez dagizula inos umiak ez entzun ta ez ikutsi, onestidadia ta modestija ez dan gauzarik. Begiratu biar jakue umiak ta eureen aurrian ibili biar da txito ardura andijagaz. Gaztiak izan arren umiak, ez euki euren bistaa ardura gitxiago. Umeen

arduriak geratu zagizala gauza txaar guztietati. Jentil baten konsejuba da au. Oh, ze ona guraso kristinaubentzat, dino jakitun batek.

**3º Zer agindu deutseezu?** On izateko esaten deutseegu, dinozu gurasuak. Ori bada zeubek umiai egiten deutseezun agindute guztia, turkubak bere ori egingo dabee. Baina, zelan aginduten deutseezu on izateko? Agindutia ta parkatutia gurasuarentzat an an dira. Aginduten deutseezu geijeenok, nos edo nos bederatz edo amar urte ditubeenian, mezatarra eleisara juateko, mezia entzuten irakatsi bagarik. Baita dotrinia ikasteko bere, irakasten kansau bagarik. Baita konpesetara juan biarko dabeela bere, konpesetia zer dan ez dakijela, ta zeubek juaten urtian bein edo birritan baino ikusten ez zaitubeela. Ara emen, kristinaubak, alako gurasuen aginduterik oneena ta biarra egitia. Baina, zer geijago aginduten deutsazu? Aztertu daigun sail au. Aginduten deutseezu, bost, sei, zazpi urte ditubeeneti, esanak ondo egitia gaiti ta biar asko egitia gaiti, *apainduta, piestara eruatia edo bialdutia.* Guraso askok ez daukee edo ez dakijee beste pozgarrikin, ume inozentiak, gatz bagakuak, malezija bagakuak, aingeru dirianak poztuteko, isilik eukiteko, esanak ta biarra eragiteko; ez daukee, dinot, edo ez dakijee beste pozgarrikin edo saririk, piesta batera, erromedija batera, sarau batera, bigira batera edo dantzako ibilte batera agindutia baino. Ah, guraso pobriak! Ez daukazu beste gauzarik, zer agindu. Ah, guraso ez jakinak! Ezin asmau dozu beste sari bat. Gauza buru gitxikuak zara. Ondo eginaren pagutzat ta saritzat aginduten deutsazu umiari sei zortzi urte ditubanet i amasei edo amazortziragino pekatuko eskolia, pekatuko lagunak, pekatuko okasinoiak.

Esaten deutsazu ume txikijari edo azijagari: Esanak ondo egiten baditzu, neuk eruango zaitut edo bialduko zaitut piestara, edo saraura, edo bigirara, edo erromedijara, apainduta. An ikasiko dozu munduba, diabruba ta aragija serbiduten. An ikasiko dozu, an erakutsiko deutsubee, bautismo santuban egin zenduzan promes andijk ta santubak ukatuten. An ikasiko dozu Jaungoikua saldutene, Jesukristo desondretan, ainjerubak tristetutene, santubak lotsatutene, arimia mantxeetan ta zeruba galduen. Egizuz ia, umia, esanak ondo ondo, neuk aginduko deutsut piestara. An ikasiko dozu zeure gorpu[t]za apaindutene, guzurrak esaten, etxeko gauzaak oostutene, adiskide txaarrak egiten, zelo arrabijaubak artutene, onestidadia galduen, enbidijaz igartutene, kodizijaz sikitutene, gorrotoz ixotene, luxurijaz atsitutene. An ikasiko dozu kristinau izatia aaztutene, Jaungoikuaren bildurra boteetan, pekatubak pena bagarik irunsten, nasai izaten, inozentiak engainenetan, enbusterijak zabaldutene, inoren ondria galduen, arrotutene, naustutene, lotsa galdukotutene, Jaungoikua opendidutene



ta diabrubia serbiduten. Aginduko deutsut, umia, piestara, zeindan birtute guztien ondamendija edo galdu lekuba ta bizijo guztien edo pekatu guztien eskolia edo ikasi lekuba. Bai, gurasuak. Au da Eleisiaren santubak ta erakuslaakorrako zeuben piestoi ta dantzoit egiten deutseen ondra ederra. Aginduko deutsut piestara umiari esatia da, esatia: Aginduko deutsut pekatu egiten; aginduko deutsut Jaingoikoa opendifiduton; aginduko deutsut diabrubia serbiduten; aginduko deutsut kondenetan. Ta ez ete deutseezu inos agindu zeuben umiai, sagarra, gaztaineria, egorra, azia, indiabobia, kipulia ta beste inoren gauzaak oostuteko ta etxera ekarteko? Ah Gurasuak! Ori zeubek jagingo dozu. Ikutsi daigun zer parkatu deutseezun zeuben umiai.

4º *Zer parkatu deutseezu?* Esan egizu, gurasuak, zer parkatu deutseezu zeubeen umiai? Parkatu deutseezu, ta ezin ukatu zinai: 1º Amaren bularrrian egozan artian, aitari ta amari txopinga egitia, jotera egitia, sinu egitia ta zamaitutia; menturaz aitak amaren kontra ta amak aitaren kontra era-kutsita ta lagunduta. Amak joten ebanian, aitak abonau umia; aitak lotsia emon gura deutsanian, amak beste ainbeste. 2º Parkatu deutseezu umetati, txikitati demoninua, diabrubia, barrabasa ta beste bidao ta maldezinoiak esaten, zeubek entzuten deutseezuzala. 3º Parkatu deutseezu, auzuetako persona nausijai lotsia galduen ta deungaro erantzuten. Baita zeubeen adiskide ez dirian auzuai, edo soluan, edo esijan, edo ganaduban, edo osterantzian bengeetan ta kalte egiten bere. Zeubeen auzo arerijuai umiak kalte egin arren, zeubek ontzat emon. 4º Parkatuten deutseezu txiki txikitati auzo inguruban dirian nausikontu guztiak, gorrotuak, kereilaak, zer esanak, eskandalubak, neska mutileen arteko adiskidetasunak, amoriak, jazotziak ta beste sekula umiak entzun biar ez ditubeen saltsa guztiak, zeuben aurrian konteetan. Zortzi amar urteko umiak dirianak esaten ditubeez ziatz ta sustraiz, gurasuak barreka eurai entzuten dagozala. Lastimia! *Dotrina ikasten dira atzeratzubak, ze g[u]eure umiak baino akordubaagorik ta gauzaak polituago esaten ditubanik, eureen edadekorik bat bere ez dago.* Au esaten dozu, gurasuak, arro arro eginda, zeuben umiak gaiti edade atan. 5º Parkatuten deutseezu, zeuben eukijari ta bitzi modubari ez jagokan moduban jantzten. Balitz Jaungoikuaren etxerako, Jesusen mai santura edo aurrera arimako ta gorpuzzeko jantzi ederragaz agertuteko, Jesusen begi garbijak ondo eritxi dagijuen, alegin guztia da gitxi asko. Bainaz ez, malpeku. Zubien umeen apaindurria ta jantzi neurriti kanporakua, ta ez gitxitan onestidade bagakua, da piestarako, plazarako, saraurako, bisitarako, munduba, diabrubia ta aragiña serbiduteko. Zeinbat gurasok, endamas amaa, eurak eleisarako jantzi jaso bat ez daukeela, arrastaka ta gosiagaz

batuta edo zorrian apaindutene ditubee umiak, ez jagokuen moduban ta eureen eskubakin jantzita gero, zuaz esanda, lotsa gaistuan bialdutene ditube pekatuko ibilte nasaijetara? Ta au nosti? Umetati, zazpi, amar urtetia aurrera. Baita parkatuten deutseezu zeuben seme alaba gaztai nai dabeen lagunakin, juan, etorri, egon ta ibili, gura dabeen orduban ta gura dabeen moduban egiten. Alan dabilz zuben umiak, zeubek dakizula ta areen peligruba ezaututene dozula, mutilak neskatzakin ta neskatxaak mutilakin, gabak denporaak emonda. 6º Parkatuten deutseezu pekatu mortalian egoten. Bakizu zuzen, zeure semiak edo alabiak pekatu mortala egin dabena. Jaungoikuaren agindu santu bat gauza andijan ausi dabena. Bakizu pekatu mortal bat edo asko egin ditubaneti, gaineko ill bijan, lauban edo geijaguan konpesau ez dana. Bakizu diabrubagaz lo egin dabena. Ta ez deutsazu kasurik egiten. Oh, bijot[z] gordineko gurasuak umeentzako! Parkatuten deutsazu... Ezer bere sguaza gatzik parkatu biar ez zeuntsala, au guztiak parkatu deutsazu zeure umiari. Ta zer entzun deutsabee? Ikusi daigun.

5º *Zer entzun deutsabee?* Ah kristinaubak! Lotsa izan leiteke, guraso askori umiak txikitati entzuten deutseena esaten. Entzun deutsabeez zeure umiak zeure aoti: Bidauak, maldezinoe ikaragarrijak, suzko ta purijazko zamai bildurgarrijak, banidadezko ta arrokerijazko berba aixetsubak, zeuben gaztetako desapijuak, peliadaak, burrukaak, orditutiak, piker-dijaak, bengantzaak, errondaak, desonestidadiak, kortejubak... Entzun deutsabee: Eleisako gauza santubai, sermoiai, abade jaunai ta relijiosuai burla egiten, barre egiten ta desprezijeetan. Entzun deutsabeez: ipoin berdiak, berba zatarrak, kontu loijak, errazoe bajubak, prestuezak ta gizatasunaren lotsagarrijak. Entzun deutsabeez: berba galdu ta errazoe txatxar asko zeure gurasuen kontra, senideen kontra, lagunaren kontra ta umeen eureen kontra, auak ekarri deutsun guztia, kristinaubak ez bazina legez. Au guztiak entzun dabee sarritan zeure umiak zeure aoti. Ta zer ikutsi deutsabee? Gogoratu daigun au bere asko luzatu bagarik.

6º *Zer ikutsi deutsabee?* Azartutene nas, gurasuak, esaten gauza on asko ez deutsubela zeubeen umiak ikutsi. Jai domeeketan zelan bait mezia entzutia. A bere beti ez. Errosario bat erdi luan edo erdi agidaka ta pri-saka errezeetia. A bere zubeetati askok gitxitan edo inos bere ez. Beste askok negu partian, udaan ez. Ama Birjina guztiz santiaren debozinoia udaan mingotxago balitz legez. Ta urtian bein edo birritan ozta baten konpesetara juatia. Ara menen, kristinaubak, zeuben umiak ikutsi deutsabeez gauza onik nausijeenak. Ta gauza txaarrrik ikutsi ete deutsabee? Ah! Au zeubek dakizu. Zeinbat bidar ikutsi zaitubee ordituta? Zeinbat



bidar, gurasook alkarri agidaka, alkarri bidaoka ta alkar joka? Zeinbat bidar joko gaistuetan? Zeinbat bidar auzuakin asarratuta, alkarren gorrotuan, berbarik egin gura ezda, zamaika? Zeinbat bidar adiskide gaistuakin, etxe sospetxakuetan, ibilte nasaijeetan ta pekatuzkuetan? Zefilnbat bandade? Zeinbat kodizia? Zeinbat engainu? Zeinbat lapurreta txiki ta andi? Zeinbat moda indezente? Zeinbat desonestidade? Zeinbat pekatu ikutsi deutsabee zeure umiak txikitati asi ta andi egin arte guztian? Zeubek daki zu, gurasuak, zeuben bitzitzia zer izan dan. Baita zeuben umiak bere bakijee. Baita zeuben auzuak bere.

Oh, guraso zaarrak! Oh, seme alaba gaistuak daukazuzan errukarrijak! Ez kendu inos isipilu onetati zeubeen begijk. Euki beti goguan, ia zeubeen umiai zer esan deutseezun. Zer erakutsi deutseezun. Zer agindu deutseezun. Zer parkatu deutseezun. Zer entzun deutsabee. Ta zer ikutsi deutsabee? Ez bein bakarrik, ez egun baten, ez urte betian, ezbada eureen denpora guztian. Amaren bularrari tiraka egozaneti, zeubek baino andijago ta senduago egin artian. Eureen burubeen jaube izatera eldu artian. Ojei edo ogeta bi urtera artian. Jaungoikuak emon eutsuzan ume santubak zerurako azteko denporaan. Landara txiki ta bigun areek zuzenduteko, zeubeen eskubeetan egozan edadian. Ordubar zeubek umiai esan deutseezun, erakutsi deutseezun, agindu deutseezun, parkatu deutseezun, entzun deutsabee ta ikutsi deutsabee guztia, esan daikegu, izan dala, zeubeen ume inozentiak, gatz bagakuak, grazijazkuak, santubak, aingerubak, argizai biguna legez edozein eratara ekarten txito errez zirianak, galduko, deungatuteko, nasaituteko, bijotz gogortuteko, lotsa gaistotuteko ta pekatarituteko. Esan daikegu, zeubek dinozun moduko ume gaistuak eukitia, zeubeen erruba dala. Zeubek galdu dituzula zeubeen umiak.

Ze erremediojo, bada, orain? Jesukristo geure Jaunak, Lazaro biztu ebanak, Jairoren alabia biztu ebanak, gaisuak osatu zitubanak, itsubai bisita emon eutseenak ta beste mirari andijk egin zitubanak, erremedijau legiz, nai izan ezkero, zeubeen seme alabaak bere. Baino onako milagro gitxi ikusten dogu, guraso deungeen ume gaistuak onduteko. Osteranzian, zer egin daizeku zeubeen ume deungaakin guraso zaar tristiak? Zeubek baino senduago dira. Karzelaan egun batzubetan egon arren, ardura ez deutsee. Konpesoriak asolbidu ez arren, ardura ez deutsee. Sermoetara juaten badira deskuiduan, sermoiari ta sermoeginari burla egiten deutsee. Zer egingo dabee, bada, guraso zaar errukarrijak?

Ez dago, kristinaubak, nik dakidanez, erremediojo bat baino. Zer, bada? *Isilik egon ta padezidu*. Seme alabak deungaro azi dituzulako, guztia ta geijago zeubek merezidu dituzula sinistu, ta *isilik egon ta padezidu*. Seme

edo alaba gaistuak bida bat egiten badeutsu, *isilik egon ta padezidu*. Sorgina edo barritsuba esaten badeutsu, *isilik egon ta padezidu*. Burla edo sinu egiten badeutsu, *isilik egon ta padezidu*. Zeure gaztetako paltak ta lotsaarijak arpegijan esaten badeutsuz, *isilik egon ta padezidu*. Purijaz sakatu bat edo botakada bat emoten badeutsu, *isilik egon ta padezidu*. Oian makal zagozan lekura, arto paska bat nekez gogo bagarik jauregiteen badeutsu, *isilik egon ta padezidu*. Berba gogorrak ta errazoe zitalak ta minberaak bekoki illunagaz ta asariagaz esaten badeutsuz ordubar ordubar, edo belaarri ondo-ko bat eskintzen badeutsu, *isilik egon ta padezidu*. Eureen moduko lagun gaiski azitakoz etxia beteta, gau guztian zeure aurrean milla desonestida-de ta pekatu egiten baditubee, *isilik egon ta padezidu*.

Zeure semia edo alabiaiak, ezkondu baino leenago seinak azteko etxera ekarten badeutsuz, edo kanpuan zeure patrikarati azi biar baditu-zu, *isilik egon ta irago*. Auzuak ta erriko jentia, zeure umiaren gatz eginak, lotsa txaarra ta eskandalu kaltegarrijak areen gorrotoz esaten ikutsten baditu-zu, *isilik egon ta irago*. Justizija etorten bajatzu gabaz edo egunaz zeure umia preso artutera ta karzelara eruatera, *isilik egon ta irago*. Zeure umiak inori egin deutsazan kaltiak ta atsekabaak gaiti, eskribau batek etxian dozuna enbargauta eruaten badeutsu, *isilik egon ta irago*. Zeure umia, edo erriti atera dabeela, edo karzelaan daukeela, edo galereetara erbestetu dabeela, edo urkatu dabeela entzuten badozu, *isilik egon ta irago*. Zeure semia edo alabia kondenau dala sinisturen badozu ta inpernuko demoni-nuen laguntzat konteetan badozu, san Dionisiok dinuan gurasuak legez, *isilik egon ta irago*. Ta zeu, leenago illda, inpernura juaten bazara umiak gaiski azi dituzulako, santa Brijidak ikutsi eban ama zori gaistoko bat legez, edo zeure umiak eta zeu, alkarri pekatu eraginda, alkar betiko galdu dozulako, zeu umiai ta umiak zeuri madarikatuka inpernuban beti egon biar badozu, Granadako Aita Prai Luis beneragarrijak dinuan gurasua ta umia legez, *padezidu ta irago, irago ta padezidu*.

Ez dago, neure entzula onak, beste botikakorik. Ez dago beste poz-garrirrik, ume lotsa gaistokuak ta bijotz gogorrekuak daukazuzan guraso zaar tristiontzat. Jaungoikuak zuzenak, humildiak, esanekuak, maitetsu-bak ta txito onak emon eutsuzan, batiatu zirianian. Zeubeen kontura egon dira. Zeubek azi dituzu. Ta zeubek galdu dituzu. Alperrik dira zeubeen oraingo negarrak. Alperrik dira kexaak. Alperrik da, kriatura guztiai diadarka ta bidaoka umeen kontra orain egotia. Alperrik da erijotziari dei egitia. Alperrik da desespereetia. Lau urte, sei urte, zortzi urte, amar urte, amalau, amasei urte zitubeenian, edadiari jagokan modubar, bajau bazeuntseez zeubeen umiai idunak, *curva cervicem filii in juventute; domau*



bazenduz, ezi bazenduz, txikijak zirianian, *dum infans est*, karinuagaz, maitetasunagaz, ondo esanagaz ta obeto erakutsijagaz, exenplu onagaz, gauza txaar bat sekula umeen aurrian egin ezagaz; ta au asko ez bazan, gastigubagaz, zurriagaz, saijetsak berotubagaz edo domaubagaz, *tunde latera eius*, ah! beste egun batzuk ikutsiko zenduzan zeure zaartzan munduban. Beste ditxa bat eukiko zenduban zeure erijotzaan ta zeruban. Bainan esan legi, oi danez, zeure umiak gaiski azijagaz, zeuretzat ta zeure umeenzat amai negargarri bat prestau dozula. Orain zaartzan umiak emoten deutsabeezan pena, atsekaba ta naibage orreek diriala, eurak eta zeuk amai bagarik beste munduban irago ta padetziduko dituzuneen asieria.

Gauza bi dira gurasuak umiari ondo goguan sartu biar deutsazanak: Bata, maite dabela. Bestia, gauza gatzik parkatuko ez deutsala. Umiak sinistuten badau, iru urte ditubaneti amazortzi ogeiragino, bateti, aitak eta amak maite dabeela, ondo gura deutseela, zaintuko dabeela ta jagokana, karinoz emongo deutseela; ta besteti, gauza txaarrrik, pekaturik, lotsa txaarrrik, ezauberazko paltarik, ez txikirik ta ez andirik parkatuko ez deutseela, nekez atsekaba emongo deutsa alako umiak guraso zaarrai. Umiak ikusten badau, gurasuak diriala kristinaubak, Jaungoikozkuak, pekatubaren gorroto andikuak, nekez izango da kristinau deungia ta lotsa txaarreku alako umia.

Oh, gurasuak ta umiak! Zeinbat jazo andi irakurten dirian, guztion erakutsirako! Argitu, bada, zeubeen begijk. Aukeratu oraindixe, naijago dozun aldia. Edo ume lotsagaldukuak, zaartzatxaarra ta ari darraikon erijotza desditxauba. Edo bendizinoezko umiak, zaartzatx ondrauba ta zorijo-neko erijotzia. Oh, Jaun zeruko! Oh, Guraso nausija! Oh, guztien Aita bedeinkatuba! Zeugana biurtutengara bijotz osuagaz. Zeuri erregututengar deutsugu arima arimati, erakutsi dagjeezula guraso guztiai, eureen seme alabaak zerurako azteko jakiturria balijotsuba, ta ume guztiai, eureen gurasuak maitetuteko ta ondreetako eginbiar estuba ta grazijotsua. Eskatu dagijogun, kristinaubak, mesede au Aita zerukuari bere miserikordija neu-rrri bagakua gaiti, Jesusen pasinoe santuba ta erijotza penazkua gaiti, ta Ama Birjina maitegarrijaren erraija bigunak gaiti. Ta onen ondorik geure arimako grazija ta zeruko betiko ditxa andija, zein opa deutsudan guztioi. Aitiaren, Semiaaren ta Espiritu Santubaren izenian. AMEN.